

LANDER GARRO

GERRA TXIKIA



LANDER GARRO

Gerra txikia

SS narratiba
Susa

Liburu honen salneurria: 3 € + BEZ.
Ordainketa egiteko, edo liburu gehiago eskuratzeko:

<http://susa-literatura.com/ebook>

© 2014 Lander Garro

© edizio honena: Susa

cc-by-sa Creative Commons Aitortu Partekatu

<http://creativecommons.org/licenses/by-sa/3.0/deed.eu>

Lehen edizioa paperean: 2014ko maiatza

Edizio hau: 2014ko maiatza

Susa: 317 posta kutxa / 20800 Zarautz

Adoain Aita 92 / 31015 Iruñea

Zubitalde 21 / 48195 Larrabetzu

Telefonoa: 943 83 26 55

Elektroposta: susalit@armiarma.com

Webgunea: <http://susa-literatura.com>

Zigorri

*Bixente Perurenari,
Aingeru, Argi, Ester eta Blankiri*

Gogoratu behar ditugun gauzak ahazten ditugu
eta ahaztu behar ditugunak gogora etortzen zaizkigu.

CORMAC MCCARTHY

Bere deabruak menperatutako izakia da artista.

LLIAM FAULKNER

Tristea duk gerra, maitea, eta ez gudariantzat soilik.

EIDER RODRIGUEZ

Goizeko lehen eguzki printzekin esnatu zen Xabi. Aitak behatz lodia estutuz esnatzen zueneko a gogoratu zitzaion, eta bizitzan lehen aldiz faltan bota zuen aitarien ohitura zakar hura.

Ama, Gotzon, Nagore eta laurak trena hartzera abiatu ziren Martin Etxeberria kaletik gora. Xabik nahiago zukeen autoz joan, baina ez zuten autorik, eta gainera amak ez zekien gidatzen. Alde guztietara begira zihoan Xabi: elizako kanpaiei, Gaztaño auzotik jaisten zen jendeari, azokara zihoazen atsoei, azokako sarreraren ondoko mahaitxoan galtzerdiak eta galtzontzilloak eta baratxuri txirikordak saltzen zituzten ijitoei. Vespa motor batean zetorren gizonari erreparatu zion gero: motorretik jaitsi eta egurrezko kutxak hartu zituen, giharrak tenk eta atzamarrak gorri, azoka barruan desagertu aurretik. Gizonaren Vespa eta giharrak ez ezik haren hanka makotuak desiratu zituen Xabik, futbolari hankak, ez baitzituen barrurantz okertutako bere belaunak maite.

Pozarren zegoen. Trenak aieru onak ekartzen zizkion, trolebusak bezala. Eguneroko bere bizitza txikia

baztertzeraz zihoan, mundu zabala besarkatzeko, ibilbidearen jomugan zernahi zegoela ere.

Topoa, horixe zen beste mundu batzuetarako ataka: Donostia egon zitekeen, etorbide dotore eta zinemekin, hondartzarekin eta hondartza osteko izozkiekin; edo Pasaia, eta hango garabiak eta kaia, ur uherretan ortzadarraren kolorearekin zabaltzen zen gasolio usaina, ontzi handi herdoilduak, taberna ke-tsuetako galegoen solasak, izebaren etxe argitsua, Milaren denda zaharra... hantxe erosi baitzituen Xabik Fournier etxeko rallye autoen kartak, trenean eseri orduko poltsikotik atera zituenak.

- Jokatuko al dinagu partida bat? -esan zion Nagoreri.

- Buruz dakizkik denak -erantzun zuen arrebak, gainean eraman ohi zuen kuxinaren kremailera laztanduz, Xabirekin jokatu zuen aldi bakanetan jasotako jipoiak akorduan.

Joko sinplea zen ordea. Karta bakoitzean auto bat ageri zen, bere ezaugarri teknikoekin: motorraren tamaina, minutuko erreboluzioak, abiadura, potentzia, zilindroak, pisua, dena zenbakiz adierazita. Kartak biren artean banatu eta elkarri kartak irabaztea zen erronka, gainean suertatzen zen kartaren zifra egokie-

na erabiliz. Bazeuden auto onak (Mercedes 500SLC edo Porsche 911 Carrera) eta bazeuden auto ahul eta motelak (Fiat 131 edo Honda Civic). Eta egia zen, denak buruz zekizkien Xabik.

Areriorik gabe, kartak aztertuz eta autoak miretsiz gozaten zuen, aldika paisaiari begira: eguzki izpiak zuhaitzen hostotzak urreztatzen, belar-metak soroe-tan logale, burdinbideetako harriak atzerantz desagertzen. Trena tunelean sartu zen eta Xabik, eskuak belarrira eramanda, bere isla ikusi zuen berinetan. Gustukoa zuen bidaiariak berinen bidez espiatzea.

Ama bere alkandora usnatzen ari zen, bi poltsa handiak hankartean: aitarentzat arropak eta janariak. Baina zergatik janariak? Ez al zegoen jatekorik aita zegoen tokian? Gotzoni galdetu nahiko ziokeen, baina anaia zutik zihoan, burdinazko barran jira eta bira. Eta harengana joan ez joan erabakitzen ziharduen Xabik, kontrolatzailea, txapel urdinez jantzitako gizon bizarduna, bagoian sartu zenean. Gotzoni zeharka begiratu eta txartelak zulatzeari ekin zion: «Txartelak?, oso ongi, eskerrik asko; txartelak?, oso ongi».

Santiagoko zubira iritsi zirenean bidaiariak altxatzen hasiziren. Muga zen.

- Galdetuz gero, ez ahaztu, *tia Doloresenera* goaz -esan zuen amak-, *a San Juan de Luz*.

- Tia Dolores, tia Dolores, tia Dolores -errepikatu zuen Xabik-. A San Juan de Luz, a San Juan de Luz, a San Juan de Luz.

- Xabi, hago isilik -agindu zion Gotzonek.

Bidaiariak trenetik jaitsi bezain laster marroiz jantzitako polizia bat igo zen barruak ikuskatzera. Kaskorik eta eskopetarik gabe zihoala ohartu zen Xabi, baina pistola eta makila zeramatzala gerri-bueltan. Ama Mari Karmenek eskutik tira zion semeari, eta eskailerak jaitsita eraikin luzean sartu ziren: lauza gorri distiratsuzko korridore handia, alde batean leihatila, parean zurezko barra luzea, bi aldeetan poliziak (eskuak atzean) ilaran zetozen bidaiariak zelatatzen. Leku ilun eta beldurgarria iruditu zitzaion Xabiri, leihatilara gerturatu ahala beldurgarriagoa, bertara iritsita-koek koldartuta ziruditelako, agian, eta agerikoa zelako azalpenak ematen ari zirela, Xabik gurasoei bere errugabetasuna erakusteko erabili ohi zuen ontasun bortxatuaren doinuarekin.

«iPasaporte!», aditzen zen aldiro.

Zurezko barraren puntan zeuden polizietako batek, poltsa seinalatuz, keinu bat egin zion leihatila-

tik pasatutako gazteari; hark poltsa barra gainean utzi eta poliziak, urrats bat aurrera emanda, poltsa barrua arakatu zuen, jantziak eskuetan hartu eta barran utziz. Bukatutakoan urratsa atzera eman zuen poliziak eta gazteak bere puskak bildu zituen, korridorearen amaierako atetik presaka atera aurretik.

«iPasaporte!».

Tia Dolores, tia Dolores, tia Dolores. Ugartetarren txanda zen. A San Juan de Luz, a San Juan de Luz, a San Juan de Luz.

- ¿A dónde van?

- A San Juan de Luz.

- A San Juan de Luz -ostera poliziak, baina galde-tu gabe, baieztapena eginez.

- Sí.

- ¿De paseo?

- Bueno, a casa de la cuñada.

- De la cuñada - poliziak, temati-. ¿Los niños via-
jan con usted?

Zeinen galdera ergela, pentsatu zuen Xabik, beste poliziek poltsak miatzen zituzten tokira begira. Eskua patrikan sartu eta atera zebilen ama, urduri zegoe-nean egiten zuen bezala, eta horrek are gehiago estu-tu zuen Xabi, ama ez baitzen arrazoi sendorik gabe ur-

duritzen. Poliziaren jakiteko goseak ez zeukan mugarik, irudiz, galdetu eta galdetu jarraitzen baitzuen atzekoen itxaronaldia luzatzeko kezkarik gabe. Azkenean joaten utzi ziren.

Korridore amaierako poliziaren pistolari begiratu nahi izan zion Xabik, baina amak eskutik tiratu eta airean eraman zuen kasik. Bagoian sartu eta aulkian eserita, putz egin zuen amak. Xabiren begietan Bidasoa ibaia eguzkipean dirdaitzen. Trenaren burdinazko binbilikak zorionaren mailukadak ziren.

Alboko eserlekuan adineko senar-emazteak. Gizonak txapel txikia zuen buruan, arrautzaren gainean txanpona iduri.

- Ya estamos en Francia -esan zion andreari.

Urriko eguzki hotzak gauzen kolorea berpizten zuen: Hendaiaiko geltoki aldameneko zuhaitzen hostotza herdoiltzen hasia, etxeetako leiho nahiz ate gorri eta urdinena, aita bermatuta zegoen auto txiki berdexkarena. Mende bat eta gero hantxe baitzegoen azkenean aita, besoak gurutzatuta, mahuka motzeko alkandora soinean, ile-xerloa buru soilaren alde batetik bestera orraztua. Ikusi orduko harengana lasterka abiatu zen Xabi, segika zituela Gotzon eta Nagore, poltsekin balantzaka zetorren ama atzean utzita. Aitak bi urrats aurrera egin eta, zalantza baten ondoren, semea musukatu zuen, bizarraz masaila urratuz. Noiztik ez zuen aitak musukatu?

65 egun ziren aita Bilbora joana zela, uholdeek eragindako txikizioak konpontzen laguntzera. Lehen egunetan Xabik arretaz jarraitu zituen albisteak sukaldeko telebistan, urdinez jantzitako boluntario bizardunen artean aita ikusteko irrikan. Baina han dena zegoen lohipean: autoak, etxeak, dendak, zuhaitzak, kale-altzariak. Aita ere irentsi ote zuen basak?, galdetzen zuen Xabik bere kabutan, bihotza taupaka buru soil-

duren bat ikusi orduko, baina kamerak beste norbait filmatzen zuen berehala: elkarri fardel handiak pasatzen zizkioten bi morroi, hankak uretan; DYAk erreskatatutako agureak zodiacetan lokaztegian barna, txokolata-ibaian intxaur oskolak nola; atsoa txabusina soinean etxetik ateratzen, txoriaren kaiola eskuan. Burdin-korapilo bihurtutako autoen ikuskizunak hotz uzten bazuen Xabi, txoria salbatzeagatik hiltzeko prest zirudien atso haren bakardade erabatekoak jo eta txikituta utzi zuen.

65 egun.

- 31 minutu eta 22 segundo -iragarri du Nagorek, Oreretatik Hendaiarako bidaia neurtuta.

- Geurea al da autoa? -galdetu du Xabik.

- Bai auto zatarra! -zapuztu da Gotzon.

- Zatarra? Noiz ikusi duk hik halako auto dotorea?

Peugeota duk!

- Peugeot? -muturra okertu du Xabik, rallye kartetan Peugeotik ez dagoelako.

- Peugeot marka ziurra duk -aitak, sinesmen osoz.

- Erosi egin al duzu? -galdetu dio Nagorek.

Aita-amek begiak gurutzatu dituzte. Amak hitz egin du:

- Tira, saiatu ere egin beharko dugu, ala? Ea, goazen!

Autoaren barrualdeak aitaren Ducados zigarroen usaina duela konturatuta, Xabiri otu zaio agian auto txiki hartan biziko dela aita, baina segituan baztertu du ideia. Aitak hurrei so egin die atzeko ispilutik autoa martxan jarri aurretik. Xabik burua atera du leihotik: kale hutsetan ibiltari bakartiak, txanoa buruan, ibili makalean, zakurra paseatzen; saltokietako idazkiak frantsesez: «boulangerie-pâtisserie», «chasse-pêche», «librairie-papeterie». Itxuraz aitak ongi ezagutzen ditu inguruok, bizitza osoa bertan eman bailuen, ordura artean bizitza bikoitz bat biziz. Beharbada bigarren sendia dauka hemen: emazte panpoxa, seme-alaba pinpirinak, halakoxeak iruditzen baitzaizkio bazterrok Xabiri, apainak, garbiak, arrotzak.

65 egun eta hantxe zeukan aita, betiko beso gihartsuak, betiko ile luzeak buru atzealdean, betiko ile-xerloa gainean trabeska, airean dantzan orain, kanpora jauzi egitera balihoa bezala. Bolanteari eusten zion esku bakarrean jarri zuen arreta, aitaren gidatzeko estiloarekin beti bezain miretsita. Bihurgune itxian itzuli malgua egin zuen eskuaz, hain arin eta ze-

hatz non rallyetako gidarien antzera egingo zuela pentsatu baitzuen semeak.

- Aita, noiz itzuliko zara etxera? -galdetu zuen Nagorek.

- Etxean nago hemen.

- Baina geure etxea ez dago hemen!

- Ez nago hemen nahi dudalako, hemen egon behar dudalako baizik.

- Zergatik?

- Hargatik.

Aitaren betiko erantzun mentsa: *Hargatik*. Gauzak ez dira sekula *hargatik*, esan zuen Xabik bere artean. Aita ikusi edo ez ikusi, kontu larriegia zen *hargatik* batekin ebazteko. Aitaren patxada nahasgarria suertatzen zitzaion: ez al zen beren larriminaz ohartzen? Aldi berean, seinale ona ere izan zitekeen: aita lasai baze goen, halaxe behar zuten beraiek ere. Baina nola joka zezakeen hain axolagabe, etxera itzuli ezinda? Galde-tzeak, ordea, beldurra ematen zion Xabiri, edo lotsa, edo biak.

- Zergatik ezin duzu etxera itzuli? -ekin zion Gotzonek, Xabiri gogoetak lapurtuz.

- Ez didate uzten.

- Nork? -estutu zuen Gotzonek.

- Ez didate uzten, eta kito.

Nori buruz ari zen? Xabik ez zuen entzundako ezer ere sinesten, eta beldur zen aitak ez ote zuen Hendaian geratzea nahiago, han gustura zegoelako, ume-rik gabe, edo beste ume txukun ergel batzuekin. Ziur belkrozko oinetakoak erabiltzen zituztela. Sabeleko korapiloa koska bat gehiago estutu zitzaion.

- Ez al da polita Hendaia? -esan zuen aitak, zigarrreta piztu aurretik.

Baietz esatekotan egon zen Xabi, hala baitzen, baina zer axola zuen polita edo zatarra izatea? Han geratzeko arrazoiak zer zeukan edertasunarekin zerkusirik?

Horixe pentsatzen ari zen, aita *granadina*-z mintzatzen hasi zenean: han inork ez zuela muztiorik edaten, *granadina* baizik, edo bestela *mantalo*, edo *orangina* aukeran. Izen arrotzak denak, Xabiren irudiko, eta seme-alabak limurtzeko erabiliak, mutilak ongi igartzen zuenez. Zigarretari hurrupa bat kendu zion aitak, semearen saminari entzungor, eta irribarrez bi zuhaitzen artean sartu zuen autoa. Krak! egin zuen esku-frenoak. Amaitua zen txangoa.

Etxaurrean Hôtel Hendayais zioen pinturazko idazkiak, baina barrualdean taberna zegoen, taberna zahar eta arraroa: ezker-eskuin formikazko hiruna mahai lerroan, paretei jarraituz moleskinezko eserleku gorri barrubigunak, mahaien beste aldean zurezko aulkitxoak, eta Erdiko pasabidearen amaieran zur eta marmolezko barra altu-altua. Jendetza eta zarata zegoen, musikarik ez.

- Eser zaitetze hor! -agindu zuen aitak telebistaren azpiko mahai hutsa erakutsiz.

Gurasoak barrara bildu ziren, bezeroak agurtzera; bizkarrekoak aitarentzat, irribarreak amarentzat, denak ziren lagun.

- Aitak horrenbeste lagun zeukanik -esan zuen Xabik.

- Aitak ez al du etxera etorri behar? -galdetu zuen Nagorek.

- Nik al dakit -marmar egin zuen Gotzonek.

Xabik soinean zeraman txandal horiari begiratu zion adoretzeko, eta gurasoak bilatu zituen begiekin. Ama aizkolari edo basagizon itxurako bizardun ile

gorri batekin ari zen, umeei begira biak. Gizona mahaira gerturatu zitzaien, koadrozko alkandoraren mahukak besoan bilduta, harrizkoak ziruditen eskuetan platertxo bana. Platertxoen edukia eskaini zien, baina han zegoena ezkutatzuz, emango dizuet ez dizuet emango, joko dibertigarria hasieran baina gogai-karria ondoren, erraza zelako plateretan jateko goxokak izango zituela asmatzea. Zertara zetorren hainbeste antzerki?

- Garbantzuak!

Hantxe zeuden garbantzuz betetako platerak eta umeak haien aurrean, barre edo negar egin ez zekite-la, egindako txantxaz harro ageri zen gizon ustez sinpatikoari begira; eta hala geratuko ziren, amorratuta, gizonak patrikatik koloretako goxokiak atera izan ez balitu, haiek marmolez apaindutako formikazko mahaiaren gainean jartzeko.

- Zer esaten da? -esan zuen aitak, gizonaren ondoan jarrita, baso bat ardo eskuan.

Basagizonak umeei irribarre egin zien, eta Xabik haren bizar, bekain, betile lastokarak ukitu nahi izan zituen. Eta agian horregatik, bere bizar ugariari begira geratu zitzaiolako eman zuen behar baino denbora gehiago erantzuteko, edo akaso goxokia ahoan zeuka-

lako ordurako, baina gizona joanda gero bakarrik lortu zuen eskerrik asko ahoskatzea.

Gainera goxokia segituan berriz paperean bildu behar izan zuen, amak granadinaz betetako basoak ekarri zituela ikusirik. Dangada luze batez hustu zituzten basoak bi mutilek, eta gasaren eraginez begiak malkotan zituztela amaitu zuten, ez arrebak bezala, neska zuhurra bera, irribarretsu begira zeukatena, baso betea begien aurrean.

- Emadan pixka bat -esan zion Gotzonek.

Ezetz egin zuen Nagorek buruarekin, irribarrea pitin bat areagotuta, eta galderaren esperoan zegoela agerian utzita. Betiko kontua zen: «Gerorako gordezten jakin behar da», makina bat bider entzuna zeukaten leloa.

Amari baimena eskatu eta lasterka atera ziren tabernatik, arreba bakarrik utzita, eta taberna parean zegoen Iraola Sports izeneko kirol-dendako erakuslelhoari begira jarri ziren, hango manikiak, eskiatzeko mono, kasko, betaurreko eta makilekin apainduak; haien atzean, eskiatzaileen argazkiak, gehienak elurretan behera abiada bizian, alde batera makurtuta, sorbaldarekin lurra ukitzeko zorian, elur-txirbilak airean.

Zeinen hiri sofistikatua Hendaia.

- Fis-cher -irakurri zuen Xabik, eta markari buruz zerbait esatera zihoanean, maldan gora zetorren motor batek estali zuen bere ahotsa.

Velosolex batean zetorren agurea, pedalei eragiten, zira berdezko lan-jantzia soinean. Erakusleiho ondotik pasatzean, haren isla eskiatzaileen irudiekin nahasita ikusi zuen Xabik, eskiatzailea maldan beheara, agurea maldan gora, kanabera motorraren atzealdean zekarrela, plastikozko kaxa berdea ondoan, aparejuak hari edonola lotuta, harik eta herriko plazan sartu zen arte, pedalei eragiteari utzita.

Harrigarria egiten zitzaion Xabiri hango lasaitasun tristea.

- Non dabil jendea?

- Gerran hil ziren denak -erantzun zuen Gotzonek.

- Zein gerratan?

- Bigarren Mundu Gerran! Nazien kontra galdu zuten. Maitasun kontuetan adituak dira, baina gerra kontuetan ez dakite ezer!

Mirespenez beteta begiratu zuen Xabik anaia, eta sentimendu hura partekatu nahian eskiatzeko jantziak erakutsi zizkion Nagoreri, aurkikuntza arrebaren aurretik egin izanak ematen zion jakintsu aireaz:

- Haiek elurretarako betaurrekoak dira, haiek kas-koak...

- Berdin dik, hik ez duk inoiz ere eskiatuko -eten zuen Gotzonek.

- Ni rallye gidaria izango nauk -esan zuen Xabik, inoiz ere eskiatu ezin izango zuela konbentzituta.

- Eska iezaiok autoa aitari, orga harekin karrera asko irabaziko dituk.

Irten ziren gurasoak tabernatik eta haien lagun saldoa ere bai; lehenik aita, eskuak patrikan, txistuka, eta geroxeago ama, emakume ile motzeko batekin hizketan. Hogei laguneko kuadrilla izango zen, jendetsuagoa agian. Haien artera sartu zen Xabi, arreta bereganatzeko asmoz. Aitaren eskuari heldu zion. Segituan sumatu zituen besteak galdezka; lehenik gizon handikote bibotedun bat, ea semea ote zen. Baietz aitak.

- Esaiok hire izena.

- Xabi naiz.

- Laster hire aita baino handiagoa izango haiz -gizonak.

- Ez duk zaila! -zakurra sokaz lotua zeraman beste batek.

Eta denak hasi ziren barrez, eta Xabik bazekien aita ere barrezka ari zela, bere eskua sentitzen baitzuen gora eta behera, aitak hala egiten baitzuen barre, sorbaldak gora eta behera mugituz.

Taberna batetik besterako bidea (agerikoa baitzen beste taberna batera zihoazela) gurasoen lagunak lausenguak entzuten jardun zuen Xabik. Eta denak sinetsi zituen gainera. «Mutil azkarra». «Mutil sendoa». Eta, bereziki, «Joxemariren semea»; huraxe zen, dudarik gabe, meritu nagusia, argi geratu zen gizon eta emakume haien begietan. Begion miresmena sentitu zuen Xabik. Pozik zegoen eta ez zuen auzitan jarriko Joxemariren semea izateak handia behar zuela, kasik bedeinkazioa. Sentimenduak inoiz ihes egingo ez zion ziurtasunak zorionez bete zuen mutila.

Hurrengo tabernan zorteko izan ziren, jolas-makina horietako bat baitzeukaten, txanpon baten truke moto lasterketak irudikatzen zituena. Nahiago zukeen autoak balira, baina tira. Goiza pasatuko zuten behintzat. Gurasoen lagunak kuxkuxeatzera biltzen ziren, eta motoa gobernatzeko haurren trebezia aipatzen zuten, eta txanponak ematen zizkieten.

Hendaiako egonaldia tabernaz tabernako erromesaldi batera mugatuko zela pentsatzen hasita zegoen

Xabi, aitak «hondartzan itzulia ere egingo dugu» esan zuenean. Pozarren jarri zen Xabi, baina berehala kamustu zitzaion poza, aitak «Emilio lagunaren etxean» gaineratu zuenean; makina bat gomuta ibili zuen Xabik hondartzarako bidean, urduri samartua, Emilio horren etxean bazkaldu beharko zutelako. Baina baze-kien alferrik zela marmarka hastea, *dena erabakita zegoen* munduan bizi baitzen. Hondartzaren ikusmirak, zorionez, ondorengo estualdiak ahantzarazi zizkion: inoizko hondartza handi eta bikainena zen hura.

- Hemen bizi al zara? -miretsita galdetu zion aitari.

- Hemendik gertu -erantzun zuen aitak, ukondoa leihotik kanpo, autoa uzteko toki baten bila.

Kasinoaren aurrealdeko auto ilaran sartu zuen azkenean, eta haurrak autotik jaitsi eta hondartza zedarritzen zuen murrutxoan eseri ziren, itsasoari beha.

- Hangoa Hondarribia da -esan zuen aitak, atzamarrak eskuinaldeko eraikin zatarrak erakutsiz-. Eta hango bi harritzarrak, Tonbak. Ikusten? Frantsesek *les deux jumelles* esaten diete, eta belarrimotzek *las dos gemelas*. Ugerrez estalitako dinosauroaren haginak iruditu zitzaizkion Xabiri, distantzia kalkulatzeko ahalegin antzua egiten zuen bitartean.

Ondoren pasealekuan barrena abiatu ziren bostak, urrats batzuk atzera gurasoak, solas gordean, Gotzon kopetilun larunbat arratseko futbol partida galdu izanagatik, Nagore eta Xabi arroketa jauzika makila bila, itsas bazterrera jaitsi eta ahalik eta urrutien botatzeko, soldadu lerroen gisa lehorrera zetozen olatuei desafio eginez. Pasealekuaren muturrean izozkiak saltzeko etxolatxoak arakatzeko ibili ziren ateko zirriritutik, barneko izozki goxoekin ametsean.

Bien bitartean gurasoek solasean jardun zuten bazter batean, baina haurrak ez ziren hurbildu, inor ez hurbiltzeko doinuak ari zirelako.

Emilioren etxea hondartzatik gertu baino gertuago zegoen, oinez ere di-da batean joateko moduan. Hala iruditu zitzaion Xabiri, autoz ez baitzuten minutu pare bat baino gehiago egin.

Txingudi badia ezdeusa begitandu zaio hondartzarekin alderatuta, nahiz eta erdialdean irla txiki laua dagoen, belar urria han-hemenka. Baina hor ez dago inor. Arratsaldean bertan bazterrak ikuskatzera joango direla pentsatzen ari da, pareko eraikinean Hôtel Bellevue irakurri bitartean, aitak autoa Emilio renera daramatzen tunel txoan sartu eta etxartearen utzi due-nean. Anai-arrebak gogogabe jaitsi dira, eta gurasoek puskak igo ala maletategian utzi eztabaidatu dute. Aitak alde batetik bestera burua estaltzearren propio utzitako ile-xerloa orraztu du pentsakor, arropak autoan utzi eta jatekoak igotzea deliberatu aurretik. Gaua ez dutela han pasatuko ondorioztatu du Xabik, lasaituta.

Ezkaratzeko paretak moketa urdinez estalita daude, mailak linolio beltzez. Bigarren pisuko korridore ospelaren hondo-hondoan aitak hatz-kozkorrekin jo

dio zurezko ateari. Gizon bibotedun luzexka batek zabaldu du, diosalezko murmurio bat ahoskatuz. Dena egiten bide dute isilean toki honetan, esan du Xabik bere kabutan, eta gauzak ulertzen hastearen sentimendu bitxia egin zaio. Korridoreko ilunantzea zeharkatu eta, sukaldea ezkerrean utziz, egongelan sartu dira. Irudi geometrikoz margotutako papera hormetan, zoruan moketa, sabaian lastozko lanpara, izkina batean mahai borobila zortzi platerekin, zurezko zortzi aulki inguruan, eta leihoaren alboan sofa txikia, mahai baxua, telebista. Indioaren posturan eserita, tenis partidari begira dago mutil zurbil argal bat. Goitik behera aztertu ditu etorri berriak.

- Eseri lasai -esan du Emilio behar duenak, bibote sarriak ematen duen ahotsaz, baina sendiaren etorrierak sortzen dion poza azpimarratzeko doinuan.

- Hemen duzue beste lagun bat -esan die Joxemarik haurrei, tenisa ikusten diharduen mutila erakutsiz.

- Agurtu itzak lagun berriak, Eneko -esan dio Emiliok.

Enekok esku lotsatia altxatu eta «aupa» xuxurlatu du, hainbeste jenderen aurrean kikilduta. Benaz, onpuska dirudi.

- Hau duk hire familia, Ugarte! -ozen esan du Emiliok, denek entzuteko moduan-. Eser zaitezte! Eneko, hator mahaira oraintxe!

Mutila lurretik altxatzen hasi orduko adats luzeko emakume bat sartu da gelan, zapia eskuetan. Alai agurtu ditu ugartetarrak.

- Izaskun -esan du, eskua bularrean.

- Zer da hori? -galdetu du Gotzonek, sudurra lapi-koan sartuta.

- Barraskiloak tomate saltsan -erantzun dio Emiliok, eta umeen begitarteari erreparatuz-: Ez al dituzue maite?

- Bai noski! -bota du aitak.

Xabiri korapiloa egin zaio sabelean. Nola liteke inork barraskiloak *jatea*? Amari begiratu dio babes bila; honek sorbaldak jaso ditu, Izaskuni zeharka begira.

- Ez dakit umeez ez ote duten beste zerbaite nahi -esan du Izaskunek-. Patatak eta solomoa akaso.

Aitak ez du amore emango, kanpokoak laketzea maite du.

- Hau ez da jatetxea.

- Ez dago kuidadorik, Joxemari -baretu du Izaskunek-. Berehala prestatuko dut zerbaite.

- Ezta pentsatu ere! -oldartu da aita-. Barraskiloak prestatu ditun, eta barraskiloak jango ditinagu denok.

Emiliok giroa baketu du:

- Trankil, Ugarte! Erabaki dezatela umeei -eta umeei esan die-: Orduan, zer, jango al dituzue barraskiloak?

Anai-arreben eta aitaren arteko begiradak geziak dira.

- Nik ez -ausartu da Gotzon.

- Nik ere ez -Nagorek.

Xabik ez daki zer esan, ez baitu aita zapuztu nahi.

- Hik zer diok, Xabi?

- Beno...

- Beno, zer?

- Ba... jango ditut.

- Ziur al zaude, Xabi? -amak kezkatu.

- Hilda al daude? -Xabik.

Barrez hasi dira denak, eta amak abagunea profittatu du:

- Lagunduko dizut sukaldean, Izaskun.

- Ez, emakumea, segituan egingo dut zerbeit, zaude lasai.

- Nik ere solomoa jango dut -esan du Enekok, ahots sudurkariz.

- Laurentzat solomoa orduan -sukaldera joan da Izaskun.

Xabik aitari erreparatu dio: ezezko keinua egiten ari da buruaz. Zapuztuta eta haserre dagoela konturatu da. Erru sentimendua kilimak egiten hasi zaio Xabiri. Baina zer egin behar zuen ba berak?

Igande iluntzean itzuli ziren Hegoaldera, bezperan eramandako poltsa handiko janariak eta aitaren arropak Hendaian utzita. Geltokirako bidean isilik zihoazen denak, harrigarria zen Hendaiaiko bakartasun hura, kale huts haiek. Etxeetako argi piztuek baizik ez zuten han inor bizi zen zantzurik adierazten, bestela dena zen mortu. Aita geltokitik aldentzen ikusi zuten, Peugeotaren atzeko argietako bat itzalita zeramala, eta denak eskua altxatuta geratu ziren, autoa bistatik galdu zuten arte, nor bere pentsamenduetan murgilduta, trenaren zain egoteko uneak ematen baitzuen nor bere baitan biltzeko tenorea, nor bere etorkizunaren nondik norakoez gogoeta egitekoa. Horregatik zihoazen isilik txarteldegirako bidean, ama poltsak eskuetan hartuta, Nagore bere kuxinari helduta, eta beste biak aurretik oinez, elkarren aldamenean, ezer esan gabe.

- Nik ez dut hona etorri nahi -esan zuen Gotzonek.

Baina ama txartelak erosten ari zen, eta bere anai-
 arrebek ez zeukaten erantzun aproposik.

Gurasoek hurrengo ikasturtea Iparraldean egin beharko zutela esan zieten Hendaiako lehen egonaldi hartan, eta Xabik bazekien, hartaz jardun zutelako, beste biek ez zutela nahi. Arratsalde osoa zeramaten arrazoiak ematen, arrazoiak harrikadak bailiran, ideia-aren arriskuez geroz eta ohartuago. Arrazoi bakoitzeko, are okerrago sentitzen zen Xabi.

- Sekula ez dut nire lagunena pareko inor aurkituko -zioen Gotzonek.

Baina *gauzak erabakita zeuden* etxean bizi ziren.

Xabik ez zekien bere buruaz harro edo lotsatuta sentitu behar ote zuen, aldaketak inolako kezkarik eragiten ez ziolako. Gurasoen alde jarri izana damutzen zitzaion pixka bat, haien proposamenari horren erraz baietz esan izanagatik, gero baiezko horren aitzakia erabili baitzuten gurasoek, atzetik etorritako ezezkoen kontra. Joko ziztrina.

- Xabik nahi badu, zuek zergatik ez?

Eta anai-arreben begirada erdeinuz beteak.

Benetan egia zen, osterara, Xabiri ez zitzaiola axola han edo hemen ikastea, ez zuela funtsean trabarik ikusten. Ooreretako ikastolan ikasle erraria zen, ertaina, bere burua aurkitzen ez zuena. Noizbait okertu zen, eta ez zekien non. Lagun handirik ez zeukan, za-

letasun handirik ere ez, eta, azken batean, tokirik ere ez. Futbolean ez zekien, eta mundu guztiak futbolean egiten zuen mundu hartan arazo larria zen. Kontua ez baitzen bakarrik jokoa ergela zela, baizik eta oso zaila zela baloia hartu eta harekin zerbait zentzuzkoa egitea, eta ez, demagun, hesiaz beste aldera botatzea, Xabik nahi gabe, jokatzen ausartzen zenean, egin ohi zuen modura. Eskerrak tarteka nesken konpainia aurkitzen zuen, eta haiek limurtzeko hitzak ere bai, gauza zaila baina ez ezinezkoa. Bizitzaren kontuez aritzen ziren, gurasoez eta lehengusuez, eta batzuetan mutilaz, eta horretaz aritzean Xabiri galdegiten zioten, eta hark ongi baliatzen zuen parada aditu plantak egiteko eta nesken txaloak biltzeko.

- Ergelak eta astakiloak dira.

Eta neska guztiak pozik.

Baina neskak soka-saltoan, goman, kromotan aritzen ziren maiz, eta horietan Xabi aparte geratzen zen: badira mutil batek eskolan egin ezin ditzakeen gauzak.

Edonola ere, Xabik ez zeukan *bere* tokia, baimenik eskatu gabe eta arraro sentitu gabe besteek irudiz *bere* sentitzen zuten hura. Eta nesken artean ere beti izango zen arrotza, eta, haiekin elkartzean, arrotasun

hori airean ibiliko zen. Ikastola eraikitzeko tenorean horixe bakarrik ahaztu izan balitzaie bezala: Xabiren tokia. Jolas garaia, beraz, ikasle gehienentzat inertzia hutsa zena, rubik kubo arraio hori argitzea baino buruhauste korapilatsuagoa zen. Zer egin? Norekin elkartu? Aldakortasunera kondematuta zegoen. Futboleak aritzeko erabakia hartzen bazuen, taldeak osatzeko orduan azkenetakoa geratuko zen, azkena ez bazen.

- Mikel.

- Kepa.

- Oihan.

Eta bera hortxe, lurrera begira, harri txikiei ostiko-
txoak jotzen, trantze hura noiz pasatuko zain.

- Dabid.

- Aitor.

Ez adiskidetasunik eta ez leialtasunik, futbolerako talentua zen axola zuen gauza bakarra, eta hautatzai-
leak ez ziren alferrikako errukiarekin ibiliko, beti auke-
ratuko zituzten onenak lehen eta txarrenak azken.

- Iker.

- Egoitz.

- Xabi.

Hendaiara joatea, honenbestez, konponbide esperantzagarria zen. Zerotik hasteko aukera. Eta horixe esan zien gurasoei, ñabardurak ezkutatzuz noski, eta horrexegatik zeuden anaia eta arreba eserleku bat harantzago, ama eta Xabi aurrean bakarrik utzita, solas ezkutuan.

Biharamunean, autobusa hartu orduko, bere ondoan esertzen zen Etxebarriari kontatu zion asteburuan Iparraldean ibili zela, ikasturtea amaitzean ikastola utziko zuela, eta hara, *beste aldera* joango zirela bizitzera. Eta han bazela hondartza bat amaigabea, eta jendeak eskirako zaletasuna zeukala, eta gerra galdu zutela maitasunean bai baina gerra kontuetan ezdeusak zirelako.

- Frantsesa ere ikasi diat zerbait.
- Bai zera!
- Hik galdetu.

Eta halaxe hasi ziren autobusa *autobusé*, ikastola *ikastolé*, aldameneko eserlekuetako lagunak biltzen zitzaizkien bitartean, Gogorza, Uranga eta Iburguen, denak ere Xabiren kontuekin liluratuta, eta Xabi harro, ezustean ailegatutako protagonismo ezezagun hark hanpatuta.

Gezurrak eta egiak nahasi zituen, halako zigorga-betasunaz, non gezurra plazer bilakatu baitzen. Etxebarriak miretsita begiratzen zion, nork eta gelako liderrak, futboleko maisua zenak!

- Aitari ez diote etortzen uzten Bilboko uholdeez geroztik -esan zien Xabik.

Eta hala zelakoan zegoen, Marian lehengusinak *errefuxiatu* hitzaren zentzua azaldu zien arte, umeak zaintzera joandako gau batez. Poliziarengandik mendian gora ihes egin zuela, egunak eman zituela gordean Hendaiara ailegatu aurretik. Nolatan ez zien inork ezer esan? Bere burua gorrotatu zuen Xabik, lagunak aurrean Bilboko uholdeak aipatu izanagatik eta aitaren benetako istorioarekin lagunak gehiago liluratzeko aukera alferrik galdu izanagatik.

- Zergatik ihesi?

- Atxilotuko zuten beldur zelako.

Horra arrazoi dotore bat, pentsatu zuen, eta ez uholde ergel horiek!

Marianek aste osoa zerman haien etxean, amak bakailaoan lanean hasi behar izan zuelako. Zaila zen *bakailaoa* arrain bat, lan bat, toki bat edo zer zen asmatzea, ama gauak irentsita joaten ikusten baitzuten, zinez nora ote zihoan jakin gabe. Haurrak ikastolarako

esnatzeko tenorean ailegatuko zen ama lanerako zira hori batez jantzita, eta gosaria prestatu ondoren haurrak agurtu eta ohera sartuko zen lotara.

Laster ohartu zen Xabi, zein ezberdinak ziren aitarren eta amaren absentziak, eta galdezka arituko zen, esaten ziotena ulertzeko gaitasuna galdu izan balu bezala, «bihar» hitzaren esanahia ahaztuta. Lehengusinak ahal zuen guztia egiten zuen Xabiren gogotik amaren akordua erauzteko, bereziki afalorduaren aurretik, mutilak leiho parean egon besterik egin ezin zezakeen tenore hartan.

Marianek Euskadiren askatasunaz, Francoz eta amnistiaz hitz egin zien, eta Gotzonek eta Nagorek arretaz entzuten zituzten Marianen istorioak.

- Baina libre izango al gara noizbait?

Zer axola zion, ordea, amnistiak edo Euskadiren askatasunak, ama ez bazegoen?

Afaltzeko gazta eta urdaiazpiko sandwichak egingo zizkien, eta telebista berandura arte ikusten utziko zien, ordura arte nahikoa laxoa zen etxeko erregimena are gehiago lasaituz.

Gero ohean begiak ezin bildu geratuko zen Xabi, ezkaratzeko zaraten zelatan. Kaleko atea zabaltzen zenean, atezuan jartzen zen; pausoak entzuten ziren

behetik gora, baina ate aurrean geratu ordez gora segitzen zuten. Beheko solairuan bizitzearen alde txarra zen mundu guztiak igaro behar zuela haien ate aurretik derrigor, horrek haurren baitan sortzen zuen ilusio eta etsipen nahasmenarekin. Etxe barruan baleude bezala entzun zitezkeen egurrezko oholen gaineko urratsak, eta haiek bereizten ikasi zuen Xabik, oholen gaineko zaraten ñabardura txiki guztiak: Agustin bizilagunaren pausaje dardaratia, delikatua eta tartekak; edo Arantxa laugarrenekoa, etxera beti saltoka igotzen zena, zoruaren kontra harrika kasik.

Aita gauzez etxeratzen zen garaia etorri zitzaion gogora Xabiri, ezkaratzean sartu aurretik entzuten zuela etorreran, patrikan zintzilik zeraman giltza mordoiloari esker. Atea danbateko batez itxiko zen, malguki indartsu bat baitzeukan ixteko, eta atearen goialdeko beirategiak durundi egingo zuen etxearen egurrezko egituraren baitan. Ate aurrean giltza egokiaren bila jardungo zuen unetxo batez, eta atea zabaldu ondoren (ez lehenago) garbituko zituen oinak etxean sartu aurretik. Berokia korridorean zintzilikatu, umeen gelan burua sartu eta iluntasunari begira geratuko zen, hango formetan haurren aurpegiak asmatu nahian menturaz, batzuetan oso denbora laburrean,

beste batzuetan luze, bizkarra atearen ertzean paratuta, Xabi ere zelatan ari zitzaiola jakin gabe.

Baina egun hartan ez ama eta ez aita, ez zen inor agertu. Telebistaren zarata besterik ez, hormek apal dutako ahotsak, barre algarak eta txaloak. Urruneko munduaren poz betierekoa.

Aitak Emilioren etxean iraun zuen bitartean Xabi ohartu zen zinez nolako zorigaitza den ohea bustitzea. Ordura arte txiza egitea arnasa hartzea edo jatea bezalakoa izan zen, jaiotzetiko ohitura, beste ezein ohituraren parekoa, ohitura narrasa bai, ezerosoa, baina aparteko arriskurik gabea. Baina ez dago etxeko abarotik irtetea bezalakorik, ohartzeko arraroak eta are lotsagarriak izan daitezkeela ohitura batzuk. Zaila da jakintza horren uneaz jabetzea, ordea, arrarokeriaren ezagutza ez baita une zehatz batean gertatzen, ez bada ezarian, gutxika, arrastoak batzen doazen heinean, eta arrasto guztietan deigarriena zen pixoihalak bere gorputz gero eta handiagoan hartzen zuen itxura, hain ezegokia eta traketsa. Amaren keinuetan ere antzeman zezakeen kontuak sortzen zion neke lausoia; toallak garbitzera botatzeko saskia irekitzeko keinuan, adibidez, halako bortizkeria kasik antzemanezina, baina Xabiri oharkabean pasatzen ez zitzaiona. Amorrua ezkutatzeko ahaleginak, bestetik, lasaitu beharrean, larritu egiten zuen.

Arrasto gehiegi, errealitateaz ez ohartzeko.

Horregatik, Enekok elkarrekin lo egiteko eskatu zionean, Xabik izua eta lotsa sentitu zituen. Gurasoak salan asko luzatuko zirela esan zion (Xabik salan egiten zuen lo), ez zuela merezi orain sofan mihiseak jartzten hastea, eta ongi zeudela burusien azpian linterna eskuratu berriekin jolasean, bazegoela tokia, eta gainera halako ilusio batekin esan zuen, opari bat egiten duenaren pozarekin.

Agian egia esan izan balio... «hi, eskertuta zagok, baina txiza egiten diat ohean». Baina ez zion esan nahi izan. Laguna lokartu bezain pronto altxatuko zen katuen gisara, etxea zeharkatuko zuen argirik piztu gabe, komunean jarriko zuen pixoihala, eta berriz bueltatuko zen ohera. Eta hala egingo zukeen, laguna bere sorterriko kontuekin hasi izan ez balitzaio, eta bere amonaren pasadizo nahikoa aspergarriekin.

Esnatu zenean maindirea heze nabaritu zuen, eta berehala sartu zuen eskua azpian, kalteak neurtzearen, eta asko urduritu zen maindirea ez ezik lagunaren pijama ere bustirik zegoela sentitu zuenean. Katastrofea zen. Egia esan izan balu!

Zer egin daiteke, ezer egin ezin denean?

Zutitu hadi, joan esne bila, ekar ezak eta isur ezak maindireen gainean; beti izango duk hobe istripua,

gaixotasuna aitortzea baino. Edonork izan dezake is-
tripu bat, baina gutxik bustitzen ditek ohea hire adina-
rekin. Hik bakarrik, hi, beti hi, mutil aldrebes eta fut-
bolari kaskarra.

Atearen beste aldetik etxe esnatu berriaren zara-
tak ailegatzen zitzaizkion, ateen danbatekoak, sukal-
deko ontzien kolpeak, irratia... Eta bere aldamenean
Enekoren eskua ikusten zuen gora eta behera zebile-
la bularraren gainean, arnasa sakon eta lasaiaren era-
kusgarri. Enekoren ohe gaineko apalean munduko
bola zegoen, errobot bat, Carioca markako errotula-
gailuak, Enekoren txikitako argazki bat urre koloreko
markoan, komuniokoa. Esnatu eta ohea ikustean, ar-
gazkiko keinu irribarretsua gordeko al zuen?

Zarranz argazki dendan egindakoarekin akordatu
zen Xabi, oinak lurrean ipini ahal izateko aulkiari birak
eman behar izan zizkiola, eta argazkilariak esan ziola:

- Ez hadi kezkatu, txiki.

Eta aulkiak zabu herdoilduen kurrinka bera egiten
zuela bere hanken tamainara egokitzeke bira amaiga-
be haietan. Eta *txiki* hitza burutik kendu ezinik geratu
zela orduz geroztik.

Izaskunen ahotsak aterarazi du Zarranzen argazki estudiantik. Atearen heldulekua askatu gabe hizketan ari da:

- Tira umeak, gora!

Enekok begiak zabaldu dituela ikusi du Xabik, eta hasperen egin du, etorriko denaren espero etsian.

- Ongi lo egin al duzue? -galdetu zuen Izaskunek.

Enekok burusia kendu zuen gainetik, ohean agondu eta bekozko zimurtuarekin zerbaiten bila hasi zen zopa egindako maindireetan haztamuka.

- Zer da hau? -esan zuen, hatzak sudur-zuloen parean jarririk.

Eguzki bizia zegoen kanpoan, giro ederra kalean, eta baita etxean ere: Gotzon amari deika, egun berri baten promesa, irrati-kasetearen musika emakume baten ahotsean: «Cuando cantas, yo canto, con tu libertad», eta harekin batera biolinak, vals zoragarri baten doinuan.

Musikari entzungor, Enekok hankak zabaldu zituen orbanaren ertzak begiratzeko:

- Txiza egin al duk?

- Nik? -galdetu zuen Xabik, galderaren ergelaz ohartuta.

Eta erantzuna entzun aurretik bere burua gela zeharkatzen ikusi zuen, kasik ihesean lasterka zihoana bera zela ohartu gabe eta, Izaskunen besoaren azpitik pasatuz, komunerantz abiatu zen, bizitzako hurrengo urteak bertan igarotzeko asmo irmoarekin. Zarranzen argazkia egin zioten egun hartan, etxetik irten baino lehen ileak urarekin orraztu zituela oroitu zuen, burua-
ren atzealdean puntan geratzen zitzaizkion ileek amorrarazi egiten zutela.

Ama zen orain atearen beste aldetik hizketan ari zitzaiena:

- Ireki, Xabi.

Eta aita:

- Esaiozu irekitzeko.

Doinu ezberdinak ziren.

- Xabi, ireki, laztana.

- Dile que abra -besteak gaztelaniaz.

Burua hanken artean ezkutatu zuen Xabik.

- Joan zaitez -esan zuen azkenik amak.

Baina pausoak urrutiratzen zirela entzun arte ez zuen Xabik atea zabaldu, eta zabaldu ondoren ahaleginak eta bi egin zituen negar ez egiteko, negar ez egitea erronka zaila zela jakitun, are ezinezkoa, inoiz ez zuelako malkoei behar zen unean eustea lortzen.

Hortik aurrera dena erraza izan zen, amaren magalean barrua hustea eta halakorik berriz gertatuko ez zela bere buruari promes egitea.

- Hurrengoan plastikoa jarriko dugu ohean -esan zuen amak, mutilari buruan musu emanaz.

Aurrekoetan ez bezala, Enekok bere aurpegi zirtolaria erakutsi zuen egun hartan txizaren aitzakia erabilita, baina, bustitakoa bere ohea izaki, ezingo zitzaion ezer leporatu. «Xabi sesele pipi en la cam», esan eta esan ari zen, hura Xabik ohean txiza egiten zuela frantsesez esateko moldea zelakoan, eta besteek sinetsi. Bere ahotsak durundi egiten zuen Txingudi pareko etxe arrosen kontra, eta bueltan etortzen zen isekari: «Xa-bi-se-se-le-pi-en-la-cam!». Beren buruen gainetik Hondarribirako bidean igarotzen ziren abioiek bakarrik lortzen zuten mutilaren ahotsa itzaltzea, baina hantxe ikusten zuen Xabik keinuka eta ahoa mugitzen, hegazkinaren zaratari aurre eginez, bere burlarako erabakian tematuta.

Amorrazioa ahuleziaren baliokide izan ez balitz, gogotik astinduko zukeen burua hondarpean sartzeraino. Baina soseguko agertzeko erabakia hartu zuen, gertakariari larritasuna kentzearren, eta esaten

uzten zion. Gainera, inoiz ez zuen inor jo, ez zen *horietakoa*.

Azkenean gogaitasunak salbatu zuen, ez bereak baina bai Gotzonenak, hura purrustaka hasia baitzen, inguru hartan harriak itsasora botatzea bestelako jolasik ez zegoela. Eta baietz Enekok, bazuela bizikleta zahar bat aitaren garajeon, zulatuta zegoela baina aterako zutela behintzat zoko hartatik. Eta halaxe abiatu ziren.

Horma baten kontra zegoen bizikleta, hankaz gora, aurreko gorpila kenduta, burdinazko ahuntz herdoildua, urkilatik Torrot koadro gorriraino amaraunak zintzilik.

- Bizikleta bat duk, edo erdia? -zirikatu zuen Gotzonek.

Xabik txantxa ospatzeko tentazioa baztertu zuen, ez gogo faltagatik, baizik eta berak bizikletarik ez zeukalako. Eta bazekien, bizikleta zahar ugari ikusitakoa zenez, pixka bat garbitu eta konponduz gero zein erraz dotoretuko zen. Horregatik poztu zen Gotzonek erremintak ba ote zeuzkaten galdetu zuenean, bizikleta bat bere herdoiletik berpizten ikusteko erakustaldia baino hoberik ezagutzen ez zuelako.

Hormak pintatu gabe dagoen korridore baten amaieran dago Emilioren biltegi txikia. Enekok misterio handiz atera du giltza patrikatik, eta atzamarra ahoan paratu du, giltza daukanik ez kontatzeko sekretua dela adieraztearren.

- Aitak hemen gordetzen ditu lanabesak.

Kristalezko potoak daude apaletan, fruituak gordetzeko egurrezko kaxak, «Frutas Goicoechea, Irun», ardoa gordetzeko txanbila, bota katiuskak, makila batzuk, eta han nonbait metalezko kaxa bat. Nolako ezustea, ordea, kaxa ia hutsik dagoela deskubritu dutenean. Herdoilak jandako tresna batzuk, torloju eta iltze artean. Aliketak, kirtenik gabeko mailu burua, kurrikak.

- Kristo! -madarikatu du Gotzonek-. Ea hor behean.

Eneko kaxa bat baztertzeko makurtu da, eta poltsa batean bilduta dagoen zerbaiti heldu dio. Poltsatik atera du, koipez betetako trapu zahar bat agertu da. Trapua kentzen hasi da barrukoaren bila, eta azken trapu txatala kendu duenean, hantxe agertu da, argi txikiaren argipean dir-dir eginez, pistola beltz txiki bat.

- Ni banoa -Xabik.

- Ni ere bai -Nagorek.

- Hortxe, lanabesa! -esan du Gotzonek, burdina eskutik kenduta.

- Ekarri hori -Enekok.

- Geldi denak hor!

- Jaitsi hori, Gotzon! -Nagorek, ihesari emanda.

Belarriak eskuekin estali ditu Xabik.

- Zertan habil? Ez diat tiro egingo, babalorea!

- Utzidak niri hartzen -esan du Enekok.

- Erotu egin haiz ala?

- Benga, hi, nirea duk.

- Hirea?

- Nireagoa behintzat. Benga, emadak!

Enekok pistola hartu du barre urduri batekin.

- Nik ere hartu nahi diat -kexatu da Xabi.

- Hi txikia haiz.

- Utzi ukitzen behintzat.

- Hartu, nahi baduk. Baina ez ezak katua sakatu gero.

Xabik eskuan hartu du:

- Pam!

- Et, et, et. Nahikoa duk! -urduritzen hasi da Eneko-. Ekarri hori!

- Utzi niri -kuraia bildu du Nagorek.

Xabik oliaoa sentitu du hatz mamietan: bustita dago. Nagorek hartu du ondoren, eta kanoiaren ahoari so egin dio.

- Ez ditun hor partxeak aurkituko -Gotzonek.
- Ez dauka balarik? -Nagorek.
- Beno, beno, nahikoa! Ekarri hori!
- Benga, norbait hilko dugu -esan du Gotzonek-.

Nor hilko dugu?

Denak barrez hasi dira.

Orduan ohartu da Xabi, dardara batean dituela hankak. Hatz mamietako koipea galtzetan sikatu eta esan du:

- Goazen!
- Non zegoen hau?
- Hor, kaxa horren atzean.
- Utzi hor!
- Goazen!
- Bai!
- Azkar!

Inork ez du han geratu nahi. Atea itxi eta korrika alde egin dute.

- Nola konponduko dugu bizikleta orain? -galdetu du Xabik.

- Tiroka!

Enekoren etxean epel zegoen, eta denak zeuden ke laino batean bilduta, mahaiko puskak jaso gabe, botilak, basoak, katiluak, *Egin* egunkaria, amaren be-taurrekoak, eta kartetan aritzeko tapiza, nahiz eta ez ziren kartetan ari.

- Bizi al gara? -esan zuen Emiliok.

- Non ibili zarete? -amak.

- Badian, harrika -erantzun zuen Xabik-. Hiru abioi bota ditugu.

Puruari sakatuz barre modukoa egin zuen aitak. Paper fabrikako tximinia zirudien. Eta kantuan hasi zen berehala, Emilioren sorbaldari helduta: «Dicen, que por las noches, no más se le iba en puro llorar, dicen, que no dormía, no más se le iba en puro tomar...».

- Frantziara al zoazte bizitzera?

- Ez, Iparraldera.

Erantzuna ikasia zeukaten. Harri eta zur geratzen ziren auzoko belarrimotzak.

- Baina non dago Iparraldea?

- Bidasoaren beste aldean.

- Frantzian beraz.

- Frantzian ez, Euskadin, *en Euskadi Norte*.

Eta horrela beti.

Arraroa zen ikastolatik heltzean etxean inor ez aurkitzea. Non zeuden mahai gainean tolesteko eta lisatzeko jarritako arropa multzo haiek? Irratiaren murmurio betikoa, amaren errietak.

Amak ordutegi berria zeukan behintzat, eta afalordurako etxean izaten zen. Sekulako lasaitua izan zen hura. Baina horrek ez zuen arratsaldeetako leihoan zain geratzeko ohitura ezabatu. Egunero-egunero, iluntzen hasi orduko, korapiloa egiten zitzaion sabelean, eta ama ikusteko irrikak leihora bultzatzen zuen.

Arratsaldeko ordu luzeak arintzearren, Agustin bizilagunaren etxera joaten ziren Xabi eta Nagore, eta

zaharraren argazki kutzak arakutzen ibiltzen ziren. Gotzonek, aldiz, futbol entrenamendua izaten zuen ia egunero. Mutil librea zen.

Derrepente azalduko zen Figaro miauka, isatsa tente eta Agustinek azalpenak emango zizkion begirunez:

- Argazkiak begiratzen ari gaituk, Figaro.

Etxea biena baitzen, Agustinena bezala Figarorena. «Geure etxea», zioen beti, «Figaro eta biona».

- Utzi Figarori bere aulkian jartzen -esango zuen Agustinek, inor sukaldeko leihopeko aulkian esertzen bazen.

Eta kontuz kasurik egiten ez bazenion.

Baina gizon alaia eta lasaia zen. Katua zen bere mania bakarra, eta bere besaulkian erdi etzanik irakurtzen zituen liburuak. Oso larria behar zuen gertakariak Agustin haserre ikusteko.

- Zer moduz aita? -galdetzen zien, gaixo batez galdetzen duenaren doinuan.

Denek zekiten, irudiz, aitak gaizki egon behar zuela, baina umeez aita ongi ikusten zuten, ikusten zutenean, zientoka lagunen artean pozik.

Orduak ematen zituzten Agustinekin, hura liburu artean galtzen zen bitartean, betaurrekoak sudur pun-

tan, Figaro altzoan hartuta, umeei asko erreparatu gabe. Halako batean iratzarriko zen, haurren sabel gosetia akorduan, eta esango zuen:

- Joan zaitezte txorizo pixka bat erostera -eta bere larruzko kartera zaharretik txapon txiki batzuk aterako zituen.

Eta umeak Morrongileta kaleko Aldira joango ziren, txanpon txiki haiekin txorizoaren ordeztuz erosizaketen gauzak gogoan: soldaduak, kromoak, Boomer txikleak, Chimos goxokiak, miniaturazko autoak. Eskerrak Aldin ez zegoen jostailurik, apenas eskolarko gauzak, haiek ere tentagarriak, Milan ezabatzeko goma berri-berriak, luma-zorroak, koloretako plastidorrak.

- Eta ama?

- Gero etorriko da.

Ama eta gero hitzak kateaturik zeuden biak, betiko lotuak.

Bainugela noble itxurakoa zeukan Agustinek: bainera handia, letoizko iturri dotoreak, ertzetan apaindutako ispilu bat. Ama berandutuz gero, bertan hartuko zuten bainua, leihoaren hegian zelatan jarriko zen Figaroren begiradapean. Eta uretan beratzen geratuko ziren ura hoztu arte.

- Baietz minutu bat urpean arnasa hartu gabe!

Kirol-poltsa urdina sorbaldan, aire nekatuarekin etxeratuko zen Gotzon.

- Ama? -galdetuko zuen.

Baina galdetu eta segituan azalduko zen ama, beti afaltzeko orduan. Nekez ezkutatuko zuten haurrek zoriona. Badira disimulatu ezin diren gauzak. Umeak haren inguruan bilduko ziren, eguneko kronika egitearren elkarri zapalduz. Kontatzearen plazeragatik. Eta Agustin bera animatuko zen haurrek ziotena egia osoa zela baieztatzeraz, hura ere haurren zorion bat-batekoaz kutsaturik.

- Begira, ama, etxeko lanak egin ditut.

- Bai, etxeko lanak egin ditu.

Ama zalantzaren pisutik libratuko zuen zaharrak, menturaz.

- Ongi portatu zarete?

- Bai, ongi portatu gara.

- Ongi portatu dira.

Oihartzuna balitz bezala.

Baina halako batean, goiz batez, elurra iritsi zen. Mundua, jolastoki handi eta irristakor bat. Maindire zuri handi bat eguneroko betebeharren estalki perfektu gisa.

- Elurra! -entzun zuen Xabik, eta une batez hitz txuri hura ametsetan kiribilduta geratu zitzaion.

Leihoaren hegira igota zegoen Nagore zen oihuka ari zena.

Egia ote? Begi bat zabaldu zuen, eta ezkurren tamainako pinportak ikusi zituen airean noraezean, eta haiei zerien argi urdin-ubela. Bazkal osteko filmetan baizik ez zuen ikusia elurra ordura arte, urteroko promesa zapuztua zen, negu oro etortzekoa zena baina sekula arribatzen ez zena. Baina hantxe zegoen, bere gelako leihoaren bestaldean. Salto batean joan zen leihoraino. Hotzak aurpegia moztu izan balio bezala, halaxe sentitu zen burua leihotik irten orduko, baina horrek ez zion axola, pozez oihuka hasi baitzen. Ikus-kizuna baino harrigarriagoa zen, ordea, isiltasuna. Gelditasun eternalaren doinu diskretua.

Sukaldean oinutsik korrika sartu zenean ohartu zen, zerikusi gutxi zeukala bere zorionak amaren keinu ilunarekin. «Errepide sarea moztuta», zioen irratia, eta ondoren: «Azken 50 urteotako elur ekaitzik bortitzena». Gauza onak ziren horiek, ordea: mundua jolastoki handi bat izango zen!

- Gaur ez da ikastolarik izango -esan zuen amak, kezkatu, kafeari trago bat lapurtu aurretik.

Ohi zuen bezala zegoen, sukaldeko leiho parean zutik, leihoaren beste aldeari begira.

Non zegoen larritasuna?

Festa batera joateko prestatzen ariko balira bezala ziharduten haurrek batera eta bestera, gorputza estaltzeko puska egokien bila, nahiz eta hartarako arropa egokirik ez eduki. Jertsearen gainean bestea, eta bestearen gainean hirugarrena, eta horrela amak nahikoa iritzi zion arte. Eskuetan, galtzerdiak.

- Non daude artilezko txanoak?

- Zein txano?

- Putza!

Amak bazituen bere kezkek, ordea. Umeekin zer egin, esaterako. Eta Agustinen etxera joan zen, telefonoz ahizpari laguntza eskatzearen, hustutako katilua harraskan utzita.

- Zergatik ez daukagu guk telefonoa, ama?

Baina ama abiatua zen, eta Xabi haren atzetik.

Koadrozko txabusina jantzita hartu zituen Agustinek, hura ere mila jantzirekin estalitako panpina irudi. Musuzapia eskuetan, ez zirudien ospakizun askorako.

- Gaur jai! -azaldu zion Xabik zaharrari, begiekin Figaro bilatu bitartean-. Seguruen izebaren etxera joan beharko dugu.

- Pozik jarriko da -esan zuen Agustinek sukaldetik, elurraz ari zen irratia ren murmurioaren gainetik aho-
tsa igota, zartaginetik xigortutako ogi xerrak atera
baino lehen.

Bazekien Xabik hala izango zela, seko pozten zen
izeba haurrak ikustean, ez baitzuten sarritan bisita-
tzen, haurrek nahi izaten ez zutelako; Bidebieta auzoa
itsusia iruditzen zitzaien, behin ikusi eta betiko ahaz-
teko modukoa. «Dozenaka ume eskolarik gabe gera-
tuko da gaur», asmatu zuen esatariak etxe guztietako
zurrumurrua.

- Gera daitezela nirekin -esan zion Agustinek
amari-, niretzat ez da enbarazu.

Baina ama ez zen fio, haurrek menpean erraz har-
tzen zutelako. Ikastola ondorengo tartean geratzeko
bale, baina egun osorako ezta pentsatu ere.

Figaro agertu zen egongelan, eta aulki gainera
jauzi egin zuen bisitariei erreparatu gabe. Eskua bu-
ruan jarri zion zaharrak, sukarra hartzen bezala, eta
katuak urrumaka eskertu zuen.

- Edozer, Miru, fideo zopa, tortilla...-, ari zen ama.

Zergatik fideo zopa? Ez al zen nahikoa gaua izeba-
ren etxean pasatu beharra, gainera fideo zopa jana-

razteko? Ba al zekien amak izebak zopari arrautza egosia botatzen ziola bere gorringo lehor eta guzti?

Joan aurretik, txokolatea eskaini zion Agustinek mutilari, eta honek pozik gordeko zuen Mayo txokolate zatia patrikan, hark bizpahiru egun iraungo ziola jakitun. Arrautzaren zaporea kentzeko erabiliko zuen.

Metro erdira ere ez zen ikusten kanpoan. Xabik maluta guztiak hartu nahiko zituzkeen eskuekin, pena ez zela bazter guztietara heltzeko gai. Oinak elurretan galtzen zitzaizkiola sentitu zuen, eta horrek bere plazera areagotu zuen, lehen elurtea izan arren bai baitzekien pozaren iraupenak elur kopuruarekin zerikusi zuzena zeukala. Behera begiratu zuen: belaunetaraino heltzen zitzaion elurra! Eta oraindik botatzen ari zuen! Etxetik atera eta berehala hasi zen gerra. Zaila zen eskuen artean erretzen zuen elur hura estutzea, behar bezain gogor uztea. Baina egoki estutzen ez bazenuen airean lehertzen zen.

Pioren harategitik igarotzean, han ikusi zuten harakina, pala batez denda inguruko elurra kentzen, kendutakoa izkina batean pilatzen, ahotik lurruna zeriola. Beraundik behera zetorren maldan lerekin ari ziren haurrak, batzuk behera ziztuan eta beste batzuk gora, lera sokatik helduta. Baina haur gehienak zabor

poltsen gainean ari ziren, edo irristatzeko balio zezakeen edozeren gainean; eta, hain zuzen, mutil irudimentsu haietako bati erreparatu zion Xabik, burua izterren artean sartu eta erretilu batean ziztuan zetorrena, hain azkar ze maldaren magalean zegoen sakanean hegan atera baitzen, alde batera haurra eta irristailua beste aldera itzulika, hura Xabiren oinetaraino ailegatu zen arte; «Real Sociedad, Campeones 1981-82», irakurri zuen Xabik erretiluan, batzuk zutik eta besteak makurtuta ageri ziren Realeko jokalarien gainean idatzirik.

- Egunon, Pio! -deiadar egin zion amak, eta umeez eskuarekin agurtu zuten.

Zumardian hartu behar zuten Donostiarako autobusa, Hendaiatik Madrilera zihoan N1 errepide nazionalan. Amak ez zuen bere poza ezkutatu hara ailegatu eta errepidean autoak hara eta hona zebiltzala egiaztatu zuenean, nahiz eta oraindik elurra ari zuen eta ez zekiten autobusak ibiliko ote ziren. Hotzagatik minbera zituen eskuetatik galtzerdiak kendu zituen Xabik eta patrikan sartu zituen. Paisaia elurtuaren erdian inoiz baino ugerrago zegoen Oiartzun ibaira begira geratu zen. Putzaren kiratsa zerion, beti bezala, baina ur azalaren gainetik oina agertzen zuen burdi-

nazko hesiaren gainean elurra pilatzen ari zen, eta beste grazia bat zeukan ibaiak. Elurraren miraria zen, dena edertzen baitzuen, salbu eta paper fabrikak isurtzen zuen kiratsa. Hark ez zeukan erremediorik.

- EZ izeba haserrarazi, entzun? -eskatu zien amak haurrei, autobusa ailegatu zenean.

Musu bana eman eta gero, zira horiarekin aldendu zen elurretan barna, lanerako bidean. Nola joango ote zen Pasai Donibaneraino?

- Oinez -argitu zuen Gotzonek.

Dena elurtuta zegoen Trintxerpeko moilan ere. Hango ontziak, txatarra, benta eta guardia zibilen Land Roverrak. Haietako bi kanpoan zeuden, fusilak eskuetan eta kapak jantzita, eta haien inguruan portuko gantzak belztutako elur zapaldua, poliziak tokitik apenas mugitu gabe oinez ibili zirela salatzen. Hatsa botaz lausotu zuen leioa Nagorek, bertan bere izena idazteko.

Ategorrietan jaitsi ziren, itxura beldurgarriko eta platano zuhaitzez inguratutako apaiz eskolaren aldamenean, zeina, Xabiren irudiko, munduko munstro guztiak biltzen zituen eraikina baitzen. Eta Bidebieta-ko etxe orratzak bistan, izebaren etxera joan ziren oinez. Musuka hartu nahi izan zituen.

- Ekarri hona musu horiek!

Berogailuaren bueltan jarri ziren, eta atzetik hurbildu zen izeba, balantzaka, musuak lapurtzearren.

Norbaitek izebari esana zion, nonbait, aitak burdinbideetan lan egiten zuela, eta beraz harentzako txalekoa ehuntzen hasia zen, txaleko urdina, lepoan eta behealdean marra hori bana zeukana. Une hartan izebak umeen aurrean zabaldua zeukan, lausengu eske.

Hamaiketakoaren ondoren, izebaren etxe aldame-neko parkeko malda txikian zabor poltsen gainean irrist egitera jolasean ibili ziren. Ikustekoa zen Nagore, bufandarekin (hark bakarrik zeukan) eta artilezko txanoarekin estalita, betaurreko lausotuak baizik ageri ez zituela nola zetorren maldan behera irristan. Hormaren kontra joango zela zirudien, baina azken unean libratzen zuen, batek daki nola.

Bazirudien ametsak betiko iraungo zuela.

Baina bazkalostean, telebista aurrean jarri zirenean, egunaren luzeaz ohartu zen Xabi. Eta berriz hasi zen amaren joana sentitzen. Amarekiko mina etorri aurretik zekien Xabik etorriko zela, urrutitik ikusten zuen, baina ez zuen hari izkin egiteko modua aurkitzen. Etsi egiten zuen, zer erremedio. Handiegia zen olatua.

Beharbada, zioen bere artean, etxe *hau* da. Bai baitzeukan etxe hark zerbait iluna. Apaletako portzelanazko figurei erreparatu zien. Zakur bat, neskatila bat otarra eskuetan, Jesus jaioberria, Ama Birjina. Eta haien ondoan, aspaldian etxetik kanpo bizi ziren lehengusuen argazki txuri-beltzak, trokelatutako marko zurien barruan irribarretsu. Eta osaba zena, kamioi baten aldamenean zutik, gabardinaz dotore jantzita.

Oharkabeen eta betiko joandako alaitasuna zerion etxeari.

Baina ez zen hori. Edo ez zen hori bakarrik. Eta orduan zalantza batek harrapatzen zuen Xabi, eta zalantza hura argitzeko premia, nahiz eta bazekien Gotzonek zeharka begiratuko ziola, erdeinu keinuz.

- Noiz etorriko da ama?

- Gero -izebak.

Egongelako horma zurez estalien artean preso eta errudun sentitzen zen, eta denbora murru handi baten pare ageri zitzaion. Eta korapilo madarikatu hura. Eskerrak *Dallas* telesaila amaitu zen. Kaleak baretuko zizkion bihotzeko minak.

Zerua apurtzen ari zen Bidebietaren gainean, elurrak irentsiko zuen mundua. Zabor poltsa zabaldu zuen Gotzonek, eta salto batean desagertu zen mal-

dan behera. Bistatik galdu zuten Xabik. Baina hantxe zegoen maldaren erdian geldi, elur bigunaren gainean ez aurrera ez atzera hankekin bidea irekitzearren bul-tza eginez.

- Bidea egin behar da!

- Banoa!

Hanketatik helduta eramango zuen anaia zaharrena maldaren akaberaraino, eta lehen arrasto hura nahikoa izango zen bigarren goan abiada ederrean jaisteko. Jolasean ari ziren, eta jolasean ari zirelako pentsatu zuten Nautilus tabernatik irtendako bi mutil meharrek ere jokoan ari zirela, elkarri biraoka eta bul-tzaka ari ziren arren. Nautilus jonkien etxea zela esaten zuten izebak, eta «arkakusoz beteta» zegoela. Egia izango zen, hango bezero guztiak baitziren izaki mehar matrailezur zorrotzekoak, gaixo itxurakoak. Eta hantxe zeuden taberna pareko porlanezko futbol zelaiaren ertz batean, itzal bi borrokan, elurra harrotzen. Elkar jotzen saiatzen ziren, baina zazpi kolpetik bat asmatzen zuten, gainerakoak haizeari ematen zizkio-ten. Hura ez zen filmetako borrokaldi gogor eta, batez ere, zehatz horietakoa, non ukabilek matrailezurak kolpatzen baitzituzten beti. Ez horixe. Jela gaineko dantza kaskar modukoa zen. Irristari hordituak. Nahi-

koa lan zeukaten laprast egin gabe zutik mantentzen. Batek bestea jo nahi eta elkarri besarkatuta bukatzen zuten, ez erortzearren.

Izebaren etxe orratzaren azpiko Polizia Munizipalaren egoitzatik agente bat irten zen.

- E!, e!, e! -oihu egin zuen, eskua altxatuta.

Baina hurrek baizik ez zioten begiratu.

- Mutilak! -ekin zion berriz-. Nahikoa da, mutilak!

Umeei begiratu zien poliziak zeharka, umeen aurrean horren autoritate gutxirekin agertu izanagatik lotsatuta akaso. Kaskotik txapela erantzi zuen, handik elurra kentzeko. Hasperen egin zuen

- Ojo, jaitsi egingo naiz eta...!

Baina ez zen jaisten. Eta mutilak ez ziren gertzen. Haietako bat lurrean zegoen. Eta handik bestea- ren zangoa hartu zuen. Eta orain bi-biak zeuden lurrean. Eta polizia mekaguendioska. Orduan bi mutiletako bat korrika hasi zen, kras-kras elurra zapalduz, ihesi. Lehen aldia zen Xabik Nautilusko bezero mitikotako bat gertutik ikusten zuena, eta haren begiak, bereziki haren begiak ikustea egin zitzaion harrigarria, erakusten zuten izuarengatik. Hain omen ziren basak eta gaiztoak, ze pentsaezina zen beldurra senti zezaketenik. Baina hantxe zegoen mutila elurretan korrika,

hain zuzen une hartan bi autoreen artetik pasatzen, bietako baten kapota oreka ez galtzearren erabiliz. Kale izkina batean desagertu zen, CAMELLOS FUERA zioen pintada handi baten aurretik.

Ikastolako bidea betiko itxita geratu izan balitz bezala, mendea eman zuten izeba Miruren etxean, hango barazki usaineko egongela geldo hartan telebistari so. Telefonoak jotzen zuen bakoitzean, lehia batean jaikitzen ziren haurrak, hurkoak baino lehen ama entzuteko irrikaz. Gauero deitzen zuen, lasai egoteko, ezin zuela lanean hutsik egin, laster atertuko zuela.

- Noiz etorriko zara?

Arzak jatetxe inguruetara joango ziren noiz edo noiz, hango autoen barru larruzkoak ikuskatzearren. Jatetxearen tximiniari kea zerion, eta handik edo agian beste zirrikituren batetik jaki goxoen lurrina ailegatzen zitzaien. Jendea abere larruekin estalita ibiltzen zen sartu-irtenean. Nortzuk ote ziren?

Jatetxean autoak aparkatzen zituen gizon burusoi-la atzetik izaten zuten beti mehatxuka, eta hurrek lasterka ihes egiten zuten, eskuetako galtzerdi pareta erakutsiz.

Handik etxera. Bazkaldu, bazkalostean *Dallas* tele-saila ikusi, eta berriz kalera, kaleak zer ekarriko.

Izebak txalekoa amaitu zuen, aitak hura jantziko zuela sinetsita. Baina aitak ez zuen halakorik jantziko, ongi zekiten haurrek.

Txakur txikirik gabe ibiltzen ziren beti anai-arrebak, baina inoiz izeba limurtuta sos batzuk lortuko zituzten kromo batzuk, goxokiak eta elurra irudikatzen zuen esprai bat erosteko. Espraiarena Gotzonen ideia izan zen, eta Pescaderia kaleko horma handi batera ailegatu arte gorde zuen misterioa. Zertarako behar zuen hauts zuri faltsu hura, kaleak benetako elurrez estalirik bazeuden? Hormaren aurrean zutitu eta letra larriz idatzi zuen: GORA EUSKADI!, eta harro itzuli zen besteengana. Hori al zen dena? Horretarako sakrifikatu al zituzten goxokiak?, txatxukeria hura idazteko?

- Gauza serioa da aberria!

Izebarenera itzuli zirenean, han zegoen ama.

- Ondo pasatu duzue? -esan zien besarkatuta zeuzkan seme-alabei-. Tira, etxera joateko garaia da!

Eta orduan gauza bitxia gertatu zitzaion Xabiri: jada ez zuela joan nahi.

- Musurik eman gabe ez zarete hemendik irtengo -mehatxu egin zien izeba Miruk.

Ez zen txantxetan ari. Eta orduan bai, amarekin etxera joateko gogo bizia piztu zitzaion.

Isabelle izeneko emakume beltzaran bat zegoen izebaren etxepean zain. Andrearen Citroen Pallas autoa ikusi zuenean ia arnasarik gabe geratu zen Xabi. Zakarra izan gabe, serioa zirudien Isabellek, zeremoniatan galtzen ez den horietakoa. Apur bat kikilduta sentitu zen Xabi autoan sartu eta haren doinu frantsesa entzun zuenean. Irribarrerik ez haurrak agurtzeko, ozta murmurio bat, «kaixo *txikis*», gaztelaniaz, autoa martxan ipini zuenean. Emakumearekiko esker oneko zegoen Xabi, gerratik erreskatatutako soldadu zaurituaren pareko. Bidebietako etxe orratzak urruntzen ikusi zituenean, lo egiteko irrika sartu zitzaion. Amesgaiztoaren amaiera. Herrerako fabriken eta keak belztutako etheen artetik ziztuan zihoazen, bide bazterrean azken elur arrastoak urtzen ari ziren bitartean.

Burutazioak eta ahotsak eta irrati-kaseteko kantuak loarekin nahasi zitzaizkion. Amari so egin zion, harekiko sentitutako gabezia beste norbaitekikoa izan balitz bezala. Hantxe zegoen ama, bere betiko ama, alboan zegoenean horren familiarra egiten zitzaiona,

baina alboan ez zegoenean betiko desagertuko zen beldurra eragiten ziona. Bere buruari promes egin zion ez zuela inoiz gehiago sufrituko, ez zeukala zentzurik. Ziur zegoen horretaz. Amarekiko mina ez zen berriz agertuko unerik ezustekoenean bizkarroien gose aseeginaz eraso egitera.

«Aita-emeak tabernan daude, ama-alaba jokotan», kantari ziharduten irratian.

Arrebaren boza entzuten zuen, denborari buruzko haren kezka betierekoak: 43 segundo Pasaiako semaforoan geldi. Eta Gotzonen arrazoiketak, Nautilusko borrokalarien ingurukoak, bi hartz zuriren itxura zeukatela mutilek, elurra baizik ez zela ikusten haien borrokaldian. Xabi erdi lo zihoan, Etxebarria gelakideari gau hartako pasadizoa azaltzeko esaldi perfektuaren bila: «Hik ezagutzen duk Citroen Pallas, auto deportiboa. Ez duk rallye kartetan agertzen. Dotoreegia duk horretarako».

Zabaldutako leihotik hotza sartu zelako jakin zuen Xabik mugan zeudela; Isabelle ez zela amarekin ari, polizi jaunarekin baizik, honi azalpenak ematen: baietz, lagunak zirela eta etxera zihoazela, eta ezetz, atzean ez daukatela deklaratzekorik batere, arropak eta jantziak bakarrik; eta poliziaren ahotsa maletate-

gia irekitzeko agindua ematen; eta autoaren motorraren etena eta isiltasuna; eta leiho ertzetik poliziaren txanoa ikusi ondoren, berriz loa.

Sorbaldan atximur eginez esnatu zuen Gotzonek.

- Benga, hi, ailegatu gaituk.

Baserri txiki bat, hormigoiz eraikitako etxe multzo zatar baten aldamenean. Egurrezko ate mehar bat, Xaia Ostaturia letra gorri eta berdez zioen argi panelaren azpian. Panelagatik ez balitz, irudi luke ukuilu batera sartzea zihoazela. Barruan mahaiez eta jendez betetako taberna zabala agertu zitzaion, ke laino batean bildua. Sabelari eusten zion gizon bibotedun bat ikusi zuen Xabik, eta harekin barreka ziharduten beste hiru lagun, denak ia negar malkotan. Eta puntan beste gizon batzuk, kartetan, argi txiki baten azpian. Eta beste gizon batzuk haien inguruan, karten lehiari so. Lehiakideetako bat aita zela konturatu zen berehala Xabi, ezin zuen beste inor izan buru soildu trabeska orraztutako xerloz apainduarekin. Kartak paparrean ezkutatzeko maneran ere antzematen zen aita zela, oso zuhurra baitzen horretan. Kartetan aritzea denbora pasatzea baino askoz gehiago zen bere hiztegian.

- Zer moduz elurra? -galdetu zion semeari, kartak ordenatu ahala.

- Semea al da? -esan zuen ile urdin eta musu gorriak zeuzkan lehiakideetako batek.

- Bai, eta beste haiek ere bai.

Beste bi lehiakideak mahaiaren bueltan zeuden kuxkuxeroekin hizketan ari ziren. Ez zioten Xabiri arre-tarik jarri.

- A zer *granuja* itxura daukan! -esan zuen gizonak, eta berez gorria zuen aurpegia areago gorritu zitzaion.

- Hik ez dakik ongi -esan zuen aitak, eta eskuarekin ipurdian jo zuen Xabi, eta kolpea profitatu zuen pittin bat bultzatzeko, keinu sotila hura ere, handik uxatzeko.

Diosalak egin zituzten: amaitu zen elkarrizketa. Alde.

- Joxemari, hitz egin -esan zuen gazte itxurako batek.

- Paso -hasi zen aita.

- Paso -bigarrenak.

- Enbido -hirugarrenak.

Baina Xabik ez zuen laugarrenak esandakoa entzun, bai ordea anaiaren ahotsa, bere aldamenean oihuka: «Pintto!».

Atzeko hanketan zutik jarrita zegoen zakur batekin jolasean ikusi zuen Gotzon. Eskuetako bat zakurraren buru gainean zeukan, eta bestearekin agurtu zuen aita. Ez zegoen gehiagorako premiarik, aita kartetan ari bazen behintzat. Horregatik ari zen Gotzon zakurrarekin hizketan, zakurrak ulertuko balio bezala, orain makila bat ahoan sartu eta zakurrak hari hagin-ka egin ziezaion tentatzen. Besteek gauza serioegiak zeuzkatelako.

- Heldu honi! -makila zakurraren muturraren iris-
menetik altuago jarriz.

Eta ama haren atzetik:

- Nahi al duzue granadina?

Aitaren mahaian enbidoka ari ziren, ez ziren handik ordu batzuetan mugituko. Zer egin zezakeen? Ez zion granadina bati ezetzik esango, une horretan Oretara itzuli eta betiko bere bizitza galdua berreskuratzeko antsia sentitzen bazuen ere. Beharbada ez zen bizitza desio zuena, ez zen bere etxea edo bere lagunak edota zerbait zehatza eta ukigarria, bizitza haren baretasun arina baizik. Gauzak betitik hala izan zirela eta betiko iraungo zutela, sentimendu ikararik gabeko hura. Horren guztiaren ordeaz, granadina edango zuen.

Karta jokoak iraun bitartean berriketan aritu zen ama beste mahai batean, batzuetan ahopeka eta beste batzuetan builaka, Xabirentzat ezezagunak ziren emakume batzuekin eta Isabellerekin. Elkarren artean loturarik ez zeukaten elkarrizketa txatalak harapatzen zituen noiz edo noiz, eta zertxobait nahigabetuta sentitu zen ez zirelako berari buruz ari, kanpoko norbaitekin ari zen bakoitzean amak egin ohi zuen gisan, «mis hijos» gora eta behera, Xabiri gogaikarria iruditzen zitzaion ohitura baina kurioski gaur faltan hartzen zuena.

- Zer egingo dugu? -galdetu zuen Nagorek, kuxinaren kremaierari eragiteari utzi gabe.

Eta haiek ere kartetan aritzea adostu zuten. Horretarako tokia zirudien tabernak. Xabi nagituta zegoenez, anai-arreben jokoari so geratu zen, miniaturazko Chevroleta mahai gainean irristatzen zuela, oholen juntura baliatuz kaleak irudikatzeko, autoa marraren aldamenean aparkatuz. Nahi zutena esango zuten, baina hura *benetako* auto bat zen.

Zer ordu zen? Nora joango ziren lo egitera? Izango ote zuen amak beretzako toalla zaharrik Isabelleren autotik ateratako poltsa marroi hartan?

Xabik amaren magalean etzan zuen burua. Ahotsa bozgorailu batetik baletorkio bezala entzuten zuen, ahots urratu samar hura. Tarteka algararen bat egiten zuen, eztul batzuk ondoren, gizarteratzeko liturgiaren erantzun fisiologikoak. Amaren zoriona senti zezakeen bere bularraren mintzairaren bidez.

- Aspertuta al zaude?

- Bai.

- Laster joango gara.

- Laster, noiz?

Ileak orraztuko zizkion eskuarekin, eta zigarro bat piztuko zuen berehala. Kea irentsi ondoren, mihia atera zuen pittin bat, bota behar zuen keari bidea irekitzeko. Ke zutabe fin bat. Irri eztanda txikiak ailegatzten dira, solas moztuak, baso bat zoruaren kontra, zakurraren zaunkak.

Eta inork espero ez duenean, Txomin agertu da, lehengo eguneko gizon sendo bizarduna. Oihuka agurtu dute emakumeek. Mahaira hurbildu eta amaren parean dagoen emakume ile-horiaren aldamenean makurtu da plastikozko poltsa zuri batekin, eta han barrukoa erakutsi dio, diskretuki. Emakumeak beste oihu txiki bat bota du eskerrak emateko. Gainerakoak poltsan dagoenarengatik galdezka hasi dira. Eta Txo-

minek bisigua omen den arrain handi bat atera du isatsetik oratuta. Bibak bota dituzte emakumeek, miretsita.

- Eta hi zer, beti amaren magalean? -sakatu dio Xabiri-. Nahi al duk nire kamioia ikusi?

Txominek emakumeei begia kliskatu die.

- Jantzi berokia! -agindu dio amak mutilari.

Txominen atzetik irten da lasterka. Eskuinera jo dute errepidetik. Metro gutxi batzuk egin ditu Txominek atzera biratu aurretik.

- Ikusten al duk?

Bazterrean lagata daude autoak, baina kamioirik ez.

- Ez al duk nire kamioia ikusten? Hortxe zagok! -eskua garondoan jarri dio Txominek, eta motor laranja txiki bat dagoen tokiraino eramane du.

- Motorra? -harritu da Xabi.

- Ibili nahi al duk?

Malgukiekin lotutako kaxa kendu du Txominek atzeko eserlekutik, umeari tokia uztearren. Erregaiaren giltzari eragin dio eta, motorra eusteko hanka kendu ondoren, korrika eramane du, motorra eztulka hasi den arte. Kasko txuri ugerrez betea eman dio janzteko.

Nekez abiatu da motor laranja sortalderantz, Pausuko babes ofizialeko etxeak dauden tokirantz. Bihurgunea hartu dute ezkerrera, bestea eskuinera eta, halako batean, kale luze bat: azeleragailuari sakatzeko aproposa nonbait, abiadura ez ezik, hotz mortala baitago.

- Beldurtuta?

- Ez.

Fabrika artean sartu dira, motorraren argiek baino argitzen ez duten kale zulo batean, eta berriz azeleragailuari sakatu dio Txominek.

Zer litzateke bizitza, kontatzekoak diren gauzengatik ez balitz!

Horrexegatik merezi zuen hezurretaraino sartzen zitzaion hotza sufritzea, besterik ez bazen tabernara itzuli eta anai-arrebei kontatzeko motor baten gainean ibili zela inoizko egunik hotzenean. Gero etxe batzuen artean sartu ziren, eta Txominek hatz erakuslea atera zuen, zuhaitz baten alboan zeuden eta motorraren zaratarekin burua itzuli zuten mutil batzuk erakustearren.

- Auzoko mutilak dituk -esan zuen-. Motorrak lapurtu eta puskatan uzten ditiztek.

- Zertarako?

- Haiekin beste motor batzuk osatu eta saltzeko.

Xabi isilik zihoan, bere auzoko Mangaperros akorduan. Bizikletak ebatsi eta margotu ondoren berriz saltzen saiatzen zen. Ugartetarrei Abelux zaharra lapurtu zien, eta hantxe agertu zen gero auzoan bizikleta eskuan hartuta.

- Hi, Ugarte -esan zion Gotzoni-, bizikleta berri hau hamar durotan utziko diat. Nik ez diat erabiliko.

Anaiaren larridura, bizikleta berea zela deskubritu eta lapurrari ezer esateko adorerik ez zeukalako.

- Nirearen antza dik.

- Bizikleta guztiek zauzkatek bi gurpil.

- Ez duk berria, ikusi herdoila!

Hortaz, karraskilaz inguratutako etxe txikiz betetako herrixka kaskarin honetan ere bazituzten Mangaperros kuadrillak. Zenbat gauza jakiteko.

Aurpegia izoztuta zeukan Xabik Xaiara itzuli zirenean, baina horrek ez zuen nahigabetzen.

«Motorrean ibili ez bahaiz, ez dakik zer den hotza», esango zuen, baten bat parean tokatuz gero. Eta han joan zen korrika anai-arrebengana, esaldia ahaztuko zitzaion beldur.

Euskadi, gudaria, polizia, errefuxiatua, erbestea... helduen mundua egunez egun osatu beharreko mapa desertua zen, eta puntu batetik bestera joateko hitz gakoak ageri zitzaizkion Xabiri. Baina ez ziren bere mapa propioa osatzeko behar zituen hitzak baino garrantzitsuagoak, ezpada bere mapa propio hura osatzeko eragozpenak eta mehatxuak. Emango al zizkion Euskadik zapata berri batzuk?

Alabaina, bazirudien aberri zeritzon horren aldeko konspirazioan mugitzen zela mundua, eta konspirazio hura zela zerbait infinitua, larria eta, era berean, hunkigarria, jendea ernegatzen eta aldi berean pozten zuena; eta proiektu misterioitsu horren nolabaiteko parte izateak harrotasun izpi bat sortzen zion barruan, *zerbaiten* parte izateak. Baina izpi bat besterik ez zen, eta agertu orduko eguneroko kezka txikiagoen amaraunean desagertzen zen; kezka txiki eta askotan gaindiezinak, kezka handiak baino askoz ere konplikatuenak. Eta beti mingarriagoak. Aberriak ez baitzuen mintzen, bai ordea bere armairu beti hutsak.

Bizitzaren haizeak zekarren beste gauza bat kantuak ziren. Musika triste batek burutazio tristeak ekarriko zizkiola, eta alderantziz, musika alaiak pentsamendu alaiak. Arazoa zen musika batek sentimenduak gaiztotzen zizkionean, eta non sartu, zer egin, nora joan, norekin hitz egin, nori esan, non negar egin ez zekienean. Zerbaitek esaten baitzion bazuela tris-teziak zerbait lotsagarritik.

Badira berez dakizkigun gauzak.

Adibidez, Txominen etxera joatea ona izango zela, hala esan baitzion amak bere magalera berriz joan zenean: Emilioren etxea utzi eta Txominenera joango zirela.

- Pozik zaude?

Antzemana zion amak Txomin gustuko zuela. Nola ez zuen ba izango? Zer dago motor bat baino sofistikuagorik?

Gero, noski, deskubritu beharko zuen gauza bat zela Txominen etxea irudimenean, eta bestea, oso ezberdina, Txominen etxea bera, eta Txominen alabak, biak berari begira. Hemen da etorri berria. Eta denak Xabiren jantziei so. Eta amaren herabetasuna:

- Ez dugu enbarazu egin nahi.

Eta Txominen emazte Maiteren hitz lasaigarri urduriak:

- Enbarazu? Arren, Mari Karmen, zuen etxean zaudete!

Ikara batean zegoen Xabi, lo egitea bi nesketako batekin egokituko zitzaiolako izututa.

Xabi sesele pipi en la cam!

Berdin zitzaion enbarazu egitea, hotza edo gosea pasatzea, baina, otoi, ez zezatela neskekin lo egitera behartu. Amak semearen larritasuna asmatu zuen:

- Ez dakit non sartuko garen...
- Badago tokia -Maitek.
- Gure ohean ez! -nesketako batek.
- Ez hasi horrekin, faborez.

Erraza zirudien ugartetarrak etorri aurreko etxe hartako elkarrizketak imajinatzea. *Nire* etxea, *nire* ohea, *nire* pijama, *nire* bizikleta. Xabik bazekien zer zen *bere* gauzen defentsa. Bera baino zuhurragorik! Eta eskua emango zukeen alderantzizko egoeran izateagatik. Gonbidatuei so, haien deserosotasunari erreparatuz, akaso hitz lasaigarriren bat: «Nire autoak erakutsiko dizkizuet». Zeren eta nork bere etxean nahi duena egiten baitu amaren ipurdikoa ongi mere-

zia jaso arte, baina besteen etxean... besteen etxean sardexkak ere beldurrez hartzen dira.

Berehala ohartu zen Xabi bi ahizpetako batek ez zuela hitz egiten, keinuka eta espantuka jarduten zuela, eztarritik zarata modukoak eginez, eta beldur zen bere harridura ez ote zen kanpotik igarriko, begiratua iltzatuta geratzen baitzitzaion neskatilaren auhentan. Orduan beste neskek egoera deserosoa desegin nahi izan zuten eta, sabaitik zintzilik zegoen soka bati tiratuz, ganbarara igotzeko behar zuten eskailera jaitzi zuten.

- Bost minutu barru afaltzera.

Baina ja egina zegoen. Haurrak ganbaran zeuden, hango miniaturazko futbol joko hautsez estaliari begira, elkarri neurria hartzen. Xabik jokalaria lotzen zituen burdinazko hodiaren amaierako kirtenari heldu zion, eta jokalaria mugitu zituen, besteek maleta baten moduan zabaltzen zen disko-jogailuari arreta jartzen zioten bitartean. Alferrik izango zen partida bat proposatzea, Txominen alabetako bat disko bat hartzen ari baitzen.

«Xeri, xeri banana, una fruta muy sana, ye, ye», ateratu zen bozgorailutik, eta espantuka ziharduen neskek txalo egin zuten, erritmoari kasu egin gabe. Or-

duan Xabik begirada futbol jokora itzuli zuen. Liluratu-
ta eta durduzatuta zegoen. Bere bizitzan gerturik ikus-
ten zuen lehen neska *mongolikoa* zen. Eta neskareki-
ko errefusa eta jakin-mina, biak nahasi zitzaizkion.

Gotzon isilik egon zen, diskoen artean arakutzen.

M, a, eta o letrak errepikatzen zituen Ainarak,
dena zen aaaaaa, edo ooooooo edo mmmmm. Zorion-
tsua ematen zuen, dena ospatzen zuen oihu eginez,
eta bi nesketan bakarra zen soinekoz janzten zena,
apain. Nolanahi ere, neskak mozorrotua zirudien, ilea
garçon erara moztuta baitzeraman, norbaitek jantzi
femeninoegiak jantzi izan balizkio bezala.

Diskoa aldatu zuen Mainerrek, eta Ainarak zorio-
nekoa edo haserretua ote zen bereizten zaila zirudien
garrasia egin zuen; ugartetarrak begira geratu zitzaiz-
kion, kasik nahi gabe, izuak eta lilurak erakarrita,
baina ahizpak oihuekiko naturaltasuna erakusten se-
gitzen zuen.

«Bee Gees» irakurri zuen Gotzonek disko berria-
ren karpetaren azalean. Gogoia izan zuen hiru gizonez-
koen kantatzeko manierak emakumezkoa zirudiela
esateko, baina ur sakonetan sartzeko arriskuaz ohar-
tu zen, txorakeria bat esatekoa alegia, eta mutu segi-

tu zuen. Ainararen oihuak entzuten zituzten. Kantuan ari ote zen? Zer ziren bestela oihu eta intziri haiek?

Futbolinean jokatzeko pilotarik ba ote zegoen galdetu zuen Xabik, zer esan eta nora begiratu ez zekielako, eta une horretan bertan Ainarak aho ertzetik zerion lerdea sikatu zuen mahukarekin.

- Zer dauka zure ahizpak? -galdetu zuen Gotzonek.

- Ainarak? Ez *dauka* ezer, horrelakoa *da* -esan zuen Mainerrek.

Txomin mahai buruan zegoen, besaurreak mahai gainean, tente. Ainara ikusi eta eskuarekin aulkian jota deitu zuen bere aldera, eta musuka agurtu zuen, musuak aurpegian, musuak buruan, eta maitasun hitzak. Zein merezimendu egin ote zuen neskak halako mainak jasotzeko?

Sardexka patata-tortillaren mamian barneratu orduko, alabarekin lehiatzea beretzat huskeria izango zela iritzita, Txominen aurrean zerbait esateko gogoaz piztu zitzaion Xabiri. Hitz potoloak, txantxak eta balentriak ziren helduen arreta bereganatzeko Xabiren errepertorio bakarra, baina bazekien gurasoak atezuan izango zituela, eta kontuz ibili beharra zegoen, ez ote zen kontua errietaren batekin amaituko.

Aita izan zen kalakan hasi zena. «Keske bu bule, mamuasel?»; frantses ikasle hasi-berriaren ikuskizuna. Zaila zen aita gogoz zegoenean hura gainditzea. Baina denek nahi zuten denen berri izan, eta Xabik laster izango zuen Txomin galdezka, zer moduz hau eta zer moduz bestea. Eta orduan Xabik, bere nortasun zaharra ahaztu eta berria eraikitzeari ekingo zion.

Nola ez zitzaion ba futbola gustatuko? Ehunka gol sartutakoa zen ikastolan!

Gizon baten mirespenak ongi balio ditu gezur bat edo bi.

Eta hantxe ari zen bere iragana lurpean sartzen, tortilla gehiago inork nahi ote zuen galdera entzun zuenean. Eskua altxatu zuen, baita mahaian zeuden ume guztiek ere. Aitak protesta egin zuen arren, Maitek bost zatitan banatu zuen geratzen zena. Xabik sekulako ahalegina egin behar izan zuen begira sentitzen zituen aitaren begiei jaramon ez egiteko, baina bazekien begirada hark zer esan nahi zuen, eta ez zuen begiratu nahi. Nahiago zuen tortilla jan.

- Tortilla honek -esan zuen Txominek- munduko txoko guztiak ezagutu ditu.

- Ez hasi horrekin, mesedez -Maitek gogaituarena egin zuen.

Baina kanpotarrak begira zituen Txominek, eta bazekien azalpena osatu behar zuela.

- Nire lehengusuak, Tourmaleten gora bosgarren iritsi zen egunean, halakoxea jan zuen, Maitek egina. Ez naiz txantxetan ari. Glukosa eta halako zikinkeriak ematen zizkieten, baina hark nahiago zuen tortilla, eta

karreretara joaten ginenean, beti hartzen zuen zati bat.

Harro zegoen lehengusuaz, elkarrekin hazitakoak omen ziren, denak baserri berean, Astigarragan.

- Esne-banaketan ibiltzen zen baserritik kalera bizikletaz. Halaxe zaildu zen, lanean. Gaztetan bere taldearekin lehen entrenamendua egitera bizikleta zaharrarekin eta esnea banatzeko orgarekin agertu zen, hura atzean lotuta. Denak iseka egiten hasi zitzaizkion, baina lehen malda ailegatu orduko bukatu zitzaizkien kaikukeriak, lehengusuak gurdi eta guzti denak atzean utzi zituenean. Hura zen astapotroa! Gora ailegatu zirenean lehengusua organ eserita aurkitu zuten, sagar bat jaten. Orduetik aurrera denek errespetua izan zioten, eta Lechero esango zioten. Gero profesionalekin hasi zen eta onenen artean ibili zen, zuen aitak badaki.

- Ez al zen Fagor taldean ibili?

- Ocañarekin!

- Egia duk, bai. Eroritako Tour hartan laguntzen ibili zuan, akordatzen nauk.

- Ocaña hura faxista zuan, baina kristoren korredorea!

Zutitu eta armairuko tiraderatik argazki bat hartu zuen Txominek:

- Hemen zagok!

Argazki zuri-beltzean Ocaña ageri zen, zangoak odoletan, burumakur, bizikleta gainean bere buruari eutsi ezinik, eta haren aldamenean Fagor taldeko karreristak, eskuaz eroritakoaren eserlekuari heldu eta bultzaka. Eta haien artean Lechero famatua!

Ocaña maldan gora laguntzen ibilitako karreristaren lehengusua ezagutu izanak harrotasunez bete zuen Xabi.

Maitek hartu zuen txanda, jasotzen hasitako ma-haiko platerak eskuetan:

- Zure lehengusu hori, jatorra balitz, zutaz akordatu-tuko litzateke.

Txominek ez zuen erantzun; horren ordezt begiak igurtzi zituen. Mainerrek azaldu zuen isiltasunaren zergatia:

- Beti berdin amaitzen dute lehengusuez hitz egiten dutenean, ez delako sekula bisitan etortzen.

- Gure osaba ere ez da sekula etortzen -sakatu zuen Nagorek.

- Nahikoa da, Nagore -serio jarri zen aita derrepente.

- Hi ez al hintzen futboleak ondo moldatzen? -gaia aldatu zuen Txominek, aitari begira.

- Futboleak moldatu izan banintz, aberatsa izango nindukek orain. Eta ziur aski ez gintuzkek tortilla mundial hau afaltzen hemen egongo.

Eta denak barrez lehertu ziren, salbu eta Xabi, zeina jada gauean nola moldatuko ote ziren kezkatzen hasia baitzen. *Xabi sesele pipi en la cam*. Neska ederra zen Mainer, hura konkistatzeko modu petrala izango zen pixoihalarekin agertzea. Nahiko ziokeen amari galdetu, gauza haiei buruz dena baitzekien amak, baina gaia ateratzea piztia esnatzearen antzekoa iruditu zitzaion. Sinetsita zegoen gaia ateratzen ez bazuen inoiz oheratu gabe geratuko zirela Txominen eta aitaren kirol istorioak entzuten. Ez al zen ba bizitza ederra ohera joan behar izan gabe?

Mahaia jasotzeko tenorea, ordea, ohera joateko tenorea zen. «Ohera!» entzun zuen, baina segituan hitza bere buruaren zokoren batera bota zuen harrika, eta Txomini begira segitu zuen. Eskerrak, amak hatzarekin ganbara isolatua erakutsi zien; ezagutu berri zituena neska kuxkuxeroen begiradatik salbu egingo zuen lo!

Eskailera behera ekartzeko sabaitik zintzilik zegoen sokari tiraka ari zitzaion Maite, eta esan zuen:

- Egin ezazue txiza orain, gero ilunpean jaitea zaila izango da-eta.

Xabik sentitu zuen bizkarrean hegalak hazten ziztzaizkiola, eta salto batean igo zen ganbarara, intimitate oparitu berria ospatzeko irrikatan.

Gotzon arduratu zen anaiaren hegalak mozteaz, burua tranpoletik agertu orduko:

- Hi, Xabi, jarri ezak *hor* zerbait. Ez iezadak zera gainean egin, entenditzen duk?

Entenditu zuen, bai, anaiak bera ez laidotzeko *hor* eta zera hitzak erabili arren.

Bizitza berrian dena aurkikuntza izanik, dena joan eta etorri, Xabi bere buruaz ahaztu egin da zertxobait, nahiz eta oraindik segitzen duen komuneko konketa gainera igo eta bere buruari begira, ispiluak itzuliko dion irudiaren baitan edertasuna eta sendotasuna ikusteko ilusioaz. Besoak angelu zuzena osatuz jarri eta indar egiten duenean, pozik geratzen da ikusten duenarekin, besoetako gihar ederki zizelkatuekin, eta harrituta dago inork ez diolako inoiz ezer esaten; «hik dauzkak giharrak, Ugarte» bezalako esaldiek zoriontsu sentiaraziko zuketen. Eta Emiliorena gertatu duenean, hain zuzen, amaren ahotsak konketa gainean harrapatu du, atea kisketaz itxita, bere gorputzaren ikuskizun ederrean.

Amak ez dauka gauzak esateko protokolo berezirik; ez ditu umeak mahaiaren bueltan jarriko, listua irentsi ondoren kontatu beharrekoa patxadaz eta poliiki kontatzeko. Horren orde, batera eta bestera korrika doala esango ditu gauzak, istorioa amaieratik hasita, txatal horiekin bere buruan dagoen istorioa denek ongi ulertuko duten uste osoarekin.

Bonba hitzak ez dauka aparteko esanahirik Xabirentzat.

Ez du uste filmetatik aparte bonbarik izan daitekeenik, edo, inon baleude, benetan inori min egiteko izan litezkeenik. Bonben eztandaekin hegan ateratzen da jendea filmetan, sugarrez inguratuta eta eskandalu batean, baina apenas gertatzen da ezer gehiago. Eta Emilioren kasuan ere antzera: «autoa suntsitu diote», «bonbak behar baino lehenago eztanda egin du».

- Baina une *egokian* eztanda egin izan balu? -galdetu du Gotzonek.

Amak eskuekin estali du aurpegia eta halaxe egonda, liburu bat gertuegitik irakurtzen ariko balitz bezala. Eskuak aurpegitik atzera kendu dituenean bustita ageri ditu begiak.

- Jantzi denok -esan du- eta trenera.

Astebururo bezala Hendaiara doaz, baina ama guztiz hunkituta dago gaur. Xabi, aldiz, harro sentitzen da auskalo nondik agertu den kirol poltsa berriarekin. Beno, ez da berri-berria, baina hala ematen du, eta gainera bere lehen «kiroletako» poltsa da, eta bere arropa amaren poltsa handian anai-arreben arroparekin nahas-mahasean eramateaz libratuko duena.

Gizontzeko xede zailean aurrerapauso handia. Poltsa betetzeko gauzen bila aritu da etxean eta, azkenean, bere auto txikiekin bete du. Poliziak hura zabaltzeko agintzen badio gustura erakutsiko dizkio, dagoeneko baditu-eta bi dozena.

Hendaiarako topoan atentatuari buruz jardungo dute, bagoira sartzeko atearen parean goitik behera dagoen burdinazko barran jolastu bitartean, baina amaren belarrietatik urrun, hark esan baitie ez deza-tela horretaz hitz egin.

Gotzonek badaki nortzuk izan diren:

- GALEkoak. Polizia eta mertzenarioz osatutako taldea.

Xabik buruan atxiki du GAL hitza. Baina berehala Emilioren autoarekiko kezka sortu zaio:

- Zer egingo dute orain autorik gabe?

- Hi bezalako babalore bat bakarrik -errieta egin dio anaiak- hasiko litzateke autoaz arduratzen!

Hortik aurrera arreta galdu du Xabik. Beraiek dau-den tokitik gertu dagoen neska bati erreparatu dio. Dena du polita: ileak, ezpainak, begiak, lepoa, jertsea, oinetakoak. Begira-begira geratu zaio eta begirada itzuli dio neskak. Barratik gora igotzeko ahalegina egin du Xabik, eta mertzenarioez diharduen anaiak pi-

ttin bat baztertu egin behar izan du. Sabaia hatz mamiekin ukitu du, eta sabaiaren alde batetik bestera doan barrari eutsi dio, han zintzilikatzeko asmoz. Neskaren begirada senti dezake, nahiz eta ez dakien miretsita edo nola ari zaion begira, ez baitu harengana begiratu nahi, neskak ez dezan pentsatu harentzat ari denik. Azkenean bai, ausartu da begiratzen, Gotzonek «aita ez, aita ez dute hilko» esan duen unean, eta orduan ohartu da leihotik kanpora begira ari dela neska, han goian alferrik dabilela alegia, ikuslerik gabeko erakustaldian.

- Hi beti ilargian -esan dio Gotzonek.

Eta amaren ahotsa entzun dute: doazela esertze-ra.

Zer du ba txarra ilargian egoteak?

Emilioren etxera ailegatzean, autoa behar zuen tokian zulo beltz handia dagoela ikusi dute, eta inguruak ere belztuta daudela; etxaurrea bereziki, hirugarren solairura arte kaltetuta. Erre usaina eta gasolinarena nahasten dira, behinola itsasoarena nagusitzen zen inguru horretan.

Emiliok bizkarrean kolpetxoak eman dizkio amari, honek estu besarkatu duenean, eta denak serio geratu dira une batez. Izaskunek besoak gurutzatuta ditu,

parean daukan zuloan begiak iltzatuta, baina Xabik nabari dio ez dela zulora begiratzeko ari, ez bada urru-neko toki batera. Xabik ez daki bere gurasoak horren nahigabetuta ikusi dituen noizbait. Munduak haiekin kontatu du gauza ororen ordena ezartzeko eta aldatzeko. Zertara dator, orduan, halako harridura? Zer da beren mundu horretatik ulertzen ez dutena?

Asfaltoaren geruza lodia ageri da, eta asfaltopeko harriak eta hondarra, lurra den pastel handian norbait atzamar erraldoia sartu izan balu bezala, zati bat jateko.

- Hor behean zegoen hodia apurtu dute -esan du Emiliok, ura darion zulo batean oina sartuta.

Aita Emilioren parean jarri da zerbait esateko, denei bizkarra emanez, eta Xabik Emilioren burua ikusten du baietz egiten, baina ez du aitak esaten duena entzuten, hain zuzen horretarako ari baita ahopeka, eta ahopeka ari delako hasi dira bi emakumeak ere beren aldetik hizketan, isilpean hauek ere, eta abagunea aprobetxatu du Enekok burua aitak erakutsitako hodian sartu eta barrura begiratzeko.

- Atera hadi hortik -agindu dio Emiliok-. Hor ez zagok begiratzeko ezer.

Laprast eginez atera da zulo handitik. Galtzetan garbitu ditu eskuak. Denek zuloaren inguruan segitu dute, baina han gertatutakoaz zuzenean inork hitz egiten ez duenez, hurrek ez dute galdetzen. Aitaren aurpegiaren espresioa nahikoa da Xabirentzat, badaki hobe duela ezer ez galdetzea. Esperantza dauka Emiliok zerbait esango duela, aitarekin alderatuta hurrekin hitz egin zaleagoa baita, baina Emiliok aski du malkoei eusten.

- Mirariz nago bizirik -esan du, Xabiren pentsamendua irakurri izan balu bezala.

Gurasoek handik alde egiteko une aproposa iritzi diote, eta haurrak hantxe utzi eta gorantz abiatu dira.

Eguerdiko eguzkitik ihesi, adreilu batzuen gainean eseri dira haurrak, gerizpean. Oinak zintzilik, etxearen orban beltz izugarriari begira geratu dira.

- Nire oheak salto egin du eztandarekin -kontatu die Enekok-. Leihora iristen ziren sugarrak. Suhiltzaillek atera gaituzte etxetik.

Trebea da Eneko istorioa kontatzeko hitzak eta doinua hautatzen. Badaki ez dituela exajerazioa eta alferrikako grina behar, nahikoa dela hitzei etortzen uztea, parean daukaten zuloak ongi adierazten baitu hura ez dela *istorio* bat, egia hutsa baizik.

- Nola egin dezake bonba batek halako zuloa?

-galdetu du Nagorek.

Inork ez daki erantzuna, baina Gotzonek esan du:

- Zulo handiagoak ere egiten dituzte. Etxeak oso-rik bota ditzake bonba batek, edo herri osoak txikitu.

- Bai zera! -Nagorek ez du sinesten.

- Galde iezaiezu japoniarrei. Milaka hil zituzten amerikarrek bonba bakarrarekin.

- Zulo hau egin dutenak ez dira amerikarrak izan -elkarrizketa bideratzen saiatu da Eneko.

- Eskerrak -esan du Gotzonek-. Horiek ez dute hu-tsik egiten.

Xabi harro dago bizitzan lehen aldiz bonba baten eraginak ikusi dituelako. Eta are harroago ez delako ikusle soila, bonbaren arrazoien nolabaiteko parte bai-zik. Zenbat daude munduan halako zerbait konta dezaketenak? Telebistan agertzen diren apur horiek bes-terik ez! Eta hantxe dago bera zuloaren pare-parean bonbei buruz hitz egiten, benetako gizonak bezala. Hain sentitzen da pozik, eztabaidan parte hartzera animatu baita:

- Eta autoa non dago?

- Hi hasi hadi orain berriz horrekin -gutxietsi du Gotzonek.

Xabik ez du anaiaren sumina ulertzen.

- Autoari ipini diote bonba, ezta? -protesta egin du.

- Zer axola dio autoak, babalorea!

Baina Enekok erantzun egin dio:

- Kiskalita dago. Garabiak eraman duenean oilas-ko errea ematen zuen. Gurpila hantxe azaldu da, punta hartan, eta paratxokea beste hartan. Beste bi auto ere erre dira, horregatik dago hau dena belztuta.

Pauline ospitalera eraman dutela esan du gero, txapinetan korrika atera dela etxetik, espantuka.

Denak isilik geratu dira une batez, eta Xabik galdetu du:

- Nor da Pauline?

Baina Enekok eten egin du, eskuaz Xabiren ahoa tapatuz.

- Baloia maletategian neukan! -oroitu da.

Aparkalekuaren beste puntan Belharra dago, surf taulak eta bainujantziak saltzen dituen denda, neguan itxita egoten dena. Denda parean dago jabea, erratzaz kristal zatiak garbitzen, bainujantzi azpitik hanka beltz gihartsuak ikusten zaizkiola. Besoa altxatuz urrunetik agurtu du Eneko; badirudi, keinuarengatik, nolabaiteko ezagutza dutela bien artean.

- Goazen Bixenterengana -esan du Enekok, eta korrika hastearekin batera joan zaizkio denak atzetik.

Egur txatal bat eskuetan hartuta dauka Bixentek haurrak heldu direnean, eta kristalik gabe geratutako atean iltzatzen hasi da. Bainujantzitan dagoen neska baten irudia erakusten duen kartela ikusi du Xabik lurrean, hautsak eta hondakinek estalia. Badirudi iseka egiten ari dela, kristal erauntsiaren aurrean ez duela-ko irribarrea galdu. Xabik badaki jende zoriontsua dagoela hor zehar, inoiz irribarrea galtzen ez duena; han eta hemen ikusi izan ditu. Beharbada horietakoa da Bixente ere, bere ile luze puntan horitu kasik zuriekin, baina ezin jakin, berriz erratza hartua baita, maldizio-ka, *putain* gora eta *putain* behera. Baina bere atzamar beltzaranetan igar daiteke etxe onekoa dela, Xabik izan nahi lukeen bezalakoa. Horregatik uzten ditu beira zatiak han-hemenka, erratza trebetasunik gabe pasatzen ari delako, ez bere amak bezala. Hark hauts pinportarik utzi gabe pasatzen du erratza haurrei hankak altxatzeko eskatzen dienean, haiek telebista aurrean daudenean. Maite du amaren zehaztasuna ikustea, erratzak zorua akasgabe garbi uzten duela kontenplatzea. Bixentek jertse bat hartu du bi hatzekin, eta gorputzetik ahalik eta gehien urrunduz astindu du,

haren gainetik hondakinak kentzearren. Eta gero Ene-
kori jaurti dio:

- Tori, Eneko, eramazu etxera. Ezingo dut inoiz
saldu.

Jertse bat oparitan!

- Zuentzat ere badago -esan du.

Arropa pila beretik atera du jertse urdin bat eta
Xabiri bota dio. Anai-arrebei ere eman die bana. Sabe-
letik gora bozkario neurrigabe bat datorkiola sentitu
du Xabik, bere jertse urdin argiaren paparrean ma-
rrazkia ikusi duenean: surflari bat marrazo baten gai-
nean surf egiten! Denak hasi dira builaka, elkarri jer-
tseak erakusten.

- Kendu ondo beira zati txikiak -aholkatu die Bi-
xentek, haurren zorionari garrantzi handirik eman
gabe.

Jertseari beira zatiak eta ezpalak kentzeari lotu
zaizkio haurrak, gaztea kaxa baten gainean jarri eta
zigarro bat erretzen hasi den bitartean. Neska-lagun
ederra izango du seguruen, eta zigarroak elkarrekin
erreko dituzte, eta musuak emango dizkiote batak
besteari, eta etxeko alfonbraren gainean oinutsik ibili-
ko dira, eta gauean elkarri kontuak esanez lokartuko
dira iluntasunaren beldurrik gabe.

- Zer moduz dago aita?-galdetu dio Bixentek.

- Ondo.

- Kirtenak dira espainiarrak. Tontolapiko hutsak eta asesinoak. 40 urte eman dituzte diktadurapean eta ez dute deus ikasi.

Zaila da jakiten bere buruarekin ari den edo haurrekin. Baina haurrak begira ditu, eta esaten duena entzuten.

- Baina frantsesak okerragoak dira, espainiarrei hemen sartzen uzten dietelako, hona zertara datozen jakinaren gainean. Eta denetan okerrera Mitterrand hori da. Hark ekarriko du Frantziaren hondamendia.

Nagorek eskua altxatuz esan du:

- Nik badakit nor den Mitterrand. Presidente!

Oinak txankletetatik atera eta zolak igurtzi ditu Bixentek, zigarroa ezpain artean duela:

- Oilobusti bat da.

Barrez hasi dira denak, baita Xabi ere, nahiz eta tartetxoa daraman han gertatzen ari denari ezaxola antzera, bere jertseari erreparatuz hipnotizaturik bezala, aurrerantzean jertseari esker mundu osoarengan sortuko duen lilurarekin esperantzaz eta antsiaz beteta. Mitterrand izeneko zoro ustezko horrek ezingo luke

Xabiren zorion puska honekin lehiarik egin, horixe da egia.

Berehala zutitu da Bixente, eta haurrak bota ditu handik, denda itxi eta uretara joan behar duela esanez. Denda guztiz txukundu gabe ospa egingo du, bere aire patxadatsuarekin. Eta hurrek ere alde egingo dute, beren betiko bizitza kedar usainekora.

Oparitan jasotako arropak erakutsiko dituzte etxean, nahiz eta gauza agerikoa izan eskandaluak eta ospakizunak tokiz kanpo daudela. Gurasoak mahaiaren bueltan daude, Emilioren etxeko lastozko argi horixkaren azpian solasean, keak bilduta, eta hurrei begira geratu dira haurrak ezagutuko ez balituzte bezala. Emilio hasperen eginez zutituko da kafetera eskuetan hartuta, eta Izaskunek Enekoren jertsea helduko du eroatera joango balitz bezala. Xabiren aitak ideia hobea dauka:

- Kubara bidaliko dugu.

Belaunek dardara egiten diotela sentituko du Xabik, jada ez dagoela odolik batere bere zainetan. Ez du gaizki entzun, hortxe baitauka ama hurraren defentsan.

- Joxemari, utziozu mutilari.

- Ez utzi eta ez kristo! Mutilak badauzka hamaika jertse, beste haur askok ez bezala.

Emiliok Enekorri so egin dio, bere haurrarentzat ideia egokia ote den ikustearren. Baina Enekok azkar moztu dizkio hegalak:

- Nirekin jai daukazue -gelara ihes egin du supituan.

Xabik atzetik joateko imintzioa egin du, baina lozorrotik esnatutako aitaren besoa erdian jarri zaio:

- Emadak hori.

- Joxemari... -amak.

- Nahikoa da. Emadak hori.

Bixenteren patxada eta giharrak balitu, jo eta bertan txikituko luke aita. Begian amatatuko lioke zigarroa. Mingaina atera eta ito egingo luke harekin. Hatzak moztuko lizkioke banan-banan. Baina horren guztiaren ordeztu jertsea eman dio.

- Zuek ere bai -esan die Nagoreri eta Gotzoni.

Botina mahai ertzean laga du.

- Horixe da sozialismoa -esan du besteei begira-, gauzak konpartitzea.

Enekoren gelan sartu direnean elkarri so egin diote. Xabik bere buruari zin egina dio ez duela negarrik egingo Enekoren aurrean.

- Ederra piztia zuen aita! -esan du Enekok, ohean etzanda.

- Kuba non dagoen ere ez daki artaburu horrek -esan du Gotzonek.

Xabik ere ez daki non dagoen Kuba, baina badaki hango haurrek zorte handia daukatela, hemengo aitek beren hurrei jertseak kendu eta hara bidaltzen dituztenez gero. Akabo marrazoa paparrean eramateko amets ederra. Bixenteren dendako neskatila bezala sentitu da, beira zati eta ezpal haiek guztiak gainean, baina bera barre egiteko aldarterik gabe.

- Lehergailua zure aitari ez baizik eta gureari jarri izan baliote! -esan du azkenean.

Gotzonek ideia biribildu du:

- Mitterrand arduratuko da horretaz.

Burdina zati bat hartu du Xabik Enekoren apalategitik.

- Zer da hau?

- Autoaren zati bat. Eguzkitan jarriz gero azpiko berdea igarriko diozu -esan du harrotasunez.

Eta burdina zatia leihoaren aurrean jarri du, denek kedarraren azpiko berdea ikus dezaten. Gero liburuen apalategira itzuli du kontu handiz, eta munduko bolaren aldamenean utzi du.

Xabiri iruditu zaio, hura izan zitekeela bere aita, burdina zati txiki erre hori. Eta ia ohartu gabe negarrez hasi da, eta ez daki jertsearengatik den edo aita-rengatik edo zergatik.

- Lasai, *hermano* -esan dio Gotzonek-. Jertse mordo-a zagok munduan.

Gelaren zokoan eserita dagoen Nagorek zehaztu du:

- Batez ere Kuban.

Ikastola berriari buruzko jakin-minez, hipotesiak egiten jardungo zuen Xabik uda osoan, esperantza baitzeukan Oretakoan baino hobeto moldatuko zela berrian. Eta esperantza areagotu besterik ez zitzaion egin Txominek parrilla egingo zutela esan zionean, ikastolaren lehen festarako eskatu ziotena.

- Ahalik eta handiena egingo dut, handia da-eta ikastolak dituen premiak. Xentimorik gabe zabiltzak -esan zion Xabiri, soldatzeko kaskoa aurpegian paratzera zihoala.

Gabezia hark, hunkitu orde, adorez bete zuen. «Xentimorik gabeko» ikastola berri hura ez baitzen batere beldurgarria, Xabiren buruan behintzat. Eta gainera, berak ikastolaren ezintasuna arintzen lagundu nahi zuen, Txominen aldean kokoriko jarrita, erreminta kaxaren alboan, Txominek erremintaren bat behar bazuen azkar emateko.

- Ekarri kurrika.

- Kurrika... -erantzun zuen Xabik, atzamarra ez-painetan jarrita, erreminta kaxa barruko tresna arrotz

haiei guztiei begira, haien artean kurrika izateko itxura zeinek ote zeukan asmatu ezinean.

- Arrainaren itxura dik -laguntzen saiatu zen Txomin, baina fruiturik ematen ez zuela konturatuta, be-launen gainean ibiliz gerturatu zitzaion, eta kurrika Xabiren aurpegi parean ipiniz esan zion-: Errepara egiok buruari, ikusten duk? Eta gorputza? Hara!, ez al dik arrain itxura?

Zergatik zeukan halako izen aldrebesa?

- Zergatik ez diote arraina esaten, arrain itxura badu?

- Galdera ona.

Parrillero ospeak Txomin jazartzen zuen ordurako. Etxean bazuten bat, txikia, Hegoaldetik baten batek hega-motzak, txuletak edo saiheskiak ekarriz gero bertan erretzeko. Txominek parrillarekin zeukan tre-bezia goraiatzeko zuten heldu guztiek; eta egia eterna- lala zen hura Xabirentzat, dinosauroen garaiaz geroztik mundu guztiak ezagutzen zuen egia, betiko irau-ngo zuena, mendietan zuhaitzek eta harriek bezala.

Astronauta itxura zeukan soldatzeko estalkia aurpe- gian jartzen zuenean, baina Xabirentzat gutxi irau- ten zuen ikuskizunak, ondo esana ziolako ez zezala begiratu soldatzen ari zenean, begi-niniak kaltetzen

zituelako suak. Hain zen tentagarria, ordea, txinparta erauntsiari so egitea!

Goiz osoa eman zuten horretan.

Fagor irakur zitekeen Xabik zeraman txanoan, eta ezin esan harro ez zegoenik, Txominek zin egin baitzion bere lehengusuak emandako txanoa zela, txano «profesionala», Tourra egindakoa. Burua ez zikintzeko utzi zion txanoa, baina Xabik beldur gehiago zeukan txanoa zikintzeko, burua zikintzeko baino.

Nagore eta Txominen alaba Ainara ere laguntzen ari zitzaizkien. Ez zen makala parrilla berri hark eskatzen zuen lana. Burdinak han eta hemen, batzuk lau-kiak (egiturarenak), zilindrikoak besteak (parrillari zegozkionak), eta anabasa hura probetxuzko zerbait bilakatzeko, gizon bizardun hura eta bere kide txikiak, kurrikak eta bihurkinak (bereizten ez zituztenak).

- Kontuz, azkoin txikiak eta handiak nahasi gabe -ohartaraziko zion.

Xabik bazekien azkoinak *tuerkak* zirela, minutuero eskatzen baitzion bakarren bat. Baina ez zituen nahasiko, propio batzuk patrika batean eta besteak bestean gordetzen baitzituen.

Polita zen ikastola berria eraikitzen laguntzen zihardutela sentitzea, ez horrenbeste eraikuntzaren

balioaz jabetzen zelako, baizik eta horrek baztertua izateko beldurrak burutik kentzen zizkiolako. Eta poz harengatik kutsaturik zirudien Txomin berak ere. Zela kantuan ari zelako, zela eskuekin egiten zuena azaltzeko joera zeukalako, ez zen une batez ere isiltzen.

- Zer eskatzen du herriak? Amnistia! -kantatzen zuen, zilindroen arteko aldea neurtzen ziharduen bitartean.

Eta gero:

- Ederki, bost. Bat, bi, hiru... badiat beste hamalau jartzeko tartea.

Ozen ari zen, baina inork ez zuen esaten zuena ulertzen. Nahikoa zeukan Xabik, uneoro azkoin egoiak ematen, eta Ainarak eta Nagorek burdinazko xafak eta zilindroak egoki txukuntzen.

Xabiri, oro har, ez zitzaion jende alai gustatzen. Ez zitzaizkion gustatzen mozorrotzen ziren edo dantza egiten zuten gizonak, edo mozkortuta txoroarena egiten zutenak, buruan gauzak jarri eta imintzioka. Bere aita serioa eta dotorea zen haien aldean. Eta gizonak horrelakoak izan behar zuten, Xabiren irudiko.

Txominek alai egiten zuen kantuan, baina ez zen gizon lotsagarria, sendoa eta gaitasun berezikoa zelako.

Baina deigarriena zen Txominek ez zuela pazientzia galtzen, Xabik okerreko erreminta ematen bazion edo Nagorek xaflaren bat lurrera erortzen uzten bazuen. Zerikusirik ez aitak lanean izan ohi zuen aldar-tearekin. Makina bat bider ikusia zeukan hura lanean, eta ez zen, ez, soseguz betetzen zizun ikuskizuna.

- Bakarrik geratu gaituk! -esan zuen Txominek bat-batean.

Hala zen. Maider eta Gotzon desagertuta zeuden. Baina beti zeuden desagertuta azkenaldian. Eta Xabik, denek bezala, bazekien zergatik, zergatia onartzea kosta egiten zitzaion arren. Gurasoek, trufaka, «sasira joanak» zirela esaten zuten, «a la clandestinidad», eta barre egiten zuten. Baina barregarritik gutxi zeukan harreman hark Xabiren begietara. Are, traizioa ere bazen. Zeren eta denak elkarrekin egoteko hitzarmena egina baitzuten ugartetarrek, sekula hitzarmen deitu ez bazioten ere. Eta elkarrekin egoteko modu *bitxia* zen, gurasoen lagunak alabarekin ezkutuan ibiltzeko erabaki hura.

- Deitu besteei -esan zuen Txominek hasperenka-. Garbitu egingo gaituk.

Koipe beltzez zikinduta zituen aurpegia eta ma-
hoizko galtzak. Bisonte bat, horixe zirudien Txomin
iletsuak, burdina haien artean.

Xabi biltegiara joan zen zuzenean, han sartzen ikusi
baitzituen Gotzon eta Maider ordu pare bat lehenago,
eta Txominen agindua aitzakia perfektua zen anaia
zelatatzeko. Zerrauts eta hezetasun usaina zegoen
biltegian. Haztamuka ibili behar izan zuen estropezu
ez egiteko. Ahalik eta zarata gutxien egin nahi zuen,
anaiari astirik ez ematearren, baina besoa mahai gai-
nean zegoen mailuaren kirtenarekin kateatu eta lurre-
ra bota zuen. Biltegi barruko gela txikian zaratak en-
tzun ziren segituan, oinetakoen igurtzia oholen kon-
tra, eta murmurio txiki bat: ezkutuan dagoenaren la-
rritasuna. Gela barruan aterantz begira imajinatzen zi-
tuen anaia eta neska, biak ere erne, atezuan. Zertan
ari ote ziren? Zer zeukaten, ba, ezkutatzeko? Kolpean
ireki zuen atea Xabik. Oso ilun zegoen, baina oineta-
koak ikusi zituen, anaiaren mendiko botak aurrerantz
zola erakutsiz, eta neskarenak saiheska. Anaia besar-
katzen ari zen!

- Ospa!

- Zuen bila etortzeko esan dit Txominek.

- Ba etorri haiz. Orain alde hemendik!

Bi-biak sumatzen zituen, haien arnasa konplizeak. Bietako batek mihia kliskatu zuen, eta zerbait xuxurlatu ondoren mugitzen hasi ziren. Zigarro usaina zegoen.

- Zer ari zarete?
- Gor al hago!
- Erretzen ari al zineten?

Gotzonek burua agertu zuen:

- Ospa esan diat.
- Nik abisatu dizuet -amaitu zuen Xabik, etsita.

Eta alde egiten hasi zen, baina poliki, bazekielako laster aterako zirela, eta irteten ikusi nahi zituen, bekatuaren arrastoei erreparatzeko. Eta ez zebilen oker, atera orduko arropak lisatu baitzituen neskak, eta gero eskuak ileen artean sartu zituen, haiek orrazteko edo, hobe, haiek normalean izan ohi zuten nahaste-borraste neurtura egokitzeko. Abailduta sentitu zen Xabi, jelsiak jota, baina ez zekien sentimendu horrekin zer egin; indartsuegia zen kasu egiteko, eta indartsuegia zen kasurik ez egiteko.

Xabiren sentimenduak asmatu balitu bezala, alaitasun bortxatu batez mintzatu zitzaion Maider:

- Amaitu al duzue parrilla?

Ez zion erantzun, neskak bere haserrearen berri izan zezan nahi baitzuen: ez zegoela harreman harekin ados. Zer besterik egin zezakeen? Norbaitek sabe-la eskuekin erauzi izan balio bezala sentitzen zen, gorputzeko odol guztia galdua.

- Katuak mihia jan al dik? -tematu zen Maider.

Eta justu une horretan anaiak eskua bizkarrean jarri zion, eta aterantz bultzatu zuen, baina konfiantza handia eta elkarrekiko harreman fisikoa adierazten zuen keinu batez. Hirurak ilaran joan ziren etxearen aurrealdera.

Zer ikusiko ote zion neskak mutil harro pikorrez betetako hari?

Amak hondartza aldameneko etxe berriaz hitz egin zienean, saltoka hasi zen Xabi. Jaiotetxe zaharra zen bizitzan izan zuen etxe bakarra. Eta ez zen gutxi, baina ez zen munduari harro erakusteko modukoa: ez zeukan alfonbrarik, ez zeukan igogailurik. Etxe zaharra zen, azken batean. Etxe zaharren aje guztiekin.

Etxe zahar hartan bizitzea, dena den, besteen etxean bizitzea baino erosoagoa zen. Etxe berriaren albistea, beraz, amesgaiztotik esnatzea zen. Eta zer esanik ez, amak zioen bezala, etxe berria hondartzan bazegoen. Horregatik Xabiren saltoak.

Etxe aldaketa prestatzen hasi orduko ohartu ziren, hala ere, albistearen alde ilunaz, amak Felixi (altzariak eramaten lagunduko zien aitaren lagunari) sofa eramane beharko ez zutela iragarri zionean.

- Ez dugu orduan sofa eramango? -galdetu zuen Xabik.

- Ez daukagu sofarentzako lekurik -esan zion amak-, ez dago egongelarik.

- Eta telebista?

- Ba, sukaldean!

- Sukaldean?

- Bai, Xabi, demontre! Hasi kaxak jaisten!

Eskua buruan jarri zion Felixek Xabiri:

- Egongela ez, baina hondartza parean daukazue!

Gizon ttattar betialai horietakoa zen Felix, besteei barrea ateratzeko jaiotakoa. Penaz begiratu zion Xabik Oreretako sofari, zeina, sofa izugarria izan gabe, sofa *bat* baitzen, munduko sofa guztien tanke-rakoa, funtzio konkretu bat betetzen zuena, normaltasunarena.

- Eta marrazki bizidunak, non ikusi behar ditugu?

-galdetu zuen Nagorek.

- Marrazki bizidunik gabe boladatxo bat pasatzea ez zaizue gaizki etorriko.

- Eta aitak non ikusiko ditu bakeroen filmak?

Amari pazientzia ahitzen ari zitzaion.

- Jaso kaxa hori eta hasi jaisten behingoagatik.

Ezin zuen irudikatu bere burua etxeko sukaldean eserita marrazki bizidunei begira. Ordura arte asteburuetan joan izan ziren Hendaiara, eta behin-behineko bizitza hartan dena zen posible, marrazkiak sukaldean ikustea, edota marrazkirik ez ikustea ere. Baina bizitza bera, behin betiko bizitza, sofarik gabe?

Eraman beharrekoa kaxetan bildu zuten, beraz, eta aitaren aroztegiko Avia kamioi zaharrearantz abiatu ziren. Felixek eta amak, beti bezala, zigarro bana piztu zuten eta hizketan hasi ziren elkarri zirika. Kanean eguzkiak bazterrak berotzen zituen bazkal osteko tenore logaletua zen, eta han zihoazen hiru seme-alabak, noiz joan ziren bai baina noiz itzuliko ziren jakin gabe.

Hankak zabaldu zituen Xabik, azken urteetan handik eta hemendik lortutako soseki esker osatzen joandako miniaturazko auto sortari so egiteko, arropa garbitzeko xaboiarentzako kutxa batean gordetzen zuena. Sofa ez zuten izango, baina nork esan zezakeen 27 auto zituela?

Avenue des Mimosas kanean geratu zuen Felixek kamioia, eta eskua leihotik aterata esan zuen, hantxe, ezkerraldera zeuden etxeen atzean zegoela hondartza, «bi minutura». Bazegoen bere iragarpenean halako «kontsola zaitzte» bat. Eta ezin ukatuko zuten, pare-parean zeukaten dendan zintzilik zeuden ontzi puzgarriek eta koloretako baloiek eta hondartzarako jostailuek kaleari aire erakargarria ematen ziotenik. Autoen artetik agertu zen aita, alkandora urdin argia bularreko biloak erakutsiz irekia, burua estaltzeko xer-

loa airean dilindan, eta bere galtza bakero betierekoak. Aurrerantz egiteko keinu egin zion, kamioiaren parean jarrita, eta kamioiaren aurretik metro batzuk oinez joan eta gero, eskua altxatu zuen, Felixi geldi zedin agintzeko.

- Nola igoko diagu sofa? -galdetu zion Felixek aitari.

- Zein sofa?

- Etxekoa, zein izango duk ba?

- Sofa ere ekarri al duzue?

- Jakina, nola ez diagu ba ekarriko!

Aitak eskuarekin burua igurtzi zuen:

- Mari Karmen, sofa ere ekarri al duzue?

Orduan Felixek zapla eman zion bizkarrean, eta barrez hasi zen.

- Hi haiz txotxoloa -esan zuen aitak, eta kamioiari buelta eman zion, Felix barrez atzetik oin txikien gainean saltoka zeramala.

Ez ziren kaxa asko, eta apenas zeukaten altzaririk, baina lau solairu igo behar zituzten ganbararaino, eta zertxobait luzatu ziren langintza hartan. Eskaileretan Felixekin topatzen ziren bakoitzean, honek txantxa bat asmatzen zuen, edo asmatzen saiatzen zen, eta asmatzen ez bazuen zartako bat ematen zien umeei

ipurdian, edo buruan edo auskalo non, edo bi hatzekin sudurra heltzen zien.

Etxe berria arakatu eta ikuskatzera korrika sartu ziren haurrak elkarri bultzaka. Baina laster amaitu zuten, etxe hark gela handi bat, sukaldea eta bainuge-la baizik ez baitzituen.

- Eta gure gela? -galdetu zuen Gotzonek, beso za-balik.

Amak gela nagusiaren bazter batean leihoaren azpian (etxeko leiho bakarra, sukaldeko sabaian zegoen argizuloaz aparte) zegoen ate txiki bat zabaldu zuen, eta sorbaldak jasoz esan zuen:

- Ez da handia, baina...

- Armairu bat da! -orro egin zuen Gotzonek.

- Ez da armairu bat, jantzitegia da, eta hiru oheak erraz sartzen dira.

- Ez da jantzitegia, biltegia da! -garrasi egin zuen Xabik.

- Apaldu ahotsa, Xabi -esan zuen aitak sukaldetik.

- Baina... eta gure gauzak? -angustia nabari zitzaion Nagoreren bozari.

- Hemen utziko ditugu -eskuarekin beren gela erakutsi zuen amak-, toki asko dago! Ez gara hemen betiko geldituko, behin-behinekoa dugu hau, baina

etxe handiago bat bilatuko dugu laster, ados? Gainera, hondartza hortxe daukazue! Benga, jantzi bainu-jantziak azkar eta goazen!

Felix sartu zen:

- Bunkerrak ikusi al dituzue?

Hondartzarako bidean metro batzuk atzerago zihoazen haurrak, nahita. Gotzonek egiten zuen hiruren sentimenduen bozeramaile:

- Nekez aurkituko dugu Hendaiakoa baino etxe ederragorik: ez du egongelarik, ez du sofarik, ez du gelarik ere, baina, egidazue kasu, ez dugu etxe ederragorik inon aurkituko.

Aurrerantzean biltegi hitza aipatzea debekatuta zegoen aitaren aurrean. Logela bilakatutako biltegia, izan ere, logela zen. Logela eta listo. Ezin zitzaion agindu sakratu hari muzin egin. Zer esango zuten ka-lean? «Ugartetarrek armairuan egiten dute lo!».

Itsasoan hormigoizko eraikin beltz bat ikusten zen, bunker hitzak iragartzen zuen ikuskizunaren aldean nahikoa txikia eta etsigarria, balea baten sorbalda bezala airera ateratzen zena, eta Felixek azaldu zien huraxe zela gerrako bunkerra:

- Bigarren Mundu Gerrakoa, alemaniarrek eraikia. Xabiri hormigoiz zati bat baino ez zitzaion iruditu, eta halaxe esan zuen, birritan pentsatu gabe.

- Gainerakoa ur azpian dago, artaburua! -esan zuen Gotzonek-. Ez al duk ikusten itsas gora dagoela?

- Geroago, azken orduan ikusiko duk -esan zion Felixek-, eta sartu ere egingo haiz, nahi baduk.

Une batez isilik geratu ziren olatu txikiek hormigoia nola jotzen zuten ikusten, nola estaltzen zuten apar zuriarekin. Felixen leporik gabeko gorputzari so egin zion Xabik, halakoxea baitzeukan gorputza, burua bizkarrean hazten zitzaiola, kubo itxurako gorputza, eta hartaz harro ezin egotea deitoratu zuen, gurasoen lagunen artean maitagarrienetakoa baitzen benetan.

- Kostalde osoa josita dago. Alemaniarrek zuhurtzia eta lanerako grina handia zeuzkaten, eta izua ere bai. Orain dena da frantziarrena!

Hurrek ez zuten Felixen barre algararen arrazoia ulertzen, baina kutsatu egin ziren, nolabait, eta denak hasi ziren barreka.

- Eta hori gutxi balitz -segitu zuen Felixek-, ba al dakizue nola izena duen hor ikusten duzuen hondartza horrek? Espainiarren hondartza! Hemen inguratuta gaude... denak lurrera!

Burua sorbalden artean sartuta segitzen zuen burrez, begiak malkotan, eskuekin izterretan kolpeak josten zituen bitartean. Ezin zenion barreari eutsi.

Hondartza txiki bat zen, atzean zuhaitzi handi bat zeukana, alde batera errepidea eta bestera itsasoa, eta hondartza parean justu, balearen bizkar hormigoizkoa.

Hondartzara ailegatu orduko ulertu zuten hondartzaren izenaren zergatia, mundu guztia gaztelaniaz ari baitzen han. Ohiko keinu nabarmenak elkarri diosal egiteko, bostekoak eta bizkarrekoak, zorionaren zere monia. Horietatik asko gurasoen lagunak ziren, zeinek hondartzako txangoa baliatzen baitzuten janariez, jantziez eta bestelakoez betetako kaxak ekartzeko. Atun potoak, lekaleak, olioak, tabakoa, eta, bereziki, edaria. Iparraldean edaririk inon salduko ez balitz bezala. Ardo eta sagardo kaxak eta kaxak. Dena zegoen ongi antolatuta: janaria prestatzeko sua, eserlekuak, mahaiak, eguzkitakoak, eta irratia!

Haurren artean aurpegi ezagunen bat, eta ezezagunak hainbat.

Neskatilaren bat ere bai.

Baina zer nagikeria, haien artean tokia aurkitzea!

Han zihoan Nagore, liburua eskuetan, bizkarra makurtuta, harremanak ziren amaraun delikatu hura ehuntzeko gogorik gabe.

Eta Gotzon? Bere gelakide batekin; ileak marra erdian orraztuta eraman ohi zituen mutil mehar isil bat, orain Gotzoni baloia pasatzearren hura ostikatu baina beste aldera bota zuena, itsasorantz, bere oin meharrak uretan sartu zituena han kristal hautsiak baleude bezala, eskuekin zerbait zintzilik eramaten duenaren keinua eginez.

Xabik elastikoa kendu eta besoko kalkamonia erakutsi zuen: *West*. Bihotz gorri baten marraskia, tabako marka baten irudia omen zena. Neskak begira zituela ohartu zenean saltoka uretan sartu zen, ez beste gizajo hura bezala, zipriztinen ikararik gabe baizik, ahalik eta zalaparta handiena eginez. Burdina gorria isuri baliote bezala, baina ur azpian ahal izan zuen guztia iraun zuen, hango mundu berde uger isilean, irautea eta irauten zuela erakustea beste helbururik gabe, hotzaren erreduraz ahazturik.

Eta neskak begira, irriñoak egiten. Eta Xabi han uretan bakarrik, ezin balentriarik asmatu neskei erakusteko. Ez baitzekien deus egiten. Hondora joan eta

hondar eskukada bat hartu eta, kanpora irtendakoan, hura jaurti.

- Hondoa ukitu duzu? -esan zioten Xabiri.

- Ez duzue hondarra ikusi?

Han datoz neskak uretara.

Haurrek ez diote elkarri nondarrak diren eta nondik datozen galdetzen.

- Alemaniarrek egin zuten bunker hura. Orain frantziarrena da.

- Badakit -erantzun zion nesketan ausartenak, lore-dun bainujantzia zuenak.

- Itsasbeheran barrenetik ikus liteke.

- Askotan izan naiz han.

- Ni ere bai.

Zer axola zuten gezur txiki batek edo bik?

Baina orduantxe konturatu zen Xabi bunkerretan zer zegoen ideiarik ez zeukala. Bonbak edo armak edo hezurak izango ote ziren? Hobe zuen galdetzen ez bazioten. Alferrikakoa zuen kezka, ordea, hantxe baitzeukan ama itsas ertzetik deiadarka:

- Merienda!

Mundu guztia begira zeukala konturatu zen Xabi, eta eskua luzatu zuen. Txikitan zaldiko-maldikoetan ama hala izan ohi zuela oroitu zuen, eskua altxatuta

agur egiten, eta hari agurra itzultzeak sorrarazten zion larritasuna. Ogitartekoa zeukan amak jaso, gerra irabazitako soldadua zirudien, fusila aldarri. Igeri eginez gerturatu zen Xabi ertzera, igeri egiteko eskukadak dotoreziaz egiteko arreta bereziarekin, eskua uretik atera orduko zeruan zirkulu ahalik eta biribilena marrastuz.

- Jan! -agindu zion amak.

Urtuta zegoen txorizoa ogi barruan. Lastima eguzkia buru gainean zeukan, mundua labe handi bat bilakatzen. Ezin lehiatu, ordea, sagardo botilez betetako balde handiekin, parasolen gerizpe estuegian.

Lozorrotik esnarazi zuen norbaitek, eskua sorbaldan jarrita. Gizon beltzaran bat zen.

- Oihana! -oihu egin zuen.

Eta bainujantzi loreduneko neskak burua itzuli zuen.

- Begira!, hau Ugarteren semea da!

Behera begiratu zuen gizonak, eta Xabiri esan zion:

- Hi Joxemariren semea haiz, ezta?

- Bai.

- Joan hadi neskekin jolastera.

Ezin jakin agindua edo iradokizuna, zer ote zen.

- Jaten ari naiz.
- Tira, jan ondoren joango haiz.
- Bale.
- Nola daukak izena?
- Xabi.
- Zenbat urte dauzkak?

Nolako jakin-mina bere adinarekin!

- Bederatzi.
- Handia haiz!

Aitak erreskatatu zuen semea:

- Tomas!

Zerbait erantsi nahiko zukeen Tomasek bere begi txiki errezeloz betetako haiekin, baina ezer bururatu ez eta hondar bigunegian lasterka eginez aldendu zen, aita eta beste bi gizon aulki tolesgarrietan eserita zeuden tokira. Iritsi orduko hatz lodia Xabirengana zuzenduz zerbait esan zuen, haurrak entzun ezin izan zuena. Eta denek barre egin zuten.

Neska uretik atera eta beregana hurbiltzen ikusi zuenean, ezikusiaarena egiten saiatu zen Xabi. Behar-bada neskatila behartuta sentituko zen harengana joaten; «aitak agindu dit» esango zien lagunei. Xabi, orduan, zigor bilakatuko zen. Halabeharrezko adiskidetasuna baino enbarazu handiagorik ez baitago. Hor

dago neska bere parean, ordea, eta lehendik ez begiratu izanagatik ezustekoa antzestu beharko du. Neskak igarri egingo dio, hori beti igartzen da.

- Nork esan dizu bunkerrarena?

Hondartzaren atzealdean sastrakaz eta zuloz betetako zuhaiztia zegoen, zomorrontzako gordelekua. Oihanak oilo-ipurdia zeukan harako bidean, baina besoekin sasiak baztertzen zituen min hartzeko beldurrik gabe, lekua betitik ezagun izan balu bezala. Xabik ahaleginak egin zituen neskak bere kalkamonia ikus zezan, neska inoiz geldituko bazen behintzat. Zeren eta neska zuloen gainetik jauzika zihoan arrokoz arroka, orkatilan harizko pultsera zeramala, azal beltzarenan dirdaitsu.

Eta Xabiren nesken aurreko urduritasun betiko hori.

- Nongoak zarete?

- Oreretakoak.

- Gu Etxalarkoak.

Non ote zegoen herri hori?

- Ezagutzen al duzu Etxalar?

- Noski.

- Eta hona etorriko zarete bizitzera?

Xabik baietz esan zion, horrek atsekabea sortuko balio bezala, eta bainujantzitik labana atera zuen, zuhaitzean «Gora Euskadi» idazteko. Labana Oihanari eman zion ondoen, baina kirtena bere eskuan ezkutatuz, neskak labana heltzean eskua uki ziezaion.

- Nahi baduzu, idatzi zure izena.
- Gu hemen bizi gara. Aspergarria da.
- Denak hil ziren gerran.

Oihanak barre egin zuen, bere izenaren O-a izan nahi zuen erronboa amaitzen zuen bitartean.

- Bai zera!, denak daude etxean, ez hilda!
- Gerran hil ziren, nire anaiak esan dit.
- Ba zure anaiari esan, denak bizi direla eta egu-nero ikusten ditudala erosketak egitera edo postara joaten direnean. Zure anaiak ez du ezagutzen Christophe, gure bizilaguna; erotuta dago, beti builaka ari zaio Tetéri.

- Nor da Teté?

- Bere zakurra. Etxeko txapinak eta aulkien hankak eta liburuen izkinak jaten ditu, amari esan zion behin. Eskaileratan aurkitzen dugu beti eta beti gertzen da gurekin hizketan, espainolez egiten duelako eta bakarrik bizi delako Tetérekin.

- Zure bizilagun hori ez zen gerrara joango. Baina Frantziak gerra egin zuen eta gerra guztietan hiltzen da jendea, bereziki frantsesak, maitasun kontuetan asko dakitelako, baina gerra kontuetan batere ez.

- Zure anaiak gauza asko asmatzen ditu.

- Et, et, et, nire anaiak dena daki -esan zuen Xabik, behingoagatik egia ukaezin bat esateak ematen zion ziurtasunak bultzaturik.

Baina Oihana ez zuen hitz handi horiekin horren erraz kikilduko.

- Ba dena jakiteko gutxi daki Frantziari buruz.

Jauzi batez zuhaitzaren adarretik zintzilikatu zen Xabi orduan.

- Ea nork irauten duen gehiago.

- Berdin zait nork irauten duen gehiago.

Mutila han bakarrik uzteko gai izango ote zen neska?

- Galduko duzun beldur zara.

Oihanak adarrera jauzi egin zuen. Bi gorputzak elkarren aldamenean, neskaren azal hotza berearen kontra. Eternitatea iraungo zukeen han zintzilik, besoak puskatu arte.

Arotz lanean hasi zen aita, hondartzan bertan eraikitzen ari ziren taberna batean. Lurra, leihoak eta, oro har, egurrezko gauza guztiak ipintzen. Xabi granadina edaten egoten zen hari begira, eta noiz edo noiz turista kuxkuxeroren bat azaltzen bazen, aitak hura uxatzeko agintzen zion. Ez zuen gustuko turistaren begien pausaleku izatea, «ez nauk tximino bat, niri kakahue-teak botatzen ibiltzeko», esaten zuen. Baina Txaluparen inguruan ez zegoen besterik, eta denak geratzen ziren beren galtza motz eta hanka zuri zainez betetako haiekin aitaren betebeharrari so.

- Il fait quoi, papa?

- Dis donc, une fenêtre!

Marinelen irudiz betetako taberna zen, txiki samarra baina kaskarina, gaztelaniaz mintzatzen zen Manu izeneko batek eramaten zuena. Tabernan lanean denbora luzea zeraman arren, aitak harekin jarduteko zeukan modua ikusirik, aitaren menpekoa zirudien, eta Xabi errukitu egiten zen. Batzuetan laguntzen saiatzen zen, leihoetako juntetan masa emanaz adibidez, baina aitak modu txarrez baztertzen zuen.

Horregatik eta tabernan baleen irudiak zeudelako hitz egiten zuen Xabik Manurekin, pentsatzen baitzuen, hori hala ez zen arren, hura itsasoak zeharkatutako itsasgizona zela, haizearen, olatu erraldoien, piztien eta ekaitzen kontra ibilitakoa. Aitona omen zeukan itsasoan jardundakoa, baina arrain gutxi ikusitakoa zen hura ere, motorraren pistoi eta bielak koipeztatzen eta zaintzen galdaratan ibili baitzen. Papezko zapi batean egin zion barkuetako diesel motorraren marrazki bat, eta haren aldamenean ume baten irudia, Xabik motorraren tamaina irudika zezan.

- Ikusten duk? Hi halako bi duk pistoi bakoitza.

Itsasgizon sasikoa izan arren, kontu ugari zekizkien Manuk itsasoari buruz; horiek egiazkoak edo asmatuak ote ziren bost axola Xabiri: denak iruditzen ziztaizkion gogoangarriak.

Ama ere lanean hasi zen, Annie Claude izeneko adineko emakume bat zaintzen, muga inguruan, behinola Txominek Xabiri erakutsitako txiroentzako auzune hartan, eta gutxi ikusten zuten, baina Xabik ez zeukan faltan hartzeko denborarik: hondartzak dena ahazteko balio zion. Hegoaldetik bisitan zetozenentzat *hondartzan bizi zen mutila* bilakatu zen. Harro zegoen bere estatus berriarekin.

Etxea eroso eta sinplea zen, udako apartamentuak izaten diren gisakoa. Ganbaran bizi zirenez, sabai-leihotik abioiak Hondarribirako bidean pasatzen ikusten zituzten harrigarriro gertutik, hain gertutik ze, Telediarioaren tenorean pasatzen baziren, aita korrika zutitzen baitzen belarria bozgorailuan itsatsita jartzeko.

Euria egiten zuenean izaten zen okerrena, eguna sukaldeko sabai-leihoaren gainean pilatzen ziren tantei begira emate hura, eta tanten norabide aldakorrekin zorabiatzea eta gurasoen gela handiko alfombra autoekin jolastea, edo sukaldeko mahaian kartzetan. Irteten zenean Nagorerekin joaten zen, eta hondartza inguruko dendetan sartzen ziren puzgarriei eta erraketei eta surf taulei eta bainujantzi berriei so egiteko.

- Ne touchez rien, mes gars!

Gauzaren bat begiz jotzen bazuten, esate baterako alde banatan arraunak sartzeko euskarriak zituen ontzi puzgarria, ama laguntzen zuten Annie Clauderen etxera, hark paga emango ziela jakitun. Alkanfor usaina zegoen etxe hartan, korridore luze eta ilun bat, paper loredunez estalitako hormez inguratua. Amak biradera batekin zutitzen zuen emakumearen ohea,

eta erretilua aurrean jartzen zion bazkal zezan; gero berriz itzultzen zuen bere ohiko postura etzanera, eta hantxe uzten zuen emakumea sabaira begira. Garbitzeko tenorean garabia batekin eramaten zuen ohetik aulki gurpildunera, hamaka moduko batean, eta handik bainu-gelara. Oilasko triste bat ematen zuen ohetik aulkirako bidean, hamakaren haragi koloreko oihal tenkatuaren izkinetatik haragi soberakinak ateratzen zitzaizkiola. Annie Clauderen begi gris eta biziak herabetasunez eta umiliazioz betetzen zirela iruditzen zitzaion Xabiri. Baina agian ez, agian Xabi bera zen ikuskizunaren aurrean lotsatuta eta umiliatuta sentitzen zena. Ez zuen sekula jakingo.

Hoberena zen egun eguzkitsuetan berandu arte gelditzeko askatasuna, hondartza ia hutsik zegoenean arroken gainetik itsasora jauzi egitea eta azken orduan, zerua laranja janzten zen tenorean, aitaren eta amaren bila oinutsik korrika ibiltzea taberna batetik bestera, jakinik beti izango zela abentura ezberdina, ez zekiela gurasoekin batera nor aurkituko zuen peskiza hartan, «gure lagunak» zeritzan zaku amaigabe horretatik nor azalduko zen gau hartan. Denak ziren aurpegi berriak, eta handik hona zebiltzan kaxak, poltsak, opariak, kontuak eta istorioak. Mundu guztiak

zekarren zer edo zer beso azpian, materiala ez bazen, bestelakoa. Bazirudien mundua hantxe bertan amaituko zela, edota han bertan ari zela jaiotzen. Bietako bat. Eta Xabik ez zekien zer zen, eta Gotzonek eta Nagorek ere ez, baina nabarmena zen han *zerbait* gertatzen zela.

Begien bistan zeuden gauzez ez ezik, mundua begien bistatik haragoko gauzez osatuta zegoela ikasi zuten azkar, eta bistan ez zeudenak garrantzitsuagoak izan zitezkeela bistan zeudenak baino. Martin Villa, Felipe, Monzon, Txabi, PSOE, Barrionuevo, Fraga, Arzallus, Idigoras... hitzetik hortzera ibiltzen zituzten ize-nok, eta Xabik bakarra ere ez zuen ezagutzen. Hitzok, beti ziren iskanbilarako edo miresmenerako arrazoi, eta horregatik izua eta jakin-mina eragiten zioten Xabiri. Iseka bezala ere erabiltzen zituzten, jakina, baina beti ziren *kontu serioez jarduteko txantxak*. Xabik ongi bereizten zituen.

Beren mundu nahasi eta zoro hura suntsiezinaz zen. Horretan ez zegoen zalantzarik txikiena.

Horregatik, gau hartan, ordu txikietan emakume batek txirrina jo eta etxeko guztiak esnatu zituenean, Xabik ezin zuen irudikatu ere egin albiste txar bat izan zitekeenik. Oroimenean gordeta zeukan Emilioren

autoa zartatu zutenekoa, eta hain zuzen horregatik, ekintza asmo hutsean gertatu zelako-edo, sinetsita zegoen inori ezin zitzaiola ezer txarrik jazo, are gutxiago aitaren gertuko bati. Baina ongi entzun zuen Xabik txirrina, eta burua ate txikitik atera orduko are garbiago entzun zuen atearen beste aldean zegoen emakumeak esan zuena:

- Beltza akabatu dute!

Esateko moduagatik jakin zuen zerbait txarra zela, eta aitaren erreakzioagatik ere bai, ez baitzuen ezer esaten asmatu (eta hitzekin ia beti asmatzen zuen hark!), orain ez tul bat egiten zuelako, eta gero eskua kopetan jartzen zuelako enigma oso zail bat ebazten ariko balitz bezala, eta maldizioka hasten zelako, marmar etsi batean.

- Ezinezkoa da!

Gotzon eta Nagore ere esnatu egin ziren, eta xuxurlaka hasi ziren haien kabalak egiten. Baina ez zuten ezer ulertzen. Gotzonek «akabatu» eta «hil» gauza bera zirela esan zuen, eta Nagorek bazekiela erantzun zion. Xabik ez, ordea; akabatzea amaitzea zen Xabiren hiztegi mugatuan. Platereko garbantzuak edo zopa amaitzea, edo etxeko lanak amaitzea. Hori xe besterik ez.

- Zer ordutan? -galdetu zuen aitak.

Atearen beste aldean zegoen emakumeak ordubete lehenago gertatu zela esan zuen, eta «han» bilduko zirela denak, «txakurrei» azalpenak eskatzeko.

- Zuk ikusi al duzu?

- Hantxe nintzen!

Ukabilkada bat eman zion aitak atearen markoari.

- Hantxe nengoen, Joxemari. Klak! moduko bat entzun dut, ezin nuen imajinatu zen zer, oso zarata txikia zen. Atzera begiratu eta ez dut Beltza inon ikusi. Halako batean auto bat ikusi dut ziztuan ihes egiten. Gure autoari buelta eman diot eta han zegoen, lurrean, gero eta handiagoa zen odol putzuaren erdian.

Emakumearen zotinak iristen ziren sototik haurren armairura, aitaren arnasa urduria, haren zerbait esateko nahia eta ezina.

Xabiren buruan emakumeak kontatu zuen pelikula zegoen, saiatu zen irudikatzen gizon haien aurpegiak, hiltzaileena eta hildakoarena, autoaren kolorea. Nolakoa da «gero eta handiagoa den putzu bat»? Ezin jakin. Eta ez zekien zinez egia ote zen, zinez bera bizi zen munduan halakoak gerta ote zitezkeen. Aita entzuten zuen batera eta bestera, handik eta hemendik janzteko puskak biltzen. Amarekin ari zen batzuetan,

baina gordean, etxera etorritako neska ez bezala, umeez ez entzuteko moduan.

- Joan egin behar dut -esan zuen aitak.

Burua ateraz gero amaren zigarroa usainduko zuen; haren mututasuna zen, agian, gehien hunkitu zuena. Zer da ama hitzik gabe uzten duen gertakari bat, inoizko gertakaririk ikaragarriena eta basatiena ez bada?

Mundua ez da deus, amaren hitzekin kontatua ez bada.

Komuneko iturria entzun zuenean, gorputzaren erdia atera zuen Xabik, ama gertuagotik ikustearren. Premia zeukan haren keinua ikusteko. Han egongo zen gauza guztien azalpena. Baina orduan aita sartu zen gelara:

- Hoa ohera -agindu zion.

Soina biluzik zekarren, eta galtzak lotzen ari zen. Burua armairu barruan gorde zuen Xabik.

- Nik badakit nor den Beltza -esan zuen Nagorek-, aitarekin burdinbideetan lanean ibilitako bat. Beltza izena zuen, gogoratzen dut.

- Nome jodas! -atera zitzaion Gotzoni.

Aitak burua ohearen kontra zeukan Xabik berriz so egin zuenean. Belauniko zegoen moketaren gainean eta ama bizkarra laztantzen ari zitzaion.

Aita etxetik irten zen, haren atzean isiltasun arraro bat utzita. Pausoak entzuten ziren eskaileretan behera, eta hiru hurrek armairutik ateratzeko aprobe txatu zuten. Bazekiten amak ez zituela bere aldame netik botako. Laurak elkarren ondoan geratu ziren, isilik.

Gau hartan asma apur bat sentitu zuen Xabik. Iparraldera joan zirenez geroztik maizago gertatzen zitzaion, itsas ertzeko kresalak hauspoa herdoildu izan balio bezala. Zarata txikia baino ez zeukan gau hartan, auhen txiki bat, baina auhenik txikiena zen es-tualdi larriago baten mehatxua. Hala hasten zen, kexu umil baten moduan eta, ohartu orduko, urkatu egiten zuen. Xedera estutzen sentitu eta ezer egin ahal ez izatea zen okerrena. Alderantziz, itolarria sentitu orduko urdurituko zen, eta urduritu ahala gehiago butxatuko zitzaizkion bronkioak.

Koiperik gabeko erroen doinua entzuten zuen bere bularraren barruan.

Zitekeena zen, ordea, zarata txiki hura besterik gabe desagertzea. Hala ez bazen, ama esnatu behar-

ko zuen, eta elkarren aldamenen jarri beharko zuten leihorik aurrean eserita, elkarri eskua emanda. Ez zegoen hura baino sendagai hoberik. Behin bakarrik egin zion huts amaren eskuak, igande arratsalde batez. Baziren zortzi edo hamar hilabete. Telebista aurrean zeuden denak, western bati begira, eta orduan nabaritu zuen Xabik gutxika haizea faltatzen hasi zitzaiola. Tente jarri zen eserita, medikuak agindu bezala, bizkarra zuzen. Pantailan zegoen John Wayneri so egiten zion, haren lepoko zapi gorriari eta koadrozko alkan-dorari, eta gizona hizketan irudikatzen zuen: «Tira, Xabi, motel», esango zion hatz lodiak balak eramateko gerrikoan sartuta, «har ezak arnasa gizonak beza-la!».

Baso bat ur edan zuen, poliki, urak bronkioak garbitzen lagunduko ziolakoan, eta ez tul txiki bat egin zuen. Zeharka begiratu zion John Waynek, eta halako batean pam!, tiro egin zuen. Gizon bat zalditik erori zen, eta John Waynek eskopeta berriz jaitsi zuen, begiradan inolako errukirik agertu gabe. Xabi leihora hurbildu eta hantxe geratu zen, kanpoko zuhaitzei begira. Pikondo bat zeukaten etxeko baratzean, eta urki bat. Urkiaren barruan galtzea asko gustatzen zitzaien umeei, baso txiki bat irudi zuelako, eta adar zuzen ho-

rietatik ehunka makila atera izan zituztelako gerrarako lantzak egiteko. Zuhaitzen gainaldea inarrostoen zuen haize hura zen hain justu bere biriketara hain nekez ailegatzen zena.

- Asma al duzu? -galdetu zion amak.

- Bai.

Lotsa asma bera baino txarragoa zen. Agian ez zen lotsa, edo ez zen lotsa bakarrik, hura aipatzeko beldurra baizik; aipatuz gero, etorri egingo zen. Hobe ez aipatzea, ezikusiarena egitea. «Ez iezaiozu arreta handirik jarri», esana zion sendagileak, eta horixe egingen zuen, baita amak galdetzen zionean ere.

Baina egun hartan ez zen asma baretu. Leiho aurrean zegoela, hain zen ozena biriketako negarra, ze kanpoko zaratak ere ez zitzaizkion ailegatzen. Betiko joan ote ziren txoriak, bizilagunak, zakurrak eta autoak? Atzerantz begiratu zuen: aita luze etzanda zegoen sofa handian, aho zabalka lo; sofa txikian zeuden Nagore eta Gotzon, burusia leporaino, telebistako bala festari so; ama, mahaiaren aldamenean zegoen, lehortutako arropak lisatzen eta tolesten. Lauzpabost menditxo zituen bere aurrean, eta orain galtzerdiekin ari zen. Galtzerdi hori bat zeukan esku batean, eta bestearekin galtzerdi anabasaren erdian arakutzen ari

zen, lagun galduaren bila. Burua altxatu zuenean elkarren begiradak gurutzatu ziren.

- Gaizki al zaude?
- Pixka bat -aitortu zuen.

Ama begira geratu zitzaion, zer egin ez zekiela, akaso esprai madarikatu hura hartu ez izanagatik damaturik; nola zuen ba izena botika hark? Mentol... Mentolin?, ez, Mentolin ez, Ventolin, bai, horixe. Baina izeba Miruk esana zion bere bizilagun baten lagun baten alabaren batek Ventolin hura hartu eta luzera hezurretako arazoak izan zituela. Amari izua sartu zioten batzuek eta besteek. Eta hara umea, leiho parean ezin odola oxigenoz bete. Eta supituan hiltzen bazen?

Gelara joan zen Xabi, eta ahuspez etzan zen ohean.

Esnatu zenean Agustin bizilagunaren autoan zegoen, atzeko eserlekuan luze etzanda. Etxeak ikusi zituen, autoko leihoan agertu bezala desagertzen zirenak, abiada bizian. Burua amaren izterren gainean jarrita zeukan, amaren atzamarrak bere ileen artean. Hobekiago sentitzen zen, autoko aireak birikarako bidea aurkitu izan balu bezala.

- Zer moduz?
- Nora goaz?

- Ospitalera.

Begiak itxi zituen berriz, ospitale hitzarekin bel-durtzeko indarrik gabe. Desio zuen gauza bakarra arnasa hartzea zen, berdin zitzaion ospitalean edo infernuan.

- Esnatu al da gure gizontxoa? -esan zuen Agustinek bere betiko entusiasmoarekin.

Zuhaitz bat, etxe bat, farola bat, etxe bat, zuhaitz bat, farola bat, etxe bat, zuhaitz bat... Lo geratu zen berriz.

Besoetan hartuta korrika eramane zuen amak ospitale barrura, baina Xabiri euri erori berriaren usaina sentitzeko denbora eman zion. Ongi sentitu zen bat-batean, amaren besoetan, usain hura arnasten. Gero gela batera sartu ziren, eta amak arropa kendu zion, biluzik uzteraino. Norbaitek maskara jarri zion ahoan eta ia kolpetik haizea bere biriketara oparotasunez iristen hasi zen.

- Gizajoa! -esan zuen amarekin zegoen urdinez jantzitako emakumeak.

Berriz esnatu zenean, normal heltzen zitzaion haizea, eta ahoan zeukan maskarak traba egiten zion, baina han ez zegoen inor. Larrugorritan zegoen eta beldur zen bere ama ez zen norbaitek hala ikusiko ote

zuen, horregatik lepoa altxatu eta ingurura so egin zuen. Orduan ikusi zuen gelako beste ohean zegoen neskatila, bera bezala larrugorritan. Estali gabe. Bere adinekoa izango zen eta gariaren koloreko ileak zituen. Eskuak aurrerantz jarrita zituen, beherantz bata, gorantz bestea, eskua bi aldeetatik erakustea eskatu izan baliote bezala. Besoarekin bularretako bat estaltzen zuen, baina ez bestea. Kimuak ziren, zerbait opa-roagoaren lehen aztarnak, baina bularrak azken batean. Esku bateko hatzak mugitu zituen neskak, eta Xabik begiak itxi zituen, berriz irekitzeko ikaraz. Neskak bere biluztasuna ikusi zuela deskubrituko balu! Mende bat pasatuko zukeen gorputz biluzi hari begira, baina berehala entzun zen gelako atearen zarata, urrats batzuk, bi oheen arteko gortinaren hotsa gero. Eta neskatilarekin hizketan ari zen emakume baten boza, joateko ordua zela esaten hasi zitzaiona, helduek gaixoekin izaten duten doinu gozoegi horrekin.

Motza izan zen ikuskizuna, baina betiko gordeko zuen Xabik segundo batez ikusitako neska biluziaren irudia. Eta luzaroago ikusi ezin izanaren damu irrikaz betea ere bai.

Akordu gozoak ziren horiek guztiak, «odol putzu gero eta handiagoak» utzitako gau ilun hartan.

Beltzaren hilketaren aurkako manifestaziora Peugeotean joan ziren Baionara, eta espaloi baten gainean utzi behar izan zuten, errugbi zelaiaren aldamean, inon ez baitzegoen aparkatzeko tokirik. Errepidetik zihoazen oinezko guztiak zihoazen norabide berean, ia guztiak errepidetik, autoek hartutako espaloiak saihestuz. Zubi bat zeharkatu ondoren plazara iritsitakoan, bizardun bat hizketan ari zela ikusi zuten, baina Xabik ez zion esaten zuenari erreparatzen, ibaian behera zetozen makilei eta enborrei baizik, eta haiei begira geratu zen: norbaitek basoa errekarabota izan balu bezala! «Uholdeek ekarritako sastrakak» zirela azaldu zion aitak.

- Herriak ez du barkatuko! -oihuka ari ziren denak, ukabilak airean, hizketan ari zen gizon bizardunari begira.

Ibaiaren beste aldeko etxeek oihuen oihartzuna itzultzen zioten Xabiri, «...tuko!, ...tuko!, ...tuko!».

Norbaitek pegatina bat jarri dio paparrean, «Errefuxiatuak Euskadin libre», eta harro sentitu da, pegatina bere aitaz ari delako.

- Beltza, herria zurekin: -oihuak lehen baino ozenago.

Emakume bat, adinekoa, lepoko zainak lehertu arte aldarrika, zeruari ukabila erakusten. Betaurreko iluneko gizon batek ere garrasi egiten du, zigarroa ahoan daukala, horretarako aurpegia zimurtuz. Denak txaloka hasi dira orain. Badirudi etxeak eta harriak eta kale estuak eta teilatu gorriak direla oihuka ari direnak, zarata toki guztietatik ailegatzen baita. Ez luke inoiz pentsatuko, Beltza, trenbideetako aitaren laguna, pertsona horren ezaguna eta maitatua zenik. Aitona hil zeneko elizan bildutako lagunaren isiltasunaren aldean, hangoena benetako haserrea da, benetako mina.

Gizon nagusi bat ikusi du negarrez, ukabila airean eta mutu, ezpainak indarrez itxita, eta harrigarria egin zaio pena bezalako sentimendu intimoa modu horretan azaltzea.

Manifestazioa amaitu eta jendeak oihu egiteari utzi dionean, Emiliorekin eta Enekorekin elkartu eta taberna batera joan dira. Erantziak ditu jendeak suminaren jantzi pisuak, protestarako espresuki jarritako keinu matxinoak, eta berezko keinu neutroak dituzte berriz. Normaltasuna gailendu da. Baina tabernarantz

doazela, mutil bat haien aldamenetik arineketan pasatu da, oihuka, zaku batetik hartutako paperak airera jaurtitzen. Haietako bat Xabiren oinetara etorri deanean, gizonezko baten argazkia ikusi du eta testu bat, frantsesez: «Beltza, assassiné». Irri eginez ageri da Beltza, lehergailuak kaltetutako surf dendako neska hura bezala, baina Beltzaren kasuan irribarrea are eta terribleagoa da: bat-batean zorua Beltzaren aurpegi irribarretsuz josita dago, eta batera eta bestera oinez doan jendeak mutilaren begitarte irribarretsua zapaltzen du.

- Gaur ere ez gaituk txikiteotik libratuko -asmatu du Gotzonek.

Eta Xabik ibai bazterreko arranpa batera eraman ditu beste haurrak, ibaian behera datozen enborrak eta adarrak erakustera. Han ibili dira, korronteak bazterretik hurbil ekartzen dituen makilak eta hondakinak makila luzeago batez arrantzatzen. Tarteka, makilekin batera, Beltzaren irudi irribarretsuren bat ailegutzen da, eta hura ere hartzen saiatzen dira:

- Hor zatorrek Beltza. Heldu egiok!

Ez du irribarrerik galtzen, ibaian behera etortzean ere.

Etxera bueltan mendiko bidexkak hartu zituen aitak. Zuhaitzen soslaia zeru urdin ilunean. Ziztuan zihoan, ohi baino askoz azkarrago, aurrerantz zertxobait makurtuta, sudurrarekin ia aurreko haize-kentze-koa ukituz.

- Kontuz -esan zion amak-, polikiago joan.

Baina aita ez zegoen inor obeditzeko. Eta aita inor ez obeditzeko aldar-tean zegoenean hobe zen atzeko eserlekuan geldirik egotea eta zaratarik txikiena ez ateratzea eta inolako galderarik ez egitea.

– **Olagarrotara** joango gara, jaiki denok! –haurrak esnatu zituen aitak.

Iparraldera joan aurretiko ohitura zen arroketara joatekoa. Jaizkibel magalean pasatu izan zituzten egunak, hango itsasotik babestuta zegoen putzu batean igerian ikasten. Ura buruaren gainetik zuela hantxe bainatu zen Xabi lehen aldiz, Jaizkibel mendi magalean, han iratzeak eta itsasoa besterik ikusten ez ziren toki paradisuzkoan. Esperientzia ikaragarria, itoko zela uste zuen. Amak, igerilari bikaina zenak, eskuetatik helduta eraman zuen ura sakon zegoen tokiraino eta hantxe askatu zuen.

Aitak igeri egiten ote zekien, auskalo. Arroken artean saltoka ibiltzen zen, lanpernak biltzen edo olagarrotan. Igeri egitea bost axola. Aspaldiko kontuak ziren haiek, ordea.

Etxeko sototik atera orduko hantxe zegoen Emilio-ren familia eta beste lagun batzuk. Diosalak, herriaren beste puntatik aditzeko modukoak. Autoen inguruan, sagardo botilez betetako kaxak eta hozkailuak. Emiliok eskuan zeukan aluminiozko paperez estalitako

plater bati sudurra hurbildu zion aitak eta nabarmen usnatu zuen, denen aurrean haren usain gozoak sortzen zion plazera antzezteko. Buruan eskukada eman zion Emiliok, eta denak trufan hasi ziren.

- Gose haiz ala?

Oinak gomazko sandaliekkin babestuta eramatea ez zen txorakeria: aitaren atzetik ibil zitekeen arroketan saltoka minik hartu gabe eta irrist egin gabe. Hanka zuri finak zituen aitak, han-hemenka bilo finek estaliak, eta oinetan, berriz, tennis zahar batzuk. Burua sartzen zuen zuloetan, han ezer ote zen ikus-tearren. Xabik ez zekien zeri so egiten zion, baina aita ez zen gauzak azaltzen ibiltzen zen horietakoa: dena ematen zuen jakintzat, arroketan ibiltzeko nondik norakoak jaiotzetikoak balira bezala. Zuloari erreparatu eta alde egingo zuen, edo barrura sartuko zen urpekaritzako betaurreko zaharrekin, edo urperatu egingo zen beheraino, eta Xabi ikaratuta geratuko zen goian zain, aitaren oinetakoek ur azalean utzitako burbuilei beha. Burua aterako zuen gero, eta buruaz ezetz egingo zuen.

- Ez al dago ezer? -galdetuko zuen Xabik, baina erantzun gabe jarraituko zuen aitak arroketatik arroketa saltoka, segundo bakarra galdu gabe.

Besoko kalkamonia kentzen hasia zitzaion Xabiri. Gero eta gehiago zirudien marinel baten tatuai ia ihartua.

- Egin ezak honen kontu -esan zion aitak, sarek egindako zakua emanda, goiz osoan esandako esaldi luzeena.

Xabik karramarroak biltzeko kuboan sartu zuen zakua, eta zain geratu zen. Tennis zuriak baizik ez ziren ikusten. Zuloak aitaren luzera izango zuen hortxe-hortxe. Segundo batez oinetakoak desagertu eta aitaren burua agertu zen. Besoa gorantz zekarren, eta han korapilatuta ubeldura handi bat zirudien zerbait: olagarroa! Bitxia zen olagarroak aitaren besoari nola eusten zion. Ez ote zuen ihes egin nahi? Ze abere da ehiztariaren besoari lotzen zaiona?

Harrotasunak hanpatuta zegoen Xabi:

- Ez zaitu askatu nahi!

Aita besarkatzeko ahaleginean segitzen zuen olagarroak. Erotutako maitalea.

- Kaguenlaputa -aita marmarrean.

Garroak banaka askatu zizkion eta, olinpiadetako pisu jaurtitzailleek bezala, arroken kontra jo zuen piztia. Trapu zahar bustia zirudien. Gero eta indar handiagoarekin jotzen zuen, eta Xabiri zipriztinak ailega-

tzen zitzaizkion gorputzera. Jo eta jo segitzen zuen aitak. Hain zegoen ernegatuta eta itsututa, olagarroaren burua airetik atera zenean ere kolpeka segitu baitzuen, eman eta eman.

Derrepente, amildu egin zen. Eta arroka gainean eserita, negarrez geratu zen.

- EZ duk sinetsiko -esan zuen Manuk, forma karratu-ko zerbait bularraren kontra jarrita.

Ahoan zeukan mendazko gozokiaren usaina zabal-tzen zen tabernan, hain zen taberna txikia.

- Erakutsi!

- Et, et, et, lasai...

Xabiri, ordea, ez zitzaizkion liburuak axola.

- Gustatuko zaik.

- Niretzat al da?

- Jakina. Norentzat bestela?

Liburua mahai gainean jarri zuenean zipriztinen artean ur azalera ateratzen ari zen marrazo baten iru-dia ikusi zuen, ahoa zabalik eta haginak agerian. *Le grand blanc* zeukan izenburua. Koloretako argazkiz beterik zegoen. Agerikoa zen liburua ez zela berria, iz-kinatan higaturik zegoen, baina zer axola zion? Ezin zuen ulertu non ote zegoen tranpa; horrela, besterik gabe, halako opari bat?

Zaila zen ebazten bietatik nor zegoen zorienttua-go, bata opariarekin edo bestea opariarekin asmatu izanarengatik. Liburua aspaldi izango zuen etxean be-

harbada, liburu ahaztuen artean galduta, eta haurra itsasoari buruz galdezka entzunda oroituko zen.

«Le grand requin blanc (Carcharodon carcharias) est une espèce de requin de la famille des lamnidés», irakurri zuen. Ia argazki guztietan ageri zen animalia hortzak bistan, jateko zorian edo jaten, eta sarritan ageri zen haragi zatiez inguratuta eta odolez bustita, basati eta era berean zirrara; zer paradoxa! Itsa-soko animaliarik indartsuena zela jakiteak, horrek sortzen zion Xabiri halako zirrara: han azpian bizi ziren animalia guzti-guztien artean hura da jaun eta jabe.

Ezin ditu begiak liburutik aldendu. Haginen arteko marrazoaren haragi gorria, bere gorputzaren forma lirainarekin kontrastean, baten batek gorputzari beste aho bat jarri izan balio bezala. Eta aurpegi hura, mila borroketako zauriak agerian, horma pitzatu bat bezala.

Liburuko urpekari guztiak ageri dira kaiolen barruan, salbu eta 234. orrialdekoa. Hura igerian ari da marrazoaren aldamenean, eskuineko eskuaz marrazoaren bizkar gaineko hegatsari helduta. Argazki oinean dator urpekariaren izena: «Rodney Fox nage à côté d'un Carcharodon carcharias».

Manuren ahotsak atera du bere baitatik; atzamarra marrazoaren ahoan jarrita esan du:

- Janaria bilatu eta jan beste zereginik ez zaukak gure lagunak. Eta horretarako haginak baizik ez ditik behar. Horregatik zauzkak hiru lerro, ikusten dituk? Hagin bat erori orduko bestea ateratzen zaiok.

- Zuk ikusi duzu baten bat aurrez aurre?

Manuk duda egin du. Beharbada pena dauka ezetz esan beharragatik.

- Hauek baino piztia okerragoak ikusi ditiat nik. Horregatik nagok hemen! -eskua buru gainean jarrita barrez hasi da-. Munduko animaliarik zaharrena duk marrazoa, dinosauroen garaietatik bizi duk, geu baino milioika urte lehenagotik. Animalia gogorra duk, ehiztari ona, ongi ugaltzen duk eta gainera ez dik gerrarik pairatu. Lau gauza horiei esker 500 milioi urte zauzkak gure lagun hagin zorrotzak. Gizakia desagertzean marrazoek arrantzan segituko ditek. Gu hondoratuko gaituk geure harropuzkeria guztiarekin, eta haiek barre egingo zigutek. Ulertzen al duk?

Esaldiaren azken partean arreta galdu du Xabik. Askotan gertatzen zitzaion: gerra hitza entzun eta handik aurrera beste zerbaitetan pentsatzen hasten zen.

Ugartetarren etxeko behe solairuan bizi zen Manu, eta aurrerantzean harengana sarritan joaten hasiko zen Xabi, hasieran marrazoen aitzakian eta gero bate-re aitzakiarik gabe. Batzuetan elkarren ondoan telebistari begira egongo ziren, hitzik egin gabe. Manuk ez zeukan beti hitz egiteko gogoia. Eta Xabi ez zen ezere-so sentitzen isilik eta hitzik egin gabe zeudelako. Asko jota aspertu egingo zen, bere etxean maiz aspertzen zen bezala, eta handik ospa egitea erabakiko zuen, beste inon norbaitek kasu egingo zion esperantzarekin. Batzuetan Manuren etxeko tiraderak zabaltzen zituen, eta hango objektu arraro eta erabilpenik gabeak bilatzeari ekiten zion: bujiak, erloju zaharrak, giltzarraoak eta halakoak, haiek (ahal izanez gero) oparigisa eramateko.

Tabernako lanetik kanpo, Manuk ez zituen tabernak gustuko. Egunak etxetik irten gabe ematen zituen, aldizkari txatalekin eta fruituen kaxekin eskulanak egiten, panpinak gehien bat. Ohol zatiak moztu eta panpinen hezurdura egingo zuen, eta paper-orearekin, buruak, eskuak eta oinak. Oihal zatiak erabiltzen zituen jantziak egiteko eta gero margotu egingo zituen. Dendetako panpinak bezain ederrak ziren, edo ederragoak agian, eta halaxe esaten zion Xabik, den-

detakoak baino panpina ederragoak egiten zituela. Egia zelako. Eta behin batean panpina bat oparitan eman ziolako. Eta hitz ederrekin agian besteren bat lortuko zuelako noizbait.

Aitak ez zuen haurrak Manuren etxean egotea maite, baina ez zen debekatzera iristen. Gauza arraroa zen, edozer debekatzeko kapaz zen aitak halako herabetasuna erakustea debeku hura gauzatzeko. Gozzonek esaten zuen Manu *peemea* zela, eta aita *milia*, eta *peemeak* eta *miliak* ETaren bi adar ezberdin zirela, eta ez zirela ongi moldatzen. Baina Xabik aita eta Manu behin baino gehiagotan ikusten zituen hizketan. Nagore, hiruetan azkarrena zenak, aitak *zeloak* zituela esaten zuen. Baina Xabiri berdin zitzaion, eta gezurrak esanda joaten zen Manuren etxera, hondartzara edo kalera zihoala esanda.

- Utzi ezazue Manu bakean -esaten zuen aitak-, bakarrik egotea gustatzen zaio horri.

Baina Manuri ez zitzaion bakardadea gustatzen, edo ez zirudien behintzat hurren konpainia zenik Manu gogaitzen zuena, helduena baizik.

Tarteka, asteburuetan nagusiki, Nekane etortzen zen Donostiatik, Manuren *lagun bat*, eta horietan Manuk ez zion etxeko atea zabaltzen Xabiri. Baina

Xabik bazekien etxean zeudela, telebistaren zarata sotoraino ailegatzen baitzen paperezko apartamentu single horietan. Txirrina behin bakarrik jotzen zuen: bazekien noiz zegoen soberan. Batzuetan, Nekane egon arren, atea zabaltzen zien. Okasio horietan, hirurak (edo laurak, Nagore bazegoen) sofan jartzen ziren telebista aurrean, eta Manuk besoarekin neska inguratzen zuen, bainatzera joaten zirenean bezala, hondartzako espaloian barna Bidasoa alderaino, beti azken orduan, eguzkia Jaizkibelen sorbalda luzean pausatzen zen tenorean. Zein ezberdinak ziren ospitaleko neskatilaren eta Nekaneren gorputzak, eta nolako lanak begiak neskaren gorputzetik aldentzeko!

Xabik gustuko zuen neskak Manurengan sortzen zuen aldarte aldaera zelatatzea. Aldaketa handirik gabe, dena zen zertxobait ezberdin, baten batek dena zentimetro bat harantzago mugitu izan balu bezala. Janari usaina, adibidez. Nekanerik gabeko etxean apenas pizten ziren suak, baina Nekane iritsi orduko dena lurrinak estalita geratzen zen. Dena zen zertxobait antzeztuagoa, zeremonialagoa, derrepente dena zen mesedez eta dena zen milesker. Ohartuta zegoen, gainera, Manuk galtza luzeak eta etxeko txapinak gehiagotan janzten zituela Nekane etxean zenean, ja-

teko mahai gainean mantela zabaltzen zuela, eta irakurtzen ari zen plantak egiten zituela. Nabarmena zen plantak egiten zituela, neska etorri bezperan uzten baitzuen liburua mahaitxoaren lanpararen ondoan. Uda osoan ibili zuen liburu bera alde batetik bestera, apalategitik mahaitxora, handik komunera, komunetik berriz mahaitxora, eta mahaitxotik apalategira. Liburu amaiezina zen.

Gero, oharkabean, Nekane joan egiten zen, eta bazirudien norbait falta zela etxean eta denak zebiltzala norbait horren bila, norbait hori aipatu gabe. Berriz praka motzak janzten zituen Manuk eta berriz uzten zuen bizarra egin gabe.

- Zure nobia joan delako al zaude triste?
- Ez da nire nobia...

Hala joan zen uda, bizitza desordenatu hartan. Uda amaitu aurretik hasi zen Xabi eskolarekiko izua sentitzen. Mundu guztia zegoen ikastola berriak zein sentimendu sortzen zion jakiteko irrikaz. Eta galdetzen ziotenean, mundu guztiak hala egiten baitzuen, orduan ohartzen zen *benetan* ikastola berri batera joan beharko zuela, eta ikaskide berrien aurrean agertu beharko zuela laster, bere jantzi zahar eta futbolerako gaitasun gabezia betikoarekin.

Gotzonek deserriaren barruko deserria hautatu zuen, apenas ikusten zuen inork Mainerrekin harremanetan hasi zenetik. Hura ere ez zen *nobia*, esan beharrik ez da, elkarren artean gero eta antz handiagoa zeukaten arren, jantzietan, orrazkeran eta hitz egiteko maneran ados jarri izan balira bezala. Harrigarria zen. Mutturra alde batera okertuta hitz egin beharra, adibidez, eta larruzko jaka, eta hartan zintzilik eramaten zituzten kateorrazak eta bestelako «txatarrak», aitak esaten zuen moduan.

Kontua sinplea zen azken batean: Gotzon punki bilakatu zen. Alde batetik miretsi egiten zuen Xabik, zer-

bait izatea kitzikagarria zirudielako. Proposatu izan baliote, une horretan bertan bilakatuko zen Xabi bera ere punki, baina inork ez zion proposatu, eta bazirudien, anaiak esaten zuenarengatik, jada berandu zela. Kontua ez baitzen bilakatzea, *izatea* baizik. Ez zen janzkera kontua (horiek «postaletako punkiak» ziren), baizik eta azaldu ezin zen *zerbait*. Jaio egin behar zela alajaina. Hori zioen anaiak. Eta anaiak asko zekien, eta hark esaten zuena ia beti zen egia. Beraz, punki izateko tentazio oro burutik kendu zuen Xabik.

Maider lurtarragoa zen. Esaten zuen:

- Punki izatea da gizarte honen arauen kontra ibiltzea: sistema kapitalistaren, elizaren, poliziaren eta burokraten kontra.

Baina horrek guztiak are zailagoa zirudien.

Bizitzako une punkienak Maiderrren etxeko ganbaran bizi izan zituzten, hango disko-jogailuaren inguruan.

Maiderrekin mahukarik gabeko elastikoa zeraman, eta galtzetako zuloan hatza sartzen zuen bitartean anaiarekin garrasika ari zen hizketan. Animalien heriotzari buruz ziharduten, «animalien hilketa masiboaz» zehatz esatearren. Gero diskoko kantua amaitu zen

eta eztabaida moztuz Mainerrek oihu egin zuen, disko-ko musikarekin batera:

- ¡Que os den por culo a todos, que esto se acabó!

Gero biek aipatu zuten kantu oso ona zela, eta animaliez hizketan jarraitu zuten. Gizakiak animaliak bi-degabe ugaltzen eta handitzen eta akabatzen eta «kontsumitzen» zituela. Mainerrek txorizoa jateak gero eta higuin handiagoa sortzen ziola azaldu zuen, eta anaia ados zegoen erabat. Eta zerbait egin beharra zegoela. Zer? Ez zekiten. Baina *zerbait*.

Elkarrizketaren erdian, mahukaren zulo handitik Mainerren bular zatia ikus zezakeela ohartu zen Xabi, eta orduan elkarrizketaren ildoak galdu zuen. Izututa sentitzen zen, eta desioak jota aldi berean. Anaiak inoiz bular hura ikusteko askatasuna izan zuela pentsatzeak, amorratuta eta etsita sentiarazten zuen. Inbidia mailu handi eta pisu bat zen. Ia bere antzekoa zen norbaitek berak gehien desio zuen hura eduki zezakeela (bular leun eta bigun bat esku-eskura) eta berak ezin zuela horrekin ametsik ere egin...

Desio zuenaren eta zinez eskura zeukanaren arteko amildegia jasangaitza egin zitzaion. Zenbat eta min gehiago, orduan eta begiratzeko premia handiagoa sentitzen zuen. Begiratzeak grina itzaliko ziolakoan.

Baina alderantziz zen, grina berotu besterik ez zitzaien egiten, ezinaren samina gaiztotzen zihokion bezala. Tranpa bat zen, amarru zikin bat. Zergatik jarzaten zion bizitzak ikuskizun handios hura, beretzat ez bazen?

Bere berezko bizitza (disko-jogailu bat, halabeharrrak elkartutako haur batzuk, animalien heriotzari buruzko eztabaida astun hura...) zen denen begietara bizitzen ari zena, eta denak bizitzen ari zirena. Bat gehiago zen besteen artean. Baina, bere sakonean, mundu hartatik at zegoen guztiz, legez kontra, zeharka neskaren bular zati hari begira.

Disko-jogailutik ulertzen ez zituen hitzak zetozkion, eta kateatuta geratzen zitzaizkion belarri zuloetan, eta bular zatiaren ikuskizunaz aldentzen zuten lipar batez: «gringo», «gatxupino», «rastaman», «estupa», «burokratas», «lehendakaria», «kataklistimoa», «burrundaie», «pardillo», «txupa», «sandinista», baina berehala itzultzen zen bere sentimendu klandestinoen amaraunera.

Txominek lurreko tranpola irekiz burua azaldu zuen eta, ondoren esango zuenari larritasuna kentzeko keinua eginez, erregutu zuen:

- Jaitsi musika pittin bat, Maider.

- Ospa, aita!

Keinua aldatu zuen Txominek, negoziatzerik ez zegoela erakustearren.

- Jaitsi musika, faborez. Hor behean ez dugu elkar aditzen.

Lurretik marmarka zutitu zen Maider eta disko-jogailuraino joan zen sorbaldak mugituz. Gurpiltxoari bira eman zion.

- Ez duzu jaitsi.

Gehiago jaitsi zuen. Eta disko-jogailuaren aurrean zegoela baliatu zuen orratza kantu batetik bestera eramateko eta, kantu berria jarrita, aitari begira, kantuan hasteko:

- Despierta!, dispara!, un gringo!, en tu casa!

Lepoa moztu izan baliote bezala zegoen Txomin bere bizar gorriekin neskatilari begira eta, tranpolatik desagertu zenean, bere burua zegoen tokian zorua agertu zen bat-batean, bere agerpena ametsa izan balitz bezala.

Nagore ganbararen beste muturrean zegoen, liburu bat begien aurrean, eta berak ere ez zirudien punkia izatearekin kezkatuta. Nahikoa zuen liburuekin, auskalo zer istorio aurkitzen zuen haietan. Baina pazientzia zeukan, eta hori benetan mirestekoa zen Xa-

birentzat. Nola zen posible hitzez hitz eta esaldiz esaldi aurrera egitea, lehenago arreta galdu gabe?

Arazoa zen, gainera, Nagoreren zaletasunak helduen estimua zeukala, eta bere autoekikoak ez. Helduek *zerbait* aurkitzen zieten liburuei, autoei aurkitzen ez zieten, nahiz eta gero beraiek ez zuten esku artean libururik hartzen.

Amak esan zezakeen:

- Ikusi behar zenukete Nagore irakurtzen: irentsi egiten ditu liburuak.

Baina ez zenuten entzungo beste hau esaten:

- Ikusi behar zenukete Xabi bere autoekin: hiriak sortzen ditu.

Bizitza halakoa zen.

Bere gogoeta mingarri eta lizunetik azkenik alden du zuena, zoko batean ikusi zuen irristagailua izan zen. Hortxe zetzan, hautsak estalita. Berehala jabetu zen haren abandonuaz, eta hura eskuratzeko zein estrategia erabiliko zuen pentsatu zuen. Lehenengo hura hartu, inoiz ez baita jakiten norainoko gogoak daukan jendeak etxean traban dauden gauzak bistatik kentzeko. Horrekin nahikoa ez balitz, patinetea norena zen galde zezakeen, jabegoaren auzia mahai gai-

nean jartzeko modu sotila, zuzenean eskatu gabe zeharka eskatzeko balio zezakeena.

Patinetea hartu zuen beraz, eta eskuarekin hautsa kendu zion lehenik eta gero gurpilei eragin zien ia kezka adierazten zuen keinuarekin, esanez bezala: lastima patinete hau hemen horren gaizki zainduta egotea, agian ez da ibiliko (baina nik konponduko nuke).

Baina Mainer bere oihalezko botin batean A hizkia margotzen ari zen zirkulu baten barruan, eta ez zion erreparatu.

- Norena da patinetea?

- Nirea.

Zain geratu zen Xabi, baina neskak bere zereginen segitu zuen.

- Hondatu egingo zaizu erabili gabe -ausartu zen Xabi.

- Zuk hobe zainduko zenuke? -barre txikia egin zuen Mainerrek.

Sorbaldak jaso zituen Xabik, ez bai eta ez ez, ebazpena neskak berak emango zuelako itxaropenez.

- Eskatzen ari zaizu -bota zuen Gotzonek.

Madarikatua!

- Nahi baduzu, zuretzat -esan zuen Mainerrek, be- girada jaso gabe.

Poza ezkututzen saiatu zen Xabi.

- Eskerrik asko -murmurikatu zuen.

Etiket irten bezain laster, lotsaren ordean poza sentitzen zuela konturatu zen, eta poza handitu bes- terik ez zitzaion egin, irristagailua lurrean jarri eta zein ongi eta zein azkar zebilen egiaztatu zuenean. Etxe aurretik pasatzean errepide zabala hartu beharrean, gorantz abiatzen zen beste kale estua hartu zuen, handik autorik ibiliko ez zela jakitun. Ez zuen lehen egunean desastrerik nahi. Zuhaitzen artean igotzen zen errepidea, eta asfaltoan han-hemenka zuloak eta sakonuneak agertzen bazituen ere, patinetez jaisteko malda egokia zen, ez oso pikoa (malda pikoek beldu- rra ematen zioten).

Harrigarria egin zitzaion kasik malda amaieran auto bat ikustea, hura ez baitzen autoentzako errepide- a. Ezagutzen zuen auto hura: Peugeot 504. Autoari barrutik so egiteko asmoa zeukan, baina barruan nor- bait zegoela konturatu zen, bi gizon hain justu, eta ezikusiarrena egin zuen. Irristagailu gainean eserita jarri zen, eta hura maldan behera bota aurretik azken bistazoa eman zion autoari, eta ongi damutu zitzaion,

bi gizonak begira zeuzkalako, eta bat-batean ez zekielako maldaren parte hura pribatua ote zen edo patinetean jaistea ote zen gizonek gaitzesten zutena; dudatan gelditu zen patinetea eskuetan hartu eta ez ote zuen berriz malda oinez jaitsi behar, baina gizonak ez ziren autotik mugitzen eta ez zuten deus esaten. Azkenean, handik alde egiteko premia zalantza baino handiagoa zenez, oinak lurretik jaso eta irristatzen hasi zen, harik eta autoa begien bistatik galdu zuen arte.

- Asanblada!

Aitak modu horretan biltzen zituen denak etxean, zerbait iragartzekotan zenean.

Sukaldeko mahaian jarri ziren, eta aitak hurrengo ikasturterako planen berri eman zien, enegarren asanblada hartan. Lehenik eta behin etxez aldatuko ziren. Orio izeneko auzora joango ziren lagun batekin bizitzera.

- Epe batez izango da, eta gero geurea hartuko dugu.

- Eta Manu? -galdetu zuen Xabik.

- Zer gertatzen da Manurekin?

Ez zuela bistaz galdu nahi. Baina nola jartzen zen hitzetan hori? Ez zuen asmatzen, eta sorbaldak jaso zituen.

- Ez diat entenditzen, Xabi. Zer nahi duk, Manu gurekin bizitzera eramatea?

Galderaren osteko isilunearekin ulertu zuen Xabik galderak zeukan salaketa doinua. Bere parean zeukan Nagore, hura ere platerari begira, eta bazekien gauza

bera pentsatzen ari zela, nahiko zukeela zerbait esan baina ez zela ausartuko.

- Manu ederki moldatzen da bakarrik -esan zuen aitak-. Gainera, ezin duzue biltegi txikian segitu, ito egingo zarete. Ez al zenuten egongela nahi?

- Egongela izango dugu? -Nagorek.

- Jakina.

- Eta sofa?

- Noski.

Hura normaltasunera itzultzea zen! Baina Xabi normaltasunaz ahaztuta zegoen aspaldi hartan, ez zuen entzun nahi. Aitaren eztarriko intxaurra ikusten zuen gora eta behera, oilo lepo mehar hartatik atera nahian balebil bezala.

- Beste gauza bat -esan zuen aitak-. Hemen haurrek ez ditek futboleak egiten, errugbian egiten ditek; hi animatuko haiz, Xabi?

Erantzunik gabe geratu zen Xabi, zer esan ez zekiela.

- Lagun batekin hitz egin diat, eta astean behin bakarrik izango duzue entrenamendua, larunbatetan. Oraindik txikia haiz partidak jokatzeko... Ez duk lehia, jolasa duk, ulertzen didak?

Gero Nagoreri begiratu zion, Xabiren erantzunarekin kezkatu gabe.

- Zuk musikarekin jarraitu nahiko duzu, ezta? Larunbatetan, Xabi entrenamendutan den bitartean, zu piano eskolak hartzera joango zara, zer iruditzen?

Denak erdi lagunak ziren Hendaia hartan eta, noski, piano irakaslea ere erdi laguna zen, edo ezaguna behintzat, edo lagun baten laguna, edo lagun baten lagunaren erdi laguna. *Konfiantzazkoa* nolahi ere.

- Eta hik zer egingo duk? -galdetu zion Gotzoni.

- Nik nahikoa izango dut eskolarekin.

- Nahikoa?

- Bai.

- Frantsesa ikasi beharko duk behintzat.

Masailak pizten zitzaizkion Gotzoni denak begira zituenean.

- Ez dakit.

- Ez dakik?

- Iguar moldatuko naiz eskolak hartu gabe.

- Atzean geratuko haiz.

- Ikusiko.

Aitak sorbaldak altxa zituen.

- Nahi duan bezala, urtea hasi eta laguntza behar ezkerro, esan ezak, eta listo.

Afaria prestatzen ari zen ama, ke hodei trinko bat zegoen sukaldean, eta, sarritan bezala, telebista ikuslerik gabe piztuta zegoen.

- Ez al duk kirolrik egin behar? -tematu zen aita Gotzonekin.

Besteak erantzuna pentsatu zuen, eskuak izterren artean sartuta. Amak burua biratu zuen, denak zain zeudela ikusita.

- Zer diok?

- Ez dut astirik izango.

- Astia? Zer haiz, ministroa ala?

- Frantsesa ikasi nahi badut...

- *Amigo!*, frantsesa ikasi nahi duk. Larunbatetan etxetik irten gabe geratuko haiz orduan, hori duk?

- Irten gabe ez.

- A, kalera joan nahiko duk hire lagun arlote horiekin. Horretarako izango duk astia.

Estutasunetik atera nahi izan zuen amak.

- Lagunekin ibiltzeko eskubidea izango du, Joxemari...

- Denetarako astia dago, lagunekin ibiltzeko eta kirol pixka bat egiteko.

- Nik ez dut errugbian aritu nahi -tematu zen Gotzon.

- Igual beste zerbait egin nahiko duk, tenisa, golfa, poloa edo halakoren bat...

- Gutxiago!

- Navratilovak bezala! -bota zuen Nagorek.

- Errugbia kirol noblea duk -esan zion aitak, eta noble hitza airean zintzilik geratu zen.

- Nik ez dut noblea izan nahi.

- Noblea izatea ez duk aukera bat, Gotzon, noblea izan behar duk, eta kito. Noblea ez bahaiz, ez haiz deus.

Orduan noble hitza mahai gainera erori zen, mailu bat bezala, eta Xabik etorkizunerako erronken artean sartu zuen noblea izatekoa, eta pixka bat izututa sentitu zen, jakin ez zekien arren, susmoa baitzeukan errubia, futbolaren modura, abilentzako jarduera izango zela, mutil sendo eta ausartentzako. Nobleziak hatzen artetik ihes egiten ziola sentitu zuen. Fideo zopa lapikoa mahai gainean jarri zuen amak, eta aita lanbroaren atzean bistaz galdu zuen Xabik. Bere burua ikusten zuen, han, zopa lurrinduaren atzean, ile xerloa trabeska.

Martin izena zuen Orio auzoko aitaren lagunak, eta adineko gizon serioa eta formala zen, errespetua eragiten duen horietakoa. Ez zen umeen sinpatia lortzeko imintzioak edo trukoak egiten hasiko. Gizonaren etxera ailegatu ziren egunean, Martinek berak zabaldu zien atea, betaurrekoak sudur puntan zeuzkala, eta aldizkari bat eskuan, *Argia*. Eta esan zien:

- Ongi etorriak.

Berehala ikasiko zuten «Jainkoak hala nahi badu», «primeran deritzot», eta tankerako esaldiak erabiltzen zituela. Mundu guztiarekin zuka aritzen zen, inoiz kortesia eta nolabaiteko hoztasuna galdu gabe.

Moketa gorriko korridorean abiatu ziren bere atzetik, egongelaraino. Balkoira ematen zuen leiho handi batek hartzen zuen gela alderik alde, eta bai, hortxe zegoen sofa, telebista dotore baten aurrean.

Etxe arrunta zirudien, txukuna eta argitsua. Egongelako leihoaren aldamenean loreontzi bat zegoen, Xabik zein motatakoa zen ez zekien baina ezin kaskarinagoa iruditu zitzaion landare batekin. Irrati-kasete zaharra piztuta zegoen, bertsoan: «Orain artian ni

izandu naiz, aitona zure nagusi, errenta txintxo pagatu dezun, zere kapoi eta guzti...». Xabik ez zekien, baina buruz ikasiko zituen bertso haiek. Eta beste asko.

Edonor etxera gonbidatzeko etxea iruditu zitzaion Xabiri Martinena, eta lagunak egin eta bertara ekartzeko irrikatan sentitzen zen. Baina berehala jabetuko ziren, gauza guztiak bere tokian eta moketa gorri deigarria eta balkoi handi bat zeuzkan etxeak ez zeukala haietzako tokirik, ez eta gelarik ere. Eta armairuan ez baina egongelan lo egin beharko zutela egunero. Eta goizero Martinek bere bertsoen kasete zaharrarekin esnatuko zituela. Etxe txukun eta dotore hartan mundu guztia goizeko seietan esnatzen baitzen, «Jainkoak hala nahi zuelako», astiro-astiro buruz ikasiko zituzten bertsoen doinuekin.

Gurasoentzako gelan gordetzen zituzten euren hiru ohe tolesgarri berde madarikatuak, gaua heltzean egongelan barreiatzen zituztenak. Amak gela «desmontablea» zeukatela esaten zien, baina gela azken batean. Eta ezin zuten aurkakorik esan. Martinek, gainera, «garrantzitsuena aterpea izatea» zela zioen, eta austeritatea zela «gizakiaren bertute nagusia». Ezer gabe bizitzen jakitea alegia. Gaua heltzean

marmarka erantzuten zien Gotzonek, denek austeritatearen alde egiten zutela, bai, baina beraiek zirela gela ez zeukaten bakarrik: «Austeritateaz hitz egin eta nor bere gelara joaten dira, gu egongelan utzita, *Argia* putaseme hauekin». Egongela guztia baitzegoen aldizkariz eta liburuz beterik. Goizero, sukaldeko atea zabaldu eta hurrei luzaz begira geratuko zen Martin, bertsolarien doinuak egongelan sartzen zirela. Eta luze egongo zen haiei begira, «seme-alabarik» ez zeukalako, Nagoreren irudiko, eta haren arnasa ailegatuko zitzaien bertsoen doinuekin batera, Martinen arnas sakon eta sarkorra, orro baten gisakoa.

Hendaiako beste auzo eta kaleetako gaitz berbera zeukan Oriok: bakardadea, arrazoiren batengatik jendeak ihes egin izan balu bezala. Martinek bakardade hitzari frantsesek *solitude* esaten ziotela azaldu zion eta harrezkero herria hutsik ikusten zuen bakoitzean hitza etortzen zitzaion: *solitude*.

Leihotik begiratzean auzoak postal bat zirudien, teilatu gorriko etxe txikiak, leiho urdin eta berdeak, zuhaitzak han urrun, belardiak, porlanezko bideak, pilotalekua... Zerua aldatu egiten zen hodeiak agertzen zirenean, eta orduan auzoaren koloreak ere bai. Baina bestelakoan maketa handi eta mortua zirudien auzo-

ak. Katastrofe baten erruzjenderik gabe geratutako mundu lauso, isil eta urrunekoa.

Baina Martinen etxean bospasei egun zeramatzala, auzoak bere ordutegiak bazituela ohartu zen, ba-zeudela une bakan batzuk kalera irten eta jendea ikusteko, eguerdian eta afalaurretik kasu. Ez zen, zehazki, bere sorterriko Pontika bezalako auzo *normala*, horretarako gozoki denda, arrandegia, harategia eta taberna falta zituen, baina zertxobait hurbiltzen zen. Pilotalekuak betetzen zuen Pontikako plazak betetzen zuen funtzioa, baina ez jendea bertan biltzen zelako. Hura ez zen biltoki bat. Ez zegoen familiarik, ez zegoen erosketak etxera zeramatzan andrerik, bankuan eserita orduak ematen zituen agurerik, ez ezer. Baloiarekin, erraketarekin edo pilotarekin jolasean zebiltzan haurrak baino ez. Gauza ezberdin guztietan ezberdinena, ordea, hizkuntza zen. «Allez, pu-tain», «dégage-toi, gros con», «espèce d'énfoiré», «ta gueule, connard», «enculé de ta race» entzuten zuen Xabik, eta ez zuen hitz bakarra ere ulertzen. Eta orduan ohartu zen ez zegoela etxean, eta ordura arte ezagututako Hendaia, gurasoena eta gurasoen lagunena, ez zela benetakoa, Hendaia barruko irlatxoa baizik, eta benetakoa arrotza eta ulergaitza zela. Mar-

tinek esango zion: «Hendaian bazagok aspaldiko euskaldunik ere, horiek gu bezalakoak dituk», baina Xabik ez zituen inon ikusten, salbu eta gurasoen lagunarte itxian. Hor bai, frantses doinua zeukaten euskaldun hendaiaarak baziren (ez asko). Baina ez Orion. Beharbada Orio, Martinen esanetan, «etorkinen auzoa» zelako, «Hendaiako pobreena».

Bazkalostean, balkoira ateratzen zen, zakurra jantzirik eramaten zuen Juliette izeneko atso zaharra ikusteko.

- Tu veux faire pipi ma belle? -esaten zion.

Harekin hitz egiten baitzuen Juliettek egunero Martinen etxeko balkoiaren azpitik pasatzen zenean.

Sylvie, Stephane, Corinne... horrelako izenak zeuzkaten etorkinen seme *pobreek*.

Bazen haur mehar eta baldar bat, Mathieu izeneko, auzoan bakarrik oihu eginez ibiltzen zena, Orioko hormetan askotan ikusten ziren zango luzeko armiar-mak jaten zituena. Denek barre egiten zioten, eta Xabik harekiko errukia sentitzen zuen, higuinarekin eta beldurrarekin batera. Oinutsik ibiltzen zen beti mutila, eta batzuetan pilotalekuaren harmaila txikietan kuluxka egiten ikusten zuen. Pontikan ez zegoen halakorik, ezta antzekorik ere, eta ez preseski abera-

tzen auzoa zelako. Orio hura inoiz ikusi gabeko gauzarik harrigarriena zen, itxuraz dotorea, txukuna eta (ondo moztutako) belardiz betetakoa izanagatik ere.

Xabik bazekien ezingo zuela inoiz Pontikako lagunik auzo hartara eraman, bestela denek jakingo baitzuten *pobreentzako* auzo benetan txiro batean bizi zela. Eta horrek biziki kezkatzen zuen.

Bere bizitzako kontakizuna eten zitzaiola sentitu zuen. Ezingo zuela sekula berari buruzko ezer inorekin konpartitu, gezurrak esanez ez bazen.

Oihana ikusi zuen Oriora iritsi eta bi astera, hondartzan ezagututako neskatila, zuhaitzean zintzilik bera-rekin egondako hura. Palaz ari zen ahizpa txikiarekin.

Enkontruak sortu zion poza ezkutatzearren, Xabik ez jakinarena egin zuen hasieran. «Hondartzan? Ez naiz ba gogoratzen!», halako esaldi bat erabili zuen, gezurrak esateko gaitasun gero eta burutsuagoari esker. Besteekiko menpekotasuna eta, oro har, besteekin egoteko nahia kanpotik ongi ikusten zela uste zuen, eta horrek axolagabe agertzera bultzatzen zuen ezinbestean. Ondoren, bere menpekotasunaren inguruko susmoak uxatutakoan, aitortu zuen: «Ai, orain oroitzen naiz, bai: zuhaitz batetik zintzilik egon ginen, ezta?». Bere izen ona, ordea, berehala desitxuratu zen palan aritzea egokitu zitzaionean. Munduko beste kirol guztien modura, gauza oso zaila baitzen pala jokoa. Eta okerrena zen, kanpotik begiratuta munduko gauzarik sinpleena ematen zuela: egurra hartu eta jo. Segituan ohartu zen, pilotari eman egin behar zitzaiola lehenik eta, gainera, pilotak horma jotzeko gisan eman behar zitzaiola. Gauza konplikatua, biak

ere. Lehen kolpean kale egin zuen eta bigarrean be-
lardira bidali zuen pilota. Eta neskak barrez. Oihanak
eskutik oratu zion, pala heltzen irakastearren, baina
Xabik ez zuen azalpena ongi ulertzea lortu. Eta orduan
konturatu zen, lotsak eta kirolari kaskarra izateko izua
eta halako kontuak ahaztuta zeuzkala. Mundua bere
oinen azpian desagertu egin izan balitz bezala. Esku
bat bakarrik, bereari eusten. Eta urrunetik zetorren
ahots bat. Eta marrubi usain lauso bat... edo masuste-
na agian.

- Ulertu al duzu?

Zer ulertu behar zuen? Dena argi zegoen ordura-
ko! Zeren eta sentimendua berria zen eta, aldi be-
rean, zaharra, betikoa. Ezin zuen gobernatu eta go-
bernatu nahi ere ez. Nahi zuen gauza bakarra zen,
hantxe geldirik egotea neskaren ahotsa entzuten.

- Horrela eman behar zaio: pala gora jaso eta fart!

Eskerrak ahizpa txikiena kexuka hasi zen, aski
zela eta jokatu egin nahi zuela, horrek lagundu bai-
tzion bere onera itzultzen.

Gero Oihanaren bizikletaren parrillan joan zen
etxeraino, neskaren gerriari helduta.

Eta konturatu orduko, egunak igaro ziren eta iritsi
zen ikastolara joateko tenorea.

Bakarrik joan beharko zuen, Xabi lehen hezkuntzan baitzebilen oraindik, Donibane Lohizunen, baina anai-arrebak *lizeoan*, Kanbon. Ze gauza ederra etxeko nagusiak izatea eta beti norbait aldamenean edukitzea. Izan ere, gauza ziurra baitzen, Xabi agertu orduko zelatan eta begira izango zuela ikastola osoa, denek ikusiko zituztela bere *señorito* galtzerdi zaharrak. Eta halako trantzea bakarrik pasatzea, penitentzia bikoitza zen. Anaia aldamenean izan balu sikiera, bere punk itxura sendo horrekin!

Harrizko hesi handi batek zedarrantutako etxe zaharra zen ikastola itxurarik ez zeukan ikastola hura. Arbola tantaiz inguratuta, apenas ikusten zen eraikina hesiaren kanpotik. Gainbeheran etorritako eraikin dotorea agertu zitzaion, etxaurreko margoa ihartua, egurrezko leihoetako gorria pitzatua. Aire misteriotsukoa eta zertxobait beldurgarria.

Kizkurrez betetako ile luzea zeukan irakaslea sartu zenean, Xabik hontzaren itxura hartu zion aurpegieran. *Orain* esan ordez *uai* esaten zuen, *atzean* ordez *gibelean*, *ongi* ordez *ontsa*, baina Xabik dena ulertzen zion, edo ia dena. Irakaslearen euskara okerra zela pentsatzen zuen, berak ezagutzen zuen euskararekin alderatuz, frantsestua eta kutsatua. Tira, horrek ez

zuen axola. Axola zuena Itxaroren tabako usaina zen, amarenaren antzekoa, etxean sentitzen zuen berbera. Huraxe izan zen ikastola hartan gustura egoteko lehen heldulekua: irakaslea eta ama, zentzu batean, ahaide izan zitezkeela.

Etsipena gero etorri zen, jolas-garaian mutilen zaletasun nagusia han ere futbola zela deskubritzean. Izkina batean zelatan geratuko zen, ikaskideen maila aztertzeko, hanka oker haiekin zereginik izango ote zuen jakiteko. Egia da ez zirela bereziki trebeak, baina ez zeukan haiekin saiatzeko aldarterik. Porrotaren beldur zen. Hantxe zegoen Eneko, jokalaria kaskarra, baina, irudiz, kaskarra izateko lotsarik ez zuena.

Eta neskak?

Beste muturrean zeuden, gimnasia egiteko lekua zirudien hondarrezko gune batean. Desafiozko begiradak bota zizkioten Xabiri. Ez zekien zer adierazi nahi zuten, haiengana joateko gonbiteak ote ziren, edo aurkakoa. Badaezpada, gerturatu eta soka batetik zintzilik zeuden uztai batzuekin jolasean hasi zen. Eta jolas-garai osoa igaro zuen jolas txoro hartan, tarteka neskekin begiradak gurutzatuz, baina haiengana joan gabe. Txikilea jaten zuten neskek, eta ausarki so egi-

ten zioten, berari buruz hizketan ari zirela disimulatu gabe.

Hala igaro zuen lehen eguna eta, konturatzerako, furgonetara igo eta bueltan zegoen etxean. Gau hartan bertan bi zigarro lapurtu zizkion Gotzoni, koltxoiazpian ezkututzen zuen Gauloises paketetik, eta erabaki zuen Eneko futboletik aldentzeko eta bere ingurura erakartzeko baliatuko zituela. Horixe egin zuen biharamunean. Jolas-garaia iritsi orduko, ikastolaren eremu barruan zegoen basora eraman zuen laguna, eta hantxe erre zituzten beren lehen bi zigarroak.

- Hik ba al dakik nola egiten den?

- Noski.

Hil behar zuela uste zuen Xabik, lehen tirakada eman eta eztulka hasi zenean; baina ez zen hil, eta, hasi zenez gero, jarraitu egin behar zigarroa amaitu arte. Eskerrak Eneko aldamenen zeukan, jertsea gerriri lotua, onkote aurpegi hartan zigarroa handiegi geratzen zitzaiola, hura ere ez tul batean birrikak bota beharrean. Baina erre zituzten azkenean eta, aurreantzean, inoiz *zigarroa erretako gizasemeak* bilakatu ziren. Lehen baino koska bat gorago egongo ziren gizon sendo bilakatzeko ametsean.

Kontua ez zen egunero zigarroa erretzea (ezingo zuten horrenbeste lortu), baina bai tarteka bakarren bat erretzea, eta asteak zigarro haiei buruz hizketan igarotzea, eta haiek pasadizo bilakatzea. Errealdiak mitifikatzea, nolabait. Laster beste eskolakide batzuk juntatuko zitzaizkien, garaia baino lehen nerabezaro-ra pasatzeko irrikatan zeudenak eta, jakina, «betiko ume» izan nahi zuten gainerako eskolakideak arbuia-tzen zituztenak. Haien artean zegoen Haritz, hortz okerreko mutil lodikotea, beti iskanbilaren batean zebilena, eta berehala ohartu zen hura bazkide garrantzitsua izango zela, hain zuzen azken honek, Xabik bezala, ez baitzuen inoiz hamaiketakorik ekartzen. Eta hamaiketakoaren tenorean, ama Annie Clauderenean lanean hasiz geroztik, Xabik ere ez zuen sabelean sartzeko ezer izaten. Egunero, basora azaldu eta beste haurrekin elkartzeaz batera, denek ateratzen zituzten beren ogitarteko edo *viennoiserie*-ak. Xabik eta Haritzek hari eta beste honi lapurtu behar izaten zizkieten zatiak, eta beti zen trantze zaila. Zeren eta gosea handia izaten baitzen. Denentzat. Eta inori ez zitzaion gustatzen bere *pain au chocolat*-aren zati bat galtzea, txikia izanik ere. Mokadu ematean, hatz-mamiak ia

muturrean jarriko zizkizuten haginkadak ahalik eta gehien mugatzearren.

Beraz, gaizkile bizitza hura ondo samar zihoakiola ikusirik, egun batean Haritzekin tratua egin zuen, jolas-garaiaren aurretik komunera joateko aitzakiarekin, haurrek ikasgelaren kanpoaldean uzten zituzten bizkarrekoetatik askariak lapurtzeko. Tratua zen: zuk gaur eta nik bihar. Susmorik ez sortzearren. Eta hala-xe hasi ziren, egunero-egunero beraienak ez ziren hamaiketakoak jaten. Kontu berezia izaten zuten, nola ez ba, zigarroak erretzera elkartzen zitzaizkien eskola-kideei hamaiketakorik ez lapurtzen. Arrakastaren sekretua, ahalik eta biktima gehien eragitea zen. Pentsatzekoa baitzen inori ez zitzaiola axolako hiru hilean behin askaria galtzea.

Lapurtutako askari guztien artean bazen bat Xabiren gustu-gustukoa: Maiterena. Launaka esertzen ziren gelan, idazmahaiak parez pare jarrita; eta Maite zen Xabiren aurrean esertzen zena, bere begi urdinekin, buru gaineko bi motots txikiekin eta jantzi garestiekin. Ez zion, ordea, sekula aurpegira begiratzen, eta ez zekien zergatik (ez baitzion inoiz hitzik egiten), baina susmoa zuen baten jantzi garestiekin eta bestearen jantzi merkeekin zerikusia zeukala. Okerrena

zen neskak, ustez, Xabirekiko sentitzen zuen mespretxua zela, hain zuzen, Xabik bere buruarekiko sentitzen zuena. Mespretxu bera ziren biak.

Horregatik, mespretxu zital haren minarekin neskatilaren bizkarreko dotorean eskua sartu eta handik mota guztietako opilak eta bixkotxak ateratzen zitue-nean, jakien gozotasuna baino gehiago, mendekuaren eztia sentitzen zuen.

Paperak egitera joan ziren egunean bertso doinuekin esnatu ziren larunbatero bezala. Xabik begiak zabaldu eta Martinen silueta ikusi zuen sukaldeko atean; haren arnasa sakona entzun zuen, kasik zurrungaren parekoa.

- Arrainak joan eta gero botako duzue sarea zuek! -esan zuen.

Amak egongelako pertsianak jasotzean jabetu ziren eguraldiaren ederraz.

Pardel gisa erabilitako trapu zaharra garbitzera bota zuen Xabik, eta gosaltzera eseri orduko ikusi zuen Martin esnetan atzamarra sartzen, bero ote zegoen frogatzearren.

- Hi, Martin -bota zion aitak-, ken ezak esku hori lapikotik!

Kargua hartu izana bakarrik bortitza iruditu zitzaion Xabiri. Martinen keinu harritua, gizon zahar baten herabetasun lotsagarria.

Gero ezer gertatu izan ez balitz bezala segitu zuten, baina aitari halako imintzioa sumatzen zitzaion, haserrearena ez bazen haserre aurrekoa izan zitekeen-

na, Xabik ongi ezagutzen zuena, eta adierazten zuena ez zela txantxetarako unea. Harrigarria zen aita aldar-te horretan ikustea etxekoa ez zen norbaitekin. Aita etxetik kanpo denekin zelako tipo alaia, emana eta maitagarria.

Eta bat-batean bertsolariaren ahotsa nagusitu zen:

*Hiru anaiok gudari giñan, bat hil digu reketiak,
modu honetan agintzen zuan jaunaren boron-
datiak...*

Ezohikoa zen egun hartan aitak zeukan itxura do-torea eta garbia, ilea moztuta, bizarra egin berria. Hala ikusten zuen bakoitzean, kalera irten eta mundu osoari bere aita erakusteko gogoia pizten zitzaion Xa-biri.

Leiho parean zutik kafea hartzeko ohiturarekin ja-rraitzen zuen amak. Hura zen beren jatorrizko bizitza-tik irauten zuen gauza bakarretakoa. Berria zen ia dena, eta beste guztia deskubritzeko zegoen, baina amak kafea hantxe hartuko zuen inork asma ezin zi-tzakeen kontuak buruan.

Aita bueltaka zebilela ikusi zuen Xabik, batetik bestera paperak eta karpetak eramaten. *Récépissé* zen hitz gakoa. «Iparraldean lasai bizitzeko agiri ditxosozkoa», aitaren esanetan. Loteria baten gisakoa omen zena, Frantziako gobernuak nahi zuenean eta nahi zion hari ematen ziona. Eta nahi zuen baldintzetan, *récépissé*-ak iraun baitzezakeen astebete edo sei hilabete. Eta sei hilabeteetan bazenekien inork ez zizula ezer esango. Agiririk gabe, aldiz, kanporatzeko arriskua zegoen.

Xabik ez zekien zein zen paper gutuziazko haren esanahia, baina bazekien haren aldeko borrokak zer nolako buru-haustek ekartzen zizkien gurasoei, eta gurasoen lagunei, maiz aipatzen zen gaia baitzen. Jabetuta zegoen, paper hari esker etxera nolabaiteko bakea etorriko zela, baina paper haren faltan ekaitza. Aita etxetik atera gabe gera zitekeela bolada batean, lanera joateko aukera gabe, orraztu gabe eta jasanezinezko aldartez. Hortaz, inork *récépissé*-a nahi bazuen, haiek Gotzon, Nagore eta Xabi ziren.

Baionako polizia-etxeak ematen zituen bizitzeko baimenok. Huraxe zen eragozpena. «Azeriaz libratzeko azeri-zuloan ezkutatu beharra», esaten zuen aitak. Horregatik, eguzki eder batek argitutako goiz epel eta

zoragarria izan arren, bostak isilik eta urduri samar zihoazen Peugeot zaharrean.

Poliziaren eraikinak ez zeukan harrigarritik ezer. Etxe soil bat aluminiozko ate batekin, bandera frantziarra, han-hemenka auto batzuk aparkaleku handiegi batean. Eskailerak igo ondoren harrera gela bat, eta gizon bat azeri itxurarik batere ez daukana, supituan aulkitik altxatu eta leihatilarantz poliki datorrena, bisitarik espero ez duenaren plantak egiten. Aitak karpetatik txikia zabaldu du mostradore gainean, zeregin hartarako lakarregiak diruditen eskuekin, «resepise» hitza ahoskatzen duen bitartean. Poliziak ongi entzun duela segurtatu nahi luke, eta «récépissé» ahoskatu du, zalantzarik izan ez dadin. Baietz aitak, horixe bera. Paperak eskuartearen hartu ditu poliziak, baina lehen galdera egiteaz batera ohartu dira elkar ulertzeko izango dituzten zailtasunez. Poliziak ez baitaki gaztelaniaz; edo badaki, eta ez du egin nahi. Ez da parekoa bien egoera. Desenkusaz ari da aita, errudun, eskolan huts egin duen haurra bezala, baina ez polizia, gaztelania ez jakitea bertutea dela adierazteko doinuaz ari da-eta. Gotzonek itzultzaile lanak egin beharko ditu. Esaterako, argiaren faktura aski ez dela esango diotenean, bankuaren agiria ere behar dela (ez daki zerga-

tik, baina halaxe ohartarazipoliziak). Aitak ezetz erantzun dio, eta eztabaidan hasi dira aita eta semea.

- Je ne vais pas discuter avec vous, monsieur -ez duela ika-mika asmorik; ados badago ongi, eta beste-la adio.

Aita den harrizko dorre garaiezina ataka horretan ikusirik, umiliatuta sentitu da Xabi. Nahi luke aitak gizona paparretik heldu eta merezi duen gisan astin dezan. Baina badaki ez dela gertatuko. Dagoeneko ulertu du ile zuriko gizon hori ez dela arazoa, egitura handiago baten garroa besterik ez dela, beretzat abstraktua den zerbait ordezkatzeko duena, solas hartan mamu baten gisan agertzen dena, aita ñimiño eta polizia erraldoi bilakaturik.

Azkenean lortu du agiria, bankuaren papera datoreen astean ekarriko duela promes egin eta gero. «Esaiozu ekarriko dudala faltarik gabe». Eta purrusta-ka jaitsi ditu eskaileak. Burutik atera zaizkion hitz zantar guztiak erabili ditu frantsesak zer diren adierazteko.

Récépissé de demande de séjour, irakurri du Xabik paperean, *Republique Française*-en azpian. Eta hantxe paperean dago aita bera ere, argazki txiki batean preso. Eta hain zuzen argazkia ikustean jabetu da aita

ez dela pieza bakarra, hark ordura arte uste bezala. Zeren eta ordura arte uste baitzuen aita aita zela, eta zen bezala agertzen zela beti, horretarako zilegitasuna eta osotasuna zeuzkalako. Baina orain badaki ez dela egia. Eta izu sentitu da, berak uste izan zuelako pieza bakarrekoa izatea denbora kontua zela. Orain ikasi du, ordea, badagoela bera eta bere aita baino indartsuagoa den zerbait, pieza bakar hori menderatzeko gai dena. Dena dago aitak argazki honetan agertzen duen irri faltsuaren baitan.

Eskolatik irtekoan dantza ikasten hasi ziren, Arratibel abizeneko aitaren ezagun batekin. Gizon tatarra, biboteduna, umore onekoa, hegoaldekoen eus-kara egin arren iparraldekoen hitzak tarteka erabil-tzen zituen. Txingudi badiako eraikin zahar batean hartzen zituzten eskolak, eraikinaren kanpoaldean ze-goien aterpe moduko batean (ez eraikinaren barruan). Kalea zen haien egoitza. Baina Arratibel pozik zegoen, ordura arte ez zegoen dantza taldea sortuko zutelako Hendaian, eta hura, irudiz, «albiste oso ona» zelako. Gizonaren gogo beroa ikusi besterik ez zegoen, pixka bat kutsatzeko. Zortzi haur ziren orotara, talde txikia, baina «fite handituko» zena Arratibelen ustez.

Deskubrimendua izan zen Xabirentzat zer edo zer ikasten zuela ikustea. Sinetsia zen ikastea, memoriza-tzea zen neurrian, ezinezkoa zela. Baina Arratibelen pausoak ongi segitzen zituen, eta harro sentiarazten zuen horrek. Gainera, Arratibelek berak eramaten zuen gero etxera bere *kuatrolatas*-ean, eta bidean martxak sartzen uzten zion.

Ezer ikastearen eta *kuatrolatas*-aren martxak aldatzea baino hobea zen, ordea, dantzarako izeba Miruk egin zion jantzi zuria, txaleko, gerriko eta guzti. Ez zen sinestekoa ispiluak itzultzen zion irudia. Eta inoiz jantzi eder haiek jendaurrean luzitu ahal izatearen ideiak ikasteko grina handitzen zion egunero. Bere bizitzan estreinakoz zerbait egiteko gogoia zeukan Xabik.

Sentimendu eder haiek bultzatuta, eskolan bere parean esertzen zen Maiterekin hitz egiten ausartu zen behin batez. Neskak frantsesezko «étranger» eta gaztelaniazko «extraño» baliokideak zirela esaten ari zen, eta Xabik, zeinak oso ongi baitzekien «étranger»-ek zer esan nahi zuen, zuzendu egin zion:

- «Extranjero» esaten da.«Extraño» hitzak arraro esan nahi du, edo bitxi.

Neskatila hark bazuen Xabi liluratzen zuen zerbait. Xabik berak nahi lukeen bizitza zeukala, adibidez. Haren bizkar-zorroa ikusi besterik ez zegoen bere mailaz jabetzeko, edo lumaz betetako beroki arrosa hura, edo belkroz lotzen ziren oinetakoak. Garrantzitsuena, ordea, ikusten ez zena zen. Zeren ikusten zena imitagarria baitzen, baina ez ikusten ez zena, aberatsei

hurkoa Maiteren moduan begiratzeko kemena ematen ziena.

Maitek bere urtebetetze ospakizunera gonbidatu zuen egunean, gaua ezin begiak bildu egon zen ohean, haren etxera nola agertuko ote zen, zein jantzirekin, zein oinetakorekin, eta, bereziki, zein opari eramango zion, oparirik sekula erosi gabea izaki. Amaren laguntza behar zuen.

- Neskarekin maiteminduta al zaude?

Ez zen maitasun kontua. Baina nola azaldu amari? Eta orduan baietz esan zion. Bazekien ama diskretua zela, ez zela adarra jotzen eta eskandalua sortzen ibiliko. Azkenean sos batzuk eman zizkion, eta asteburuan Oreretara joan zirela baliatu zuen han kasete bat erosteko; azken boladan etxean anaiaren bidez asko entzuten zuena: Hertzainak.

Arbolez eta egoki moztutako karraskilaz inguratutako etxe zuri batean bizi zen Maite. Aitak etxe parean gelditu zuen autoa, eta musurik gabe agurtu zuen. Txirrina jotzeko beldurra sentitu zuen, ez zekien etxeak merezi zuen mailan agertuko ote zen, klase gehiegiko etxea zen beretzat. Oinetakoetako lokatza garbitu zuen atzamarrez, baina ez zuten itxura hobea lortu, zaharregiak ziren eta higatuegiak zeuden.

Filmetako aktorea zirudien Maiteren amak soineko zuri eta musu gorriekin. Eta irudia areagotu besterik ez zuen egiten bere orrazkera hanpatuak, azalore formako orrazkera hark, makina bat bider telebistan ikusitakoak bezalakoa. Emakumea parez pare ikustearekin batera ailegatu zaio lurrin usaina. Gehiegizkoa agian, baina gozoa eta sarkorra. Ehunka mila bider irribarrea entrenatu izan balu bezala egin dio irri agurtzerakoan, eta korridore luze batetik eraman du etxe barrurantz. Gona altxatzeko desira sentitzen du Xabik, emakumearen hanka beltzaranen ikuskizuna osorik begiratzearren.

Berokia ohe baten gainean uzteko esan dio eztiki, eta jaka mordo batez estaliriko ohea erakutsi dio, gonbidatuentzako ohea dirudiena, gelan ez baitago haur bat bizi den arrastorik. Jaka kentzean opari paperean bildutako Hertzainak-en kasetea etorri zaio akordura. Bere bizitzan erosi duen lehena. Beti entzun izan ditu honek eta beste hark grabatutakoak, eta aldea handia da, kasete berriaren barruko papera atera eta tolesduz tolesdura irekitzen baita, kanten hitzak eta musikarien argazkiak erakutsiz.

Kasetea atera eta neskari eman behar lioke, nahiz eta ez dakien oparia ez ote den mizkinegia, edo Her-

tzainak taldea gustuko izango duen. Egokia irizten dio Xabik opariari, Hertzainak taldeak Xabik beretzat nahi lukeen gogortasuna eta arrakasta baitauzka, eta opariak, honenbestez, nortasun desiratu horren printza batzuk ematen dizkio Xabiri. Etxean hamaika bider entzuna du kasetea, buruz dakizki kantuek, eta orain pena pixka bat ere badauka oparia eman behar izateagatik, baina huraxe da daukan opari bakarra, eta hantxe dago jaka barruan paper ez oso eder batean bilduta.

Etxe atzeko belardian daude gonbidatuak, litxarreriaz betetako mahai baten bueltan. Berandutu izanak amorratzen du, denak taldeka baitaude, hasierako lotsak eta ikarak gaingiduta. Maitek eskuarekin agur egin dio, baina hizketan segitu du.

Amaren aberats aurpegiera du, baina gizenagoa da, eta ez dauka amaren ile horia. Kopia kaskar bat.

Bere kastako hurrekin elkartu da Xabi, zeinak besteengandik bereizten diren eskuak bete jan eta jan ari direlako. Urko izeneko mutil luze batek bere alkan-dorari buruzko komentarioa egindakoa ez entzunarena egin du, etxearekin liluratuegi baitago sesioan has-teko. Berriz ekin dio ordea Urkok, eta Xabik ingurura begiratu du, baten batek barre egiten ote duen erre-

paratzeko, baina inork ez dio, zorionez, kasurik egiten. Gero Maitek oihu egin du, denak briletean ariko direla iragarriz. Eskukada bat kakahuete hartu eta patrikan gorde ditu.

Arratsaldea jolasean eman zuen Xabik, baina begiekin amaren bila aritu zen. Noizean behin belardian agertzen zen, ogitartekoz betetako erretiluak mahai gainean paratzera, eta Xabik ez zuen janaria zein goxo zegoen esateko aukera alferrik galtzen.

- Oso goxo dago dena.

Eta amak barre urduri bat eginez eskerrak ematen zizkion. Gehiago esan nahi ziokeen, baina ez zekien zer. Esan ziezaiokeen etxe zoragarria zeukala, han gera zitekeela berarekin bizitzen, hori esatea (egia izan arren) erokeria beldurgarria izan ez balitz.

Joateko tenorea iritsi denean, oraindik patrikan kasetea daukan jaka hartu du, eta kasetearen pisua sentitu du, eta zoriona, oparirik eman gabe alde egiteko aukera agertu zaiolako bat-batean, eta zinez horixe delako nahi duena, palazio hartatik bere kasetearekin ospa egitea. Korridorea zeharkatu du, zertxobait urduri, baina atera iritsi denean Maiteren ahotsa entzun du atzean:

- Mila esker opariarengatik.

Hitzik gabe geratu da: zein opari? Ez daki neska-
ren hitzak salaketa ote diren, edo zinezko esker ona-
ren erakusgarri. Baina bigarren aukera honek zaila di-
rudi, oparia patrikan daramala jakinik. Hain modu na-
barmenean oparia ekarri ez izana leporatzea, ordea,
gogorregia da Maite bezalako neska fin batentzat.
Bada beste hirugarren aukera bat: neskak opariei be-
netan ez erreparatu izana (ohituta egongo da oparie-
kin!), eta esker ematea, beraz, agur esateko formula
gisa baliatu izana.

Zuzenean begietara so egin dio Xabik, erantzuna
aurkituko duelakoan, baina so hura liburu itxia da be-
retzat. Ezinezkoa da ezer aurkitzea. Eta, ezer izateko-
tan, keinu maltzurra da neskak daukana, edo, areago,
keinua maltzurra ezkutatu nahi duen gaizki antzeztuta-
ko begirada goxoa. Bai, hori da.

Eta supituki ahots bat entzun du:

- Oi! Oparia!

Xabiren ahotsaren antz handia daukan ahotsa da,
inondik ere. Gero esku bat sentitu du berokiaren patri-
kan sartzen, kasualitatez bere eskua dirudiena, eta
berehala esku horixe bera ikusi du bere begien au-
rrean, beraren eta neskaren artean zehazki, Hertzai-

nak taldearen kasetea biltzen duen paper itsusidun opariari heltzen.

Eta orduan jabetu zen, bere bizitzan sentitu izandako lotsa ez zela sekula lotsa izan, ze lotsa haiek eta lotsa hau ezberdinak baitziren. Gainerako lotsak jolasa ziren, kasik jolas dibertigarriak. Lotsa hau betiko eramango zuen, burdinazko bolak eramaten dituzten mamuek bezala.

Martin eta aita haserretu izanak, noski, zerikusia izan zuen ugartetarren etxe aldaketarekin.

Kontu bitxia izan zen. Eguerdia zen eta, ia asteburu bezala, eltzekada handia prestatu zuen Martinek denontzat. Aitak ere lehenago esana zion Martini, Xabik entzun zuenez, «Ez itzak atzamarrak eltzean sartu!». Batek ohitura hori zeukan eta bestea atzetik ibiltzen zuen, ohitura bazter zezan. Baina hortik eskuetara hel zitekeenik, ez zuen inork ere pentsatuko.

Panazko galtza berdea zerman Martin, koa-drozko alkandora gorria (beti erabiltzen zuena), eta pozik zirudien bertsoekin sukaldean, eltzean burrun-tzalia sartu eta ahora eraman zuenean. Une hartan bertan sartu zen aita sukaldera, eta bitan pentsatu gabe eman zion ukabilkada. Xabi sukaldean sartu zenerako, lurrean zegoen Martin, bere galtza berdeak babarrunez zipriztinduta, sabaiari begira. Tarte bat iraun zuen argazkiak hala, hain zuzen argazki bat baltiz bezala: Martin lurrean, aita bere parean zutik, ukabilak estutuz, eta Xabi atean, Martinen aurpegiari so. Zeren bazuen halako keinu bat tokiz kanpoko edo.

Zeruari begira zegoela zirudien, egoera hura ez zen beste gauza gozoago bat buruan. Kuluxka bota aurretik sofán etzanda izan ohi zuen keinua zen, Xabik adineko jendearengan maiz antzematen zuena.

Eta Xabik ongi ulertu zuen (edo hori uste zuen behintzat) zaharraren keinua: gauza txarrak gertatzen zitzaizkionean burua beste zerbaitetan jartzea. Baze-kien gauza txarrei aurre egiteko bide ona zela, negarrik ez egiteko aproposena.

Errukia sentitu zuen. Desio zukeen Martin lurrean galtzak babarrunez ziprizeduta ikusi ez izana.

Eltzekariek ziprizedutako borrokaldiari esker, etxe berria lortu zuten ugartetarrek, beraz, eta gainera auzo berean, txiroa zena, baina, behintzat, ezaguna.

Harrigarria: lau gela zeuzkan, bakoitzarentzat bana. Bizitzan estreinakoz gela bat izango zuen Xabik. Hasieran bere ohe tolesgarri berdea besterik ez zegoen, baina formikazko altzari urdin batzuk oparitu zitzaizkion gutxira. Ez zen sinestekoa, elkarren artean horren ondo ematen zuten altzariz betetako gela hura beretzat izatea. Idazmahaia zeukan altzarien artean. Ez zen mahaia, tranpa zen. Eseri, ireki liburua, irakurri inoiz ere ulertuko ez duzun hitz mordo hori, egin ari-

keta matematiko konpondu ezinezkoak. Erabilitako mahaia zen, bestetik. Nor izan ote zen mahai hartako maizter bere aurretik? Eta aurreko hura imajinatu zuen bere aldarte berberean, koadernoan zabaldu eta ezin jakin nondik hasi.

Ohe tolesgarri zaharra leiho aldamenen jarri zuen amak. Eta ohea tolestuta geratuko zela zirudien arren, berehala tokatu zen hura irekitzea, etxean lehen errefuxiatua azaldu zenean. Norbait etxean hartzea ez zen batere arraroa, beraiek ere antzera ibilitakoak baitziren ordura arte, besteen etxean. Halakoxea zen Iparraldeko bizitza hura, denak denen etxeetan, beti joan eta etorrian.

Niko izena zuen maizterrak. Etxean boladatxo emango zuela esan zion amak, bere gelan hartu beharko zuela. Antzuak izan ziren protestak, agian protesta izatera ere iritsi ez zirelako, finean Xabik nagia eta jakin-mina biak baitzeuzkan. Kontua gelakide aproposa izatea zen, ez izatea tipo baldarra, edo helduegia, edo isilegia.

Ama ohe tolesgarria askatu eta maindireak jartzen ari zen.

- Lagundu iezadazu izkina hartan.

Xabik ez zuen purrustarik egin, etxeko lanetan laguntzeak heldu sentiarazten laguntzen zion-eta.

Niko iritsi zenean, Xabik sotoko ilunpean ikusi zuen, larruzko poltsa eskuan zeramala, pixka bat izuririk beharbada. Meharra eta beltzarana zen, bizpahiru eguneko bizarrarekin.

- Ez nengoen segurua atea hau izango ote zen -esan zuen sartzearekin batera, hasperen eginez.

Jaka aulkiaren bizkarrean utzita, egongelako mahaiari eseri zen.

- Zer edo zer jan nahi al duzu?

- Ez, mila esker.

- Garagardo bat?

- Ados -esan zuen aharrausika.

Garagardoa mahai gainean jarri eta aldameneari eseri zen ama.

- Joxemari geroxeago etorriko da -argitu zion.

- Ongi da.

- Garbitzeko arroparik ba al daukazu?

- Zerbait bai, baina ez nuke enbarazurik egin nahi.

- Zer enbarazu eta zer...! Ekarri hona arropa horiek.

Xabi eta Nagore begira zeuzkatela oharturik, amak gela erakusteko gonbidapena egin zion mutilari:

- Han lasaiago desegingo duzu poltsa.
- Ederki -esan zuen Nikok.

Korridoretik gelara abiatu ziren, patinete ganean joan zitzaien atzetik Xabi.

- Xabi, ez ibili horrekin etxean.

Mutilak ohe ganean jarri zuen poltsa, eta besoak erorita geratu zen begira, irribarre herabez. Belarrian hazka eginez esan zuen:

- Gela ederra daukak -eta begira gero-: Hor egingen al dituk lanak?

Sorbaldak jaso zituen Xabik, eta erantzun zuen nahiago zuela lurrean etzanda.

- Kontua egitea duk.

- Orain esan duzu egia -sartu zen ama-. Mutil azkarra da, baina alfer samarra -beti esaten zuen gauza bera.

Ongi zekien Xabik, izatekotan, kontrakoa zela: saiatua baina ergel samarra. Une batez pentsatu zuen nolako zaputza hartuko zukeen amak egiaz jabetuko balitz, noizbait ustezko seme azkar hura zinez motela zela esango baliote.

«Zure semea, zera, ergel erabatekoa da».

«Zer esan nahi duzu?».

«Uste genuen alferra zela. Baina okerragoa da: ez du ulertzen».

Amaren negarrak.

Malgukiek karranka egin zuten iritsi berriaren ipur-di azpian.

- Utz dezagun Niko bakarrik.

Leiho aldera begiratu zuen Nikok. Atea itxi zuen amak.

Aitak harrera hotza egin zion mutilari. Zaplada bat bizkarrean.

- Jarri haiz?

- Bai, txikiaren gelan.

Josten ari zen gortina jaso zuen amak, jostorratzak metalezko kutxa batean gorde zituen, gainerako hari eta orratzekin. Telebista aurrean zeuden haurrak deitu zituen afaltzera, eta sukaldera abiatu zen, haurrei mahaia jartzeko aginduta.

Ezpalak eta zerrautsa zituen aitak ileen artean eta lepoan. Galtza urdinak eta eskuak belztuta. Aulki gainean utzi zuen jertsea.

- Eser hadi trankil -esan zion, eta komunera joan zen eskuak garbitzera.

Porru-patatak zerbitzatu zituen amak.

- Nahi duk? -aitak ardoa eskaini zion Nikori.

- Hartuko dut pittar bat.

- Un petit peu -esan zuen Nagorek.

Amari lerdea zerion alaba frantsesez entzutean. Xabiri ez horrenbeste. Koilara hotsa plateretan. Gero kontatu zien mekanika ikasitakoa zela, fresatzaile,

baina ikasketak amaitu aurretik utzi behar izan zuela etxea, pena zuela baina jadanik ofizioa bazekiela, bere aitak delineatzaile sartu nahi izan zuela, baina berak uko egin ziola, ez baitzen mahaiaren aurrean geldi egotekoa. Nikok edalontzia hustu eta berriz bete zuen. Mekanika tailerra biltegi bezala erabiltzen zuela esan zuen ondoren, handik hartzen zituela txakurrei botatzeko piezak. Eta astea ematen zuela koipez goitik behera narrastuta, salbu eta igandeetan, San Mamesera joateko apaintzen baitzen.

- Gustuko duk futbola -aitak.

- Ibiltakoa nauk, Sestaon. Baina zintzoek bakarrik egiten ditek aurrera. Neuk ez diat isilik egoteko balio.

- Sestaon ibiltzeko izango huen zer edo zer.

- Bo.

Galtzontzillotan lo egiten zuten, hanka zuri finak agerian. Mutila zigarreta eskuan eseri zen kuxinaren gainean, kea sabaira botatzen.

Xabi gauaren erdian esnatu zenean, leiho parean zutik ikusi zuen Niko, gortina baztertuta, iluntasuna zelatatzen.

Laster deskubritu zuen Xabik, gauero pizten zela gelakidearen egarria. Haurraren arnasa baretu orduko, besoa luzatu eta leihoa zabaltzen zuen hatz ma-

miekin, eta botila husten hasten zen hurrupaka. Ohean ezin mugitu geratzen zen Xabi, sorginkeria arraro baten gatibu. Hasieran ez zuen gertatzen zena ulertzen, baina goizean ohe tolesgarriaren azpialdean botila etzanda ikusi zuenean ulertu zuen Nikok ezkutuan edaten zuela. Eta ezkutuan edaten zuenez, hura *gaizki* zegoela. Eta honenbestez, *sekretua* zela.

Maizter berria legez kontrako zera horretan deskubritzeak, konplize bilakatuko zuen beldur zen. Beharbada bestearen lotsaz lotsatzen zen, besteak deskubritua izatean erakutsiko zuen ahuleziaz izu. Noizbait zutitzen entzungo zuen, aurretik pasatzen ikusiko zuen ohetik, gorputz mehar beltz hura, oin puntetan gelatik ihesean. Egongelan irudikatuko zuen, aitaren altzarian botila berritzen, eta altxor berriarekin bueltan gero. Noizbait bidaia luzatu egingo zen, eta Niko sofan etzanda deskubrituko zuen, botila eskuan lo, galtzontzillotan hanka zabalik, zurrungaka. Begi niñiak bustita izango zituen Xabik sorbaldatik inarrosita esnatuko zuenean, eta begira geratuko zitzaion une batez, irri etsi bat erakutsiko zion, eta biak azkar bueltatuko ziren gelara.

- Mutil jatorra haiz -esango zion-. Ez haiz salataria.

Eta berriz hasiko zen zurrungaka, inoiz esnatu izan ez balitz bezala. Biharamunean ametsetako pasadizoa ahaztuta izango zuen, edo hala jokatu zuen. Eta Xabiri matematikako buruketak askatzen lagunduko zion, pazientzia handiz.

- Zenbakiak hitzak bezalakoak dituk. Hitz egiten ditek. Hobe duk haiek ulertzea, haiek ikasten jardun ordez. Ikasten saiatzen bahaiz, erotu egingo haute.

Ulertu eta ikasi, biek ziruditen ezinezko Xabiren hiztegi laburrean.

Horrenbestetan harrapatu zuen egongelan lo, noizbait baldintzak jartzeko zilegitasuna izango baitzuen Xabik:

- Utzi egin behar duzu, zin egizu.
- Utzi, zer?
- Edaria.
- Zin egiten diat. Ez haut aitaren aurrean konpromiso batean jarri nahi.

Eta Niko kontrolpean zeukala pentsatuko zuen Xabik, harik eta telefonoan aurkitu zuen arte, ilunpetan, ahopeka.

Hitzak moztuta ateratzen zitzaizkion, erreguka ari zen.

- Esadazu, zergatik ez zara etortzen?

Xabik ezin zuen ikusten ari zena sinetsi, aitak akabatu egingo zuen! Gurasoen gelara begiratu zuen, itxita zegoen atea korridorearen beste muturrean. Atea zabaltzen irudikatzen zuen Xabik, aitaren figura txikia, eskuarekin buruko xerlo bihurria behera ekarri nahian. Telefonoz hizketan harrapatuz gero, zangoetatik heldu eta balkoitik behera botako zuen Niko gizona.

Mutila ikusten zuen sofan eserita, galtzontzillotan, kokoriko jarrita, telefonoa eskuan, Gauloises horietako bat erretzen:

- Esadazu, noiz etorriko zara? -eta mukiak irensten zituen, errieta jasandako haur negartiaren modura.

Niko gelara itzultakoan ausartu zen Xabi:

- Entzun zaitut telefonoan.

- Neska-lagunarekin ari ninduan.

Orduan etorriko ziren aitorpenak, eta okerrago izango zen, bien arteko sekretuen zuloa are eta sakonagoa izango baitzen, astunagoak kateak.

- Gerrara bidaltzen gaitiztek, baina inork ez dik geure bakardadea kontuan hartzen. Bakardadea duk zigor guztien artean ankerrena.

Erdi lotan entzungo zuen Xabik, inoiz antzeko zerbait sentitu ote zuen asmatu nahian, izeba Miruren etxeko arratsalde elurtuak akorduan.

- Herriko neska ederrenetakoa duk Edurne, eta hik inoiz ikusiko duan ipurdirik gogorrena dik. Baina ez dik etorri nahi. Ez zidak esaten, baina ez dik etorri nahi.

- Agian ezin du...

- Ez dik nahi.

Eta gero esango zion:

- Maitasuna amesgaiztoa duk. Ez egin kasu maitasunaz ongi esaka aritzen diren horiei. Dena gezurra duk. Bihotza txiki eginda utziko dik, ausartzen bahaiz. Ihes egin nahiko duk. Hire buruari mila kontu esango dizkiok, baina ezingo duk amore eman. Ahaztu egin nahiko duk, baina zenbat eta gehiago saiatu, orduan eta gehiagotan etorriko zaik burura.

Tarteka loak hartzen zuen, eta handik gutxira entzuten zuen:

- Xabi, Xabi, lo al hago?

- Ez, ez, segi.

Eta Nikok:

- Kristo! Nolatan geratzen haiz lo hain erraz? Nahi nikek dohain hori niretzat.

Asteak eman zituzten horrela. Supituan gizondu egin zela sentitu zuen Xabik, gizonen sekretu ezkutue-
nak ezagutzen zituela. Bazuen harrotasun pixka bat,
baina izua gailentzen zitzaion, Nikok ez baitzekien,
Xabik berak zekien bezala, aitik bere gaueroko festak
deskubrituz gero hartuko zuen sumindua. Amarekin
hitz egitea ere burutik pasatu zitzaion, maiz geratzen
baitzen ama afalostean Nikorekin, eta bazirudien ha-
rreman ona zutela. Baina ez zen fio. Eta, gainera, bera
ez zen salataria.

Oihana akorduan zeukala, neska bat maitemintze-
ko nola jokatu behar zuen galdetu zion behinola. Eta
Nikok esan zion bere lagunekin ongi konpontzea zela
sekretua.

- Oihanak ez du lagunik -esan zion Xabik.

- Orduan hireak egin dik.

- Berdin dio.

- Berdin zaik?

- Bai.

- Orduan ez hago maiteminduta. Zorionekoa haiz.

Apartatu hadi orain, berandu baino lehen.

Gero esan zion:

- Maitasuna da jakintzaren bidez sendatu ezin lite-
keen gaixotasun bakarretakoa. Esan nahi diat, zien-

tziak ezin duela minaren aurka ezer egin. Ez zagok ez txertorik ez ezer. Maitemintzen bahaiz txalo egingo dik mundu guztiak, baina minez hasten bahaiz, orduan inor ez duk hitaz akordatuko. Hik jakingo duk milaka gizaseme izan dela hi bezala lehenago ere, mundua bezain zaharra dela hire gaixotasuna, mundu guztia sendatzen dela, baina horrek ez dik hire oinazea kamustuko, berdin segituko duk zakur baten pare sufritzen.

LO egin ezinik jaiki da aita halako batean. Harrapatu du mutila sofan. Botila erdi hutsik, telefonoa eskuan. Gau honetan Xabi ez da maitale sufrituaren joan-etorriez jabetu, harik eta aita egongelan garrasika entzun duen arte, beranduegi. Apenas bereizten dituen hitzak, baina mutilaren negarra entzuten du, aiene triste horiek, eta aitaren boz sumindua, galdezka.

«Telefono» hitza ailegatzen da hormaren bestal-detik. Horixe da hitz gakoa. Denek ezagutzen dute, eta Nikok beste guztiek bezalaxe, aitak telefonoari dion beldurra. Egongelatik itzulika ibiliko da aita, mutilaren hizketaldi horiek zein informazio helarazi ote duten asmatu nahian, bere etxean supituan irekitako arrakala handi hartatik zer ikusi edo zer sartuko den jakiteko irrikaz.

Xabi egongelako ateraino hurbildu da oin puntetan.

- Zenbatetan esan diat telefonorik ez ukitzeko? Konturatzen al haiz arriskuaz?

- Ezin nion eutsi.

- Ez nauk bakarrik bizi. Txikiak ditiat etxean. Ez al haiz konturatzen?

- Bai.

- Ba okerrago orduan! Ze ohartzen ez bahaiz ez duk hire errua: tontoa haiz; baina ohartzen bahaiz, orduan ez haiz tontoa, orduan sasikume traidorea haiz!

Xabik norbait sumatu du korridorean. Ama dator. Bere parera iritsitakoan buruarekin alde egiteko keina egin dio. Gelara itzuli eta ohean eserita geratu da, atea itxi gabe.

- Nahikoa da -entzun du amaren ahotsa-. Denak esnatuko dituzue.

Apur batez solasean jarraitu dute hirurek. Eta ateak entzun dira ondoren. Norbait komunean sartu da. Iturria. Beste ate bat. Aitaren ahotsa.

Niko sartu da gelan, eta ohean etzan da, eztul eginenez. Oheratzean leihoa zabaldu du, beti bezala. Ahotik hartzen du airea, tarteka sudurretik botatzen du, eta gero arnasa hartu gabe geratzen da. Eta mihia kliskatzen du.

- Zer esan dizu?

- Ongi portatu haiz, Xabi. Kaka egin diat.

- Lasai...

- Bai, baina kaka egin diat.

Biharamunean beti bezala esnatu dira denak ikastolara joateko. Aitak gau osoa esna pasatu izanaren keinua dauka, begirada nahasia; elastiko batekin eta txandal frakez jantzita, balkoiko leiho parean, gortina baztertuta kanporantz begira.

Arratsaldean, ikastolatik itzuli direnean, Niko ez dago.

Ohea eginda aurkitu du Xabik, maindireak aldatuta. Mutila irudikatu du ohea egiten, puskak biltzen, etxeko atetik irteten, beste etxe batera joaten; behinolako agur herabe horiek errepikatu, eta berriz zero-tik hasteko.

Nora joan ote zen?

Lehen egunetan presente izan zuen Niko. Faltan hartzen zituen haren istorioak eta maitasunari buruzko azalpenak. Geroz eta garbiago zeukan, azaletik ikusten zena baina kontu serioagoa zela maitasuna. Ia aberria bezainbat, inguruan ikusten zuenagatik. Denak zeudelako Iparraldean aberriak ekarrita, baina denak maitasunaren zain. Baita Xabi bera ere.

Oihanarekin topo egiten zuen bakoitzean, Nikok esandako guztiak lotzen zituen barnean nabaritzen zuen uholde gero eta handiagoarekin. Gutxika, ordea, Niko ahazten hasi zen. Bere gelako ohe tolesgarria ohe huts soila bilakatu zen, han inoiz inor bizi izan ez balitz bezala. Bere bizitzak, bestalde, bizitza arrunta zirudien. Haur bat gehiago zela sentitzera iritsi gabe, ia besteen pareko sentitzen zen: ikastolara joaten zen, gutxi gorabehera moldatzen zen gainerakoekin, arratsaldeetan Oihana ikusten zuen eta munduak bizitzeko toki aproposa zirudien.

Orduantxe gertatu zen Txominena.

Arratsaldeko 20:30ean kolpetik ireki da Xabiren gelako atea, eta ama negarrez oihuka sartu da. Lu-

rrean belauniko ikusi du, Xabi etzanda dagoen ohean jarrita burua, aurpegia burusiaren kontra ezkutaturik. Zotinka. «Txomin» entzun du Xabik, argiago ezin, etengabe ari baita ama ohearen kontra Txominen izena oihukatzen, baina Xabiri beste gela batean balego bezala ailegatzen zaizkio oihuok.

Amaren aurpegia ikusi duenean konturatu da, ez duela ama hura ezagutzen. Malkoek eta mukiek bustitako aurpegi hura, espantuz okertua. Ez, ez du ezagutzen. Une batez elkarri begira geratu dira, eta Xabik gogoia izan du amaren begiak atera eta begi zuloetatik barrura sartzeko, han barruan ama nolabait kontsolatzeko moduren bat aurkituko duelakoan. Zer egin dezake bestela?

Sentimendu berria eta arraroa da: bestearen mina sendatzeko premia jasangaitza. Ia bortitza. Eta ezina.

Eta orduan sartu da aita, hura ere malkotan. Eta Xabik ezin izan du kanporantz begiratzen jarraitu. Eta negarrez hasi da bera ere. Eta zalapartaren erdian izan du abagune bat hiruek, malkotan eskaintzen duten ikuskizunaz ohartzeko, eta pittin bat lotsatzeko.

Une horretan bertan konturatu zen Xabi, bizitzan lehen aldiz, heriotzaren esanahia zein zen. Izaki baten

desagerpena. Amaiera. Eta haren hutsune halabeharrezkoa.

Aitona Pakoren heriotza oroitzen zuen, urtebete lehenago gertatua. Eta hark beregan utzi zuen hoztasuna. Apenas ikusten baitzuen aitona, eta, beraz, haren hutsuneak ez baitzeukan ondorio berezirik berretzat; sentitzen zuen, nolabait, edozein egunetan agertuko zela etxean, bere absentzia luzeen ondoren egin izan zuen bezala. Baina une hartan argi agertu zitzaion Txominen absentiaren pisu zehatza. Betiko faltan hartuko zuelako susmo beldurgarria. Areago, absentiaren oinaze konkretuaz aparte, heriotzaren beraren zentzu berri bat azaldu zitzaion. Amaieraren drama. Baina ez bizirik geratzen ziren guztientzat, baikik eta hildakoarentzat. Existentiaren hari hauskorra. Eta horrek, bere horretan, beste ezerk baina min gehiago eragin zion.

Aita zutik dago, besoak dilindan, aurpegia estali gabe negarrez, amari eta semeari begira, Gotzonek burua gelan sartu eta eskua amaren bizkarrean jarri duenean, eta altxatzeko esan dionean; zerbait esatearren, ez une hartan altxatzea ekintza garrantzitsua delako.

Minaren antzezpena da Xabiren begietan agertzen dena, eta ezin du ikuskizuna penagarria dela burutik kendu.

Zutitu eta sukaldera joan da. Hozkailutik esnea hartuta, kakao esnea prestatu du, eta telebista aurrean eseri da, esnea edan eta telebista ikustera. Kantuan ari da gizon bat, txano beltzez eta alkandora loredunez jantzita. Azpian azaldu da izena: «Manolo Escobar»; eta beherago: «Voz en directo». Kantua eza-guna egiten zaio.

Ama sartu da egongelan, jada pittin bat lasaitua, baina begiak handi-handi eginda, sudurra gorrituta. Harriduraz so egin dio, eta Xabik segituan ulertu du une batetik bestera telebista itzali eta ohera joateko aginduko diola; baina ez dio ezer esan. Aita dator atzetik, alkandora galtzetan sartzen, eta amari zerbait esan dio, Xabik ulertu ez duena (kantua entzuten ari da-eta).

Sentitu du horixe dela behar zuen gauza bakarra: kakao esnea eta telebista. Gauza ederrak dira horiek.

Aita erailketaren lekura joan zenean, amak argibide batzuk eman zizkien, baina ez asko. Xabirentzat, ordea, nahikoa izan zen Txomin bere etxe parean akabatu zutela entzutea («akabatu» erabili zuen), autoko

bi gizonak oroitzeko eta, zergatik jakin gabe, ondorioztatzeko hiltzaileak bi gizon horiek izan zirela zalan-tzarik gabe. Aurkikuntzak dardara batean ipini zuen, baina ez zen ezer esaten ausartu. Zentzu batean, heriotzaren errudun izan zitekeen, bi gizonen berri sekula inori eman ez izanagatik. Zergatik ez zuen sekula esan Txominen etxe alboan auto arrotz bat zegoela bi gizon arrotz susmagarriekin? Nola izan zen hain arduragabea? Baina ja eginda zegoen. Pala bat izan balu, hantxe bertan ehortziko zukeen bere burua.

Escobarrek telebistan kantuan segitzen zuen, baina ordurako alferrik zen: ez zuen Txominen heriotza eta bere ondorioak burutik kentzea lortuko.

Hurrengo goizean sofán esnatu zen. Lo geratu zen, eta hantxe utzi zuten. Sofa, behintzat, lehor zegoen. Eta harrigarria bazirudien ere, ez zuen Txominen heriotza gaueko begiekin ikusten, aspaldi gertatutako zerbait bezala baizik. Sosegaturik sentitu zen. Eta are gehiago lasaitu zen ama batetik bestera zeregin praktikoetan murgilduta ikusi zuenean, arropa zikina bazter guztietan aurkitzen zuelako marmarrean, hurrei etxea jasotzeko laguntza eskatzen.

- Xabi, ohea!

Txominen etxera joateko oinez abiatu zirenean, nekez pentsatuko zuen Xabik txango txiki hura betiko gordeko zuela bere memoriaren une alaien zakuan. Baina Xabi ez zen triste egon behar zenean triste eta pozik egon behar zenean pozik egoten zekien horietakoa. Eta goiz hartan, otsaileko eguzki hotzak agurtu zuenean, ongi sentitu zen bide bazterretik oinez amaren, Gotzonen eta Nagoreren aldamenean, haien hizketagaia, ezinbestean, Txominen heriotza izan arren.

Amak haurrak lasaitu nahi izan zituen, gertakari haiek «isolatuak» zirela argudiatuz, «espainiarrek ezin zutela bide horretatik jarraitu». Baina Nagorek zergatia galdetzen zionean, amak ez zekien zer erantzun. «Eskandalu handiegia da», esaten zuen amak, hura arrazoi sendo eta behin betikoa balitz bezala. Baina esaldia amaitu orduko zabaltzen zen isiluneak salatzen zuen, han inork ez zeukala segurutzat jendea hiltzen jarraituko zuten edo ez.

Xabi aho bete hortz geratzen zen anai-arrebak termino horietan hizketan entzuten zituenean, baina era berean harro sentitzen zen, gauza *horietaz* aritzeak bere gizon bilakatzeko helburutik gertuago jartzen zuelako.

- Agian horixe nahi dute espainiarrek -esan zuen Gotzonek-: Eskandalua.

- Ez, eskandalua ez -zuzendu zion amak-, espainiarrek izua sortu nahi dute.

Eta gero aitona Pakoz hasi zen hizketan. Eta kon-tatu zuen bizitza osoa izaturik igaro zuela, gerraz eta gerran sufritutakoaz hitzik egin gabe, eta hala hil zela, mutu, kexurik egin gabe.

- Hiru urteko gerra, eta berrogei urteko isiltasuna -esan zuen-. Horra izuaren boterea!

Orioko malda amaitu eta Txominen etxera gertu-ratzen hasi zirenean ikusi zuen Xabik Mainer, larruzko jakaz jantzita, espaloian eserita. Korapiloa egin zi-tzaion sabelean. Urrutitik ikusi zituen Mainerrek, eta begira geratu zitzairen. Zaila zen aurpegi hark zer adierazten zuen edo zer adierazi nahi zuen edo, be-harbada, zer ezkutatu nahi zuen asmatzea. Baina han zegoen, eta une batetik bestera parez pare egongo ziren, eta zer edo zer esatea tokatuko zitzairen, eta Xabik ez zekien zer esan zezakeen hantxe bertan, Mainerren aurrean, negarrez hasi gabe. Eskerrak ama han zegoen, eta bere naturaltasun guztiarekin neska besoetan hartu zuen.

Orduan ikusi zuen Xabik, lurrean, Txominen silueta klarionaz margotua. Karrera irabazitako ziklistak bezala zituen besoak: goraka, ukondoek angelu zuzena osatzen zutela, eta bi hankak luze-luze, oinak barrurantz okertuta. Etxera begira zeuzkan besoak. Erraz irudika zitekeen etxera ihes egiteko Txominen ahalegin zapuztua. Azken unera arte bizirik ateratzeko izango zuen esperantza eta lurrera amiltzean izango zuen izua. Hain zuzen amak lehenago aipatutako izu huraxe zen, klarionezko silueta haren bidez Txominen gorputik Xabiren baitara igarotzen zena, eta han ostatu hartuko zuena betiko, arkakuso hilezkor baten gisan.

Hiru urteko gerra eta berrogei urteko isiltasuna.

Bala galduak aitaren autoan egindako zuloak erakutsi zizkien Mainerrek, zulo haiek Txomin ez zen beste norbait akabatzeko sortuak izan balira bezala. Gora eta behera egiten zuen errenkada batean zeuden balak autoaren albo batean, eta hatz erakuslea haietan sartu zuen Mainerrek, zuloa zinez zuloa zela erakustearren. Hamabi zulo denera.

Jende mordoia hurbildu zen goiz hartan Txominen etxera. Autoa etxe parean utzi eta korrika abiatzen ziren barrura. Jendea korrika ikusteak soseguz bete-

tzen zuen Xabi, bazirudielako kaltea konpontzeko larritasunak zirela haiek, eta horrek heriotzak erremedioa izan zezakeelako sentimendua pizten zion. Bat-batean, horrenbeste jenderen larritasunari esker, bizirik agertuko zen Txomin, alkandora urratuta, ileak harrotuta, narras baina bizirik.

Baina larritasun antzuak diren. Autoa etxe parean lasai utzi eta oinez joan ordez, jendea korrika etortzen zen, baina horrek ez zuen ezer aldatzen.

Gero Ainara agertu zen, eta oihu egin zuen iritsi berriak agurtzeko. Aitaren heriotzaren berri izango ote zuen galdetu zion Xabik bere buruari, neskak eskumuturrekin ezpain ertzetik erortzen zitzaion lerdea sikatzen zuen bitartean. Xabik musu eman nahi zion, baina beldur zen ez ote zion neskari ez zekienaren berri emango. Zer zekien eta zer ez, misterio handia zen.

Bizikletak hartu eta etxe inguruan zegoen lur azpiko igarobide batera joan ziren, Maiderrrek eta Gotzoken zigarroak erre nahi zituztelako. Eta han azaldu zien zekien guztia: aita bere lagun baten etxean Realaren partidua ikusteko atera zela, irten aurretik zer-bait aipatu zuela, egun haietan auzoan jende susmagarri ugari zebilelako (Xabik ongi zekienez), eta irten

orduko motor batean zihoazen bi lagunek tiro egin ziotela metrailetaz. Autotik etxerantz korrika amildu zen, giltzak eskuan, besoak etxerantz zituela, salto egiten ariko balitz bezala.

- Orain ez dakit zer egingo dugun -esan zuen, ez-painak dardarka.

Eta denak isilik, zer erantzun eta zer egin jakin gabe.

Etxera itzuli zirenean, han segitzen zuen Txominen klarionezko siluetak. Baina autoak gaineratik igarotzen zirenez, ertzak urratzen hasiak ziren. Bizikletarekin gaineratik pasatu ziren haurrak ere, eta gero itzulia egin zuten eta berriz pasatu ziren, baten batek marrazki makabro hura ezabatzeko agindua eman izan balie bezala.

Txominen heriotzak giroa gaiztotu zuen Iparraldean, bereziki Hendaian, eta, zehazkiago, ugarteta-
 rren etxean. Zaila zen galera hura onartzea. Are zaila-
 goa etor zitekeena asmatzea. Horregatik pasatzen zi-
 tuen aitak arratsaldeak gortina baztertuta leihotik
 kanpora zelatan, etxetik irteteko adorerik gabe.

Haurrek beren bizitzarekin segitzen zuten, ahal
 zuten neurrian behintzat. Zailena Gotzontzat zen,
 tematuta zegoelako punkia izaten, eta, mugimendua
 geroz eta ezagunagoa zenez (eta geroz eta ospe txar-
 ragoa zeukanez), etxean ezin baitzuten semearen
 erabaki hura eraman.

«Kalean eskean eta mozkorkerian» ibiltzen zirela
 konbentzituta zegoen aita, printzipiorik gabeko jende
 gaizkilea zela, drogazalea eta auskalo zer gehiago.
 Gotzonen estrategia dena ukatzea zen, ezikusiarena
 egitea, baina larruzko jakan zintzilik zeramatzan kate-
 orratzek eta militarren botek ez zioten oharkabeen pa-
 satzen laguntzen.

- Jar itzak ileak ganoraz -esango zion aitak.

Ilea orrazteko imintzio herabea egingo zuen Gotzonek.

- Horrela ez haiz etxetik irtengo, hago segur.

Goizeroko matrakak ziren.

- Zer dut ba ilean?

- Sasiak, horixe daukak.

Eta orduan eskuak urez bustita joango zitzaion ama anaiari eta behartuta orraztuko zizkion buruko sastraka haiek, anaiaren kopetan behera ur tantak isuriz. Gero, autobusean, kristalaren aurrean narrastuko zituen berriz, punkien narraskeria neurtua berreskuratzearren.

Derrepente Gotzonek bereganatu zuen etxeke arreta osoa. Sartzean, irtetean, delituaren bila ibiltzen zitzaizkion ehiza zakurrak. Jaso galtzak, jarri gerrikoa, kendu jertse zahar hori... Dena zen ezegokia bere janzkeran.

- Zergatik hoa horrela jantzita? Arlotea ematen duk.

- Nola jantzita?

- Galtza estuak, bota zahar horiek, ileak orraztu gabe...

- Neure erara janzten naiz.

- Hire erara? Ez diat uste hire era denik. Hire era propioa, esan nahi diat. Jantzi horiek dituk hire lagunen pare ibiltzeko modua, hippy horien pare, eta hik badakik.

- Ni ez naiz hippya -esan zuen Gotzonek segurtasun harrigarri batez.

- A ez? Zer haiz?

- Aita, hala janztea gustatzen zait -azaldu zion Gotzonek bi atzamarrez elastikoari helduta-, eta hala janzten naiz. Kito.

- Ba gaizki janzten haiz.

- Beno, nire manera da.

- Hire manera, edo beste horiena?

- Norena?

- Hippy horiena...

- Ni ez naiz hippya, eta ez naiz hippya sekula izango.

Eztabaida antzu amaigabeak. Ez ziren nekatuko. Baina Gotzonek, miresgarriki, ez zuen amore emango. Borrokarako prest zegoen.

Izebaren galtza bakeroak lixibaz busti zituenean, orduan gudarosteak matxinatu egin ziren gupidarrik gabe, sua piztu zen etxean.

Bainuontziko uretan sartu zituen galtzak. Lixiba-
ren etiketari so egin zion arretaz, lixiba ote zen egiaz-
tatzearren, eta likidoa isuri zuen galtzen luze osoan.
Gutxika hasi ziren orban zuriak agertzen.

- Larrutu egingo hau zaharrak -iragarri zion Xabik.

Baina dena ongi pentsatuta zeukan Gotzonek. Gal-
tzak motxilan eramango zituen, autobusean azken ila-
ran eseri eta aldatzeko. Lagunek algarak egingo zituz-
ten emaitzari begira, inbidiazko barreak, garai haietan
joera baitzen berrikuntzak ekartzea, arauak hausteko
manera bereziak asmatzea. Eta Gotzonek bazuen ho-
rretarako gaia, lagunak agurtzeko moduan ikusten
zuen Xabik, denek nahi zuten bere aldamenean.

Baina iritsi zen Gotzonek autobusean lo hartu zue-
neko eguna.

- Non da Gotzon? -galdetu zuen aitak.

Denek autobusera so egin zuten. Gidaria ikusi
zuten korridoretik atzerantz, eta Gotzonen ezustekoa
hark esnatu zuenean.

- Zer du horrek galtzetan? -galdetu zuen aitak,
Gotzon autobusetik jaisten ari zela.

Inork ez zion erantzun.

Etxera bidean, balak ziruditen aitaren begiek Go-
tzonen aurpegi izutuan. Sudurpean biloak belzten hasi

zitzaizkiola ikusi zuen Xabik, gizontasunera ailegatzen hasia zela alegia, baina gizon ziztrin bat baizik ez zuen ematen aitaren errietaren aurrean. Ezin zion, ordea, ezer leporatu. Aita garaiezina zen, nahikoa egiten zuen anaiak hura ahal zuen moduan desafiatzen. Ez zen gutxi. Aitak «bihurrikeria» eta «traizio» hitzak ezberdindu behar zirela zioen. Haurrek bihurrikeriak egiten zituztela, bai, hori «hala zela eta hala onartu beharra» zegoela, baina beste hau ez zela bihurrikeria, «traizioa» baizik, zeukaten ondasun apurra hondatzea zelako. Eta hori «onartezina» zela.

- Pronto habil, etxean daukagun apurra komun zutitik bota dezakeala uste baduk. Printzipio kontua duk. Printzipioak ez badituk, ez haiz ezer!

«Ez haiz ezer!» oihuka esan zuen, ezer ez izatea, kondena baino, Gotzonen hautua izan balitz bezala, Gotzonek «ezer ez izateko» ahalegin gaiztoa egin izan balu bezala.

Xabik «noble» hitza oroitu zuen, aitak errugbiarekin behinola lotutako printzipio ezin urratuzko hura, eta izu sentitu zen oso, berehala etorri zitzaizkiolako bere azken errugbi partidako gertakariak, aitak zorionez ezagutzen ez zituenak.

Guraso guztiak zelaiaren bueltan zeuden, guraso-ek izan ohi duten ilusio mugatu horrekin, *beren* haurrak ikusteko irrikatan, eta *beren* haurrak besteak baino hobeak direla egiaztatzeko xede hutsarekin, zelaira zuriz jantzita irten zirenean (Hendaiako errugbi taldearen kolorea zuria baita). Xabik lerroaren erdialdean jokatzeko zuten, zentroaren eta hegalararen artean, talentu edo prestakuntza berezirik eskatzen ez zuten postu batean, han non ezer ez egitea ez baitzen deigarria. Partida osoa eman zezakeen batetik bestera baloiaz ahaztuta, partiduan zegoelako itxurak egiten. Baina egon gabe. Errugbilariak erraldoi eta basatiak ziren harentzat. Beren burua arerioaren oinetara botatzeko zuten hura plakatzearen. Ameskeria zen hori Xabirentzat. Ez zen inoren oinetara, noiz eta hurkoa ari-
neketan zihoanean, sekula botako.

Beste taldekoak ikusi orduko berriz aldageletara itzultzeko irrika sortu zaio Xabiri, hendaiarrak baino are handiagoak eta zitalagoak baitira. Ez dira haurrak, errugbian aritzeko espresuki sortutako enborrak baizik, pikorrez betetako haur handikote bibotedunak.

Partida hasteaz batera konturatu da lehia tratatua izango dela, ia dena jokatuko dela aurrelarien artean. Lasaitua hartu du, kasik partida ikusteko eseri eta

guzti egin liteke. Han, beste muturrean, oihuak eta aieneak entzuten dira, buruak buruen kontra jotzean egiten duten zarata kamutsa. Tarteka lerroranzko joera dauka jokaldiak, baina bat-batean eten egiten da, Jainkoari eskerrak. Polita da lerroaren erdialde er-tain honetan egotea. Behingoagatik, abantaila da er-dipurdiko izatea.

Amari begiratzen dio noizean behin, zeina Isabe-llerekin baitago, behinola izeba Mirurenetik Hendaiara autoz eraman zituen emakumearekin. Eta haiek irri egiten diote, harrotasunez. Orduan lasterraldi txikiak egiten ditu Xabik, lasterraldiak egitea egokia eta ezin-bestekoa balitz bezala. Baina halako batean iritsi da jokaldia harengana, eta ez taldekideen eskuetatik, arerioen eskuetatik baizik. Meletik baloia atera eta ziz-tuan lerrotik atzeratu dute, jokalariek zelaiari metroak jaten dizkioten bitartean. Ohartu orduko, hementxe dauka mutil kankailu bat aurrean, justu bera dagoen tokitik lerroa hausteko asmoarekin. Xabik eskuak za-baldu ditu, besarkatzeko keinua eginez. Mutilak aise egin dio izkin, handia bezain arina baita. Trenaren atzetik balihoa bezala hasi da Xabi, atzetik korrika. Eskua luzatu du elastikotik heltzearren, baina bere hatz mamiek oinekin eta takoekin talka egiten

dute.«Plaque-le!, Plaque-le!», garrasika entzun du Serge, eztarria urratu beharrean. Plakatzeko alegia. Jauzi egiteko oinetara. Kankailuaren oinak, ordea, garia xehatzeko makinak dira. Xabik berehala ulertu du ezingo duela gelditu.

Eta orduan ideia bat izan du. Ez da legezkoa, badauki, baina behintzat lasterraldi zoro hura geratuko du, entsegua ekiditeko.

Har dezakeen erabaki zentzudunena da, dudarik gabe, erabaki guztiak nahiko txarrak direla kontuan hartuta. Beste aukera joaten uztea da. Kankailuak loria irabaziko du, zoriontsu izango da egun batez. Baina hain justu zorion puska hori da Xabik beretzat nahi duena. Izan ere, zorion zati berbera da biontzat. Zatitu ahal izan balute, utziko lioke joaten, baina zorion zati horrek jabe bakarra izan behar du, eta sari preziatuegia da inork doan eman dezan.

Eta beraz, Xabik ostikoz zangotrabatu du mutila. Eta airean hegan atera da hura. Eta airean dagoela atzera begiratu du. Eta Xabik kankailuaren harridurari erreparatzeko denbora izan du.

Enbor handi hura lurrera erori denean, Xabik dar-dara txiki bat sentitu du oinetan. Lurraren kontra amildutako mutila, enborra edo noblezia ote den zalantza-

tan geratu da Xabi, ze gerta zitekeen hura izatea noblezia, inoiz lortu ahal izango ez zuena, lokatzetan marmar batean datzana.

Bere buruagatik errukitu egin zen Xabi, epaileak kanpora bidali zuenean. Baina pozik sentitu zen aita han ez zegoelako, eta bazekielako amak ez zuela inoiz ezer esango.

Ez zen errugbira inoiz itzuli.

Baina orain, aitaren ahotan «traizio» hitza entzuten ari zen bitartean, partida hura etorri zitzaion gogora, eta segundo batez imajinatu zuen zer zen une horretan Gotzonen burutik pasatuko zena. Aitaren printzipioen amaraun beti zailegia.

Traiziorik makurrena, hala ere, handik aste gutxira iritsi zen. Eta guztiaren erruduna «Ni dios, ni patria, ni rey» zioen elastikoa izan zen, Gotzonek batek daki nondik ateratakoa, zatar samarra eta zuloz betea. Gotzonek etxera ekarri zuenean inork ez zion arretarik jarri. Zer zen ba esaldi hura? Beste esaldi bat gehiago. Ateraldi barregarri bat, asko jota. Baina inor laidotzeko xaloegia. Aitarentzat izan ezik.

- Zer daukak hor idatzita?
- Elastikoan?
- Bai.

- Ni dios, ni patria, ni rey.
- Ederra esaldia.
- Beno.
- Ez al duk ederra?
- Bai.
- Benetan esaldi biribila.

Platerak eskuetan zituen Gotzonek, sukaldera eramateko asmotan.

- Egon hadi -esan zuen aitak-. Ba al dakik zer den aberria?

- Ba... nongoa zaren.
- Eta? Hi ez haiz inongoa?
- Neu? Beno, mundutarra naiz.
- Mundutarra? Kristo maitea, mundutarra...
- Bai.

- Eta mundua aberria duk, edo zer?

- Mundua? Mundua da... planeta.

- Baina zer duk, auzoa, etxaldea, herria, estatua, nazioa...?

- Ez dakit.

- Ez dakik. Begira ezak, gauza bat esango diat. Aberria duk jendea. Hire etxeakoak, hire bizilagunak, hire kuadrillakoak, baita hippy horiek ere. Inguruko jende guztia, hori duk aberria. Eta aberria ez duk pa-

radisua, sinetsi egidak, ondotxo zakiat hori, baina are eta okerragoa duk baten batek zapaltzen bahau. Zeren norbaitek zapaltzen bahau, orduan hire inguruko jendea hasiko duk bizitza galtzen, erbestera ihes egiten, preso erortzen. Eta orduan hire aberria, berez txarra zen hura, oraindik eta kaskarragoa izango duk. Pentsa ezak. Infernua ere izan daitekek. Baina hire infernua duk. Hire jendea duk, eta, beraz, hire infernua. Ulertzen al didak?

- Bai -esan zuen Gotzonek lurrera begira.

- Eta, zer diok?

- Ez dakit.

- Ez dakik. Ados. Ba gauza bat egingo diagu. Hik kamiseta hori oraintxe bertan erantzi egingo duk. Eta jakindakoan, orduan azaldu egingo didak. Eta azaltzen badidak, orduan itzuli egingo diat.

Masailak gorritu zitzaizkion Gotzoni. Aitaren doinuagatik, bazekien ez zela eskaintza bat, agindua zela, agindu *serio* horietakoa, bai ala bai bete beharrekoa. Platerak mahai gainera itzuli eta elastikoa kendu zuen. Harekin pilota bat egin eta aitaren aldamenen utzi zuen.

- Zain egongo nauk -esan zion aitak.

Gotzonekiko setioak sendotu egin zuen bi anaien arteko harremana. Normala zen, Xabik ahulekin elkar-tzeko joera baitzeukan. Eta beren bizitzan lehen aldiz, anaia nagusia ataka estu batetik pasatzen ikusten zuen. Baina han zegoen bera, super-heroi kaparekin anaia laguntzeko.

Eta halatan, harremana are gehiago estutu da, Gotzonekin supermerkatura pilak erostera jaitsi den egunean.

- Zigarro bat erretzera joan behar diagu aurrena -esan dio Gotzonek, Enperadorearen bulebarretik behera jaitsi ondoren.

«Erretzera» entzun duenean, Xabik biengan pentsatu du, noski, zigarreta bana erreko dutela alegia. Sasi batzuetan ezkutaturik, Xabik era natural batean hartu du zigarroa eta era natural batean piztu du.

- Zer arraio ari haiz? -galdetu dio Gotzonek.
- Erretzen, hi bezala.
- Et, et, et, utz dezagun gauza bat argi...
- Orain hi aita bezala hasiko haiz, ala?
- Xabi, hi asmatikoa haiz. Konturatzen al haiz horretaz? Ez nauk moralaz ari. Niri, ongi dakik, bost axola bakoitzak zer egiten duen. Baina hi nire anaia

haiz, eta gaixotasun bat daukak... Hirezat pozoia duk tabakoa!

Xabi jabetzen da, bai, baina ez dago horren mozo-
lo geratzeko prest.

- Ez zidak kalterik egiten.

- Nola puta ez dik ba kalterik egingo? Hire burua akabatu nahi duk, edo zer kristo?

Eta orduan gauza harrigarri bat gertatu da. Gotzo-
nek zigarroa kendu dio ezpainetatik, eta itzali egin du.

- Gehiegi maite haut hiltzen uzteko.

Ezin du entzundakoa sinetsi: maite duela esaten ari zaio anaia! Bere anaia punki madarikatua!

Olazti, Zumaia, Bergara, Astigarraga, Bermeo, Gasteiz, Ikaztegieta, Aramaio, Busturia, Tafalla, Basauri, Portugalete... hainbeste herri zegoenik Euskal Herrian! Eta herriak asko baziren, zer esan izengoitiez: Hortzaputa, Hankaputa, Tallo, Txapis, Txuria, Kattu, Txapela, Totela, Xarra, Xerpas, Stein, Beltza, Gogor, Hamalau, Txirlas, Tapatxulos, Peru, Marrantas... denak ezberdinak eta, hala ere, denak hari single batek lotuak. Xabiren begietara denak baitziren, nola edo hala, miresgarriak. Zeren eta Xabik aitaren begietatik ikusten baitzuen mundua, eta haren miresmena bere egiten zuen. Aitak lagunak miresten baitzituen, inor miresten bazuen.

Zer suertea lagunek!

Horregatik erabaki zuen arratsalde gogaikarri batean, bere erakunde armatu propioa sortzea Nagoreekin batera: Pailazo Hiltzaileak edo, bere laburduran, PHK. Ereserkia ere egin zion Nagorek, musikarako dohaina zeukala baliatuta.

Pailazo Hiltzaileak
Euskadin sortuak
Jarraitzeko borroka

Ereserki perfektua zen, ukabila zutunik kantatzeko ezin egokiagoa. Eta erakunde armatua edukita, agian inoiz bera ere errefuxiatua izango zen, aitaren lagunak bezala.

Arazoa erakundea sortu eta berehala etorri zen, zer egin zezaketen bururatzen ez zitzaiela ohartuta. Armarik ere ez zeukaten! Uda zen, eta orduak ematen zituzten etxe azpiko bankuan eserita. Zer egin zitekeen Euskadi askatzeko, armarik eta ezer gabe?

Xabik ideia bikain bat izan zuen: «Ken ditzagun autoetako bandera frantsesak!». Patinetean errepide-tik zihoan batean bururatu zitzaion, auto batek klaxona jo eta haren atzealdean Frantziako ikurra ikusi zue-nean. Eta hain iruditu zitzaion ideia apartekoa, ze, arrebarekin konpartitu ordez, Oihanarekin konpartit-zea erabaki baitzuen. Hilabeteak ziren neskatilarekin egon besterik desio ez zuela, eta aitzakia perfektua zen.

Baina neska iheskorra zen. Eta iheskorra zenez, haren etxe inguruan zelatan ibiltzea beste aukerarik

ez zitzaion gelditzen: noiz irteten zen, nora joaten zen, noiz itzultzen zen. Beti baitzebilten hara eta hona gurasoekin. Etsigarria zen.

Elkarren segidan eraikitako etxe multzo batean bizi zen Oihana, eta haren etxea bi aldeetatik zelata zitekeen, aurretik nahiz atzetik. Eta bi-biak ziren puntu garrantzitsuak, atzealdea bezala aurrealdea, atzean bere gelako leihoazegoelako eta aurrealdean etxeko atea. Aurrealdean autoa zegoela ikusiz gero atzealdera joaten zen, eta neska leihora noiz aterako zain geratzen zen. Asko luzatzen bazen, aurrealdera itzultzen zen, autoak hor jarraitzen zuen ikusteko.

Oso zaila da etxe bat zelatatzea. Egunak behar dira. Baina are zailagoa da baten batekin etengabe egoteko premia izatea, besteak antzeko ezer sentitzen ote duen jakin gabe. Eta erantzuna ezezkoa dela susmoa denean, are zailagoa. Eta galdetzeko aukerarik gabe gainera.

Zeren eta Xabi sentimendu horietara iritsi berria zen. Erauntsia bizia izanik ere, ez zekien zer egin zezakeen barruko har gozo eta aldi berean samin eta alferrikako harekin. Bazekien, ordea, Oihana sentimendu haietan nahasirik zegoela, hark ez jakin arren, eta hura guztia neskari esan arte ez zuela bakerik izango.

Ez zekien ezer maitasunari buruz, baina zekien apurra oso ongi zekien.

Nolanahi dela, bazituen hitzak baino premia handiagoak, esate baterako eskuen premia: neska ukitzekoa. Neska ukitu nahi zuen, bai. Baina ez zekien nola, eta ez zekien non.

Oztopo zailena Oihanaren axola gabezia zen. Oztopo zailena eta mingarriena. Baina bazuen esperantza txiki bat. Eta esperantza horrek Pailazo Hiltzaileak izena zuen. PHK.

Horretarako Oihana ikusi behar zuen, ordea. Eta aspaldian ez zuen ikusten. Horregatik, egun hartan, Oihanaren gurasoen autoa hondartzaraino jarraitzea erabaki zuen (zinez hondartzara ote zihoazen jakin gabe). Egia da hasieran ez zuela autoa segitzeko inolako asmorik. Autoa ikusi zuen auzotik ateratzen, eta haren atzetik abiatu zen, autoa gertuagotik ikusi beste asmorik gabe. Autoak segituan utzi zuen Xabi atzean, baina eguraldi ederra zegoenez, hondartzara zihoazela ondorioztatu zuen. Bazekien, gainera, hondartzaraino zeuden bospasei kilometroak ia denak zirela maldan behera, eta horrek kemena eman zion: segituan ailegatuko zen.

Ordubete inguru Hendaiako espaloi mehar zuloz beteetan irristatu ondoren iritsi zen hondartzako kasi-nora, izerditan blai. Eta hura ikusi orduko jabetu zen, hondartzak bere buruan eta hondartzak errealitatean zein ezberdinak ziren. Jendetza zegoen luze-zabal osoan, milaka lagun, denak bainujantzitan: nola aurkituko zuen inor erlauntza hartan?

Hondarretara jaitsi eta Hondarribirako norabidean oinez hasi zen, patinetea eskuetan hartuta. «Beignet abricot!, beignet chocolat!», entzuten zen, opil saltzaila oihuka. Bidasoa aldeko murrura iritsi aurretik kon-turatu zen, ordura arte gehiegi pentsatu gabe ari bai-tzen, agian Oihana eta bere gurasoak ikusiko zituela, eta izutu egin zen. Ezingo zuen azaldu nolatan zegoen han. Zer esan behar zuen? Une batez gelditu zen, hon-dartza zabalegiari so. Zer egingo zuen ikusten bazi-tuen? Ezingo zen hurbildu. Urrutian geratu beharko zuen, zelatan edo.

Haur batzuk beste haur bat lurpean sartu eta hura hondarrez estaltzen ari ziren, barreka eta deiadarka. Haurraren burua baino ez zen geratzen lurpetik salbu. «Tápale la cabeza!», esan zuen batek. Eta beste batek hondar mordoxka bat jarri zion buru gainean. «Parad,

hijos de puta!», esan zuen mutilak amorratuta, eta denak barrez hasi ziren berriz.

Patinetearen gainean eseri zen Xabi. Bere besoei so egin zien une batez, eta bere bilo horituak ikusita harro sentitu zen.

«Venga, sacadme», esan zuen mutilak, erreguka. Orduan beste mutiletako batek plastikozko kuboarekin estali zion burua. Ezkutaleku perfektua iruditu zitzaion Xabiri: lurpean sartu eta buru gainean kubo jarri. Baina umea garrasika ari zen: «Maricones!».

Haurretako batek kas-kas jo zuen kuboaren gainean eta esan zuen:

- ¿Hay alguien?

- Te voy a matar, te juro que te voy a matar.

Eta bestea berriz:

- Vámonos, no hay nadie.

Hurrei malkoak ateratzen zitzaizkien barreka. Eta agian barregarria zen, baina Xabik kezka bakarra zeukan buruan: zertara joan zen haraino, Oihana ikustean hurbildu ezingo bazuen? Andre bati ordua galdetzeko ausardia izan zuen. Ordu bata zela esan zion. Ezingo zuen inoiz bazkaltzeko orduan etxera iritsi. Horixe zen maitasuna. Arazoak.

Oihana irudikatu zuen, eta haren ama, eta haren aita eta ahizpa, denak hondartzarako mahai mehar horietako baten bueltan eserita:

- Hara!, hura ez al da Ugarteren semea?
- Bai.
- Zer ari da bakarrik hondartzan, patinetearekin?
- Nire bila etorriko zen, beti dabil nire bila.
- Gizagaixoa.

Hondartzatik irten eta iturri bat bilatu zuen Xabik. Gizon lodi baten zakur beltza ari zen iturritik edaten, mihi arrosaz burdina igurtziz. «Doucement», esaten zion gizonak. Aldamenean senar-emazte pare bat zegoen, emakumea senarraren oinei hondarra toallarekin garbitzen; gizona so, emakumeak oinak egunero garbituko balizkio bezala. Ura edan zuen eta eserita geratu zen, atsedean hartzen. Pasealekua jendez gainezka zegoen, baina denak zebiltzan presarik gabe. Familia bat gelditu zen Xabiren aldamenean, eta umeetako batek Xabiri goitik behera so egin zion, jakin-minez. Konturatuko al zen bere bakardadeaz? Pala atera zuen amaren otarretik, eta tokitik mugitu gabe kolpe txikiak eman zizkion pilotari. «Regard, papa!», esan zion aitari, eta aitak erantzun zion:

«Comme Yannick Noah!». Zein zoriontsu zegoen mutila.

Xabi etxerantz abiatu zen, bidean aitzakiaren bat aurkituko zuen esperantzarekin. Izango zuen denbora, herriko espaloi sigi-sagatsu eta zuloz betetakoetan etxera bueltan: bi ordu!

Jokin izeneko *maizter* berri bat iritsi zen etxera udarekin batera. Gizon lasaia eta arduratsua izaki, ohitura berriak ekarri zituen.

Annie Clauderenean lanean jarraitzen zuen amak, eta han hasi zenez geroztik, etxean kakao esnea eta galletak afaltzen zituzten. Afari azkarra eta erraza. Jokinekin, ordea, ohitura horiek amaitu egingo ziren. Afaltzeko mahaian zamaua zabaldu behar zen. Eta barazkiak afalduko zituzten gehienetan. Patata frijituak astean behin. Eta, ahal zenean, arraina.

Agintzeko modu sotila zeukan. Denek haren erara egingo zituzten gauzak, ia oharkabean, beharbada poliki hitz egiten zuelako, edo berak ezarritako arauak zentzuzkoak zirelako. Aitari berdin zitzaion, berandu etxeratzen baitzen, beti gosez; eta hark berdin jaten zuen baratxuri zopa edo xerra.

Jokin ailegatu zenez gero, etxeko begi guztiak Goztonen samatik aldendu eta Xabirenean pausatu ziren. Jokin berehala ohartu zen, Xabi goizean goiz etxetik irten eta «ezer egin gabe» ematen zuela goiza. Ez zen eskolako lanen kontua bakarrik, etxeko lanena

baizik, etxean «denek lagundu behar» zutelako. Ohea egin, gela eta egongela bildu, hautsa kendu... lan asko zegoen etxean. Asteburuetan Gotzonek, Nagorek eta Jokinek jasotzen zuten dena goizero, eta egun hartako jatekoak adosten zituzten. Ia jolasa balitz bezala proposatzen zituen gauza hauek Jokinek, samurtasuna galdu gabe. Agian horregatik bihurtzen zen nabarmenagoa Xabiren axolagabekeria. Hala sortu zen Jokinen eta bi seme-alaba nagusien arteko konplizitatea; eta ez etxeko lanari zegokionez bakarrik, baita bestelako kontuetan ere: bereziki politikan eta irakur gaietan.

Zeharo baztertuta zegoen Xabi. Amorru pixka bat sentitzen zuen etxera iristen zenean, nahiz eta bere lehentasunak argi eduki; hobe esanda, bere lehentasun bakarra: Oihana. Gainera, borondate kontua izan balitz, baina ez zeukan horrekin zerikusirik. Desesperazioa zen. Gaixotasuna.

- Gustura al dago jauna bere morroiek prestatu dizkioten jaki goxoekin? -galdetzen zion Jokinek bazkaltzera eseri orduko.

Eta anai-arrebek barre egiten zuten. Oso barregarria baitzen, benetan barregarria.

Eta bazkal ondoren:

- Ez kezkatu, maiestatea, zerbitzariak jasoko dute berorren mahaia.

Eskandalurako arrazoirik handiena, ordea, dutxa zen. Xabi egunero dutxatzen baitzen bitan: goizez eta gauetz.

- Heure buruarekin haizen garbi zalearen erdia bahintz etxearekin! -ernegatzen zitzaion Jokin.

Arrazoia zeukan. Baina Xabik garbi egon behar zuen, garbi sentitzeko. Ez zitzaion burutik pasatu ere egiten etxetik dutxa hartu gabe ateratzea, etxetik atera orduko izerditan hasiko zela jakin arren; eta eguna handik hona (Oihanaren etxe aurretik Oihanaren etxe atzera) bueltaka eman eta gero dutxatu gabe ohera sartzea ere ez.

Horrela sortu ziren Xabiren izengoitiak: *Finolis* eta *Superdiez*.

Sekulako algarak egingo zituzten horren kontura. Eta Xabik ahal bezain ongi eramango zituen, nahiz eta ia gauza guztiak eramaten zituen nahiko gaizki. Fabrikatik zetorkion akatsa zen, malenkoniarako joera sendagaitz hura. Oihanarekin sendatu nahi eta ezin zuena.

Fededuna zela, huraxe zen Jokinen berezitasunetako bat. Gauero otoitz egiten zuen. Maizter guztiek

bezala Xabiren gelan lo egiten zuenez, xuxurlaka entzuten zuen arratsetan. Ez zuen luze jarduten, eta laster hasiko zitzaion hizketan, baina inoiz Finolis edo Superdiez esan gabe, bakarka zeudenean oraindik eta jatorragoa baitzen Jokin.

- Hik ez al duk otoitzik egiten?

- Ez.

- Egin beharko huke.

- Zergatik?

- Jainkoarengandik gertuago egoteko.

- Baina nik ez dakit otoitzik egiten.

- Nik irakatsiko diat.

- Hobe ez.

- Zergatik?

- Ez dut Jainkoarengandik gertuago egon nahi.

Esango ziokeen: «Oihanarengandik gertuago egon nahi nuke, Jainkoarengandik baino». Baina ez zion esan. Jakin nahiko zukeen, Jainkoak gustuko arropak izaten ote zituen egunero janzteko, frantsesez ikasi gabe jakin ba ote zekien, edo futboleak beti azken geratzen ote zen.

Aitari eskerrak, Xabik bazekien Jainkorik eta antzekorik ez zegoela, Jainkoari buruzko kontu guztiak apaizen asmakizunak zirela. Eta Xabik aitak bezala

pentsatzen zuen. Bereziki, Jainkorik inoiz ikusi gabea zelako, eta ohitura zeukalako ikusten zituen gauzak sinesteko, kontatzen zizkietenak baino. Ez zegoen, alde horretatik, Jainkoarekin etsaitasunean: noizbait agertuko balitzaio, sinetsiko zuen. Ideia horrekiko beldur izpi bat bazuen, hala ere, denek lotzen baitzuten Jainkoa *agertu* aditzarekin, ia mehatxua balitz bezala. Ez zuen inor bere aurrean ager zedin desio, are gutxiago bakarrik egonez gero, adibidez gelaren iluntasunean. Zerbaitek beldurra ematen bazion, zerbait agertu zitekeelako ideia zen. Aurpegi bat, izaki bat, munstroak. Batzuetan gauaren erdian figura bat ikusten zuen eta maindirepean sartu behar izaten zuen, eta han ere izututa egoten zen, harik eta inork ezer egiten ez ziola egiaztatzen zuen arte. Orduan zerbait lasaitzen zen, baina ezin esan beldurrik pasatzen ez zuenik. Gauetan, komunera joateko ere, beti izaten zen agerpenen beldur. Eta korridorean inor agertuko balitz? Kontuz agerpenekin. Jainkoarekiko, beraz, ez zuen sinpatiarik, hura ere munstroen eta sorginen gisara agertu ohi baitzen. Ezin al zuen etorri jende arruntaren moduan? Etorri, eskaileretatik igo, atean kas-kas jo, sartu eta kito? Ez ba, agertu egin behar!

Jokinen egonaldiak utzitako gauzetan garrantzitsuena, Beatlesen kaseteak izan ziren. Liluraz begiratzeko zituen haien argazkiak, eta bereziki ederra iruditzen zitzaion beti launaka ibiltze hura, zinez zerbaiten partaide sentitzen zirela erakusten baitzuten irudiok. Eta izen bikain horiek! Paul McCartney, John Lennon, George Harrison eta Ringo Star. Ezin zen izen aproposagorik eduki kategoriako gizaseme bat izateko eta zoriontsua izateko.

Bere sentimenduekin ezer egitea zaila egiten zitzaionean, orduan zetorkion hoberen kasete haiek entzutea. Ez zegoen munduan bere sentimenduekin (bere minarekin) kanta horiek baino lotura estuagoa zeukan ezer ere. Gainera, kanta haietatik *edertasun bat* hartzen zuela pentsatzen zuen, eta une horietan Oihana konkistatuko zuen ziurtasuna itzultzen zitzaion berriz. Gero, ordea, ez zekien edertasun hura Oihanari nola erakutsi behar zion. Hori zen zailena. Langintza errazagoa zirudien xinaurri bati arrainak harrapatzen erakustea.

Lizeoan hastean erabaki zuen Xabik bere buruari Ugarte deitura jarri behar ziola, denek hala esan ziezaioten.

Goizeko seietan autoa argi gabe geratu zen. Hotz zegoen, eta kristalak lurrunduta zeudenez, hiru seme-alabak eta aita autoan zeuden beste mundu batean baleude bezala, adibidez izarrontzi batean espazioaren erdian.

- Nor ibili duk hemen? -galdetu zuen, bolantearen azpiko atetxo bat irekita, zeinaren barruan hamaika kable eta fusible baitzeuden, txikiak eta kolore askotakoak.

Isilik geratu ziren atzekoak.

- Ez duk inor ibili. Ederki. Bakarrik hausten dira gauzak, magiaz.

Eskuarekin kristaleko gandua kendu zuen aitak, eta zerumugara begira geratu zen, aterabideren baten bila seguruen.

- Argi gabe joan beharko dugu. Ez dago besterik.

Autoa errepidera sartu orduko, hara non ikusi zuten Poliziaren autoa. «Ostia puta», esan zuen aitak

ahopeka. Polziaren autoak argiak eman zizkion, eta aitak eskua leihotik atera zuen, esanez bezala eskerrik asko, eta poliziek ere auto barrendik keinu egin zioten, esanez bezala lasai gizona.

«Kaguendio» bota zuen aitak, eta azeleragailua barruraino sakatu zuen.

Xabik ezin zuen sinetsi autobus kaskar hark eramango zituenik Kanboraino. Latorrizko zera zahar hura martxan jartzeko gai izango zenik sinestea ere zaila zirudien. Dozena bat ikasle eta guraso batzuk zeuden geltokian zain. Xabik Eneko agurtu zuen, pozik zegoen halako erronka baten aurrean laguna izatea-gatik. Haren ama ere, Izaskun, beti bezain lirain eta alai zegoen.

Geltoki bakoitzean haur bat edo bi igotzen ziren autobusera, eta denek bilatzen zuten laguna, laguna bazuten, eta ez bazuten, lotsaturik esertzen ziren, alaitasunik gabe, eta denek ulertzen zuten zorterik gabeko haurrak zirela, lagunak beste lekuetatik beste autobusetan joaten zitzaizkiolako ikastolara, eta horrek ikasturte osoan bidaia bakarrik egitera kondentzen zituela, edo, okerragoa zena, lagunak egin behar izatera.

Urruña, Donibane Lohizune, Senpere, Ainhoa... ilunpean zeharkatu zituzten herri bakartiok, hango etxe txikiak, teilatu gorriak, *pâtisserie*, *boulangerie* eta izen arraroko denda guztiak. Xabik paneletan jartzeko zuena ulertzeko ahalegina egiten zuen alferrik, eta tarteka Enekorekin eztabaidatzen zuen, *Sur nivelle* eta *Les bains* zer ote ziren. Tarteka lo geratu zen Xabi, burua kristalaren kontra.

Kanbora iritsi zirenean, bide bazterrean geratu zen autobusa, eta haur guztiak hartxintzarrez betetako bide batetik joan ziren etxe handi zaharra zegoen tokiraino, izan zitekeena zaharrentzako egoitza, hotela edo beste zerbait, baina inola ere ez ikastola bat. Baina huraxe zen ikastola. Ez zen eraikin funtzionala, geometrikoa, hotza eta itsusia, baizik eta etxe bat, Donibane Lohizunekoaren tankerakoa, baina askoz ere handiagoa, bere balkoi, zuhaitz, lore, apaingarri, teilatu eta zera guztiekin. Ikastola izateko egokitutako eraikina zen, lehendik beste zerbait izandakoa, eta jatorri ezezagun hark, noski, esamesa andana sortuko zuen ikasleen artean, denak ere makabroak. Aurrealdean eskailera itzel bat zeukan, harrizkoa, dotoreegia; eta atea ere arku formakoa zen, egur sendokoa, aparta. Barrura sartu ahala zabalitzen zen halla: zorua xake

taularen gisakoa, eskailera egurrezkoa, nekazari giroko irudi bat osatzen zuen beiratea, hall osoa kolorez ziprirtintzen zuena. Gaztelua ere izan zitekeen. Agian Drakula bera agertuko zen, kapa herrestan, letaginak bistan eta ezpainak odoletan.

Irakasleak Kristina zeukan izena eta Edith Piafen kopia zirudien: haren melena beltza, ezpain eta azazkal gorriak, ahots garratza. Haurrak makilaka hartze-ko itxura zeukan.

Koadernoak zabaltzeko eskatu zien denei, eta lehen orrian beren izenak paratzeko. Xabik izena idatzi eta berdez azpimarratu zuen, izenaren soiltasuna edertzearren. Orduan, gauza beltz bat azaldu zen bere orrian, ogi papur txiki baten tamainakoa. Zorria zen. Poliki eraman zuen eskua burura, ileak koadernoaren gainean nahasteko; zorrien hotela astindu zuen, nonbait, beste bi zorri erori baitziren.

- Letra larriz -esan zuen Edith Piafek- orriaren erdian idatziko duzue: Eskuara.

Odol arrasto ñimiñoa utzi zuen zorriaren gorputz xehatuak orri laukidunaren gainean, azkazala galtzetan garbitu zuen.

- Zorri bat zuan -xuxurlatu zion Enekorri, odol arrastoa erakutsiz.

- Zorri bat?
- Begira -eta berriz astindu zen ilajea.
- Hi, geldi!

Jolas garaiari aire-hartzea esaten zitzaion. Gogai-karria ez zen une bakarra Xabirentzat. Eraikin inguruan baziren belardiak, zuhaizti txiki bi, gorderik ibiltzeko txoko ugari eta, nahi zutenentzat, patinetean ibiltzeko maldatxo bat ere bai. Lehen egun hartan denak zebiltzan herabe, nor bere tokiaren bila. Batzuk zuhaiztian jarri ziren, gerizpean, eta ikasturte amaiera arte hantxe iraungo zuten, tokia bereganatuta; beste batzuek etxearen atzealdean hartuko zuten ostatu, eskailera batzuetan edo, auskalo, toki diskretuagoren batean, eta haiek ere ez zuten inoiz ere bereganatutako espazioa abandonatuko. Mutiletako asko zelaira joan ziren, baloia nork ekarriko, zein taldetan eta noren aurka ariko ziren jakin aurretik buruan ziurtasun bakarra zeukatela: ordu erdiko atsedena dia futbolearen aritzea, euri nahiz elur, txingor nahiz izotz. Beste batzuek etxean lapurtutako zigarretak trukatu zituzten lagunekin, eta beste puntako sasi aldera joango ziren erretzera, etxeko gaiztoen zeremonian parte hartzera.

Orduan erabaki zuen bere buruari Ugarte esango ziola:

- Hi, aurrerantzean esango al didak Ugarte? -gal-
detu zion Enekorri

- Handi plantak egin nahi dituk? -Enekok bazekien
aztia izaten.

- Esango didak Ugarte ala ez didak esango?

Enekok kartak atera zituen:

- Jokatuko diagu?

- Ugarte esaten badidak, bai.

- Esan diat ba baietz.

- Ez didak esan.

- Ba orain esaten diat.

- Zer esaten didak?

- Benga hi!

- Esan edo ez diagu jokatuko.

- Ugarte! Pozik?

- Bai. Baina ez ezak ahaztu gero!

Esperantza zeukan izenak gauza asko aldatuko zi-
tuela bere bizitzan.

Etzetik lauzpabost kilometrora zegoen autobus geltokira joaten zen aita seme-alaben bila, baina etxera ordez zentrorra eramaten zituen, Hendayais tabernara. Taberna barruan zer egiten zuen, misterio bat zen. Kartetan aritzen zela esaten zuen Gotzonek, eta itxaronaldia partidaren arabera luzatzen zela.

- Ea aitak karta onak ikusten dituen gaur.

Autoa Hendayaisen parean utzi, eta aldentzen ikusten zuten aita, tabernaren barruan galdu aurretik. Gero, auto barruan denbora pasatzeko gauzak asmatzen zituzten. Baina asmatzeko gauza handirik ez zegoenez, hipotesiak egiten jarduten zuten denborarik gehiena. Zorteko egunetan 10 libera uzten zizkien, askaritarako zer edo zer eros zezaten. Gainontzean, asperduraz gain gosea pairatzen ematen zituzten orduak, purrustaka eta han geratzeko arrazoiak ezin ulerturik.

Argientzako etengailua kable sorta batetik zintzilik zegoen, baina *konponduta*.

Agure zahar bat igaro zen auto aldamenetik, eta barrura begira geratu zen, harritu antzera.

- Zer dik horrek? -Gotzonek.

Eskuaz kaixo esan zion Nagorek.

Agureak alde egin zuen, eta Xabik galdetu zuen:

- Ikusi duzue etengailua? Kableetatik zintzilik

dago.

Aurreko eserlekura pasatu zen, etengailua eskue-tan hartzeko.

- Ba al dabil? -galdetzeaz batera sakatu zuen, aurreko autoaren atzealdea argituz.

Klik, sakatu zuen berriz. Miraria zirudien kable sorta horretatik ezer onik ateratzea. Klik sakatu zuen berriro, eta hirugarren klikean argia betiko itzali zen.

- Zer du?

Nagorek liburu bat irakurtzen ziharduen, jaramonik egin gabe.

- Zer du zerk? -Gotzonek

- Argi hau ez zabilek.

- Bazebilen ba. Zer egin diok?

- Ez diat ezer egin, hi. Sakatu besterik ez.

- Sakatu, sakatu. Geldi egotea huen!

- Aita etortzen denean... -ez zuen ezer onik iragarri Nagorek.

Gotzon handik metro gutxira zegoen okindegira joan zen askari bila, eta hiru anai-arrebentzako Chips-

ter kaxa banarekin etorri zen. Pareko tabernan zerbitzaria bakarrik zegoen, keinu aspertuarekin kanporantz begira. Zaldi lasterketak telebistan. Barraren atzean zerbait bilatzen hasi zen, barra garbitzeari ekin zion gero. Jockeyek makila mehar eta luze batekin jotzen zieten zaldiei, gehienetan zaldia azkarrago joatea lortu gabe. Zenbat eta motelago, orduan eta azkarrago jotzen zieten zaldiei.

- Jakin nahi nuke -esan zuen Gotzonek- zer arraio egiten dugun kotxe zahar honen barruan zain. Horixe jakin nahi nuke.

- Gogaituta nago -esan zuen Nagorek.

- Ez zait inoiz gertatu -esan zuen Gotzonek-, baina etxeko lanak egiteko gogoia pizten ari zait.

- Zergatik ez gara oinez etxera joaten? -bota zuen Xabik.

Gotzonek sorbaldak jaso zituen.

- Kristo -esan zuen Gotzonek-, ez dut ulertzen. Zergatik ez gaitu etxera eramaten? Redios! Gu etxera eraman eta jaitsi dadila gero nahi badu partxisean jokatzerara!

Orduan GALEkoen kontua aipatu zuen Nagorek:

- Nire ustez aitak lagunekin egoteko premia dauka. Baina ez da ausartzen autoarekin hortik zehar

ibiltzen, baten batek auto azpian bonba jarriko ote dion beldurrez. Horregatik uzten gaitu autoan, babes-teko.

- Babesteko nor? -galdetu zion Gotzonek.
- Bere burua.
- Nondik atera dun halako txepelkeria?
- Nik ez zakiat. Bakarrik esan diat, igual horregatik dela.

Hirurak isilik geratu ziren. Eta Xabi errudun sentitu zen aita gorrotatzeagatik. Nagoreren azalpenak logika osoa zeukan. Burua kristalaren kontra jarri zuen, eta pentsatzen geratu zen, tarteka patata frijitu bat ahoan sartzen zuen bitartean. Baina ez zen inolako ondoriotara iritsi. Eta ez zuen asmatu bere sentimendu gaizto hura gainetik kentzen.

Zentroko etxeen atzean ezkututzen hasia zen eguzkia aita azaldu zenean. Segurtasun uhala ipintzen ohi baino denbora luzeagoa eman zuen aitak, sudurretik arnasa ozen hartzen zuela. Gero argiak pizteko etengailuari sakatu zion. Ez ziren piztu. Klik, klik, klik, tematu zen.

- Nor ibili da hemen?

Inork erantzuten ez zuela ikusita, berriz ekin zion:

- Norbait ibili da. Argiak konponduta utzi ditut nik... Nor ibili da?

Tabernako gizonak autorantz begiratu zuen jakin-minez. Xabik haren begiekin topo egin zuen, eta berriz entzun zuen:

- Ez badidazue esaten nor ibili den... -esaldia etenda geratu zen, trumoia dakarren hodei baten antzera.

Mehatxuren bat edo zigorren bat asmatzeko zailtasunak irudikatu zituen Xabik. Pentsamendu bitxia zen: denak zeuden une hartan, aita bezala seme-alabak, zigor egoki baten bila. Krimena txikia zen, ordea, eta seguruen aita madarikazioak botaz baretuko zen. Suminduta emango zuen denbora puska batean, ezer esan gabe egongo zen afal orduan, eta purrusta batean joango zen ohera inor baino lehen.

- Nor izan da, Gotzon?

- Gu hemen atzean egon gara.

- Nire ama puta izango zen.

Autoa martxan ipini eta bizkor abiatu da. Bihurguneak azkarrago eta traketsago hartzen ditu, bortizkiago, balazta ere indarrez zanpatzen duela.

Segituan iritsi dira Oriora. Xabi korrika batean abiatu da pilotalekurantz, Oihana han ote dabilen

ikusteko. Hutsik dago, ordea. Bere leihora begiratu eta argia pizturik ikusi duenez, haraino hurreratu da. Une batez pentsatzen jardun eta gero, hartxintzar bat bota du kristalaren kontra. Gortina baztertu du Oihanak, hatza ahoan jarrita daukala. Harrituta so egin dio leihoa ireki duenean.

- Zer ari zara?

- Ikasten.

- Jaitsiko al zara?

- Ezin dut.

Oihanaren gelako lanpara ikusten du behetik, apalategiaren zati bat, karpeta batzuk, eta zerbait zintzilik, izan litekeena poltsa bat edo jertse bat. Xabik badaki, gainera, idazmahaia ere leiho aldamenen daukala, hartxintzarra bota orduko baztertu baitu Oihanak gortina eta leihoa zabaltzean aulkiak zoruaren kontra egindako zarata entzun baita. Arrasto gutxi horiekin neskaren gela nolakoa den asmatzen saiatu da.

- Eta bihar? -Xabik ez du etsitzeko asmorik.

Etixerako bidean Oihanaren leihorantz begiratu du berriz. Hantxe dago neska oraindik. Xabik atzera begiratu duela ikusi duenean, eskua altxatu du adio esateko. Une horretan argiak piztu dira Orio auzoan. Gaua da.

Amak Levi's markako lehen galtzak erosi zizkionean haiekin lo egin zuen Xabik. Gauaren erdian esnatu zen, Jokin ez iratzartzeko gelatik haztamuka atera zen eta komunean sartu zen ispiluan begiratzeko. Galtzek izterretan eta ipurdian egokitzeko zeukaten manerak liluratu egiten zuen. Gerra Atomiko batek ezingo zituena galtza haiek txikitu, urratu edo higatu. Eskolan denek hitz egiten zuten galtza haiei buruz. Distintzio zeinua zen haietako batzuk edukitzea, goi mailako jendearen atean kas-kas jotzeko modukoa.

Eta galtza berriekin jantzita zihoalako, pozik sentitzen zen larunbat hartan, Irungo merkatu txikira joan zirenean. Horregatik eta merkatu txikian amak opilez eta txokolatezko bonboiez betetako poltsak erosten zizkielako, kiloka saltzen ziren horietakoak. Ez ziren bikainenak, baina oso gustura jaten zituzten bata bestearen atzetik.

Auto ilara luzeak izaten ziren mugan larunbat goizetan. Autoetako askok zama potoloak eramaten zituzten sabaiari lotuta, eta poliziek apartatu egiten zituzten xehetasunez arakatzeko. Beste askok ez zuten

pisu berezirik eramaten, baina berdin apartatzen zizuten, uneko poliziaren senaren arabera, susmoren bat hartuta-edo. Autoarekin ilaran jarri orduko isiltasuna nagusitzen zen auto barruan, isiltasuna susmorik ez pizteko lagungarri izango zelakoan.

Isabellek esaten zuen:

- Hona hemen Europako inbuturik estuena.

Eta gero solasean nahasten ziren Isabelle eta ama, muga hartan naziak eta guardia zibilak elkarri eskua emanda ibili ziren bezala zebiltzala orain Frantziako eta Espainiako poliziak.

Frantziako poliziek arreta handirik gabe so egiten zieten pasaporteei, baldin eta kasernan bazeuden, ez baitziren beti han izaten. Metro batzuk aurrerago egoten zen espainiarrena, eta han bestelakoa zen giroa. Poliziak pasaporteak aztertzen zituen, baina ondoren aztertu ez balitu bezala hasten zen galdezka: norenak dira haurrak, nondik zatozte, eta halako galdera antzuak. Amak esaten zuenez, ez zuten jakitearren galdetzen, galdetze hutsak errespetua eta ikara eragiten zituelako baizik.

- Zuk badakizu, haiek galdetuz gero, inoiz emango ez zenituzkeen azalpenak emango dituzula. Eta haiengana iritsi aurretik zure buruan mamitzen ariko zara

irain sorta amaigabe bat, galdetzen hasten direnean zinez pentsatzen duzuna esateko. Baina unea iritsita-koan otzan erantzungo diezu, ez daukazulako beste erremediorik. Botere horrekin txoratu egiten dira poli-ziak.

Arrazoia zeukan amak, Xabik ongi igartzen zuen poliziarekin hizketan ari zen jendearengan umiltasun bortxatu hura. Polita zen ikustea, Isabellek nola adi-tzen zion amari. Eta haren begirunearen bitartez egiaztatzea, ama uste baino pertsona jakintsuagoa zela. Zeren amak politikaz gutxi hitz egiten zuen etxean, baina ez etxetik kanpo...

- ¿Los niños son suyos?

- No, de la señora.

Poliziak eztul egin zuen, ukabila aho parean jarri-ta.

- Está bien, sigan.

Eta eskuarekin keinu egin zuen, alde egin zezaten presatuz, kaserna parean nahita enbarazu egiteko ge-ratu izan balira bezala.

Autotik atera eta Irungo kaleekin mira eginda ge-ratzen zen Xabi, hango tailer mekanikoekin batik bat, xelebrea zelako mono urdinez jantzitako langileak ka-lean lanean ikustea. Bere sorterria ekartzen zion akor-

dura irudi hark, bereziki etxe alboko txatarrerria. Hendaian ez zegoen halakorik. Hendaiaiko kaleak garbiak ziren, ez zegoen koiperik, ez zegoen zaratarik. Irun bitzeko tokia zen, baina baita lanerakoa ere. Gainera kromoak, kanikak, miniaturazko autoak eta tankerakoak erosteko denda mordoa zegoen Irunen. Eta Hendaian ez!

- Señoras, bragas a cien, ¡última oportunidad!

Erosten ez bazenuen ez zen entzuten ez zenuelako.

Amaren eskutik etxeko txapinen eta galtzontzilloen prezioak negoziatzen ziharduen bitartean, Hendaia inoiz ez itzultzeko gogoia sortu zitzaion Xabiri, Oreretara itzultzekoa, beren betiko bizitza berreskuratzekoa. Eta une hartan bertan oroitu zuen, nolabait, bera zela Hendaian egotearen erantzuleetako bat, berak (ez Nagorek ez Gotzonek) esan baitzuen baietz, herria uztea eta lagunak uztea eta ingurua uztea eta auzoa eta lagunak eta Boomer txikleak eta Agustinen argazki zaharrak uztea aukera ona izan zitekeela. Eta nolako damua zeukan!

- Señoras, ¡que me las quitan de las manos!

Taberna zulo batean txibiak jaten eseri zirenean, bi sentimenduok areagotu besterik ez zitzaizkion egin:

joateko irrika eta erruduntasuna. Hantxe ikusten zuen bere arreba, hark ohi zuen bezala poliki jaten, eta azken hiru urteetan bere gelan bere liburuekin baina bere lagunik gabe emandako ordu guztiak oroitu zituen. Dena bere erruz!

Etxera bueltan, berriz ere mugako ilaran zain zeudela, Xabik galdetu zuen:

- Kasernatik kasernarako bidea zein herritakoa da, Espainiakoa edo Frantziakoa?

- Espainiako aduana pasatzen dugunean, Frantzia gaude -erantzun zuen amak.

- Baina lehen Frantziakoa pasatu dugunean Espainian geunden!

- Egia da -esan zuen amak.

Nagorek esan zuen:

- Orduan zein norabidetan zoazen, Frantzia izan liteke, edo Espainia.

- Agian eremu neutroa da, ez Frantzia eta ez Espainia -esan zuen Isabellek.

- Ba, Euskadi! -bota zuen amak.

Xabik pentsatu zuen kasernatik kasernara zihoan asfalto eremu txikia zela Euskadi, porlan zati txiki hori besterik ez.

Baina horren orde, esan zuen:

- Eta orduan zergatik ez gara hona bizitzera etortzen?

Baina inork ez zion erantzun.

– **Frantsesa** ikasterako hilobian egongo nauk -esaten zion Xabik Enekori.

Batetik hogeirako zenbaketa erabiltzen zen Lizeoan. Nota oso onak ziren 14, 15, 16, 17, eta zer esanik ez 18, 19 eta 20. Xabik, diktaketetan, -43, -37 eta halakoak ateratzen zituen, eta susmoa zeukan, halako nota lotsagarriak jartzean andereño Genevievek plazer txiki bat sentitzen zuela, eta plazer haren maila bere etsipenarenarekin lotuta zegoela nolabait.

Gotzoni eta Nagoreri, aldiz, ongi zihoakien, eta horrek are eta gehiago txartzen zuen Xabiren bilakaera akademikoa. Nagorek eta Gotzonek jartzen zuten neurria, eta denek iritsi behar zuten haraino. Kontua zen Xabik ez zekiela haraino nola iritsi, eta inork ez ziola pistarik ematen. Lan gehiago egitea zen denek erabiltzen zuten formula, eta Xabik buruz jakin arren, ez zekien lan gehiago egiteko formula zein zen. Lana egitea ez zelako ahalegina bakarrik. Ez zen zaku pisu bat jasotzea (edota hondartzaraino patinetez joatea). Zen aldarte bat, patxada bat, kontzentrazio bat. Berak ez zeukan zerbait, alegia. Geratzen zitzaion irtenbide ba-

karra zen, ahalik eta kalte gutxien hartuta ondorioak pairatzea. Aterkia zabaltzea eta berokia jartzea. Eta horretarako bide on bat zen tranpak egitea eta gezurrak esatea. Noten liburuxka jasotakoan, amaren sinadura imitatuz liburuxka itzultzea, adibidez. Baina motza da gezurraren bidea, bereziki ikastolan. Nahiz eta Xabik amets egiten zuen ama ahaztu egingo zela notekin, ez zen halakorik gertatzen.

Eta liburuxka galduko banu? Ideia bikainak izaten zituen liburuxka desagerrarazteko. Zorion une txikiak ziren haiek. Baina segituan ondorioak etortzen zitzaizkion gogora, eta berriz etsitzen zuen.

Eneko eta Xabi autobusean zihoazen, noten liburuxkek eskuak erretzen zizkietela.

- Zenbat *gutxi* dauzkak?
- Sei.
- Sei? Txarra haiz!
- Zenbat dauzkak hik?
- Nik lau.

Enekeri belarriak gorritzen zitzaizkion bere liburuxkan boligrafo gorritz idatzitako *gutxi* guztiekin. Eta bat egiten zuten eskolaren eta gurasoen arteko bitartekaritza haiek egin beharra bereziki krudela zela pentsatzean. Beren bekatuen mezulari bortxazkoak iza-

tea lazgarria zen. Eta horregatik sentitzen zituzten liburuxka haiek erre edo lurperatu eta itsasoratu beharreko zerbait bezala. Ekintza sinplea izan zitekeen, baina ez ziren ausartzen. Azken batean, bazuten esperantza bat: gurasoak ahaztu egingo zirela. Ikasturtea amaitu eta uda hasiko zela eta denak hondartzara joango zirela olagarro bila, eta inor ez zela notez arduratuko. Hura zen Xabik gehien mamitzen zuen hipotesia. Eta hipotesi hari hel zekiokoen, amak ezustean, ia oharkabean notengatik galdetu izan ez balio. Ez zen, Xabik espero zuen bezain tramite gogorra izan, luzez hausnartutakoa eta grabea. Xabik uste baitzuen ama etxeko mahaian eserita egongo zela, sarritan izan ohi zuen kezka aurpegi harekin, eta esango ziola: «Eser zaitez hemen, serio hitz egin behar dugu-eta». Une ikaragarria. Baina ez zen hala izan.

Eskuan aldizkari bat zekarrela etorri zen egongelara, eta beste edozer esan izan balio bezala bota zion:

- Xabi, ez dizkidazu notak ekarri.

Ahotsak halako xalotasuna erakusten zuen, Xabiren trikimailuekiko ezezagutza erabatekoa, semearekiko konfiantza natural bat. Eta hain zen doinu ezta, ezin izan baitzuen egia esan.

- Oraindik ez dizkidate eman.

Aldizkaritik burua altxatu gabe segitu zuen amak, eta Xabik ahopeka esan zuen:

- Ekarriko dizkizut ematen dizkigutenean.

- Ados.

Gau hartan begirik ezin bildu geratuko zen ohean, mihiseen artean korapilatzeraino itzulika. Zer gertatzen zitzaion? Sinplea zen: ezin zuen gezurraren pisua jasan. Egiak bezala, gezurrak ere hitzak dira. Baina hitz hutsak izan arren, ezin zituen jasan. Konponbide erraza zeukan egoerak: biharamunean emango zizkion. Baina espero izatekoa zen, amak horrenbeste *gutxi* eta *oso gutxi* ikusita sekulako iskanbila sortuko zela.

Esperantza galduta zegoela, ideia zoragarria izan zuen tupustean. Lehenago ere egina zuen (ez horren kontu larrietan), eta frogatuta zeuzkan formula haren onurak. Antzerkia egingo zuen. Azken urte haietako zama guztia, bizkarrean zeraman pisua bildu eta antzerki pixka bat besterik ez zuen egin behar amaren aurrean, amak bere ibilbide akademikoa beste begi batzuekin ikus zezan.

Kontraerasoa zen.

Ama eta Jokin elkarrekin aurkitu zituen gauaren erdian jaiki zenean, egongelako mahaian eserita, ke hodei baten artean. Sartu eta dena esan zien, ahalik eta modu sinesgarrienean negar eginez. Sentitzen zuela baina ez zuela deus ulertzen ikastolan, frantse-sa munduko gauzarik zailena zela eta Txominengan asko pentsatzen zuela. Beldur zela aitari ez ote ziztaion berdin gertatuko.

- Horregatik esan dizut gezurra, ez dudala oraindik noten liburuxka jaso.

Antzerkiaren erdian zegoela ohartu zen, antzerkia uste baino egiazkoagoa zela. Esaten zituen guztiak benetakoak zirela, ustez serio ziharduenean baino egia handiagoak eta bortitzagoak. Esku bat sentitu zuen sorbaldan gainean, ez zekien norena zen, baina negarrez segitu zuen, negarrez ari zela ia ahaztuta, aspaldiko uholdeak askatzen ariko balitzaizkio bezala. Ur zaharrak ziren, likitsak, uherrak, eta haiek irtetea garbitu egiten zela sentitu zuen.

Amaren ahotsa entzun zuen, Jokinena gero, lasaitzeko, dena konponduko zela, inork ez zuela aita akabatuko. Sosegu apur bat hartu zuen Xabik. Bazekien dena konponduko zela, inork ez zuela aita hilko. Hori sinetsi zuen behintzat.

- Zergatik ez duzu lehenago ezer esan? -galdetu zion amak.

- Ez dakit.

Gero amak promes egin zion lortuko zuela frantsesa ikastea eta besteen erritmora egokitzea.

- Zu mutil azkarra zara.

Nola egon zitekeen ama horren oker?

- Inork ezin du sei hilabetetan hizkuntza bat ikasi, Xabi -esan zion.

- Gotzonek eta Nagorek bai!

- Gotzonek eta Nagorek ez dakite frantsesa oraindik. Pittin bat aurreratuko daude, baina asko falta zaie.

Orduan plan bat egin zuten, arratsaldero etxean Gotzonekin eta Nagoreekin batera frantsesa ikasteko.

- Hiruren artean arin ikasiko duzue.

- Baina, ama -esan zion Xabik-, arratsaldeak aitararen auto barruan pasatzen ditugu, taberna aurrean.

- Arduratuko naiz ni horretaz -ebatzi zuen amak azkenean.

Zertxobait erlaxatzen hasi zenean ikusi zituen Xabik paper haiek guztiak mahai gainean, kolarekin eta guraizeekin eta plastikozko paperarekin batera.

Segituan ohartu zen zerbait arrarotan zihardutela, Jokinen argazki txikiak sakabanatuta zeudelako mahai gainean.

- Zertan ari zarete -galdetu zien Xabik- lotara joan gabe?

- Jokinentzat pasaporte bat egiten.

Argazkia aldatzea besterik ez zen kontua: argazki zaharra kendu eta berria ipini. Adrián Gómez zen pasaportearen jabea, «Nacido en San Sebastián, el 21 de septiembre de 1957, hijo de Genaro Gómez y Cecilia Martínez». Amaren trebezia liluragarria zen, errematxea kentzen ari zen.

- Nor da ba Adrian hori?

Zigarroaren kea jaurti bitartean erantzun zuen amak:

- Bere izenarekin zer egiten ari garen ez dakien norbait.

Gómez jaunaren argazkiari so egin zion Xabik, eta amak arrazoa zeukala pentsatu zuen, ezer ez zekienaren aurpegia zeukala alegia.

- Eta nora joan behar duzu horrekin? -galdetu zion Jokini.

- Arriskurik ez dagoen tokiren batera.

Enekoren aita atxilotu eta deportatu egin zuten. Telebistan eman zuten albistea. Emilioren argazkia atera zen zuri-beltzean.

Aita zutik zegoen telebistaren aldamenean, eta tarteka madarikazioen bat esaten zuen:

- Gabatxo putakumeak!

Cabo Verdera bidaliko zuten Emilio, beste errefuxiatu batzuekin batera, Espainiaren eta Frantziaren eta Cabo Verderen artean hitzartu berri zen akordio («acuerdo trilateral») bati esker. Horixe azaldu zuen telebistako esatariak: «Albiste ezin hobea da borroka antiterroristarentzat», ETaren kontrako Frantziaren konpromisoa agertzen baitzuen.

Xabik dena jakin nahi zuen. Zergatik atxilotu dute Emilio bezalako gizon jatorra? Zer gertatuko da bere familiarekin? Eta Enekorekin? Zer da deportazioa?

Autoaren azpian sartu zuen aitak burua, eta zerbaiten bila ibili zen une batez. Gero, eskuarekin hurbiltzeko agindu zien denei eta autoan sartu ziren. Autoaren haize-kontrakoa lausotu egin zen eta aitak garbitu egin nahi izan zuen esku ahurrarekin. Alferrik ari

zela konturatu zenean, Gotzoni eskatu zion zapia pasa zezan. Belztutako zapi zaharra hartu zuen Gotzonek, baina aitaren aurpegiaren aurreko zatia besterik ez zuen garbitu. Hatzarekin non gehiago pasatu behar zuen adierazi zion aitak: «Hor, beherago, eskuinera, hor, hor, gorago...».

Enekoren etxera iritsitakoan, pareko aparkalekuan utzi zuten autoa. Behinola eztanda egindako bonbak utzitako zuloa porlanez beteta bazegoen ere, ondo nabari zen betetzeko erabilitako masaren kolore ezberdina. Surf dendako erakusleihoa ere konponduta zegoen, baina denda itxita (nahi zuenean irekitzen omen zuen Bixentek).

Enekoren etxean dena zegoen hankaz gora, arropak nonahi, matalazak, maindireak, sukaldeko ontziak. Lurrikara jasandako etxea zirudien. Izaskun ez zegoen. Eneko bai, bere gelan, eta beste zenbait lagun ere bai, Xabik gerora jakingo zuenez Emilioren senideak zirenak. Helduek elkarri diosala egin zioten ahoa estutuz, Poliziak, Emiliorekin batera, hitzak ere eraman izan balizkie bezala.

Enekoren ondoan eseri zen Xabi, Nagorek lurrean zeuden liburuak jasotzen zituen bitartean.

- Joan egingo gaituk hemendik -esan zion Enekok-. Aitarekin joango gaituk.

- Benetan? Eta hik, nahi al duk?

- Nola ez diat ba aitarekin egon nahiko!

Isilik geratu ziren lipar batez, eta gero Enekok esan zuen:

- Ika-mika aritu dituk ama eta aitaren senideak. Amak ez dik joan nahi. Tira, ez dik ni joaterik nahi.

- Zergatik ez?

- Ikastolan jarraitu behar omen nikek. Ikastola munduko gauzarik inportanteena balitz bezala -irri txiki bat egin zuen-. Frantsesa zein zaila den jakingo balu!

Lagunak belarriak gorrituta zeuzkala ikusi zuen Xabik, larritzen zen guztietan bezala. Xabiri mila galdera bururatu zitzaizkion, baina bereziki bat: zer egingo dut nik Eneko gabe? Hori baitzen une hartan bere kezka nagusia. Baina horren orde, galdetu zuen:

- Abioiz joango haiz?

- Nola nahi duk, txalupaz?

- Urrun zagok, ala?

- 9 mila kilometrora.

- Nola dakik.

- Bazekiat.

- Ezin diat imajinatu zen den abioiz ibiltzea. Mundiala behar dik.

Gizon batek burua sartu zuen gelan:

- Hasi al haiz puskak biltzen?

- Ez.

- Ba hasi hadi.

- Oraintxe.

Lagunaren ohean pixa egin zuen egunaz oroitu da Xabi. *Xabi sesele pipi en la cam*. Nola gorrotatu zuen egun hartan Eneko. Baina beste oroitzapen argiago bat gordetzen du: Izaskunek hori eta gero prestatu zion kakao esnea. Oso ondo oroitzen da Izaskunen ile luze ederraz. Eta haren txeraz. Eta ez daki zergatik, baina ez du nahi Izaskun handik 9 mila kilometrora joan dadin. Munduan desio duen azkenekoa huraxe da. Baina badaki, halaber, Izaskunek eta Enekok aitari segituko diotela, hura nora haiek hara. Badaki ez dutela inoiz bakarrik utziko, amak eta beraiek aita utzi ez duten bezalaxe.

- Igual bisitan etorriko haiz inoiz -Enekok pentsamenduak irakurri dizkio.

- Imajinatzen?

- Bua!

- Ez zakiat zenbat balio duen abioiak. Asko balio al du?

- Pila bat.

- Handitan orduan. Lanean hasitakoan.

- Ordurako bueltan egongo gaituk.

Alde egiteko ordua ailegatzean, aitaren ahotsa entzun zuen, korridoretik zetorrena, bazihoazela esanez. Agurren garaia zen, baina Xabik ez zekien nola egin. Nola esan adio 9 mila kilometrora doan norbaiti?

Zutitu eta gelatik irten zen. Han zegoela, eskua altxatu eta agur egin zion lagunari. Besterik gabe. Laguna hantxe zegoen, ohean eserita oraindik, atera begira. Eskua altxatu zuen hark ere, eta agur esan gabe astindu zuen eskua airean.

Alabaina, sototik irten zirenean, Enekoren ahotsa entzun zuen, goitik zetorrela:

- Ugarte! -oihu egin zuen.

Eskaileretan behera saltoka zetorren, pausoak entzuten ziren.

- Tori! -esan zion.

Aitaren autoaren burdina zati errea zen.

Jendez gainezka dago plaza. Aldameneko gela ilun baten barruan aldatu dira dantza taldeko zortzi lagunak, pozik eta urduri. Lehen lerroan Xabirekin bikotea egingo duen neskak, Pantxikak, leihotik kanpora so egitean gaztigatu die:

- Ez da sinestekoa zenbat jende dagoen!

Arratibelek gerrikoa eta abarketako lokarriak estutu dizkio Xabiri. Dotore dagoela adierazi dio, baina Xabik bestela ere badaki dotore dagoela, ez dela bere bizitza osoan horren dotore jantzi. Ez da, noski, bere burua dotoretzat duten horietakoa, baina ezinezkoa da jantzi zuriz eta txaleko marradunez dotore ez egotea. Horregatik egiten du dantza Xabik, dotore egiteko, eta ez airean ibiltzeko.

Dantza egitea bere pasioa ez den arren, marka gisa jarri ohi du Arratibelek. Erantzukizun handia da, Pantxikak eta Xabik egiten dutena errepikatu behar baitute atzekoek. Aurrekoak okertzen badira, atzekoak ere bai.

Ezpata-dantza egingo dute lehendabiziko emanaldi honetan. Dantza erraza, zailtasun berezirik gabea.

Dantzaren amaieran ikurrinari bueltak eman beharko dizkio Xabik berak. Eta erraza da hori ere, ikusgarria izateaz gainera. Neska-mutilak belauniko makurtuta, eta ikurrina haien buruen gainean hegan, kolore gorri distiratsu horrekin...

- Nondik atera duzu txalekoa? -galdetu dio Pantxikak.

- Izeba Miruk egin du.

- Ez dago gaizki.

Ama eta anai-arrebak ez daude, Hegoaldera joanak baitira. Pena dauka Xabik, nahi luke haiek ere lehen saioa ikustea. Aita hortxe dago, ordea. Elkartetik atera eta dantzariak jende artetik igaro dira plaza-
ren erdira. Txaloka hartu dituzte. Txistulariak hasi dira, aurreneko pausoak pitin bat trakets egin dituzte, baina segituan konpondu dira. Aise egiten du Xabik, badaki zertan ari den. Ezin esan liteke bere buruarekin harrিতuta ez dagoenik, bizitzan lehen aldia baita jendaurrean halako zerbait egiten duela. Pantxikari so egiten dion bakoitzean, irriz itzultzen dio begirada.

Dantzaren amaieran ikurrinari itzuliak eman dizkio Xabik. Makila luzea du, astuna dirudi, baina ez da hainbestekoa. Airean hedatu da oihala, itsasoa balitz bezala. Txalo egiten dute denek.

Plaza utzi dutenean, festaren aurkezpena egin du esatariak:

- Agurtu ditzagun gazteak txalo bero batekin!

Bizkarrekoak ematen dizkie Arratibelek, Hendaiak, azkenik, bere dantza baduela ospatuz, eta honen estreinakoagatik zoriontsu.

- Oso ongi, kuadrilla!

Baina aita serio samar azaldu da elkartera.

- Goazen etxera.

- Ez gara pixka bat geratuko?

- Ez, ez. Etxera.

Autoa martxan jarri du, hitzik egin gabe. Zergatik ez du ezer esaten? Haserre dagoelako. Baina zergatik dago haserre? Ama eta anai-arrebak Hegoaldean dardelako agian. Litekeena da.

Etxera ailegatu direnean aitak zakar esan dio:

- Ez diat nire bizitza osoan inor horren trakets dantza egiten ikusi.

Aitaren ateraldi klase hori ezaguna ez balu, txanxetan ari dela pentsatuko luke Xabik, hain ezustean harrapatu du!

Ondoren aita komunera joan da eta eskuak garbitu ditu.

Horra, erraza izan da. Bi segundo aski dira gauzarik terribleenak esateko. Ez da zertan hitzaldia luzatu behar. Laburtzeko gaitasuna da hori. Esan eta kito. Orain ulertzen du aitaren isiltasunaren misterioa. Aitak pisu bat zekarren bizkarrean eta, etxean sartu orduko, zama semearen eskuetan jartzea erabaki du. Orain zama semearen bizkar gainean dago, baina semeak ez daki zer egin dezakeen harritzar horrekin.

Lapikoa sutan jarri du aitak. Xabi sukaldearen erdian dago, zer esan ez dakiela. Dena da zama berarentzat, horregatik ezin du mugitu.

- Ken itzak arropa horiek!

Xabi bere gelara abiatu da goibeldurik, baina iritsi denerako ahaztu zaio zertara joan den, eta ohe gainean etzan da. Beste oin batzuk nahi lituzke, hobe dantzatzeko moduko oin mekaniko batzuk. Lotsatuta dago, baina ez dantza gaizki egin izanagatik, une batez, sikiera une batez aurkakoa pentsatu izan delako baizik. Nolatan izan da hain harroa? Bere burua irudikatu du plazatik airos ateratzen, txalo zaparradaren ezta dastatzen. Eta orain izakirik txikiena sentitzen da: nola uste izan du loria hura bere dantza kaskarrantzat izan dela?

Astehenean, dantza taldea utzi egin behar duela esango dio Arratibeli.

- Ez, ez, ezin gaituk utzi, Xabi, hi haiz gure marka!
- Ezin dut jarraitu.
- Nolatan?
- Ezin dut.
- Adarra jotzen ari haiz.
- Ez naiz txantxetan ari.
- Zertara zatorrek zaputz hau?
- Ezin dut segitu, esan dizut.

Astehenero dantza eskolara joateko itxurak egin zituen Xabik. Etxekoek uste zuten dantzan segitzen zuela, baina Xabi Txingudi badiara joaten zen, hango zuhaizti batera, zaharrak beren zakurrekin paseatzen eta maitale nerabeak elkarri musukatzen ibiltzen ziren toki bakarti hartara. Hantxe, aldamenean, Mundu Geran aberriaren alde eroritakoen oroigarria dago, «Morts pour la patrie», eta zirrara sentitu zuen Xabik, jakin arren monumentuan aipatzen den aberria ez zela berea. Izenak irakurri zituen: Robert Abadie, Joseph Marie Agirre, Jean Alzate... Aurrera segitu zuen Txomin Elizegiren izenaren bila, nahiz eta argi eduki Txomin ez zela Frantziako aberriaren alde hil. Ez zekien zergatik, baina zerrendan Txominen izena aurki-

tzea espero zuen. Elizaburu abizena bai, baina Elizegiren arrastorik ez. Eta halako batean Elizegi ordeztua berea topatu zuen: Ugarte. Manuel da harriaren zizelketa dagoena, Manuel Ugarte, eta orduantxe ohartu zen ez zela inoiz bere aitona hilaz akordatzen. Luze jardun zuen haren izena oroitzeko ahaleginean; baina, nahi gabe, gogoan aitarengana joan zitzaion, eta lehenengo eguneko eszena berri zuten... «Goazen etxera»; eta aita hitzik esan gabe autoan, eta aitaren gaitzespen zakarra etxean: «ez diat nire bizitza osoan inor horren trakets dantza egiten ikusi». Zer esan nahi ote du dantza *gaizki* egitea? Bere burua ikusten du berriro, plazaren erdian... Arratibelek irakatsitako pauso simple haiek errepikatzen, eta berak eskuineko hanka altxatzen duenean gainerakoak ezkerrekoa altxatzen. Saiatzen da pausoa bere onera ekartzen, baina beti ari da okerreko hankarekin. Plazan barrez ari dira denak, atzamarrez seinalatzen Xabiren pauso beti desegokiak.

«Aux Héros Hendayaises de la Grand Guerre», irakurri zuen harriaren. «Grand Guerre». Ba ote da gerra txikirik?

Dantza utziz geroztik gehiago estutu zuen Gotzonekiko harremana. Gotzoni ez zitzaion dantza gustatzen, «folklore hutsa» zelako, «tradizionalisten kontua». Eta Xabik berdin pentsatzera behartu zuen bere burua. Erabakita zeukan hori bera esango ziola jendeari:

- Utzi nion, bai, dantza egiteari. Tradizionalisten kontuak dira horiek -tradizionalistak zer ziren arrastorik ez zeukan arren.

Eta hala iritsi zen anaiarekin estreinakoz kontzertu batera joateko aukera (etxean gezurra sakatu eta gero). Oinez jaitsi ziren Oriotik Donibane Lohizunera-ko errepidera, kasik mugaraino, eta auto-stop egin zuten. Urruñarako malda igo zuten, poliki-poliki, tarteka atzamarra erakusten zutela. Oinez ordubete inguru zeramatenean geratu zen furgoneta bat. Hegoaldekoak ziren, musikariak. Kontzertura zihoazen haiek ere.

- Jotzera?

- Ez, ikustera.

Xabik ezin zuen sinetsi halako zortea izan zezaketenik.

- Zein taldetakoak zarete? -galdetu zuen Gotzonenek.

- Zaramakoak.

- Zaramakoak?

- Bai.

- Ostia!

Xabik ez zekien Zaramakoak zeintzuk ziren, baina anaiaren harridura eta ezusteko berbera azaldu zuen, begiruneagatik. Zaramako batek zigarreta eskaini zion Xabiri, eta honek hartu egin zuen. Eztulka erre zuen, bularrak eztanda egingo ziolako beldurrez, anaiaren zeharkako begirada salatzailea sentitzen zuela.

Gauetz ailegatu ziren kontzertua izango zen fabrika zaharrera eta, belardi batean autoa utzita, jende multzoa zegoen aldera hurbildu ziren, litroko garagar-
doak edanez. Batzuek gandorrek zituzten, beste batzuek galtza tirantedunak. Mahukarik gabeko elastikoak, koloretako ileak, larruzko botak, larruzko jakak. Askok eta askok margotuta eramaten zituzten jakak: «A» bat zirkulu batean bildua, «Punk's not dead», «Sex Pistols», «UK Subs».

Zaramakoak normal samar janzten ziren, oihalezko botinekin eta galtza bakeroekin, baina garbi. Bes-

teen aldean airos. Gotzonek ere itxura hori eramaten zuen gutxi gorabehera: punk txukunarena. Xabi zen joko hartan aparte zegoen bakarra, txandalarekin. Zaramako musikarietako batek jaka bat utzi zion, bomber bat. Ez zekien jaka betiko utziko ote zion. Eta hala bazen!?

Kontzertua hasi aurretik norbaitek garagardoa paratu zion eskuan. Hurrupa bat lapurtu zion botilari, eta harrotasunak ez zion garraztasuna sentitzen utzi. Hala ere, hurrengo tragoak sudurretik arnasa hartu gabe edan zituen, zaporea ekiditearren.

Neska batek frantsesez hitz egin zion, mutil ederra zela esateko. Ziklisten prakez jantzita zihoan, ileak gorritz tindatuta. Zu bai neska ederra esango ziokeen, zoruan zuloa egin eta han ezkutatzeko gogoak utzi izan balio.

- Merci.

- Merci! Qu'il est mignon!

Hordituta sentitzen zen Xabi, nahiz eta ikuskizun hark bazuen zerbait legez kontrakoa. Edozein unetan aita azaltzera joango balitz bezala. Mutil bat lurrean eserita, burua belauen artean makurtuta. Beste bi mutil borrokan. Botila bat airetik, mirariz inori jo gabe

horma baten kontra lehertu zena. Morrosko bat elastikorik gabe, bizkarrean tatuaiak zantar bat erakusten.

Kontzertua hasteko orduan, lagun talde baten barruan zegoela ohartu zen Xabi, eta Gotzonek nonbaitetik ezagutzen zituela. Txantxak egiteko maneran antzeman zitekeen, eta elkarri jotzen zizkioten bizkarrekoengatik. Punkiak zaratatsuak baitziren, eta zabarrak, baina lagunkoiak era berean. Txukun jantzen zen jendea baino arretatsuagoak ziren Xabirekin. Eta horrek poztu egin zuen, eta pozak egarria eman zion, eta gero eta hordituago sentitu zen.

Berurier Noir taldekoak oholtzan agertu zirenean eztanda egin zuen fabrikak. Zaila zen nork kantatzen zuen jakitea. Hamaika lagun zeuden oholtza gainean, denak pailazoz mozorrotuta. Ez ziren ohiko pailazoak, ordea, beltzez eta arropa zaharrez jantzitako pailazoak baizik. Batek sua botatzen zuen ahotik, besteak sekulako saltoak egiten zituen.

- Apache! Apache! -orro egiten zuten.

- Apache! Apache! -jendeak arrapostu.

Dantza moldeak ez zuen teknika berezirik eskatzen, nahikoa zen aldamenekoari bultza egitea, baina itxura eginez. Bultza gabe bultza egitea, alegia.

Beste garagardo bat.

Neska ile gorriak atzetik harrapatu zuen Xabi. Be-soekin inguratu zuen eta musu eman zion. Bizitza osoan sentitutako zirrara handiena. Musikak une batez alde egin eta zarata desagertu izan balitz bezala. Neskaren haragi hezearen igurtzia zen bere gorputzarekin lotura zeukan gauza bakarra. Beste guztiak soberan: eztarritik sua jaurtitzen zuen gizona, lurrean etzanda gitarra jotzeko kapaz zen beste hura, oholtzara igo eta handik salto egiten zuten dozenaka gazteak... Irrealak zen dena.

Orduan neskak sorbaldetatik heldu eta birarazi egin zuen Xabi.

- Ez didazu musu bat emango?

Kontuz: emakume bat. Emakumeek sexualitatea daukate. Garatua, esan nahi baita.

Musuak, hortaz, ez zuen bere bizitzako beste musuek izandako zigor gabetasun berbera izango. Amaitu zen musuak jolasa ziren garaia. Musu serioa zen neskak eskatzen ziona. Eta hain zuzen, seriotasun horrek liluratzen eta izutzen zuen Xabi. Baina irrika gailendu zitzaion lilurari, eta musu eman zion... musu txiki eta labur bat.

- Ez, ez, horrela ez -esan zion neskak-, pas comme ça.

Oin puntetan jarri behar izan zuen Xabik, eta neskak nahi zuen bezala eman zion, ezpainak ezpainen kontra, ezpainen zaporea sentituz. Neskak mihia ahoan sartu zionean erotu egingo zela pentsatu zuen. Korrika alde egiteko tentazioa izan zuen. Zorabiatuta zegoen. Dardara moduko bat zuen belaunetan. Baina ez zuen alde egin nahi. Hantxe gelditu zen. Eta, nola ongi jakin gabe, berak ere neskaren ahoan zeukan mihia. Une gozo horretan Xabik denbora ere izan zuen zertan ari zen pentsatzeko. «Nire lehen musua ematen ari nauk!». Eta baita ere pasadizo hura nola kontatu behar zuen erabakitzeke: «Hik ez dakik zer den emakume bat musukatzea, haren mihia hire ahoan sartzea. Hik ez daukak ideiarik!».

Garagardoari tragoa lapurtu zion, eta ez zen esan gabe geratu:

- Utziko al didazu beste bat ematen?

Neskak algara egin zuen, eta baietz esan zion, nahi zituen guztiak eman ziezazkiokeela. Zer gehiago eskatzen ahal zion bizitzari? Polita zen hordituta egoitea, erabakirik hartu behar ez izatea. Eraman egiten zuten batetik bestera, edatekoa ematen zioten, erretzekoa. Eta tarteka suge-musu luze bat.

Kontzertua amaitu zen eta kanpoko freskotasuna sentitu zuen Xabik. Petril batean eseri eta hantxe egon ziren berriketan. Gero auto baten barruan zegoela konturatu zen. Eta handik gutxira, lastaira baten gainean, lotarako prest. Neska bilatu zuen bere aldamenean, baina neskaren ordeztu Gotzon zegoen, aho zabalik lo.

Biharamunean supituan esnatu zen, ikara batean. Eskua maindire gainean jarri eta bustita sentitu zuen: txiza egin zuen!

Anaia esnatu eta gertakariaren berri eman zionean, lasaitasun harrigarri batez hartu zuen berria:

- Lasaitu hadi, *hermano*, ez duk hire errua.

Matrailezurak zorroztuta zituen ile nahasiko punki baten etxean zeuden.

- Mihiseak kanbiatuko ditiagu eta kito -esan zuen Xarl izeneko hark-, t'inquiète pas.

Xarlek bateria jotzen zuen. Kontzertu batean eza-gutu zuen anaia. Giro ona zeukaten haien artean, baina ez zen arraroa, mundu guztiak baitzeukan rolo ona Gotzonekin. Frantsesez hitz egiten zuen. Horrela ikasi zuen Gotzonek frantsesa horren azkar, lagun guztiak zituelako frantziarrak, alprojak!

Gosaritarako tomate zukua atera zion Xarlek. Haiek garagardoa edan zuten. Beldur zen Gotzonek ez ote zion denen aurrean adarra joko neskarekin musutan ibili izanagatik. Baina Gotzon mutil fina zen, bazekien noiz jo zezakeen adarra eta noiz komeni zen isilik egotea.

Etxera bueltatzeko errepide bazterrean jarri zirenean, Gotzonek atzamarra atera zuen eta esan zion:

- Ez duk bidaia hau erraz ahaztuko, *finolis!*

Xabik bazekien autoetako jende guztia zihoala bere jaka berriari begira. Ezin zien ezer leporatu. Munduko jakarik ikusgarriena baitzen.

Lepoan orbana zeukan amari oparitu zioten zakur-
rarak. Lepo jarri zioten izena. Zakur arrunta zen, hamai-
ka arrazaren arteko nahasketa horietakoa, eta nahiko
txoriburua. Gehiegizko poza eta grina zeuzkan, ez
zuen jaramonik egiten, eta etxean kaka eta txiza egi-
ten zituen. Goizetan kaka mokordoz josita egoten zen
egongela. Sinesgaitza zirudien zakur bakar batek ho-
rrenbeste kaka egin zezakeenik. Eta hori arazo ikara-
garria bilakatu zen Xabiren buruan, noizbait azaldu
baitzitekeen Oihana.

Gorroto zuen etxe utzi eta likits hartan bizitzea. Ez
zen bere maitearentzako etxe duina.

Ordura arte Oihana ez zen etxean inoiz azaldu,
ezta txirrina jo eta ea jaitsiko ote zen galdetzeko ere.
Behin edo behin etxe inguruan ikusi zuen, beti ibiltzen
baitzen auzoan bizikletaz, eta kasik ezinbestean pasa-
tu behar baitzen etxe paretik, baina Xabiren buru la-
rrituan ezer ez zen kasualitatea, eta Oihana handik
pasatu bazen esan nahi zuen akaso egunen batean
txirrina joko zuela, eta sartzean kaka hura guztia iku-

siko zuela lurrean barreiatuta. Eta orduan bai, orduan bere esperantza oro galduko zen.

Beldurak erasanda, goizetan ahalik eta lasterren altxatzen zen, eta banaka-banaka kaka mokordoak jasotzen zituen. Gero fregonarekin igurzten zuen lurra, eta ondoren balkoiko ateak zabaltzen zituen, lurra lehortu eta kiratsa joan zedin.

Gorroto zuen arkakusoz betetako zakur kirten hura. Eta are gorrotagarriagoa egiten zitzaion haren poz betierekoa, haren esker on neurrigabea. Xabik esperantza zeukan zakurrak kaka etxetik kanpo egiten ikasiko zuela, eta zakurra ateratzen zuen, kaka etxetik kanpo egin zezan. Zakurrak saltoka agurtzen zuen eta harramazka egiten zion maitasuna agertzearren. «Bale, Lepo!», esaten zuen Xabik, eta gaintetik kentzeko bultza egiten zuen, baina zakurrak ez zuen errefusatzeko hura ulertzen, eta hortxe segitzen zuen bere mihi arrosa airean dilindan zuela eskerrak ematen.

Ateratzen zen eta batetik bestera zokoak usnatzen hasten zen. Orduak pasatzen zituen zakurrarekin batera eta bestera. Baina ezer ez. Nola egingo zuen ba ezer, dena gauzez egina bazuen!

Egunero gauza bera.

Lepo izatearen abantaila zen, Oihanaren etxearen inguruan disimulurik gabe kuxkuxean ibil zitekeela, eta neska leihora irtenez gero harekin hizketan gera zitekeela. Baina neskaren aita, Tomas, gizon zorrotza zen, eta ez zuen alabak ikasteko tenorean denbora galtzerik nahi, eta leihora irtetea galarazia zion. Askotan elkarrizketak erdian uzten zituen Oihanak, eta kolpean ixten zuen leihoa. Hormaren kontra itsatsita geratzen zen Xabi, ezkutuan. Handik bi edo hiru minutu-ra Oihanak burua ateratzen zuen:

- Hor zaude?

Xabi ez zen mugitzen.

- Hor al zaude? -berriz.

Hain zen musika goxoa, «hor zaude» hura!

Aitak batzuetan alboko gelako leihotik burua ateratzen zuen, baina ez zuen sekula Xabi harrapatzen, azkar ezkututzen zelako hormaren kontra. Gizonaren arnasa entzun zezakeen, animalia bat bezala usnaka.

Enkontru haietatik esperantzaz beteta itzultzen zen Xabi, legearen mugaren bestaldea neskarekin konpartitzeak gehiago lotuko zituelakoan. Baina gero bizitza erreala ailegatzen zen neskaren absentzia luze haiekin, eta berriz zapuzten ziren bere ilusio antzu guztiak.

Auzoan bueltak ematen eta pilotalekuan zain egoten zen Xabi goiz-goizetik. Batzuetan Oihana ikusi gabe joaten zen bazkaltzera, eta bazkaldu bezain laster leihoan geratzen zen hura handik noiz pasatuko, eta zain egoteaz gogaitzen zenean, etxetik irteten zen berriz, inoiz akitzen ez zitzaion esperantzarekin.

Oihanak, aldiz, irten orduko aurkitzen zuen Xabi, irten orduko Xabiren mila begietako batek ikusten zuelako, pilotalekuan ez bazegoen etxaurrean egongo baitzen, edo bestela bere etxeko leihoan, zelatan edo zain.

Kontzertuaren ondoren Oihanarekiko sentimenduak aldatuta zeuzkan, gainera. Jada ez zen hura ikustearekin asetzen. Desioa ate joka sentitzen zuen, eta sentimendua areagotu zitzaion etxean Imanol kantariaren *Mea culparik* ez diskoa aurkitu zuenean. Agian Jokinena izango zen, baina ez zegoen seguru. Gauza seguru bakarra zen, diskoaren azalean bularrak airean eta mahatsak eskuan agertzen zen neskatilari ezin zizkiola begiak kendu. Gorputz mehar gihartsua zeukan, emakumetu aurreko une lausoan, haurtzaroren eta heldutasunaren arteko marra finean. Eskuineko eskua beherantz utzita zeukan, baina dotore, ballet dantzari batek bezala. Zizelkaturik agertzen ziren

giharrak haren haragi herdoil kolorekoan, eta bereziki hunkigarria zen pelbisetik gerriraino zihoan gihar fina, zeina zauria irudi baitzezakeen, edo pintzelada perfektu bat. Baina zinez erotzen zuena bere kuleroen azpiko haragi hanpatua zen, argiaren maisutasunari esker ñabardura sentsual guztiekin ageri zena, kafe ale bat bezala, bi muinoetan banaturik.

Nahiko zukeen kitzikatuta sentitu, baina mina zen nabaritzen zuena. Ukoa. Neska hura bere besoetan sekula izango ez zuen segurtasun gorrotagarria.

Diskoaren atzealdean ageri zen argazkilariaren izena: JM Zabala. Aitak bezala izena zuen agian, Joxemari, edo beharbada John Milford, edo halako izen ingeles bat. Izen hori gustatu zitzaion: John Milford Zabala.

Etsipena handiegia zenean soraio etzaten zen ohean, eta Jokinek oparitutako Beatlesen musika jartzten zuen. Bere logela familiarra egiten zitzaion, zirrikitu guztiak ezagutzen zituen, eta ezagutza hark gogaitu egiten zuen. Leihotik zintzilikatutako gortina parpailadunak, lorez apaindutako hormako paper beilegia, atearen helduleku inguruko zikinkeria lausoa. Horregatik, nahiago izaten zuen ahuspez egon, burua

burusiaren kontra. Arropa garbitzeko leungailuaren usaina gustatzen zitzaion.

Beatlesen kanteak mundu ezkutu bat iradokitzen zioten, eta mundu ezkutu hura iruditan jartzen saiatzen zen arren, apenas lortzen zuen ezer ekartzea. Zirkuko pertsonaiak ziren gehien irudikatzen zituenak, pertsonaia mozorrotu eta irrealak. Kutsu horixe zeukaten diskoko doinu eta zarata eta intziri horiek guztiek: zirkukoa. Baina ez zirku xalo eta zuri bat, zirku arriskutsu eta misterioitsu bat baizik.

Musikaren irrealtasuna eta Oihanarekiko desira nahasten zitzaizkion bazkal osteko tenore amaigabeen, ohean etzanda gelaren zirrikitu guztiak milagarrenez begiratzen zituenean. Aho biko ezpata zirudien sentimendu itogarri hark: heltzen zion tokitik heltzen ziola, beti min egiten zion.

Osabaren bisita ustekabekoa izan zuten ikasturtea amaitutakoan. Aitaren antza izanagatik, dotoreagoa eta tenteagoa zen, eta ez zuen buru soildua estaltzeko ile xerloa trabeska orrazten. Alde ederra. Renault 25 beltza zeukan, atea itxi gabe martxan jartzean telebistako Kit autoa bezala mintzo zena, gaztelaniaz, atea irekita zegoela abisua emanaz. Ispilutik zintzilik danbor txiki bat zeraman, ikurrinaren koloreak osatzen zituzten xingolek apaindua. Eta auto barruko lurrin fresko hura, limoiarena zirudiena.

- Baina nolatan mintza daiteke auto bat, osaba?

-Xabik ezin zuen jakin-mina ezkutatu.

- Konputagailua zaukak barruan -erantzun zion osabak, aginte-mahaiari esku zarta txikiak joz.

Frantziako Tourra Iratiko basotik pasatzekoa zela-eta, artean eguna argitzeko zegoela azaldu zen osaba. Txirrindularien pasaera ikustera joateko gogoia Xabik baizik ez zuen agertu, Gotzonek eta Nagorek *paso* egingo zutela esan zuten. Ogitartekoak prestatzen laguntzeko jaiki zen ama. Osabak botila ardoa eta ogi labetik atera berriak mahai gainean utzi eta bi

musu eman zizkion amari. Ikustez asko pozten zela esan zion birritan, gazte eta eder zegoela. Aitak ardoa eskuetan hartu eta etiketari erreparatu ondoren sukaldera abiatu zen patata tortillen martxa zaintzeko.

- Faustino duk -esan zuen osabak.

- Bazakiat irakurtzen -erantzun zion aitak sukaldetik.

Aitaren atzetik sartu zen ama sukaldean.

- Utzi -entzun zen-, neuk egingo dut.

Sukaldeko markoaren atean eskua jarri zuen osabak:

- Ez ezak enbarazurik egin, Joxemari.

- Laguntzeko esaten zidak beti, eta laguntzen hasten naizenero, apartatu egiten naik!

Aspaldi zen Xabik ez zuela aita horren aldarre oneko ikusten. Agian hari ere poza emango zion osabaren Renault 25 *Automatic*-ean bidaiatzeak.

Enbragea sakatu gabe sartzen zituen osabak martxak, aldiro martxaren zenbakiaren alboan zenbaki bat pizten zela. Horregatik, eta txirrindulariak ikusi nahi zituelako, Xabik ez zuen zaputzik hartu bidaiari bizpahiru ordu eman beharko zituztela jakitean. Bizitza emango zukeen espazio-ontzi aparteko haren ba-

rruan, autoaren oharrak entzuten eta argien dirdirari so egiten.

Goizalban iritsi ziren Iratira. Poliziaren kontrol batek egin zien harrera. Aita eserlekuan uzkurtu zela ikusi zuen Xabik. Osabak leihoa ireki zuenean, mendatea itxita zegoela esan zien poliziak, autoa behean utzita oinez joan beharko zutela gorantz, gora joan nahi bazuten. Jendarme jaunaren sonbreiruaren apaingarri urre kolorekoak gertutik ikusi zituen Xabik. Harrigarriagoa iruditu zitzaion, ordea, puntetan biribiltzen zen poliziaren bibote zirku itxurakoa.

Mahai eta aulki tolesgarriak eta poltsak hartuta abiatu ziren maldan gora, eguzkia zuhaitzen artetik sartu eta errepidea argiz betetzen zuela. Belar busti usaina zegoen, autoak bide bazterrean lo, banderak eta animo hitzez betetako pankartak gainean paratuta zeuzkatela: «Allez Hinault».

Zabalgune batean geratu ziren, maldaren puntu hartara txirringulak nekatuta eta, beraz, motel eta sakabanatuta ailegatuko zirela iritzita. Xabik barraskiloen pare imajinatu zituen karreristak, malda piko hartan barruak husten. Zaintzaren luzea arintzeko kartak atera zituzten, txintxonean aritzeko. Tarteka aitak eta osabak lasterketari buruzko pronostikoak egiten zituz-

ten, eta biak zeuden Cabestany izeneko batekin ilusio-
natuta, hura ordurako etapa bat irabazitakoa izaki, Ev-
reux izeneko herririka batean. Lantzean behin eskua
burura eramaten zuen Xabik, Fagorreko txanoa ba ote
zeraman egiaztatzearen. Ez zuen karrera aurretik pa-
satzerik nahi bera txanorik gabe zegoela.

Bazkaldu zituzten tortilla ogitartekoak, eta zati bat
ziklistentzat gordetzeko eskatu zion aitak Xabiri, txan-
txetakoa zirudien doinuan. Osabak barre egin zuen.
Baina Xabik zati bat bildu zuen, baten batek eskutik
hartu eta jateko baliatuko zuelakoan.

Lehen ziklista ikusi zuten, elastikoan Panasonic-
Shell idatzita, atzetik motor bat zekarrela. Bizikleta ur-
dinean maldan beheara zihoala zirudien, zeraman abia-
darekin, nahiz eta sudurretik beheara izerdi tantak isur-
tzen zituen. Oinekin intxaurrak apurtzen balioa beza-
la, indarrez sakatzen zituen pedalak mutil ile horiak,
eta menda usaineko arrastoa utzi zuen urrundu ze-
nean.

Haren atzetik beste bizpahiru etorri ziren, are
abiada biziagoan, eta osabak oihu egin zuen:

- Hor dator Lucho Herrera, begira egiozue! -bel-
tzaran txiki hura aspaldiko laguna balu bezala.

Café de Colombia irakurri zuen Xabik karreristaren elastikoan. Lucho izena omen zeukana zutik jarri zen orduan bere hanka lur kolorekoen gainean, eta ugar-tetarrei so egin zien zeharka. Airean zihoan aurrekoaren bila.

Handik puska batera etorri zen tropela. Ezinezkoa zirudien burdinazko engranajeen zarata egiten zuen karrerista saldo haren erdian inor bereiztea, baina aitak eta osabak tarteka izenak oihukatzen zituen: Hortxe doa Hinault! Hantxe Gorospe! Begira Perico Delgado! Kolore biziko masa bat baizik ez zuen ikusten Xabik.

Tropela igaro orduko ohartu zen Xabi, zilar pape-rean bildutako tortilla eskuetan zeukala. Eta harekin zer egingo ote zuen hausnarrean ari zela ikusi zuen oraindik bazetozela beste karrerista batzuk, moteltxo-ago. Sisteme U idatzita zeraman sudur handiko ziklis-ta bati eskaini zion, hark erregua zirudien soa egin ziola konbentzituta. Karreristak tortilla zatia hartu zuen, baina handik metro gutxira, bide bazterrera bota zuen berriz.

Etixerako bueltan gertatu zen aitaren eta osabaren artekoa. «Bordeaux 121» zioen panela ikusi zuen

Xabik, eta aurrean osaba entzun zuen «gutunaren kontua» aipatzen.

- Gutun bat bidali zidatek.

- Banengoen ba ni -esan zuen aitak.

- Zer esan nahi duk?

- Halako batean agertu haiz, hiru urte hire berririk izan gabe. Eta ez haiz alferrik agertu. Hik ez duk inoiz ezer alferrik egiten.

- Nireztat ez duk samurra izan.

- Nireztat ere ez.

- Ez nauk horregatik bakarrik agertu, ongi dakik.

- Ez diat hitz erdirik sinesten. Nahi nitek, baina ezin diat.

- Nik ezin nian hiregatik deus egin. Hik egin deza-
kek ordea.

- Oker habil. Ezin diat.

- Nolatan ezin duk?

- Ez diat nahi. Ez diat gezurrik esango.

- Hire anaia nauk, Joxemari.

- Hik zer uste duk, erakundeak bulego bat dauka-
la, harrera gelarekin, idazkariarekin eta halakoekin,
halako eskariei kasu egiteko? Zer mundutan bizi haiz?
Hi, zera bidali baditek, ordain ezak eta akabo arazoa.

- Ezagutuko duk haiengana iristeko modua...

- Hi, mekaguendios, ez daukak arazorik hilero-hilero etsaiari hire zergak ordaintzeko, eta halako eragozpenak dauzkak hire herriaren alde berdin egiteko? Eta hi abertzalea haiz?

- Ni ez nagok zuen alde. Ez nauk sekula egongo.

- Inork ez dik halakorik eskatu. Espainiako Armadaren alde al hago? Ez. Baina ordaintzen diek. Eta ez ezertarako, ojo! Euskaldunen ehizan ibil daitezen ordaintzen diek.

- Baina ez diat irtenbiderik! Nik enpresa bat zaukaat, langileak, nominak... Legearen aurrean makurtu behar diat!

- Ba aplika ezak printzipio hori kasu honetan ere.

- Ni ez nauk zuen armak erosteko lanean ari, entenditzen didak?

- Lanean? Hik inoiz lanik egin al duk ba? Zer duk hiretzat lan egitea? Makina bat lan ezagutzen diat, eta langile asko ere bai. Eta sinets egidak, hi ez haiz langile bat. Horrexegatik daukak auto... kalakari hau.

Osaba isilik geratu zen une batez, burua aldeetara astintzen.

- Ezin diat sinetsi. Enpresa bat jaso besterik ez diat egin, eta orain mehatxuka zatozte nigana. Eta gainera hau agoantatu behar diat.

- Heuk jaso duk enpresa? Esan iezadak, Joxemigel, noiz ukitu duk hik adreilu bat hire bizitza santuan? Enpresa jaso egin behar duk, jakina. Eta bertan lan egin behar dik norbaitek. Eta horiek dituk langileak. Eta horien alde ari gaituk gu. Hire aberastasunaren zati bat eskatu diagu... Beno, eman ezak eta bakea. Ez haiz kale gorrian geratuko.

- Hire lagunak dituk, Joxemari...

- Lagun asko ditiat, eta lagunak ez direnak era bai makina bat. Baina ez nauk inorengana kontu eske joango, hortaz segur egon. Sentitzen diat, baina ez nauk joango.

- Ez daukak lotsarik.

- Ez hadi pasatu -boza goratu zuen aitak-. Nik lotsa handia zaukaat. Handia gainera. Berrogei urtean ez gintuan kapaz izan diktadore putaseme hura botatzeko. Askok lotsatzen nauk horregatik. Ezin diat esan nire herriaz eta nire aberriaz harro nagoenik. Orain behintzat zerbait egiten ari gaituk. Agian oker gabiltzak, deakuerso. Baina zerbait egiten ari gaituk behintzat. Eta jende askok galdu dik bizitza dagoeneko. Askok!

- Hiltzean espainiarren pare jartzen ari zarete. Ez zarete konturatzen, baina hala duk. Lehenago behin-

tzat argi zegoen nor zen hiltzailea eta nor zen hildakoa. Orain ez. Orain denak zarete hiltzaileak.

Hatza osabarengana zuzendu zuen aitak.

- Eta hi? Hi zer haiz? Hi haiz auto beltz batean ikusle bizi den jaun dotorea, gutuna jaso orduko anaiarengana laguntza eske datorrena. Orain arte futbolearen bezala aritu haiz, partiduari kanpotik begira. Baina orain barruan hago, eta horretaz jabetu behar duzue. Eta gerra ez duk kontu polita.

- Ez al haiz hire diskurtso horrekin aspertzen? Benetan, ez diat sekula horrenbeste lerdokeria entzun.

- Begira. Hi alemaniarra bahintz eta Alemanian gerra piztuko balitz, hik frontean egon behar huke, bala eta bonba ekaitz handi baten azpian. Eta berdin beste edozein herrialdetakoa bahintz ere. Gerra pizten duk eta gizonak frontera joaten dituk. Baina gu ez gaituk herri serio bat, gu autonomia bat gaituk, eta horregatik ez hago frontean. Bizitza eroso daukak, patxadaz bizi haiz, pilota partidak ikusten dituk eta apustutan aritzen haiz. Nik ez diat hire bizitza inoiz kritikatu. Hire aukera duk. Baina gerrak hire atea jo dik, eta nik ezin diat ezer egin hori aldatzeko. Fronteko esperientziaren aldean, oso zorionekoa haiz. Pentsa ezak hori.

- Ni gerren aurkakoa izan nauk beti. Ez diat uste gerrarekin ezer konpon litekeenik. Eta bik ez ditek gerrarik egiten, biek nahi ez badute. Gu herri eredugarria izan gaituk horretan. Imajina ezak munduko herrialde guztiak geurea bezalakoak balira! Horixe duk nire munduaren eta bizitzaren ideia. Gaixotu egiten nauk armak erosteko inori ezer ordaindu beharko diodala pentsatze hutsarekin.

Aitak zigarro bat piztu zuen eta, zerbait esatera zihoala zirudienean, isilik geratu zen. «Bayonne 17» jartzen zuen panelean. Handik aurrera ez zuten beste hitzik egin.

Norbaitek atea zabaldu duela sumatu du Xabik. Ahots batzuk entzun ditu eta, begiak zabaltzean, gizon bat ikusi du. Begira dauka. Baina berriz lo geratu da. Norbaitek ozen hitz egin du, astiro zabaldu ditu begiak, orain bi dira ikusten dituen gizonak, baina loak eraman du berriz.

- Lève toi! -entzun du, oihuka ari zaizkio.

Orduan ikusi ditu pistolak gizonen eskuetan. Laruzko jakak dituzte, xingola laranja besagaintan, *Police* hitza idatzita. Salto batean jaiki da Xabi, eta gizonen aldamentetik korrika joan da egongelarantz.

- E!, o! -egin du oihu gizonetako batek.

Korridorean beste bi gizon daude, haiek ere pistolak eskuetan. Bietako batek besoak zabaldu ditu, haurra gelditzearren, era kasik jostalarian, eta bekainak harriduraz goratu ditu hanken azpitik Xabik ihes egin dionean. Beste poliziak barre egin du.

Nagore eta Gotzon sofan eserita daude, anaiari so egin diote azaldu denean.

Besaulkian gizon burusoil bat dago, galtzerdi gorriak dituena.

- Eser zaitez hor -agindu dio burusoilak, sofa era-kutsiz.

Hankak dardara batean sentitu ditu, baina ez dauka haiengatik kezkatzeko denborarik, Gotzon hizketan ari baitzaio, ia hamar minutu daramatela poliziek etxean, bera ahaztuta utzi dutela ohean.

Isiltzeko agindu die burusoilak.

Egongelako mahaian aita dago, eta irudi luke aldamenean makinaz jotzen daukan gizonarekin lagunarteko hizketan diharduela, eskuak bizkarrera lotuak ez balitu. Hatzak mugitzen ditu aitak, esku ahurretan azkura balu bezala. Xabi gelan sartzen sumatu duenean begiratu du, baina ez daki zer den esan nahi diona.

Zigarreta bat eskatu du aitak. Burusoilak, zeina orain balkoiko leihoan dagoen, zutitzeko esan dio Gotzoni. Emateko aitari erretzen. Zigarreta ahoan jarri dio semeak, txiskeroa piztu du bere aurrean, eta aitak indarrez sakatu dio.

Egongelako hiru poliziak begira dituzte aitak eta seme-alabek, biak ere gero eta trinkoagoa den ke laino baten barruan.

Poliziak aitari zenbat seme-alaba dituen galdetu diola esan dio Nagorek Xabiri belarrira, eta aitak hiru

esan duenean konturatu direla bat falta zela, artean bere gelara sartu gabeak zirelako. Eta poliziarburuak errieta egin die bere menekoei.

Beheko ezpainak dardara egiten dio arrebari hitz egitean.

Haria jostorrazaren buruan sartzean egingo lukeen moduan, Gotzonek zigarreta ahoan sartu dio berriaz aitari. Ez du inoiz aita halako gosez erretzen ikusi.

Haurrak Xabiren gelara eraman dituzte poliziek. Haietako bat geratu da, burua, eta denak ohean eserarazi ditu. Horman zintzilik dagoen Realaren argazkiari begira geratu zaio polizia.

- A!, Real Sociedad! -esan du alaitasunez.

Hatza Arkonadaren gainean jarri eta esan du:

- De pie!

Hatza aldameneko jokalariaengana eraman du gero, Zelaietarengana:

- Lui c'est Arkonada.

Banaka eraman du hatza jokalaritik jokalarira, baina ilara amaitutakoan jokalaria bat falta dela ohartu da, izen bat soberan daukala, Olaizolarena. Harrituta geratu da, posterra misterio bilakatu da. Ikerketa poliziala abiatu beharko du aurpegirik gabeko izena nori

dagokion jakiteko. Haurrek ezer esateko asmorik ez dutela ikusita, erantsi du:

- Il est ou, Olaizola?

Gotzonek nagikeriaz azaldu dio *De pie* ez dela izena, gorputzaren jarrera baizik, *de bout*, alegia. Orduan poliziak, hortzoiak erakutsiz eta oinak lurretik altxatuz, barre egin du. Beheko ilaran hatza jarri eta hasi da:

- Uralde, Diego, Satrustegi, Zamora, Lopez Ufarte...

Zerrenda amaitu duenean, Xabiren gelako beste ohea erakutsi dio eta, doinua aldatuz, galdetu du:

- Nork lo egiten du hor?

Xabik esan dio hor ez duela inork lo egiten, eta berehala Adrian Gomezen izena oroitu du, eta amak Jokini egiten lagundu zion pasaporteko gizonaren irudia datorkio. Poz txikia dauka, laguna "arriskurik ez dagoen tokiren batean" egongo delako, galdezka ari zaion gizonaren burdinazko eskuetatik salbu.

Polizia emeki altxatu da eskuak belaunetan bermatu ondoren, nekez, eta mesanotxeko tiraderatik betaurreko batzuk atera ditu. Jokinen betaurrekoak dira, azkar ezagutu ditu Xabik. Norenak diren galdetu dio Xabiri.

- Ez duzu erantzun nahi?

Xabik erantzun nahi du, baina badaki ez duela erantzun behar. Bi aukerak dira txarrak, erantzutea eta ez erantzutea. Izututa dago haurra. Aita eskuak lotuta dago egongelan, gizon horrek lotarazi dizkio.

- Norbaitek ahaztu ditu hor -esan du Xabik.

- A, eta nola izena du ba betaurrekoak ahaztu dituen horrek?

Xabik ezpainari hozka egin dio, anai-arrebei so egin die, eta isilik eutsi dio. Gorputz osoa senti dezake dardara batean.

- Tu veux aller avec papa, toi aussi? -galdetu dio, ea aitarekin joan nahi duen.

Poliziak tiraderan sartu du eskua berriz, eta Jokinen Ducados paketea atera du. Levi's markako galzak ditu poliziak. Bihotza lokietan sentitzen du Xabik, baina ez du ezer esan eta ez du ezer esango. Aitarekin joan behar badu, gaitzerdi. Aspaldi da ez duela harekin hitz erdirik trukatu. Ongi pentsatuta, aitarekin joatea desio du. Biak atzealdean lotuta, Poliziaren furgoneta urdin horietako batean, elkarren aldamenean, biak kantuan. Seguru dago elkarren aldamenean ba-leude ez luketela beldurrik izango, ez aitak eta ez berak.

Atea zabaldu da. Ama da. Arnasestuka dator lane-
tik, masailak gorrituta. Poliziari galdetu dio ea zer ari
diren gelan itxita. Eta poliziak erantzun dio bere zain
daudela. Amaren sudur zuloak mugitu dira bortizki.

- Horren gutxi daukazue nire senarraren kontra,
nire haurrak galdekatu behar dituzuela? Ez al dauka-
zue lotsarik?

Aita lotzeko boterea daukan gizona amaren au-
rrean horren uzkur ikustea, horra bat-batean super-
heroien pareko sentitzeko arrazoi bat.

- Denak eraman behar gaituzue? -galdetu du
amak-. Hala bada, goazen. Baina utzi nire haurrak
bake santuan.

Une batez sentitu du zinez ez dela bere aurrean
dagoen hura guztia ikusten ari, dena dela asmakizun
bat. Ama ez dela gizon harekin eztabaidan ari, aita ez
dagoela egongelan dagoen keinu otzan horrekin, era-
bateko babesgabezia harekin guztiarekin. Gizon
haiek ez dituela inoiz ikusi eta inoiz ikusiko. Baina or-
duan poliziak Ducados paketea tiraderan sartu eta
hura itxi du. Bere eskuaren zainak ikus ditzake, bere
larruzko jakaren lurrina usain dezake. Han dago gizo-
na, bai, eta han baldin badago, esan nahi du bere aita
egongelan dagoela ileak nahasita eta oinutsik jende

ezezagunaren aurrean, semeak ematen dizkion zigarroak erretzen.

Amaren aurretik igaro da polizia, eta gelatik irten da.

Gotzonen gelatik afixekin datoz poliziak. Le Pen-en eta Frantziaren kontrako afixak dira. Esan dute ez direla legalak. Egongelan batu dira denak, sei poliziak, aita, idazkaria, ama, haurrak, afixak, zakurra.

Polizietako batek kartoizko kaxa bat ireki du eta han sartu ditu anaia nagusiaren afixak, eta liburu batzuk ere bai. Zakurrak isatsa mugitzen du, pozik dago horrenbeste jenderen artean.

Amak kafesnea prestatu du aitarentzat. Mahai gainean paratu du, eta Gotzoni emateko esan dio, etxea begiratu nahi duela zerbait eraman ote duten egiazta-zeko. Aitak ezpainak luzatu ditu semeak bere aurrean jarri duen kafesnari hurrupa egiteko. Idazkaria zain dauka, betaurrekoen gainetik zelatan, lehendik seemeen eskutik jaten duten milaka aita ikusi izan balitu bezala. Batzuek armairuak egiten dituzte, besteek ogiak, edo autoentzako karrozeriak, eta beste batzuek haurren eskutik jaten duten aitak ikustea dute ofizioa, pentsatu du Xabik; eta minutu batzuk lehenago ikus-kizun hura asmakizuna zela sentitu duenean sentitu

duena sentitzeko ahalegina egin du, sentimendu hartan aterpea hartzeko gogoz. Baina pareko irudiak ez dira antzerki baten gisan agertzen.

Norbaitek aitaren ileak orraztu ditzan nahi luke, norbaitek aitari oinetakoak jartzea. Zergatik ez da inor horretaz arduratu?

Amak entzun egin du, eskuan dakartza zapatak.

- On-y vas -esan du poliziaburuak, badoazela.

Badoaz. Aitaren parean belaunikatu da ama, eta zer moduz galdetu dio ahopeka. Aitak zerbait esan du, edo zerbait esan duela uste izan du, ez baitu hitz oso-rik esan. Ezpainak itxi ditu, Xabiri tristeia iruditu zaion keinu batez. Badaki harekin joango balitz desberdina izango litzatekeela, baina ezin du esan. Nola esan beharko luke?

Miruk egindako txalekoa dakar amak. Eskuak as-
katzeko eskatu du, bestela ezingo diola hura jantzi.
Eztabaida labur bat izan dute. Poliziaburua galdezka
hasi da, nork ote dituen eskuburdinetako giltzak. Poli-
zia handienak dauzka, goiza txantxak egiten eman
duen batek. Denak begira ditu aitak jantzi denean.

Aitaren bizarrak iltzeak dira musu ematean.

Badoaz.

Xabi ziztuan atera zen etxetik, eskailerak hirunaka jaitsi zituen, Oihanaren etxera abiatu zen lasterka. Pilotalekura iritsi zenean, munduak betikoa zirudien. Arbolak herdoiltzen eta biluzten hasiak ziren, baina eguraldi ederra zegoen, udazkeneko eguzki epel atsegina. Pilotalekuan Mathieu ikusi zuen, esku-huska ari zen teniseko pilota batekin. Ikusi orduko oihuka hasi zitzaion, haren gor-mutuen hizkuntza ezinezko hartan, ea elkarrekin jolastuko ziren. Xabik eskuarekin keinu egin zion, joan beharra zeukala, eta aurrera segitu zuen korrika.

Errepidera ailegatutakoan ogi-saltzailea ikusi zuen, Frédéric, goizero hutsik egin gabe auzora etortzen zena (auzoan ez baitzegoen dendarik). Bistaz ezagutzen zuen andre bat zeukan parean, eskuko txanponak zenbatzen. Gizonak irinez zikindutako txaleko urdina zeraman jantzita. Ohiko alaitasunaz mintzo zitzaion emakumeari, *merci, passez une bonne journée.*

Oihanaren etxera hurbiltzean, hantxe ikusi zuen polizien autoa. Auto bakarra, Renault 4 urdin bat. Bi

jendarme hizketan. Izan zitezkeen bi igeltsero, edo bi atso-zahar, bizilagunak, aspaldiko auzokideak; patxadaz ari ziren. Gelditasuna betikoa zen, Hendaiako baretasun eternala.

Baina orduantxe ikusi zuen Tomas, Oihanaren aita, hura ere eskuak atzean lotuta. Xingola laranja zituzten alboan zihoazen poliziek ere. Pauso azkarrez zihoazen, baina autora iritsitakoan zalantza egin zuten: han sartuko dugu?; ez, hemen; itxaron, ireki atea; ez, zaude, beste aldean sartuko dugu.

Oihana balkoira atera zen, amarekin eta ahizparekin batera. Lehen pisuan bizi ziren. Eta, poliziak gizona autoaren alde batean edo bestean sartu erabakitzeko luzatzen ari zirenez, animo hitzak esaten zizkionten:

- Eutsi, aita!

Gibelera begiratu zuen Tomasek, eta esan zuen:

- Lasai. Sartu barrura.

Buruarekin eta sorbaldekin keinu nabarmenak egingiten zituen, mainguen modura.

Xabiren aldamenetik pasatu zen autoa. Bazirudien eskafandra baten barruan zihoala Tomas, uraren azpian zegoela animalia bitxi edo xelegre bati begira. Jakin-mina zeukan begirada hark, irribarre egin zue-

nean. Xabik eskua altxatu zuen, adio esateko, baina beranduegi zen, Tomasek bistaz galduta zeukan umea.

Orduan Xabi korrika abiatu zen berriz, errepidearen beste aldean zegoen muinora igo eta autoa itzulia egiten ikusi zuen. Muinoa azkar jaitsi zuen beste alde-
ra eta korrika abiatu zen autoa ahalik eta gertuen ikusteko. Tomas ikusi zuen, eta orduan bai, hark ikus-
teko moduan eskua altxatu eta oihu egin zuen:

- Aupa, Tomas!

Aitarengatik isuri ez zituen malkoak isuri zituen.

Autoa errepide nagusian desagertu zenean, ba-
kartasunaren erdian zegoen Xabi, pijamaz jantzita,
besoa jasota.

Dei andana bat jaso zuten egun hartan. Batzuek
amari animoak emateko deitzen zuten, beste batzuek
informazioa emateko, eta gehienek informaziorik ez
zeukatela esateko. Inork ez zekien ezer. Amak telefo-
noa altzoan jarrita zeukan, sofan eserita zegoen, hau-
tsontzia, tabako paketea eta txiskeroa aldamenean,
eta hamaikagarrenez kontaktzen ari zen goizeko pasa-
dizoa:

- Goizeko seietan. Bai. Ez ziren asko. Gero etxe
gehiagotan ere sartu dira. Ehunka eraman dituzte.

Bai. Ez dugu ezertxo ere ulertzen. Ez, ez, ez dakit. Hau akabera da!

Egun batetik bestera, euskaldun guztiak preso zeuden, antza.

Iluntzen hasi zuenean, norbaitek hatz kozkorrak erabiliz jo zuen atea. Ez zen inor mugitu, berriz atea jo zuten arte. Gotzonek zabaldu zuen atea: Manu zen!

Aurpegia, ezpainak, more zekartzan hotzarengatik. Dardara batean zegoen.

- Etorri dira? -esan zuen.

- Bai, Joxemari eraman dute.

Arnasestuka zegoen Manu, haren larritasunak ikaratu egin zuen Xabi.

Beste errefuxiatu baten etxean omen zegoen, handik oso gertu, eta hura bakarrik eraman zuten.

- Ihes egin duzu? -galdetu zion amak.

- Bai!

- Nola?

Aspaldi esana omen zion beste errefuxiatuari balkoitik behera ihes egin zezaketela, erraza zela, goiko eta beheko balkoiak elkarrengandik oso gertu zeudela. Baina besteak barre egiten zion.

- Erotzat hartzen ninduen -kontatu zuen-. Soka batekin lortu dut azpiko balkoira ailegatzea, eta han-

txe geratu naiz zain. Goizean emakume bat agertu zait. Nor nintzen azaldu diodanean lasai gelditzeko esan dit, senarra etorri arte behintzat ez zegoela bertan geratzeko arazorik. Hantxe geratu naiz mahai azpian. Geldi.

- Eser zaitez -esan zion amak.

- Errepidea bistan nuen. Dozena bat patruila ikusi ditut pasoan. Akaso neure bila bakarren bat. Senarra euskalduna zen, zintzo hitz egin dit, ez nauela salatu-ko, baina iluntzerako ospa egin behar nuela, ez zuela arriskurik hartu nahi. Baietz esan diot. Eta iluntzean hona etortzea erabaki dut. Ez nekien hemen egonak ziren edo ez.

- Ehunka eraman dituzte.

- Hori jakin dut. Gizonak esan dit.

- Periko, Ramon, Mikel, Rufo, Bixente, Anjel, Agustín, Manu, Txata, Batis, Abetxuko, Cande... denak -esan zuen amak.

Xabik beste zerrenda bat gogoratu zuen: Arkonada, Gorriz, Gajate, Zelaieta, Satrustegi...

Burua eskuen artean bildu zuen Manuk. Amak afaldu nahi ote zuen galdetu zion.

- Beno.

Harrigarria eta ezustekoa zen Manu etxean izatea.

Pozarren zegoen Xabi:

- Hemen geratuko zara?

- Bai, hemen geratuko da -erabaki zuen amak.

Galtzarbetik kartoi bat atera zuen Manuk. Letra larritz idatzita zegoen, beltzez: «Manu nauk, hemen nagok».

- Kortxo bat erreta idatzi dut hau, kaxa zati bat hartuta. Balkoitik behera bota dut gero, zuetakoren bat pasatuz gero ikus zezan. Ez nekien zer egin.

Ahotsak dardara egiten zion.

- Igual txorakeria bat egin dut. Ez nuen idatzia kale bazterrean utzi behar. Egun osoa hura berreskuratzeke irrikatan igaro dut. Norbait pasatzen zen balkoitzean begira geratzen zitzaion, baina ez du inorkukitu. Baten bat makurtu da han zer jartzen zuen irakurtzeko, baina aurrera segitu du.

- Umeak ez dira etxetik irten egun osoan -esan zuen amak, barkamena eskatuz bezala.

- Noiztik bizi zara hemen gertu? -galdetu zion Xabik.

Begira-begira geratu zitzaion Manu, hasperen egin zuen:

- Berdin dio.

Egonaldi ezberdina izan zen Manurena, bere aurretik egondakoena baino zailagoa, guztiz ezkutuan ibili behar zuelako, aurrekoek ez bezala. Aitak esana zion amari etxean inor ez hartzeko, oso arriskutsua zela. Horregatik, premiazkoa zen inork ezer ez jakitea.

Asteburuetan Hegoaldera joaten baziren, etxea hutsik zegoela antzezteko ahalegin xehea egiten zuten. Etxeko ateen inguruetan esponja moduko batzuk jarri zituzten, etxeko zaratak ahalik eta gehien itotzeko, eta leihoak estaltzeko oihal handi bat egin zuten manta zaharrekin, barruko argia kanpotik ikus ez zedin (nahiz eta Manu linterna batekin ibiltzen zen). Ezin zuen inolako zaratarik egin, ezin zuen ez irrati ez telebista jarri, ezin zion komuneko kateari tira. Etxean inor ez egoteko antzerkia egin behar zuen, kasik ez egoterainokoa.

Igande arratsetan, etxera ailegatzen zirenean, beti ilunpetan topatzen zuten Manu, etxeari zerion tabako eta itxi usainak harrapatuta. Leihoetako mantak kentzen zituzten, eta argiak eta telebista pizten zituzten, Manurekin lasai jarduteko. Amak albisteak konta-

tzen zizkion, ETArekin ekintzen edo atxiloketen berri, eta baita familia kontuak ere.

- Luze egin zait -esaten zuen Manuk-. Amaigabeak dira orduak ilunpetan sartuta.

Bazirudien errefuxiatuek ez zutela ordura arteko bizitza inoiz gehiago izango. GALen afera amaitua zen, nonbait, baina orain Frantziako Polizia zen haien atzetik zebilena. Jada ez zuen axola *récépissé* madarikatua izan ala ez izan. Denak ziren gaizkileak, denak sartu behar zituzten zuloan. Eta inork ez zekien noiz amaituko zen, edo zer egingo zuten orduan errefuxiatuek, besteen etxeetan ilunpetan geratzea ez bazen. Jende andana zegoen etxeetan sakabanatuta, batez ere Iparraldeko jendearen etxeetan.

- Akaso Hego Amerikara ihes egin beharko dugu denok -esaten zuen Manuk, etsipenez.

Egoera muturrekoa zenez, segituan hasi ziren antzematen Manurengan lehendik ezagutzen ez zioten zakartasun bat. Bortitza izan gabe, ñabardura txikietan ikusten zuten. Etxeko garbitasunean, adibidez. Bazkaldu orduko platera harrira eramaten ez bazuten, sutu egiten zen Manu. Baina berehala burua besoen artean ezkutatu eta barkamena eskatzen zuen.

Ondoeza baretzeko, atsedetik gabe gimnasia egiten zuen etxean. Korridorean aurrera eta atzera bi edo hiru ordu egunero, Xabi bizkar gainean hartuta flexioak ondoren, eta lurrean etzanda egiten zituen bestelako ariketa bitxi batzuk, amaitzeko.

Ilea urdintzen hasia zitzaion, matrailezurak ikusten zitzaizkion azalaren azpitik. Astetik astera ikaragarri zahartzen ari zen.

Gauetan berandura arte geratzen ziren solasean eta, une batzuetan, egoera hark betiko iraungo zuela pentsatzen zuen Xabik, Manu betiko beren etxean bitzitzen geratuko zela mamu baten gisan, eta gauero berandutuko zirela maitasun kontuez eta marrazoez kontu kontari. Manuk esaten zituen gauza guztiak baitziren baliagarriak Xabirentzat.

Oihanaz ari zirenean, esan ohi zion:

- Esan iezaioke aurpegira. Ez ezak segundo bakarra galdu.

Azaltzen zion, oso handia zela errefusatua sentitzearen mina bere baitan, baina errealitatean askoz ere samurragoa izango zela. Oihanak ezetz esanez gero, segituan ohituko zela, eta horrek bere gogoia beste nonbait jartzeko balioko ziola, beste neska batzuegan. Xabik, ordea, bazekien Oihanak ez zuela

inoiz maitatuko. «Zu mutil txiroa zara», esango zion, «mutil bakartia, asmatikoa, ohea bustitzen duzu. Ez zaitu inork maite: zergatik maitatuko zaitut *nik?*». Ezingo zuen halako zorigaizto batetik inoiz onik atera. Ezin zuen arriskatu. Nolabaiteko salbazioa zen zalan-tzaren agonia.

- Tragikoegia haiz horren txikia izateko. Eta ez diat ezer leporatuko, neu ere erromantiko hutsa nauk, baina ikasi behar duk pittin bat praktikoago izaten. Begira: pilotan ezkerrez jotzen ikasi duan bezala, hala ikasi behar duk gauzak beste modu batera hartzen. Hasieran kostatu egingo zaik, pilota denak txapapera botako dituk, edo sasitara, baina denborarekin ohitu egingo haiz, eta bi esku izango dituk jokatzeko: hire-hirea eta ikasitakoa.

Baina orduan Xabik *Mea culparik* ez diskoko azala gogoratzen zuen, neskatilaren bular txiki haiek (zeinak Xabiren buruan Oihanaren titiak baitziren), eta etsituta sentitzen zen, titi haiek sekula gozatu ezingo zituela sinetsita. Benetan tragikoa zen: nola ez zen ba tragiko jarriko?

Eskuz egindako panpinez inguratuta zegoen Manuren ohea, eta egur eta oihal txatalez. Azken aldi hartan, bi txotx eta kateorratza erabilita, harizko ko-

metak egiten zituen, lagunei bidaltzeko. Xabirentzat ikurrinaren koloreko kometa gorde zuen, eta hark harrotasunez eramaten zuen, baina nork egina zen inori esan gabe. Oso serio hartzen zuen Manu etxean zegoela isilean gordetzeko agindua.

- Zer adin daukazu?

- 32 urte.

- Ni 32 urterekin ETAkoa izango naiz -esan zion

Xabik.

Manuk barre egin zuen:

- Hi 32 urterekin ibiliko haiz neskaren baten gonaren azpian erreguka, ikusiko duk. Gerra eta maitasuna gaizki ezkontzen dituk. Egidak kasu.

Xabik gerra egitea nolakoa ote zen galdetzen zionean, beti erabiltzen zituen marrazoan konparaketak. Xabik bazekien zergatik zen, ezagutzen zuen helduen kontu haiekiko diskrezioa.

- Gerra egitea da uretan marrazo zuri handi bat dagoela jakinik igeri egitea bezalakoa. Marrazoa ez duk berez hiltzailea, premia daukanean baizik ez dik hiltzen. Baina, erne, premia daukanean bizkor oldartzen baita, bere begi beltz bizitzarik gabeko horiekin, errukirik gabe. Orduan badakik, igeri egiteak ere ez hauela salbatuko.

Xabik konparaketa ez zuela ulertzen esaten bazon, Manuk labur esango zuen:

- Gu baino indartsuagoa den arerio baten kontra ari gaituk. Eta horrek beti dakar sufrimendu handia. Hobe hiri halakorik tokatzen ez bazaik.

Gero azaldu zion marrazoak grisak direla gainetik eta zuriak azpitik, eta hori dela haien kamuflajea. «Goitik begiratzean itsas hondo ilunarekin nahasiko dituk, eta behetik begiratzean, ordea, eguzkiaren argiarekin». Eta halakoxea zela boterea ere, egunez gorbataz ibiltzen zirela bakeaz hizketan, eta gauetz sikarioak bidaltzen zituztela euskaldunen ehizara.

- Ez zagok boterearen azal bikoitza baino arma zitalagorik.

Madrilerako bidean ederra zegoen Somosierra mendatea elurpean. Orduak zeramatzaten Isabelleren autoan, eta elurak asperdura gainetik kentzeko balio-ko zien behintzat. Isabelle gidatzen ikustea, hala ere, gauza bikaina zen. Oro har, edonor gidatzen ikustea zen liluratzekoa, baina Isabellek bazuen estiloa: jostailua balitz bezala eramaten zuen autoa. Xabik atzeko ateko leihotik begiratzen zuenean, ziztuan zihoazela zirudien, paisaia paisaiarekin urtzen zen abiaduraren poderioz, eta nahasmen hartan hipnotizatuta geratzen zen. Asfaltoaren eta bazterreko belar zuriaren arteko mugak dantza egiten zuen, orain gorago, gero beherago, orain gertuago, gero urrutiago, baina etenik gabe, autoak paisaia irensten zuelako.

Egun batzuk lehenago aitaren gutuna jaso zuten, eta Xabik ezin zuen azken esaldia burutik kendu: «Recibid un abrazo de este padre que tanto os quiere y no os olvida». Ez zen erraz burutik kentzekoa, aitik hitzez maitasuna azaltzen zien lehen aldia izanik.

Zergatik idatziz, zergatik erdaraz, auskalo. Bazekien ez ziola galdetuko, baina buruan bueltaka zebilzkion

hitzok, elurraren eta asfaltoaren muga mugikorrari so egiten zion bitartean.

Madrilen izan zela nori kontatuko zion irudikatzen hasi zen hirian sartu orduko. Ez zen beste munduko ezer, baina Madril zen. Etxeak, autoak, fabrikak, txabolak, berde pixka bat han, lur hori pixka bat hor, espaloiak eta errepideko panelak: Burgos, Zaragoza, Valencia, Cuenca, Toledo, Caceres... Harrigarria zen zubiaren azpian eta fabriken inguruan zenbat txabola zegoen. Inoiz halakorik ikusi gabea zen Xabi. Txapa, egur eta plastiko txatalez eginak zeuden, handik eta hemendik hartutako zatiekin, eta haiei lotuta arropa zintzilikatzeke sokak. Txabolen inguruetan pertsonak ikusten ziren, autoetan zihoazenen begiradei ezaxola, beren zereginei eta bizitzei loturik. Batzuk zigarroa erretzen, beste batzuk ekintza txikiren bat egiten, burdinazko makila bat eskuan, kaxaren bat, kubo bat, soka bat. Eta haurrak korrika, hizketan, barreka edo harriren baten gainean jarrita, errepideari so.

- Nortzuk dira horiek? -galdetu zuen Gotzonek.
- Ijitoak -esan zuen Isabellek.

Hirira sartu ahala desagertu egin ziren txabolak, eta haien ordean edifizio dotoreak ikusten ziren, harri landuko ate eta leihoak zeuzkatenak. Zuhaitzak eta

plazak, iturriak eta jende apaina. Isabellek ministerioak eta halakoak erakusten zizkien.

- Hortxe dago Santiago Bernabeu.

Bi etxeren artean harro ageri zen eraikin bitxia, hiriaren erdian jarritako balea. Xabik bere kabutan esan zuen: Santiago Bernabeu ikusi diat. Eta sentitu zuen hura ikusi aurretik ez zeukan zerbait zeukala orain, besteei kontatzeko modukoa.

- Kale honetan... hementxe hil zuten Carrero Blanco.

- El Almirante! -esan zuen Gotzonek alaitasunez.

- Etxe horien atzeraino hegan egin zuen autoak, eta hantxe geratu zen txikituta.

Kale arrunta zen, lauzpabost solairuko etxe grisez betea, autoak bazterretan aparkaturik zituena. Xabik dena begi ninietan gordetzeko ahalegina egin zuen. Gero, Pradoko museoa eta Cibeles iturria pasatu zituzten eta autoa aparkatu zuten. Bisoiz jantzitako emakume batekin bildu ziren, Isabelleren ahizparekin, eta kafetegi batera joan ziren, haurrek txokolatea eta txurroak jan zitzaizen.

Kazetaria zen emakumea, eta makillatutako ezpainak estutuz «no hay derecho» esaten zion amari behin eta berriz. Emakumearen azkazal gorri luzeak

ikusita, beltzez margotutako begi ertzak, belarritako perlazkoak, biriketaraino sartzen zen lurrin eskandaluzkoa, Xabiri ezinezkoa iruditzen zitzaion emakume hura beretakoa izatea. Ez zuen halako emakumerik inguruan ezagutzen. Haren etxeak pittin bat zapuztu zuen, ordea. Txikia eta ezerosoa zen. Tabako usaina zegoen, zigarrokinez betetako hautsontziak nonahi, eta paperez eta liburuz betetako mahai zabal bat egongelan. Erdian, idazmakina.

- Barkatu anabasa.

- Arren! -esan zuen amak-, primeran lo egingo dugu hemen.

- Lotsagarria da. Baina ez daukat ezertarako astirik.

Biharamunean emakumeak kruasanak ekarri zituen gosaritarako. Itxura zaharragoa zeukan makillatu gabe, txapinak eta txabusina jantzita. Berdin erretzen zuen gauez eta goizez. Eta berdin saiatzen zen etxean zeukan jendea ongi eta eroso sentiarazten. Kruasana ez zen Iparraldekoen tankerakoa, gogorra goa zen eta itsatsita geratzen zen hatz mamietan. Banaka ahoan sartuta garbitu zituen atzamarrak Xabik, eta erretiluan geratzen zirenak begiz jo zituen, bigarren baterako eskubiderik ote zeukan jakiteko. Ema-

kumeak hartu zuen erretilutik ale bat eta Xabiren aurrean paratu zuen.

- Jan lasai, mutikoa.

Paradisua zen tabako usaineko liburuz betetako etxe zahar hura.

Behe-laino baten azpian zegoen Madril Xabik agur esateko emakumea besarkatu zuenean. Heze zegoen emakumearen animalia hilaren larru iletua.

Bide motza zen kartzelarainokoa, ordu erditxo bat, baina luze egin zitzaion Xabiri.

- Begira, ijitoak! -deiar egin zuen Nagorek, auzuneetako txabolen ondotik igaro zirenean.

Andre lodi bat, soineko loredunaz jantzia, arropa jasotzen. Ume bat baloia astintzen. Gizon bat motorrari tripak ateratzen. Furgoneta zahar bat lokatzean laprast egiten.

Amak atzera begiratu zuen, eta esan zuen:

- Ez iezaiozue aitari esan Manu etxean dagoenik, ez ahaztu.

Mugan zegoena bezalako kaserna baten parean utzi zuten autoa. Eta pasaporteak erakutsi ondoren barneratu ziren Alcalako kartzelara, aitarentzako arropak poltsa handi batean bilduta. Isabellek eskuaz agur

egin zien hesiaren beste aldetik. Izotza zegoen errepi-
de bazterreko belarrean, baina elurrik ez.

- Siberia ematen du honek -esan zuen Gotzonek.

Amaren esku banatatik helduta zihoazen Xabi eta
Nagore.

«Recibid un abrazo de este padre que tanto os
quiere y no os olvida».

Alanbrez inguratutako eraikin berri samarra zen
Alcalako kartzela. Ez zen marrazki bizidunetako ha-
rrizko eraikin beldurgarria, ttattarra eta zurixka beste-
rik.

Kristalezko kabinak erdian zeuzkan egoitza handi
bat zen bisita gela. Lixiba usaina zerion, hormak uge-
rrez josita zeuden arren. Presoak hormetatik oinez
ibiltzen zirela zirudien, hain zegoen belztuta.

Presoak ilaran ateratzen hasi ziren urdinez jantzi-
tako gizon batek irekitako atetik, eta Xabik lasaitua
hartu zuen aitari eskuburdinak kendu zizkiotela ikusi-
rik. Bizar zuri luze baten atzean ezkututzen zen, eta
beste kabinetan zeuden presoak agurtzen sartu zen
zegokion kabinan. Ez zeukan nahikoa irribarre mundu
guztiarentzat. Xabik inoiz ikusitako txandal zatarrena
zeraman, urdina eta grisa, dirdira egiten zuen oihal
batez egina.

Hatz kozkorrekin kristalean jo eta hizketan hasi da aita, baina inork ez du esaten duena aditzen. Amak hatza belarrian jarri du eta buruarekin ezetz adierazi dio aitari, leihoaren azpialdean dagoen zulotxo betetako tokia erakutsiz, horri hitz egin behar zaiola adierazteko. Plastikozko aulkian eseri da aita eta zulotxo-ei hitz egin die:

- Oraindik ez zarete iritsi eta nik baino gehiago dakizue txirola honi buruz!

Aitaren ahotsa apalduta dator, eta denek han behean ipini behar izan dute belarria, baxuegi jarritako irrati batetik albiste inportanteak entzuten ariko balira bezala.

- Gosea pasatzen al duzue? -galdetu dio Nagorek.

Eta aitak harrotasunez esan die, euskaldunak arduratzen direla sukaldeaz. Biltegiko mutilarekin, Portugaletekoa omen den *arrunt* batekin, tratu onak dauzkatela, eta paellak egiten dituela.

Xabik ez daki zer den txirola, ezta zer motatako presoa izan litekeen preso *arrunta*, baina poztu egin da aitari jatekorik falta ez zaiola jakindakoan.

- Valentziakoak baino gozoagoak egiten ditugu -esan zuen-, denetik botatzen dugu: oilaskoa, haragia...

Beste dozena bat euskaldun badago han, eta ia denek bizarra daukatela ohartarazi dio Xabik.

- Bizarra egiteko aiztoak putzak baino gutxiago mozten dik -erantzun dio-. Ez zagok bizarra kentzerik. Sekulako azkura pasatzen diat mataza honekin, baina errazago moztuko nitek adreilu batekin aizto horiekin baino.

Etsipen keinu txiki bat egin du aitak, eta orduan Xabik halako tristezia lauso bat sumatu du aitaren begietan. Agian behetik gora ari delako hizketan, zulo-txoei hitz egiten baina soa familiarengana zuzenduta, eta azpitik gora ari denean jende guztiari antzematen zaiolako halako aire umil bat. Hori pentsatu nahi izan du Xabik.

Gainerako kabinetatik sekulako harrabotsa dator, mundu guztiaren entzuna izateko irrikaren eskandalua, baina kabinetara begiratu eta mundu guztia makurtuta dago. Inor ez dagoela dirudi. Edo denak ari dira jaten, aurrerantz okertuta. Tarteka baten batek burua altxatzen du, eta boza goratuz beste kabinako lagun bati deitzen dio, eta txantxak egiten dizkiote elkarri.

- Zer moduz pasatu zenuen atxiloaldia? -galdetu dio amak, listua irentsi ondoren.

Eta begiak itxita eta eskua jasota, ongi joan zela esan zuen aitak.

- Zer moduzko tratua eman zizuten?

- Berdin dio, Mari Karmen.

Denak isilik geratu dira une batez, aita behera begira, umeak eta ama aitari begira.

- Atzamarra eztarri zulotik sartu zidaten, itotzearen -aitortu du azkenik, atzamarra aho zulotik sartzeko keinua eginez.

Xabiri hotzikara batek zeharkatu dio bizkarraldea.

- Hendaian ez da inor geratzen -esan du Nagorek, gaia aldatzearren.

Etsipenezko imintzioa egin du aitak, Nagoreri zer sentitzen duen badakiela adierazi nahian. Eta gero amari zerbait galdetu dio, kaxaren batekin zerikusia daukana, baina hitz solteak erabiliz, inork ez ulertzeko moduan. Aldamenean ijito familia bat dago, denak urrezko lepokoak jantzita, kabinaren murruan eserita, hitzik egin gabe. Ohiko lagun katea antolatu nahian dabil aita: «emaiozu honi, beste horrek hango hari eman diezaion, eta hark...». Aldameneko kabinako ijitoen haurrak kristalaren kontra itsatsita dauka sudurra, parean dituen ugartetarrek barre egin dezaten. Xabik ez dauka mutilarekin txantxetan aritzeko keme-

nik, baina irribarre egin dio hala ere, eta ijitoak irribarre itzuli dio, hortz zuriak agerian. Berriz aitari so egitean, hau zutik dagoela ikusi du, eskuak kristalaren kontra, eta Gotzoni so egiten diola:

- Ba al dakik hemen denek entzuten dutela hire «mierda de ciudad» hori? Jesus, hasieran ezin nian sinetsi, baina pixkanaka gustatzen ari zaidak!

Gotzonek barre egin du, eta orduan denak hasi dira barrez, aita barne, begietatik malkoak isurtzeraino, Gotzonen musika entzutea munduko gauzarik barrregarriena balitz bezala. Kristalaren atzetik mimika egiten hasi da, dantzan ariko balitz bezala, punkien antzera, hanka altxatuz eta elkarri bultzaka.

- Nik ere gandorra utziko nitek... horretarako ile-rik banu!

Harrigarria da aita horren lasai eta maitagarri ikustea. Kartzela ote da mesede egin diona? Edo senideak ikustea izango da? Ziur aski, pentsatu du Xabik, Hendaiaiko deserria utzi izanagatik pozten da hainbeste.

Aitak bere mimikarekin jarraitu du:

- Eta hi, Nagore, noiz handitu haiz horrenbeste? Kristo, emakumea haiz!

Eta lepoa luzatu eta sorbaldak mugitzen hasi da, emakume pertxenta bat gogorarazi nahi lukeen keinuak egiten.

- Aspaldi handitu nintzen -erantzun dio Nagorek, harrigarriki serio.

- Arrazoi daukan. Aspaldi dun neska handia haizela...

Xabiren txanda da. Badaki. Zain dago eta horregatik begiratzen du ijitoen kabinara.

- Hi, Xabi, seguru nagok auzoko frantxute guztiak ezkerreko eskuarekin bakarrik txikitzeko adinakoa haizela palaz...

Pala jokoa egiten ari da aita kabinan, eta Xabik ez du halako une zorionekorik oroitzen. Baina ez daki zergatik, ez du irribarrerik egin nahi. Zerk ematen dio beldur, edo zerk ematen dio lotsa. Ohitura faltak agian.

Joateko tenorean kabinaz kabina ibili dira presoak, besteen senideak agurtzen. Kabinan sartu eta kristalak kolpatu dituzte:

- Aupa familia! Gora Euskadi askatuta!

Presoetan garaienak, boxeolari sudurra daukan batek, buruan hatsa bota dio aitari eta distira atera-

tzeko igurtziak egin dizkio. Aitak eskukada bat eman-
nez unatu du laguna.

- Alde!

Etorri zen tokitik joaten ikusi zuten aita, lagunekin
adar joka. Urdinez jantzitako gizonak atea itxi aurre-
tik, aitak burua atera zuen zirrikitutik eta ukabila jaso
zuen.

Arrebaren egunerokoa zabaldu zuen Xabik.

«Neska normala naiz, baina ez naiz normal sentitzen... eta normal sentitzen ez banaiz agian da normala ez naizelako». Xabik berak idatziko zukeen esaldia. Gero zioen: «Pailazo Hiltzaileak gara, erakunde politiko-militar bateko kideak, baina ez daukagu buruzagirik, ez garelako ejertzittoa, gerrilla baizik». Harrotasun haize batek zeharkatu zuen Xabiren bihotza, han irakurtzen ari zena arrebak ez baizik eta beste norbaitek idatzi izan balu bezala, gerra kazetari batek adibidez. Eta segidan: «Armarik gabeko lehen gerrilla gara, txardangoak eta tirapottokak baino ez dauzkagu». Orri batzuk aurrerago: «Xabik palaz aritu aurretik eta ondoren hartzen du dutxa, baina ez garbia delako. Maiteminduta dago». Koadernoaren espiralean sartuta zegoen boligrafoarekin «ez» hitza ezabatu egin zuen Xabik. Leporentzat ere bazeukan: «Zertarako balio du Poliziari haginka egiten ez dion zakur inozo batek?».

Eredu izandako Bruce Lee, Superman eta Indiana Jones ezagutu zituen tokia zen Oreretako Reyna zinema Xabirentzat, eta hara itzultzeak beti sortzen zion poz handia. Horregatik, Gotzonek hara «terrorezko gaua» ikustera elkarrekin joateko esan zionean, ez zuen birritan pentsatu. Gainera elurra ari zuen, eta horrek are eta zoriontsuago sentiarazten zuen. Plan perfektua zen.

Baina plana okertzen hasi zen, zinemara iritsi eta sarrera ordaindu egin behar zela jakin zutenean. Ate aurrean jende andana bildu zen, gehienak protestaka, haietako asko «jai popularra» zelakoan, kolektiboren batetik abiatua. Horixe aipatu zion Gotzonek Xabiri, zinemaren atariko oihuen artean: «Ezingo diagu sartu ziur aski». Baina Xabik ez zuen hitz erdirik sinetsi. Ez zuen sinetsi Gotzonek zinemara ordaindu gabe sartuko zirela inoiz uste izan zuenik, ongi baitzekien zinemara sartzeko beti ordaindu izan zutela, asteetan aurreztutakoarekin ikusi zituztelako beren heroien andantzak, bestelako luxuak (litxarrerriak bereziki) sakrifikatu ondoren. Zertara zetorren, bada, eskandalu

hura guztia? Anaia saltoka eta oihuka ikusten zuen, bere lagun desorraztuekin matxinada antzezten, eta zapuztua sentitu zen.

Mutil betaurrekodun bat zegoen zinemako atezain, batzuek Jose Luis esaten ziotena, eta Rebor besteek. Ateari nola edo hala eutsiz, kanpoko jendailarekin sesioan zebilen, ezetz, ezinezkoa zela, ordaindu gabe ez zela inor sartuko.

- Nik zuen kontzertuetan ondo ordaintzen diat ba sarrera -aurpegiratzen zien.

Eta kanpokoek ezetz, makina bat kontzertu musutruk ikusia zeukala Luzuriaga fabrian (Gotzonek behin baino gehiagotan aipatutako tokia zen, kontzertuetarako eta biltzeko erabiltzen zen fabrika abandonatua).

Itxura txarra zeukan kontuak, eta sekulako hotza zegoen han kanpoan.

Ateko kristalaren barrualdean jende gazte mordoa ikusten zen zigarroak eskuetan hitz eta pitz, filmak noiz hasiko zain. Tarteka baten bat etortzen zen sarrearekin eta Jose Luis atezaina apur bat baztertzen zen sar zedin; jendeak atzetik bultza eta buila egiteko baliatzen zuen aukera, baina antiojodunak ez zuen etsi-

tzen, ateari eusten zion eta ezezka segitzen zuen temati.

- Haurrari ere ez diok utziko, zeken halakoa! -bota zuen batek.

- Esan dizuet, hau ez da *squat* bat, zinema baizik. Bizkarrean *Discharge* idatzia zeukan handikote batek bota zion:

- Ez gaituk hi bezain intelektualak, baina zinema gustatzen zaiguk.

Eta bibaka hasi ziren gainerako guztiak.

Arduradunak irriño bat egin zuen, atea itxi zuen, eta kristalaren barrualdetik sorbaldak jaso zituen, eskariari ezin erantzuteak samina sortuko balio bezala.

Elurra pilatzen ari zen. Eta jendea zinema atarian zain, botilak eskuetan eta saltoka, komedia tankerako protesta antzu hartan. Eta Xabi haien erdian, kristalaren barrualdekoak hautsontzietan zigarroak itzali eta aretoan nola sartzen ziren begira.

Ezker eskuan botila bat zeukan mutil batek eskuin librearekin kristala kolpatu zuen. Ez zuen edonolako iskanbila ateratzen zarta haiekin. Jose Luis atezaina orduan bere pauso txikiekin gerturatu zen zinemaren hall-a zeharkatuz; kisketa zabaldu eta esan zuen:

- Atea botako duk, etxekalte halakoa!

Eta denak bibaka eta txaloka hasi ziren berriz.

Kontua ez baitzen zinemara sartzea, ez bazen mutil ñañar hari adarra jotzea. Ez, seguruen, haren kontra ezer zeukatelako, baizik eta une hartan autoritatea gorpuzten zuelako, sistemaren aldeko jarrera doilor eta barkaezina.

«Policía Municipal» idatzita zeukan auto bat gerturatu zen, atzealdetik ke hodei bat hedatzen. Zinema parean abiadura moteldu zuenean, txistuka hasi ziren denak.

- Txakurrak!

Xenpelar kalea utzi eta Morrongileta kalean galdu zen autoa. Handik gutxira agertu zen toki beretik, goiko sirena urdinaren barruan argi txiki bat ikusten zela, eta berriz moteldu zuen ibilia zinema parera iritsitakoan. Orduan, gazte sudur luze batek elurra bildu zuen zorutik, bola bat egin zuen eta autoari bota zion. Berehala geratu zen autoa. Polizia bat irten zen, baina zangoetako bat auto barruan utzita, besoa autoaren sabaian, gazteari zemaika. Larunbat arratsaldeko western bat zirudien. Poliki hasi zen oinez, eta hatz erakuslea gaztearengana begira jarri zuen, gaztea kiltzeko moduan. Gaztea, ordea, berriz makurtu zen eta, adore oihuen artean, berriz bildu zuen elur mokor

bat. Poliziak pausoa gelditu zuen, belaunak tolestu eta jaurtiketa on baterako prestatzen ari zela zirudien mutilaren parean, ez aurrera ez atzera. Eta eskerrak azken unean burua jiratu zuen, bolak garondoan jo baitzion poliziarri, mila txirbiletan eztanda eginez. Kokotetik izotz zatiak astindu eta etsita alde egin zuen autora. Zinemara sartzen utzi izan baliete bezala ospatu zuten gazteek garaipena. Xabik ezin zuen sinetsi, polizia modu horretan ihesean ikustea.

Halako batean zinemako atezainak burua atera eta hamabi lagunentzako tokia bazela adierazi zuen, ea inork sartu nahi zuen. Baina gazteek saltoka jarraitzen zuten, elkarri botilak pasatzen eta kantuan. Baten batek esan zuen sartuko zela, baina gutxi batzuek baino ez.

- Hi, Pikotas, sartuko al gaituk? -entzun zuen Xabik bere atzean.

- Zertara? Barruan ezin da erre!

Gotzon, tribukoa izan arren, mutil serioa zen, eta Xabiri eskua jarri zion sorbaldan eta aterantz bultza eginez sartu ziren barrura. Zineman eseri zenerako, nekea sentitzen hasia zen Xabi, eta hain zegoen goxo, lo geratubaitzen.

Esnatu denean, basurde bat ikusi du basamortu batean, odoletan, euliz inguratuta eta, ahalegina egin duen arren, berriz lo geratu da. Berriz piztu eta film zatiak ikusten ditu, ahalik eta gehien irauten du esna, baina oso gutxi izaten da, apenas lauzpabost segundo. Eta noizbait amaitu da basurdearen filma, eta beste baten eszenarekin esnatu da Xabi, agian jendeak bere inguruan barre edo oihu egin duelako. Hantxe dago neska, burdinazko ohean lotuta, larrugorritan, hanka-zabalik. Gorputzetik irtenda baina bizirik dagoen buru bati eusten dio gizon batek. Emakumeari hizketan ari zaio buru hura: maite duela, ezin duela bera gabe bizi, lerdea eta odola darizkiola ahotik. Eta neska izututa, buruari so. Gizonak burua neskaren bu-larrera eraman du ondoren, eta mingainaz titiak miazkatzen hasi zaio, aurrena bat eta gero bestea. Eta hura gutxi balitz, behera jaisten hasi da burua, neska-ren hankartean geratu eta mihia han sartzeko. Irririk barruan eztanda egingo diola sentitu du Xabik.

- Hik badakik noiz esnatu behar den -sakatu dio Gotzonek.

Hura lotsa!

Goizeko bostak eta erdiak zirela esan zion Gotzonek, amaitzear zegoela filma. Eta hala zen zoritxarrez.

Eta amaiera arte beste sexu eszenarik batere ez, gainera. Penaz geratu zen Xabi, pentsatuz filmean hala-ko dozena bat izango zela, berak ikusi gabeak. *Re-animator* izena zuen filmak, eta hildakoak berpizteko txertoa asmatutako mediku zoroaren istorioa kontatzen zuen. Denak ari ziren *kultuzko* filma izango zela aipatzen, baita Gotzon ere, zeina oharkabean zinema aditua bilakatuta baitzegoen hango jendearen artean iritziak ematen, goizerako antolakuntzak prestatutako txokolate eltzekadaren aldamenean. Eta Xabik, eltzekada hartatik katilukada txokolate dastatzen zuen bitartean, txerto zoragarri haren ahalmenean pentsatzen ziharduen, txerto harekin Txomin berpiztu ahal izango zuela alegia. Eta istorioaren detailei buruz hausnarrean ari zela, filmari buruz zihardutenen multzotik aditu zuen:

- Nik ez nitek nahi inork berpizterik. Despeditu eta gero hasi hadi berriz denei azaltzen munduan geratzekoa haizela.

Elurra zapalduz joan ziren Xabi eta Gotzon etxera, han bakarrik geratzeko baimenik ez zeukatela jakin arren. Txomin berpizteko ametsaz mintzatu zitzaion Xabi. Gotzonek, ordea, Xabik espero ez zuen moduan erantzun zion:

- Txomin gabe bizi behar badugu, akordatu hadi behintzat gauza onez bakarrik. Ez ezak bere heriotzan pentsatu.

- Baina bere heriotzaz akordatzen nauk.

- Bazakiat. Baina gogora hadi adibidez bere motorean egindako txangoaz. Eraman ezak hori, eta ez bestea.

Gotzonek ez zekien, eta agian beste inork ere ez, Xabik gauza onak gordetzeko eta txarrak ahazteko egiten zuen ahalegina norainokoa zen. Eta pentsatu zuen, ahalegin handia bai, baina ez zuela behar bezalako ahalegina egiten asmatzen, beti akordatzen baitzitzaizkion gauza txar guztiak. Eta ez zekien horri izkin nola egiten zitzaion. Horixe zen egia.

- Nola egiten duk gauza onak pentsatzeko eta ez txarrak?

- Hori egiteko metodoa asmatzerako, hildakoak berpizteko txertoa asmatuko dik baten batek.

- Orduan?

- Saiatu egin behar duk. Horixe duk kontua: saiatzea. Baina mundu puta honetan ez zagok erraza. Ez duk hire errua, Xabi.

Atzealdeko terrazatik sartu ziren etxera, leihoa pertsianetako batek zeukan zirrikitutik ireki ondoren.

Hezetasun eta hauts usaina zerion etxeari. Beren gelan botila hutsak zeuden, hautsontziak, arropak, diskoak... Nabarmena zen Gotzonek ordu asko pasatzen zituela bertan, eta are nabarmenago geratzen zen hori mihise-tapakiak jarrita zeuzkan ohe bakarra harena zela ikusita. Armairu batetik Xabiren oherako arropak atera zituzten eta butanozko berogailua jarri zuten. Zigarroa piztu zuen Gotzonek lotarako. Egun-sentiko argia sartzen zen pertsianaren zirrikituetatik.

- Ederra izan duk gaurkoa, ezta Xabi? Ez al diagu ongi pasatu?

Gauza handia zen Oreretan egotea. Gauza handiagoa zen etxean lo egitea.

Isabelle afaltzera etorri zen urtarrilaren 5ean, errege bezperan. Aztoratuta zebilen, Polizia atzetik zeukalako egun osoz. Xabik ordura arte ez bazekien ere, Mugertza abizeneko batekin zebilen Isabelle, eta orain Frantziako Poliziak zoko guztietan bilatzen zuen, ETako buruzagietako bat zelakoan. Sasira joan zen ordea. Eta Isabellek ezin zuen ikusi. Noiz arte, ez zekien inork. Bazegoelako itxaropena Frantziak errefuxiatuekiko jarrera aldatuko zuela. Itzuliko zirela han bizitzen geratzeko baimenak eta halakoak. Ez zeukaten esperantza handirik, baina guztien buruetan zegoen.

- Herri indigena kolonizatu batekoa izan behar duzu egun batetik bestera errefuxiatu izatetik etsai publiko gorena izatera pasatzeko -esan zuen Isabellek-. Guri baizik ez zaizkigu halakoak gertatzen.

Etsita zegoen, behialako grazia zimelduta, lorerik gabeko zuhaitz bilakatuta.

Amak ahalegina egin zuen, Mugertza hura nor zen Xabik oroit zezan. Makina bat bider aurkitu izan zuten han eta hemen.

- Gabi izenaz ezagutuko duzu agian -argitu zion Isabellek.

Eta orduan bai, orduan gogoratu zuen Gabi izeneko bat, hanka meharrekoa, artilezko jertse beltza janzten zuena beti, inoiz pultsua bota ziona (eta irabazten utzi). Isabelle baino gazteagoa zen, eta ezin izan zion izkin egin haien arteko xehetasunak irudikatzeko betiko joera deserosoari. Isabelle bikotekiderik gabe irudikatu zuen beti, hala behar zuen bere ustetan. Baina ez zen hala. Eta hantxe zegoen emakumea, ile beltz luzeak motots batean bilduta, buruarekin ezetz egiten, frantziarrak gora eta *frantxute*-ak behera, sututa.

Amak sarritan prestatzen zuen arroza haragi xehatuarekin jan zuten gau hartan, pimento askorekin. Eta afalostean txintxonean aritu ziren, giro onean. Manuk pozik zirudien bisitarekin, eta aspaldiko aldar-te onena erakusten zuen, egoera zaila zen arren. Xabiri txintxonean tranpak nola egin irakatsi zion, karta hartzeko orduan karta sorta estali eta, gainekoa hartu beharrean, beheko bat hartzeko.

Lotarako orduan, Isabelleri etxean geratzeko eskaintza egin zion amak. Ahopeka jardun zuten. Amak etxera bakarrik joatea txorakeria zela esaten zion, ez

zeukala zertan bakarrik ibili, arriskutsua zela, edo zer gerta zitekeela. Eta Isabellek amore eman zuen.

Oheratutakoan, pozik zegoela esan zion Manuk Xabiri.

- Batzuetan Anna Frank sindromea ahazten zaidak, badakik, betiko hemen eta horrela geratzeko izua.

Anna Franken kasua kontatu zion gero, Bigarren Mundu Gerran naziengandik ihesi ibilitako neskatila judutarra izan zela, etxe-zulo baten gordeta igaro zituela bi urte, han eguneroko bat idatzi zuela, eta herbeheretar batek salatu ondoren hil zela Auschwitzeko kontzentrazio gunean.

Neskak Xabiren adin bera omen zuen, eta inork ez zekien nola hil ote zen Auschwitz, gosez, hotzez... edo nazien labeetako batean kiskalirik.

Oihana eta Nagore oroitu zituen Xabik, eta esan-guratsua egin zitzaion, ia zirrara sortzeraino, arrebak egunerokoa idazten zuela jakiteak. Erbesteko neska guztien joera izango zen agian.

- Zuloan sartuta egotea ez duk txarrena -esan zion Manuk-, txarrena duk ez jakitea noiz aterako haizen, edo inoiz aterako haizen ere.

Manuren kezka hura, ordea, uste baino askoz ere lehenago ebatziko zen.

Eta oraingoan ez zen kalez jantzitako polizia biren kontua izan. Gudarostea zegoen Xabiren gelan oihuek esnatu zutenean. Buruak ikusten zituen ilunpean, aurpegirantz jarrita zeukan linternaren argiak uzten ziotenean. Eta eskopetaren ahoa, berari begira. Ez mugitzeko agintzen zioten, baina Xabik ez zeukan mugitzeko asmorik. Bi hormaren zokoan zegoen, atzerago ezin, kokoriko jarrita, handik salto batez ihes egiteko gogoei eutsi ezinik. Handik metro eskasera entzuten zuen Manu, Poliziari lasaitasuna eskatzen. Bere gorputza ikusten zuen gizonen artean, eskukadak ematen, beso bat hemen, hanka bat han, gizon haien korapilotik askatzeko ahaleginak egiten. Erraz nabarmentzen zen, zuriz zegoelako beltzez jantzitako polizien artean. Arnasak entzuten zituen, eta tarteka ahotsen bat, geldirik egoteko.

Krak!, itxi ziren eskuburdinak jada lurrean zetzan Manuren eskuturretan. Zirrikitu batetik ikusten zuen haren gorputz gihartsua.

Mugertza ote zen galdetu zioten Manuri, eta une hartantxe dena ulertu zuen Xabik. Eta ama madarika-tu zuen, Isabelle etxean lotara gera zedin gonbidatu

izanagatik. Baina berandu zen damutzen hasteko, eta bere buruaren aurrean linterna ikusten segitzen zuen, eta ez zekien, Anna Frank bezala, bera ere tren batean sartu eta laberen batera eramango ote zuten, edo han utziko zuten bere dardarizo kontrolagaitz eta lotsagarri harekin, paretari itsatsirik, ezer esateko kemenik gabe. Eta eskopetaren ahoa berari begira, marrazoaren begi mortuaren pareko, nortasunik eta errukirik gabe.

Kurrika batzuen indarrez bere besoari heldu zion eskua sentitu zuen bat-batean, eta ohetik aterarazten zutela. Irten aurretik gizon bat ikusi zuen Gabiren argazkia eskuetan, Manuri begira, buruarekin ezezka. Ez zuten asmatu. Baina saria eramango zuten hala ere. Zabaldu zen Anna Franken armairua. Trenak zain zeuden.

Errege erroskoak ikusi zituen Xabik egongelan sartu zenean, sofa aurrean belauniko ama, eskuak bizkarrera lotuta. Eta aldiz, Isabelle eta Nagore eta Gotzon aulkietan eserita. Isabellek amari esertzeko esan zion; amak keinua egin zuen, eta poliziak egoteko lurrean. Azkenean zutitu zen, eta tira-bira txiki baten ostean, amore eman zuen poliziaburu morroskoak, marmarrean.

Zergatik lotu zuten ama?

Nagoreren negar zotinak entzuten ziren. Mahaia-
ren beste puntan, Manuren eskulanekin betetako
kaxa. Amaitzen ari zen sorgin burua mahai gainean,
hortzik gabeko barre terriblea erakutsiz.

Amak ez erretzeko agindu zion polizietako bati.

- Apague eso ahora mismo.

Poliziak harriduraz so egin zion lehenik, eta gero
lepatutako oilo baten gisan egongelan bueltaka hasi
zen hautsontzi baten bila.

Manu egongelara ekarri zuten poliziek, ea nor zen
galdetu zioten amari, baina honek isilik iraun zuen.
Umeak bakarrik utzi nahi ote zituen galdetu zioten
gero, galdera batekin batere antzik ez zeukan doinua
erabiliz.

- No querrá dejarles sin padres.

Amak masail barrenak haginkatu zituen. Mutu se-
gitu zuen.

Une batez amak hitz egin zezan desiratu zuen
Xabik. Lehenago edo geroago, Manuren nortasuna ja-
kingo zuten. Zer axola zion orain esateak? Printzipio
kontua zen, noski.

Ama atxilo eramaten ikustearen ideiak gainditu
egiten zuen. Baina ez zeukan itxaropenik. Ezagutzen

zuen ama; eta, okerragoa zena, ezagutzen zuen Polizia. Ez zen horren konplikatua, azken batean, helduen mundu hura. Beti gertatzen zen okerrera.

Atzeko hanken gainean zutik zegoen Lepo, erroskoen usain gozoak erakarrita, isatsa astintzen. Denak begira geratu zitzaizkion, jende hura guztia txakur go-setiaren ikuskizuna gozatzerantz bildu izan balitz bezala. Zakurra ohartua zen denak begira zeuzkala eta, inork errieta egin ez zionez, are grina biziagoarekin airea milikatzen segitu zuen, mihiatz platera erakarriko zuelako esperantzaz. Zakur gorrotagarria, kakatia, karkia, arlotea, zikina, alferra, arkakusoen paradisu likitsa.

- Errege bezperan afaltzera elkartutako jendea da hemen dagoena -esan zuen amak-. Ez duzue horretaz aparte ezer aurkituko.

Kalez jantzitako polizia kirolari itxurako bat amaren parean jarri zen:

- ETako jendearentzat aterpe bat duzu hau, andrea. Etxe honetan gizon bat hartu dezaketen ohe, lastaira, lo zaku eta gainerakoak zenbatu ditut. 12 daude guztira.

- Lagun askoko jendea gara euskaldunak.

- Jakina, adiskidetasuna zer den irakasteko etorri zarete Frantziara.

- Frantziara? Gu geure herrian gaude, zuek zarete hemen arrotzak.

- Ezagutzen dut kantua, andrea. Baina hau Frantziako Errepublika da. Bestetik, aurrerantzean zuek bezalako jende gutxi geratuko da hemen. Zuen herrian. Bitxia.

- Ez da bitxia -esan zuen amak-, politika da. Zuen politika. Edo, hobe esateko, espainiarren politika. Hemen, guri dagokigunez, zuek mertzenarioak baizik ez baitzarete. Zuen errepublikan.

- Uste duzu afrikar arlote horiei geure herrian agintzen utziko geniekeela?

- Nik ez dut *uste*, nik *ikus*i egiten dut. Eta ikusten dudana da polizia neure etxean, nire haurrak izutzen. Hori ustea balitz hobe. Baina hemen zaudete, alajaina. Eta nire senarra Madrilen, zuek eramanda.

Poliziak harriduraz so egin zion amari. Esatekoa bitan murtxikatu zuen:

- Hemen ez gaude inork agindu digulako, gaizki-leak gordetzen dituzuelako baizik.

- Hori bai bitxia. Duela hiru hilabete Espainiatik ihes egindako errefuxiatu politikoak zirenak, egun ba-

tetik bestera gaizkile bilakatu dira, eta espainiarrek ez daukate zeresanik aldaketa horretan. Hori bai bitxia.

Korridorean zeukaten Manu.

- Ongi da, andrea. Ez dezagun denbora gal: *on y vas!* -oihu egin zuen.

Gizon guztiak etxe atarian pilatu ziren, elkarri txantxak eginez.

Joan aurretik, kirolariak burua sartu zuen egongelako atetik:

- Ospa ezazue orain Errege Eguna. Ongi pasa!

Etxeko atea itxi zenean, Gotzonek esan zuen:

- Entzun al duzue zer esan duen gorotz horrek?

Ongi entzun al dut? Benetan esan al du ongi pasatze-ko?

Xabi errudun sentitu zen, bere ama hain ongi eta beraiek hain motel jokatu zutelako. Ez zutelako erantzun egoki bat ahoskatzen asmatu. Erantzun posible bat asmatzen saiatu zen, baina ez zitzaion deus bururatzeko.

- Polizia-etxera joango gara. Iskanbila antolatuko dugu han, zuen ama askatu arte. Askatuko dute, zaudete lasai.

Autoan sartu zirenean, negar egin behar zutela esan zuen Isabellek.

- Hunkitu egin behar dituzue, ulertzen?

- Nik ez dut txakurren aurrean negarrik egingo -esan zuen Gotzonek-. Nahi duzuen eskatu, baina halakorik ez, faborez.

- Utzi duintasun kontuak beste baterako, Gotzon -esan zion Isabellek.

Hormigoizko eraikin zuria zen polizia-etxea. Kanpoko leihoak ilunegiak izan ez balira, atearen alde bantanan Frantziako banderak izan ez balitu, etxe txiki zatar eta lasai bat izan zitekeen. Dotoreziarik gabeko letrek iragartzen zuten, ordea, hura polizien etxea zela, ez serorena.

Itxarongelan ere sentipen bitxia izan zuen Xabik. Hura medikuaren itxarongela zela, berehala bata urdinez jantzitako emakumea agertuko zela bere izena oihukatzen. Zoruaren distirak, eraikin barruko isiltasunak eta bere sabeleko korapiloek sentiarazten zioten errealitatearekin zerikusik ez zeukan hori. Baina bere ama han nonbait izango zuten, ziega batean edo auskalo non, eskuak bizkarrera lotuta, seme-alabak noiz ikusiko zituen ezin jakin.

- Gure ama non dagoen jakin nahi dugu -esan dio Gotzonek (Xabiri harrigarriki zehatza iruditu zaion frantses batean) haiengana gerturatu den poliziari.

Amaren izena orri batean idatzi du agenteak, eta zaratarik atera gabe joan da berriz. Xabik beste zatarkeria bat espero zuen, eta zatarkeriak amorratzeko arrazoiak emango zizkiela, eta amorrazioaren amorratioz askatuko zutela ama. Horren ordean, dena da kortesia.

- Oilo puta hauek -esan du Gotzonek-, dena irri eta dena milesker, baina ama kartzelara.

- Zuen ama ez dago hemen -azaldu die agente berak.

- Ez gara gure ama ekarri arte hemendik mugituko -irrimo esan du Nagorek.

Eskuak zabaldu ditu poliziak, galdutako katuaz ari balira bezala.

- Zuek eraman duzue ama -argitu dio Gotzonek, Xabiren pentsamendua irakurriz-. Ez ezazue orain ez jakin plantarik egin. Ez gara hemendik mugituko.

Xabik ukabilak estutu ditu, amorratioz eta, aldi berean, anaiak ematen dion adorea baliatuz. Inoiz halakorik sentitu gabea da.

- Ikusiko dugu -esan eta berriz alde egin du poliziak, eskaileretan gora.

Xabik bihotza taupaka sentitzen du. Ez du berak ere galeratan bukatu nahi. Ez bere anaiak edo arrebak sufritzerik nahi.

Izerditan ditu eskuak.

Isabellek dardara batean dauka azpiko ezpaina.

- Ama hemen dago -esan du Gotzonek misterioz-, badakit hemen dagoela.

- Jakina hemen dagoela -errepikatu du Isabellek.

Nola izan dezakete halako ziurtasuna?

Emakumezko polizia bat pasatu da haien aurretik, eta «bonjour» esanez agurtu ditu. «Bonjour» erantzun dute hurrek, irakatsi dieten bezala.

Eskaileretan behera datozen ahots batzuk entzun dituzte orain, gaztelaniaz ari direnak. Itxarongelan jendea dagoela ikusita, isildu egin dira bi gizonak, eta zeharka so eginez pasatu dira. Baina Xabik ongi ikusi ditu besapeetan daramatzaten pistolak. Korridorean aurrera jarraitu dute eta, hondoan dagoen gelan sartu aurretik, burua itzuli dute biek.

- Espainiako txakurrak ziren horiek? -galdetu du Gotzonek.

- Hala dirudi -esan du Isabellek.

Txominen irudia etorri zaio Xabiri burura. Haiak hil ote zuten? Jendea bonjour-ka hartzen duten toki hone-

tan ibiltzen ote dira asesinoak, batera eta bestera, etxean bezala, gaztelaniaz hitz egiten? Ezinezkoa da!

Eta horrelaxe dagoela, Txominen irudia ezin burutik kendu, orduantxe ikusi du ama, polizia baten alboan korridoretik oinez datorrela. Itxura ona dauka. Lasaia. Tente dator, berea duen ibilera horrekin.

- Amatxo! -oihu egin du Gotzonek.

Begiak malkotan dituela sentitu du Xabik, baina pozik dago, polizia korridorearen erdian geratu delako ate baten alboan, eta ama haiengana datorrelako bakarrik eta lotu gabe.

Korrika abiatu da orduan, eta ahal izan duen indar handienarekin besarkatu du.

- Libre zaude?

- Bai. Goazen hemendik. Azkar.

Pilotalekua zeharkatu zuen Xabik Leporekin. Oihanaren etxeko pertsianak itxita zeuden, baina hala ere harri txintzar batzuk bildu zituen leihora botatzearren. Oihanaren gelako leihoan saiatu zen lehenik, gero egongelan, eta etxearen aurrealdera azkenik. Ez zegoen.

Auzoa igaro eta mendialdera abiatu zen, ehiztarien postuetara. Hantxe geratu zen instant batez, definitu ezin zezakeen sentimendu batek harrapatuta. Ez zuen Manu gogoratzen, ez zen harengandik arduratuta sentitzera ailegatzen. Zerk batuko zituen aurrerantzean? Oraindik aldean zeraman hark egindako kometa. Manu nahi zuen Xabik, ez bere ordezeko apaingarri barregarri hura. Nola esan behar zion Oihanari Manu eraman zutela? Ez baitzen zehatza Manu *eraman* zutela esatea; zehatzena zen *kendu* egin ziotela esatea. Eta munduari hala esango zion, baldin eta inork galdeztzen bazion.

Paparretik kometa kendu eta kateorrazari punta ateratu zion. Kateari tira eginez gerturatu zuen Lepo, eta orratza sartu zion bizkarrean. Txilioka hasi zen

aberea. Gehiago estutu zuen orratza, harik eta zakur-
rrak eskua haginkatu zion arte. Sustoak hankaz gora
bota zuen, ehiza-postuaren alde banatan geratu ziren
biak elkarri begira. Orduan Xabik zakurra postuaren
habeetako batera lotu eta ospa egin zuen.

Zakurak ihes egin zuela esan zuen etxean. Ohiko
galdera inozoak egin zizkioten, ea zeri begira ote ze-
goen bera, ea ez al zuen auzo inguruan bilatu, ea be-
tiko galtzea nahi ote zuen. Bazter guztietatik bilatu
zuela esan zuen Xabik, auto azpietan nahiz zuhaitz ar-
tean, pilotalekuan, iturri inguruan, errepidean.

- Etorriko duk -esan zuen Gotzonek.

Gauean, ordea, etortzen ez zela ikusita, haren bila
irten ziren hiru anai-arrebak. Xabik bazekien ehiza-
postuetaraino ez zirela iritsiko, auzoan nagi antzera
ibiliko zirela, deika eta txistuka. Eta horretan hasi zire-
nean, zinez zakurra etorriko zela sinesten hasi zen. Iz-
kina batean itzal bat ikustean, Lepo imajinatzen zuen
saltoka. Bere anai-arrebekin kasik triste jarri zen zaku-
rra inon ere agertzen ez zela egiaztatu zuenean.

Lotarako orduan begiak ezin bildu ibili zen maindi-
re artean. Gauaren erdian Manuren ohera joan zen,
han haztamuka hasi zen laguna hor ote zegoen ikus-
teko. Argia piztu zuen. Jantzita zegoen ohea, tapaki

marroi itsusi batekin estalita. Ohean eseri eta hantxe geratu zen ezer egin gabe. Tiraderatik Porsche horia atera zuen, eta tapakiaren irudi geometrikoen gainean erabili zuen, hura hiri bat zela imajinatuz.

- Igo! -jendea batetik bestera eramaten zuen gidari trebea zen.

Eta orduantxe konturatu zen alferrik zela zakurra-
ren begirada triste hura burutik erauzten saiatzea.

Anaia esnatu zuenean, oihu txiki bat egin zuen honek.

- Polizia? -galdetu zuen.

Xabik ezetz esan zion, ezin zuela lorik egin, zakur-
raren negarrak ailegatzeko zitzazkiola, edo ailegatu
uste zitzazkiola, zeina okerragoa baitzen, hobe bai-
tzen zinez entzutea etengabe zalantzan egotea baino,
isiltasunean haztamuka, erne, zain.

- Egin ezak lo lasai-lasaitu zuen Gotzonek-, bihar
agertuko duk.

- Ez duk agertuko, mendian lotuta zagok.

- Hi ez hago sano.

Orduan Xabik hilabetetan entseatutako formula
horietako bat erabili zuen anaiari esan nahi ziona aha-
lik eta modu gozoenean esateko:

- Gauza bat esan behar diat -hasi zen, eta dena kontatu zion.

- Munduan sekula izan den kaiburik handiena haiz -esan zion Gotzonek-. Segi ezak ohera, bihar goizean goiz joango gaituk haren bila.

Egunsentian abiatu ziren, errosko zati bana hartuta. Urduri esnatu zen Xabi. Bazuen zakurra baten batek eraman zezakeelako kezka. Ehiztariez gain, jende asko ibiltzen zen han inguruan. Hartxintzarren zarata entzuten zen haien oinen azpian. Auzoa zeharkatu zuten, pilotalekua atzean utzi zuten, Oihanaren etxea ere bai. Bere pijama arrosarekin lo egongo zen, adats luzeak burukian barreiatuta, bular hazi berriak pijamapean gozo. Auzoa utzi ahala ohartu ziren inguru hura uste baino ilunagoa zela, han ez baitzen farolarik ez ezer. Baina eguna argitzen ari zen, zeruaren ubel kolorean perfilaturik ageri ziren zuhaitz puntak.

Piztien edo gizonen edo auskalo zeren beldur ziren. Bularreraino iristen zitzaizkien iratzeak, eskuekin zabaltzen zituzten aurrera egiteko.

- Kontuz hor -agintzen zuen Gotzonek, baina dardara nabari zitzaion eztarrian.

Erreka txiki baten gainetik jauzi egin behar izan zuten. Gotzonek erreka erdian zegoen harria erakutsi zion hatzarekin, ez zezan irrist egin.

Firrinda bat entzun zuten, zelatan geratu ziren. Makina elektriko baten hotsa zirudien. Konstantea zen. Zuhaitz baten atzean ezkutatu eta zain geratu ziren. Ez zen inolako mugimendurik sumatzen.

- Gera hadi hemen segundo bat.

- Hirekin noak.

Zertxobait makurtuta ekin zioten. Zuhaitz batzuk eskuin aldera utzi zituzten, eta hantxe agertu zen argindar zutoina.

- Zutoin puta hori! -esan zuen Gotzonek.

Malda txiki bat igo zuten, Xabik anaiaren oinak ikusten zituen, militarren botekin egoki jantziak. Inbidia sentitu zuen, nahi gabe okasiorako hain ongi hornituta zihoalako, laprast egin gabe eta hotzik sentitu gabe.

Berehala ikusi zuten ehiztarien postua.

- Hori al duk?

- Bai.

Zaunka hasi beharko likek, esan zuen Gotzonek.

Xabik hatza belarrian sartu eta zuloa miatzen hasi zen. Urduri zegoenean hori egiteko ohitura zeukan. Postura ailegatzean ere, ez zen ezer aditu.

- Ez zagok -esan zuen Gotzonek.

Xabik eskailerak igo zituen. Postuan botila huts batzuk zeuden, eta manta zahar bat. Agian manta han zegoen bera han egon zenean ere, ez zuen gogoratzten. Manta hatz puntekin heldu eta altxa zuenean, hantxe topatu zuen zakurra, bilduta eta izututa.

- Lepo!

Besoetan hartu eta musukatzen hasi zen Xabi.

- Hor al zagok? -entzuten zuen anaia behetik.

Postuaren sarrerarik burua atera zuen Xabik eta zakurra erakutsi zion.

- Goazemak azkar etxera!

Etxerako bidean pozarren zirudien zakurrak. Xabiren aurpegia miatzen zuen. Xabik ezin zuen sinetsi nondik ateratzen zuen zakurrak halako bihotz errukior eta aiherrik gabea. Animaliairen atzamarrak ikusten zituen bere berokiaren kontra, bere mutur beltz beti umel hura. Bihotza apurtzen zion.

Xabik errieta espero zuen anaiarengandik, gaitzespenen bat behintzat, baina anaiak ez zuen ezer

esaten. Horren orde zigarroa piztu eta aurrera segitu
zuen mendian sigi-saga.

Zer tipo dotorea!

Zakurra izkina batean geratu eta popatikoa egin
zuen, belarriak atzerantz jarrita.

Ustekabean askatu zuten aita. Ozta eman zituen hilabete batzuk, eta etxera. Ikastolatik bueltan eman zien berria amak. Zirkinik egin gabe geratu ziren denak. Hura ezustekoa! Galderak arrapaladan zetozkion Xabiri. Zerbaiten amaiera izango ote zen? Iritsi al zen etxera itzultzeko ordua? Baina zein etxe, hangoa ala hemengoa? Ez al zen hemengoa ere, ordurako, beren etxea?

Oihanarik gabeko bizitza irudikatu eta korapiloa egin zitzaion sabelean. Korridoreko leihotik so egin zuen: eguraldi ederra zegoen, eta pilotalekua, beti bezala, hutsik, haurrek inoiz beteko zuten zain. Oihanaren arrastorik ez. Baina bazekien etxean zegoela, idazmahaian txintxo, ariketak egiten.

Kontent zegoen aita ikusiko zuelako, baina beldur, aldaketak zein bide berri eginaraziko ote zion. Berriz.

Oreretan harrera egin zioten aitari. Felixek ekarri zuen bere autoan Madrildik, aspaldiko uda hartan etxez aldatzeko altzariak eramaten lagundu zien lagunak. Autoa jendartean geratu zen, klaxonari sakatzen, eta jende multzoa autoaren inguruan jarri zen aldarri-

ka: «Presoak kalera, amnistia osoa!». Xabik bere burua deskubritu zuen oihuka, ukabila jasota. Ez zen beretzat gustuko postura, jendaurrean agertzeko moduko horietakoa, baina kemena barrutik kanpora zertorkion, indar ikaragarritz.

Etxafuego batek eztanda egin zuen lau teilatu gainean.

Aita bizar zuriarekin autotik irten zenean, elur bustia ari zuen. Xabik ez zuen kartzelako txandal hura ikusi. Baina jendearen besarkadak jasotzen hasi zenean ohartu zen jantzita zeramala, eta amorratuta sentitu zen, aita itxura horiekin ikusteagatik. Pentsamendua burutik kendu zuen, eta aitaren besarkadaren zain geratu zen, jendearen artean galduta.

Aitak urtuta zekartzan begiak, adiskideak agurtzen zituen hitz egiteko gaitasunik gabe, kokotsa dardara batean. Hau eta bestea besarkatu zituen. Eta Xabirengana ailegatu zenean geldirik geratu zen, bizkarrerekoak jasotzen segitzen zuen bitartean. Bat-batean makurtu zen besarkatzeko, baina besarkada trauskil bat baizik ez zion eman, edo ez zioten elkarri eman, ez baitzuten asmatu. Ez da beti asmatzen besarkada on bat ematen. Ohartu orduko, bistatik galduta zeukan aita.

Txistu doinua entzun zenean, jendeak hutsune bat utzi zuen errepidearen erdian, eta hiru mutil, elkarren aldamenean ilaran, dantzan hasi ziren aitaren aurrean. Lore-sorta zeukan aitek eskuan. Dantzarietako batek mosketoia zeraman, giltza mordo bat zintzilik. Txintxina ateratzen zuen dantza egitean.

Kale-jira moduko batez zentrora abiatu ziren gero, txistularien atzetik.

Aitek kasu handirik egin ez zielako kexatu zen Xabi.

- Zer nahi huen ba? -esan zion Gotzonek.

- Ez zakiat. Beste zer edo zer.

«De este padre que tanto os quiere y no os olvida».

- Haserre zagok -esan zuen orduan Gotzonek-, Manurena ezkutatu geniolako.

- Nola dakik?

- Hi, niri ez egidak kaparrada eman, badakik zaharra nolakoa den.

Etsita zegoen Xabi, eta are gehiago etsitu zen amak etxera joateko agindu zienean. Berandu zela, biharamunean goiz esnatuko zirela aitarekin egun pasa egiteko.

Urrunean ikusi zuen Xabik aita, jendartean oinez, hotza saihestearren burua sorbalden artean uzkur. Batekin hizketan zihoan, Xabik ezagutzen zuen morroi ttattar batekin, denek Lukin esaten zioten bat, okina. Baina eskua altxatuz hau eta hura ere agurtu zituen. Esku gutxiegia zeukan horrenbeste jende agurtzeko.

Oheratutakoan ezin begirik bildu geratu zen. Xabiri gauza asko pasatzen zitzaizkion burutik, baina bereziki bere lagun Eneko, bera bezala, agian Cabo Verde-ra iritsi orduko aitarik gabe utziko zutena. Zeinen gauza inportantea helduentzat, beti helduekin egotea. Pentsamenduotan zebilela entzun zuen ezkaratzeko atea, eta aitaren giltzen txintxin hotsa berehala. Ez zegoen zalantzarik: bera zen! Mila urte igaro eta hala ere bereiziko luke zarata guztien artean. Zenbatetan amets egin ote zuen une harekin! Taupaka zeukan bihotza. Zabaldu zen etxeko atea, antzeman zituen etxera sartzen ari ziren urratsak oholen gainean krask eginez. Begiak itxi zituen badaezpada ere. Logelako atea ireki zen orduan, eta isiltasunaren erdian aitaren arnasa sentitu zuen Xabik. Ohearen aldamenean zegoen aita, alkoholaren lurrina zerion.

- Maite haut -xuxurlatu zuen.

Hendaiara itzultzea galarazi zioten aitari, eta on-dorioz familiak sorterrira itzuli beharko zuen. Hori berez ez zen txarra (Oihana betiko galtzeaz aparte!). Txarrena zen ikasturtea amaitzeke zeukatela, eta horretarako barnetegian sartu beharko zituztela, bai behintzat bi txikienak, Xabi eta Nagore. Gotzon, aldiz, zorioneko anaia zahar azti madarikatua, Isabelleren etxean geratuko zen, barnetegiaren leotzetik libre. Baina hirurei egokituko zitzaien, eta horretan ez zegoen alderik, astea etxetik urrun alderrai ematea, Orereta, Hendaia eta Kanbo bereizten zituen 80 kilometroen artean atzera eta aurrera. Xabiri buruan izu bat zerbilkion, barnetegia izango zen etxe berri hartan tokia bilatzearekin lotuta zegoena. Eta arrotza izatearekin. Errukia zuen bere buruarekiko: pentsatzea ere! Kontua ez baitzen ohea hemen edo beste puntan izatea, edota komuna besteekin partekatu beharra, arrotz sentitzea baizik. Bortxazko gonbidatu betierekoa.

- Baina zergatik ezin gara hemengo ikastolara joan? -galdetu zion Xabik amari.

- Ikasturtea hasita dagoelako. Hau amaitu eta hurrengoan hona etorriko zarete. Sei hilabete besterik ez dira.

Sei hilabete!, pentsatu zuen Xabik bere artean.

Ezin zuen ulertu zer zela-eta ez zen aita Oreretan bakarrik geratzen, kontua ikasturtea amaitzea bazen. Eta ezin zuen ulertu nolatan onar zezakeen amak haurrak aste osoa etxetik urrun pasatu beharra.

Aste osoa eman beharko zuten alde batetik bestera. Asteburua Oreretan igaro ostean, igande iluntzean, Hendaiara joan beharko zuten hirurek, astelehen goizez autobusa hartu ahal izateko. Gotzonek Isabelleren abaroan emango zuen gaua, elkarren ezagutzak anaiari emango zion lasaitasunarekin. Nagorek eta Xabik, ordea, gurasoen lagunak kate luzeko norbaiten etxean hartu beharko zuten ostatu, edo lagun baten adiskide baten etxean, edo auskalo. Etxe arrotzean seguru.

Xabik Arantza izeneko emakume adineko batenera joan beharko zuen, zeina bakarrik bizi baitzen, zorionez. Poztekoa izan zen, emakumea beren auzo zaharrean bizi zela deskubritzea, Orion, eta behintzat Oihana ikusi ahal izango zuela kurtsoa amaitu bitartean. Nagore ere handik gertu biziko zen, baina lau

seme-alabako familia batean. «Ederki egingo dut lo etxe hartan», esan zuen, «zakurraren otarrean edo». Xabik arrebaren alde kexu egin zezakeela pentsatu zuen, Oihanaren albisteak eman zion euforiatxoak bultzatuta, bere burua beste etxera joateko eskain zezakeela, baina zuhurkeria gailendu zitzaion.

Igande arratsaldez kopetilun joango ziren trenera, poltsak bizkarrean hartuta, asteak eskainiko zienari buruz jakin-gose, etsita, amarengatik eta aitarengatik gaizki esaka eta marmarrean. Hendaiara iritsi eta, gainera, trenetik etxera oinez joatea tokatuko zitzaien, poltsa pisu eta handiegi haiekin Oriorako malda piko eta malkartsuan gora. Pisu hura, ordea, pisu arina zen, etxe berrietan aurkituko zutenak sortzen zien izuaren aldean.

Ordutegi bihurria zeukan Kanboko Lizeoak. Asteazken arratsaldeetan jai zenez, beren etxeetara itzultzen ziren barnetegiko haur guztiak, asteazkeneko gaua han pasatu eta ostegunean goizean goiz berri gainerako ikaskideekin ikastolara autobusez itzultzeko. Ohitura aldrebesa, inondik ere. Orereta «urrunegi» geratzen zen, eta ezinezkoa zen asteazkeneko ordu solte haietarako Oreretara itzultzea. Hendaiako beren behin-behineko etxeetan, beraz, bi gau pasatu-

ko zituzten, igandeetakoa eta asteazkenetakoa. Sari bikoitza. Noiz eta Xabik bere aurreko bizitza lasaia berreskuratu besterik desio ez zuenean!

Ikastolari itsatsitako eraikina zen barnetegia, soilairu bakarrekoa, korridore batek alderik alde zeharkatzen zuena. Gela handiak zituen, hiru ohe hartzeko modukoak, eta kanpoko belardira ematen zuten ate bana zeukaten. Burdinazko hiru ohe zeuden Xabiri egokitutako gelan, hiru ohe film zaharretan ikusten zirenak bezalakoak, zurixkak, pintura altxatutako tokietan azpiko herdoila agerian. Eta Xabiren gelako ohe berde tolesgarria hiru ohe horien oinetan jarriko zuten, zeharka, atearen aldamenen justu. Ohea tokiz kanpo egotea ere, ez zitzaion kasualitatea iruditzen. Ez zen sentimendu atsegina, baina bai aurreikusgarria. Bazterra zen Xabiren berezko lekua. Eta ordurako patua zirudien, istripua bainoago. Ohe tolesgarri berdeari begira pentsatu zuen, hura izango zela betiko bere lekua, betiko iraungo zuela hiru oheen bazterreko leku ezegoki hark. Bakartasun hark.

Eta bien bitartean non zegoen ama? Zaintzarik behar ez zuen aitaren ondoan! Hura traizioa!

Sylviek, barnetegiko begiraleak, lasai pausatzeko esan zion. Lepo iharra zeukan eta begiak urduritasu-

nez mugitzen zituen begi-zuloen barruan. Pausatu hitza itzultzen saiatu zen Xabi. Zer esan nahi zuen? Lasaitzeko? Ez, dudarik gabe lasai *instalatzeko* esan nahi zion. Baina Xabik jende ezezagunaren aurrean duda egiteko joera zeukan, eta orduan ere zutik geratu zen, eskuak poltsan sartuta, zer egin jakin gabe eta, are, plastikozko poltsan gordetako garbitzeko tresnak ateratzeko asmorik gabe. Lehen begi kolpean epaitua izateko izu zen. Sikiera hortz eskuilak eta bestelakoak gordetzeko nezeser txukun eta dotore horietako bat izango balu, tira, baina ezagutu berri zuen neska fin haren aurrean ez zuen Carrefourreko poltsa hura azaldu nahi. Hizketan jardun zuten bitartean, beraz, Xabik eskuak poltsaren barruan eduki zituen, lastategi batean orratz baten bila jardun izan balu bezala. Poltsatik atera zuen Porsche horia, "Le gran blanc" liburu kuttuna eta Jokinek utzitako Beatlesen kaseteak eta Grundig irrati-kasetea. Eta mesanotxea izango zen aulki batean ipini zuen dena.

Betiko tristura gainera zetorkiola sentitu zuen. Gotzon eduki nahiko zukeen aldamenean, bere mila baliabide horietako batekin zerbait esan eta sentimendu pisu hura arintzen lagunduko ziolako seguru. Baina Gotzon ez zegoen. Emakume mehar hura zegoen,

esku meharra atearen kontra bermatuta, begi urduri jostalariekin Xabiren erraiak arakutzen.

Eskolaren ondoren bere gelakideak (gelan tokia utzi ziotenak) agurtuko zituen, zerbait zor duenaren apaltasun bortxatuarekin. Ezagunak zituen hirurak: Pattin, Mauleko mediku baten seme dotorea; Antton, Donibane Garazikoa, artzain familiakoa; eta Xalbat, beti irakurtzen ari zen Bankako mutil bakarti bat.

Berehala egin zuen harremana Anttonekin, behar-bada Anttonek Nagore gustuko zuelako, eta lehen gaua hari buruzko galderak egiten eman zuelako: nolakoa da?, zer egiten du?, zer jaten du?, zer du gustuko? Dena jakin behar zuen. Eta Xabik zekiena kontatu zion, baita aluan biloak bazituela ere (bainugelan ikusi zizkion), bestearen jakin-mina berea balitz bezala ulertzen zuelako. Elkartasun hutsagatik. Eta gela berrian tokia ahalik eta azkarren egiteko, tokiaren bila ibiltzeaz gogaituta zegoelako. Bidezidor guztiak zilegi ziren, baita arrebaren intimitatea kontatu behar bazuen ere.

Pailazo Hiltzaileak talde armatuaz hitz egin zion, bide batez taldera sartzeko gonbitea egiteko. Anttonek berehala erantzun zuen baietz, eta ereserkia ikasi

zuen. Ukabila altxatuta kantatzen zuten ikastolako basoan.

Zulo bat egin zuten zuhaitz baten oinetan, eta han armak sartzen hasi ziren. Txardangoak ziren ia guztiak, batzuk klasikoak, Y formakoak, beste batzuk plastikozko botilen mutur moztuarekin eta globoekin egindakoak (haiei tirapottokak esaten zieten), eta beste hainbat, sofistikatuenak, makila batean jarritako pintzarekin egindakoak. Azken hauek egiten zailak ziren, eta ez ziren zehatzak, baina arma itxura zeukaten, eta mimo bereziz gordetzen zituzten, ahal zela plastikozko poltsetan.

- Hogei txardango ditiagu -esaten zuen Anttonek, harro; kontua baitzen asko pilatzea.

Nagorek *Egin* egunkariko argazkiak mozten zituen, obreroak txardangoekin borrokan agertzen ziren horiek, eta Anttoni eramaten zizkion, egiten ari zirenen seriotasuna nabarmen uztearren. Argazki haietako baten oinean irakurri zuen: «Obrero de Euskalduna se enfrenta a la Policía. Foto: Alfredo Aldai».

Arma horiez gain, txikiagoak ere bazituzten Pailazo Hiltzaileak taldean, barruak hustutako Bic boligrafoak, arroza, orratzak, kotoia, harri txikiak, eta beste-lakoak. Borroka armatuaren aferak asko hunkitzen

zuen Antton. Lagun gehiago nahi zuen Pailazo Hiltzailleen abaroan, baina ordurako Xabik galdua zuen kontu haiekiko interesa (gauza guztiekin aspertzen zen segituan, neskekin izan ezik). Xabi beldur zen Antton ez ote zen azalduko benetako pipa batekin, hain serio hartzen zuen kontua. Nola esango zion Xabik tirabeke haiekin ez zegoela iraultza egiterik?

Luzexka eta dotorea zen Arantza, Xabiren etxe berriko jabea. Adinekoa izan arren, garai bateko edertasuna gordetzen zuen. Ahopeka hitz egiten zuen, eta ia gehienetan etxean egoten zen, irakurtzen edo musika entzuten. Begi gris tristeak zituen eta ez zuen inoiz bisita jasotzen. Baina emakumeak bere aldarteari egoitzen ez zitzaion etxea zeukan: argia, alaia eta apaina. Inor hartzeko txoko paregabea. Baina inor hartzen ez zuena. Xabi zen salbuespena.

Arantzak irakatsi zion lehen gauza, mikrouhin labea erabiltzen izan zen. Goizean goiz esnatzen zenez, berak prestatu beharko zuen bere gosaria, eta funtsezkoa zen esnea non zegoen eta nola berotzen zen jakitea. Gero kakaoa eta zerealak gordetzen zituen armairua erakutsi zion:

- Hemen dago zure gosaria, zereal hauek. Aldameneko kruasanak ez dira zuretzat.

Hantxe zegoen Kellogg's kaxa bat eta aldamean kruasanez betetako poltsa garden bat. Xabik ahalegina egin zuen esaldi hura buruan bueltaka gera ez zekion. Arretarik ez jartzeko, edo esaldiaren mezu

praktikoari soilik erreparatzeko. Hau bai, hau ez, kito. Baina ez zekien hori egiten eta eskale baten pare sentitu zen, munduko gauza goxoen domeinutik makilaka kanporatutako arlotea. Zereal eta kruasan horiek bere bizitzan mamitutako sentimendu gaiztoen ondorio eskematikoa ziren. Zer zegokion eta zer ez. Eta kondena betiereko hura sakonean justua zelako egiantza mingarria. Lotsa gehien eragin ziona, ordea, emakume argal eta lirain hark, Xabik unerren batean kruasan horiek beretzat nahi zituela irudikatu izana zen. Zeren eta egia baitzen! Txiroa eta madarikatua izan arren, Xabik bai baitzekien kruasan on baten eta zereal kas-kar batzuen arteko bereizketa egiten. Ahora sartu gabe dasta zitzakeen zera samur haiek. Eta goizean kakao esnetan bustita izango zuten zapore apartekoa.

Hantxe zekusan emakumearen esku argal zainez betea, hatza zereal kutxaren gainean, eta ahalegina egin zuen imintziorik ez egiteko, harri bat bezain sendoa izateko, emakumeak ez zezan susmatu, Xabik inoiz kruasan horiek beretzat izan zitezkeenik pentsatu zuela.

Hurrengo goizean, Xabik armairua ireki eta kruasanak eta zerealak elkarren aldamenean ikusi zituen, poltsa hartu eta mahaian jarri zuen. Korapiloa

askatu eta deskubritu zuen zazpi ale zeudela. Astakeria bat. Eta emakumeak ez zuela alea hartu zuenik inoiz asmatuko. Abisua emanda ziurtzat joko zuela Xabik agindua beteko zuela. Kruasana usaindu zuen, eta okerragoa izan zen, akatsik gabe sentitu zuelako gurinaren gozo sarkorra bere sudur zuloetan barna kilimak egiten. Eta, ia pentsatu gabe, hozka egin zion.

Etxera ailegatu zen asteazken batez, goizetan egiten zuen zarataz mintzatu zitzaion Xabiri. Zarata gehiegi egiten omen zuen. Arazo larri batez ariko balitz bezala hitz egin zion, eta inoiz ez bezala lotsatuta sentitu zen Xabi, berak mutil prestu eta txintxoia izateko ahalegin nekagarriak egiten zituelako, etxe hartan zorretan ez sentitzearren, nahiz eta bazekien hori kasik ezinezkoa zela. Gau hartan etxeko atea gano-raz eta delikatuki ixten irakatsi zion Arantzak Xabiri.

- Ez baita gauza bera -esan zion Arantzak- atea ixtea eta atea delikatuki ixtea. Atea ez badituzu delikatuki ixten -aipatu zuen-, zarata egin dezakezu, eta zaratak jendea iratzartzen du, baita iratzarri nahi ez duenean ere.

Hatz hezurtsuekin atearen heldulekua hartu zuen, eta poliki bultzatu zuen atea, eskuturra doi okertu ondoren.

- Ez duzu atepak *klik* egin dezan utzi behar.

Klik ez egitea, horra gakoa. Zorion ororen gakoa, Arantzaren azalpenaren doinuaren arabera.

Eta gero esan zuen:

- Dutxa hartu behar baduzu, har ezazu orain.

Eta arrazoi berberetatik zen: zaratak saihestearren.

Alkatxofak zeuzkaten afaltzeko. Hitza entzun orduko urduritu egin zen Xabi. Alkatxofak, al-ka-txo-fak! Bere buruan dozena bat bider errepikatu zuen hitza, kirol-poltsa handia desegiten zuen bitartean, halako izeneko jakiak izango zuen zapoaren espero beldurgarrian. Eta mahaira eseritakoan ez zuen zaputzik hartu. Alkatxofak, bere izenak ongi iragartzen zuen bezala, nekez ahoratu eta lan ikaragarritz irentsi zitezkeen jakia baitzen.

- Onak al daude, Xabier?

- Oso onak.

- Pozten naiz.

Barazkiak sardexka eta labana baliatuz jan zitezkeela ikasi zuen gau hartan Xabik. Klik, klak, labana eta ahora.

Arantzak matrailezurak mugitu gabe murtxikatzen zuen, aurrera begira, isiltasun betean. Afalostean, bere burua eskaini zuen Xabik harrikoa egiteko.

- Ba al dakizu ba?

- Bai.

- Beno, ba egin ezazu nahi baduzu.

Amaitu zuenean, Arantzak hitz eder batzuk opartu zizkion:

- Zein mutil azkarra den Mari Karmenen semea!

Oheratzean, Arantzaren etxean zenbat gau geratuko ote zitzaizkion kalkulatu zuen: 70 bat. Eta bihar-munean klik egin gabe atea ireki eta ixteko gai izango ote zen galdetu zion bere buruari.

Asma larriagotzen hasi zitzaion kasik oharkabeen. Ia beti goizetan izaten zen, edo goizaldean, lauretatik edo bostetatik aurrera. Ez zeukan berarekin gaubeilan geratuko zen ama, eta, beraz, ohean geratzen zen etzanda, bere gauzetan pentsatzen. Goizean goiz Anttoni esaten zion ez zela ikastolara igoko, esan ziezaiola irakasleari ohean gaixo zegoela. Handik gutxira Sylvie etortzen zen, bere keinu urduriekin, eta asma zinez egiazkoa ote zen jakiteko galderak egiten zizkion. Sylvieren begiradan sentitzen zuen zalantza: gaixotasuna edo nagikeria? Baina benetan egiazkoa zen bere bronkioen butxadura temoso hura. Bere bu-larraren karranka etsigarria.

Gelan bakarrik geratzen zenean, halako tristezia batek harrapatzen zuen, bai baitzekien bere erreska-tean ez zela inor azalduko goiz osoan. Eta orduan mundua gorroto zuen, eta bere buruari esaten zion berdin zitzaiola. Gainera mundu guztiarekiko gertutasun urruneko bat izaten ikasi zuen, eta jada ez zitzaion axola hurkoa epaitzea. Eta hurkoak bera epaitzen bazuen ere, ardura gutxi. Zinez maite zuen jen-

dea zenbatzen hasten zenean, harrituta geratzen zen zeinen zerrenda motza zeukan. Ama, Gotzon, Nagore, Txomin, Manu, Jokin eta, batzuetan, aita. Ez beti. Zerrendara gehitu zezakeen Antton, burkidea zuelako, baina bazekien ikasturtea amaitu orduko etxera itzuli-ko zirela, urte gutxi lehenago bezala lagunak ahaztu beharko zituztela, eta nahiago zuen maitasunaren ur sakonetan ez sartzea. Beste gauza bat ziren neskatilak, baina neskatilak ere, egun batetik bestera ahaztu zitezkeela ikasi zuen, nahiz eta maitasunaren erdi-erdi-dian zegoenean ikuspegi hori lanbrotzen zitzaion.

Goiz hartan arnasa zen buruan zeukan gauza bakarra. Hain kostata iristen zitzaion haizea biriketara, non apenas pentsa zezakeen beste ezertan. Kanpoko espaziotik bere biriketarainoko oxigenoak egin beharreko bidea irudikatzen zuen Xabik: ahoa, eztarria, bronkioak... eta sinesgaitza iruditzen zitzaion ezintasun hura? Zergatik? Zergatik ixten zitzaizkion bronkioak *berari*, horretarako ezer berezia edo txarrik egin gabe?

Ama aldamenean zegoenean ezberdina zen, bere presentziaren kontsolamendua aurkitzen zuen, gaixotasunaren bidez bereganatutako arretaren ezohikotasun gozoa. Baina barnetegiko ohe hartan, bakardadea

eta asma, biak egiten zitzaizkion jasangaitzak. Ondo-
ezeko uneetan Jokinek oparitutako Beatlesen kase-
teek baizik ez zioten balio. Bere baitatik musikaren
amaraun konplexura joaten zen, eta handik irteten
zen berriz, musikan murgildurik zenbat denbora zera-
man asmatu ezinik. Beatlesen kanten mundu miste-
rioso eta hipnotikoa, gainbeheran etorritako zirku ba-
teko mundua bezalakoa. Horditutako eta zoratutako
jendea ikusten zuen kanta haietan, abere burua zeu-
kan jendea, hegazti hankak zeuzkatenak, edota kale-
tik erregez eta bufoiz jantzita zihoazenak.

Ordenarik gabeko mundu batera jauzi egiten
zuen, baina kaos hartan ezustean hunkitzen zuten
melodiak aurkitzen zituen, ez bakarrik ahotsetan, bai-
zik eta gitarretan edo haizezko edo harizko instrumen-
tuetan. *The fool on the hill* kantak Tom Sawyerren
abenturak gogorarazten zizkion, agian harmonikaga-
tik, eta Tom Sawyerrek bere adina zeukanez, kanta
berari buruz ziharduela irudikatzen zuen, eta gustuko
zuen kanta berari ari zitzaiola sentitzea, nolabait bere
barruko bakarrizketa eteteko balio ziolako, kanpora
ateratzeko. *Yesterday*-k ez zeukan beste kanta asko-
ren misterioa. Zuzena eta gardena zen. Bihotza eraso-
tzen zizun zuzenean, txiribueltarik eta aitzakiarik

gabe. Lehendabiziko gitarra notekin hasten zen Xabi negarrez, eta kanta amaitu arte irauten zion larrialdiak. Larrialdi gozoak, esan dezagun. Ez baita urik ateratzen putzu lehorretik. Eta Xabiren negar egiteko gogoak kanta entzun aurretikoak izaten ziren seguruen. Kantak bere defentsa mekanismo guztiak antzu bilakatzen zituen bat-batean. Alferrik zen haiei eusten saiatzea. Eta defentsa mekanismorik gabe, Xabik halako bake bat aurkitzen zuen.

Noiz edo noiz sartzen zen norbait, normalean Sylvie, eta galdetuko zion zerbait behar ote zuen. «Emadazu musu bat» esan nahi ziokeen Xabik.

Beste batzuetan Nagore zen bere gelan sartzen zena, ohean eseri eta zer esan ez zekiela geratzen zena, ahoa arrainak bezala zabalik etzanda ikusten zuena anaiari so. Eskua bularrean paratuko zion arrebak, medikuak estetoskopia nola, eta ahopeka esango zion: «Laster amaituko da ikasturtea». Bai baitzekien Xabirentzat ia asma bera baino gogorragoa zela amarik eta aitarik gabeko bakartasun eternal hura.

Asmak kasik gauero kuku egiten zionez, lehen klase orduak askotan huts egiten zituen, baina inor ez zen bereziki kexu. Arraroa zen. Eta inoiz baino gehiago izan zuen munduan bakarrik zegoelako sinesmen

osoa. Goiza ohean igaro eta gero, askotan, osatu egiten zen. Nola osatzen zen, horixe zen ongi ikertu behar zuena. Asmaren bide xendra apetatsuen misterioa. Zer zen aldatzen zena. Xabik ez baitzuen ezer berezirik egiten. Bolada batean *The long and winding road* kantak sendatzen zuela sinetsi zuen, edo, zehazkiago esatearren, kantak zeuzkan korda instrumentuek. Ze horiek entzuten zituen bizirik baleude bezala, bere zainetatik sartu eta bronkioak irekiko balizkiote bezala.

Nagoreri kantuak esaten zuena itzultzeko eskatu zion, eta orduan teoria horrek zentzu handiagoa hartu zuen, hain zuzen kanta hark Oihana eta bere arteko istorio ezinezkoari buruz ziharduelako: «Zure atera naraman bide luze eta bihurria ez da inoiz desagertuko, askotan ikusi dut bide hori, beti nakar hona, zure atera». Ezin zen zehatzago esan!

- Benetan hori al dio?

- Ikusi: *leads*-ek esan nahi du *gidatu* -esplikatu zion arrebak-, eta *to your door*-ek esan nahi du *zure atera*. Erraza da.

Jakintzaren bedeinkazioa, arrebak zeukana.

Kantu hura zen, beraz, sendatzearen giltza. Ehunka molde frogatuta zeuzkan ordura arte. Ohean eseri-

ta egotea, ura franko edatea, esnekirik ez jatea, ohe inguruko hautsa xeheki garbitzea, ehun arte zenbatzea, berrehun arte zenbatzea, baina erremedio guztiak ziren hutsalak. Kantaren eraginean sinetsi zuen, baina ez horrenbeste zentzuzkoa zirudielako, baizik eta zerbaitetan sinetsi nahi zuelako.

Eta kantik ere huts egin zion goiz batean. Asmak burdinazko bere atzaparretan harrapatu zuen eta ez zuen askatu nahi. Ezin izan zuen ohetik ia mugitu ere egin. *Let it be* diskoa bilatu zuen aldameneko aulkian, irrati-kasetearen aldamenean. Kasetearen B aldea ipini zuen, han baitzegoen *Let it be* eta bazekien kantaren arintasunak on egingo ziola. *The long and winding road* entzutean, sudurretik sakon hartu zuen arnasa, musikan kontzentratu zen, baina kanta bukatutakoan oxigenorik gabeko burbuila infernuzkoan segitzen zuen gatibu. Ez zegoen zer eginik: botika hura ere sasikoa zen.

- Baina zer sentitzen duk? -galdetzen zioten gela-ko kideek, asmak sortzen zion itolarriari tamaina hartu nahian.

- Ezin diat arnasarik hartu, besterik ez.

- Zer putada.

Aho zabalik hartzen zuen arnasa batzuetan, bularreko txilioak eta txistuak kanpotik ongi adi zitezen, eta lagunek ahoa estaltzen zuten harriduraz, soinu hura guztia bere barrutik atera zitekeelako liluratuta.

- Ur azpian egotea bezalakoa da?

- Hainbeste ez. Ur azpian ezin duk arnasarik hartu.

Nik zirrikitu bat bazaukaat behintzat.

Amaraunaren hari fina bezalakoa.

Maiterekin harremana berreskuratu zuen barnetegian, behinola bere parean esertzen zen neskatila panpoxarekin, zeina kasualki Pattinen maitea baitzen. Eta harekin ideia eroak izaten zituen, *Re-animator* ikusiz geroztik behin eta berriz etortzen zitzaizkion ideiak, bi elementu elkar lotzen zituztenak ezinbestean: mihia eta bularrak. Pattin gelakidearen maitea izatea, bestetik, ez zen arazoa. Edo ez zirudien arazo handiegia, Maitek nola begiratzeko zion eta nola hitz egiten zion ikusirik, batik bat barnetegian elkar ikusiz geroztik.

- Lastima nobioa dudana -bota zion, erronka doinu.

Gezurretan ari zen, ordea, Pattin eragozpena zela esaten zuenean. Hori esan eta segituan bi-biek barnetegitik goiko estaira ihes egin baitzuten, bakarrik egotearren.

Maite ez zen neska herabea, hori bazekien Xabik aldeztetik aurretik ere. Baina nekez sinetsiko zukeen harekin bakarrik egon orduko musuka hasiko zitzaiola, ho-

rretarako baimena eskatu gabe eta alferrikako hitzak gurutzatu gabe. Eta itxi eta musuka hasi. Kito.

Zer erraza zen!

Pattin irudikatzen zuen Xabik, bere maitearen bila hara eta hona, eta basapiztiaren pareko sentitzen zen. Baina, Oihanaren atzetik mendeak eman eta gero, ez zegoen ezetz esateko. Zein ezberdinak, pilotalekuko ordu galdu haiek guztiak, leihopeko elkarrizketa debekatu eta azaleko haiek, eta Maiteren musu pasioz beteak!

Gelara itzultzen zenean laguna negar batean aurkitzen zuen batzuetan. Bazter guztietan Maite bilatu baina ez zuelako aurkitu. Xabik bere burua ikusten zuen malko haietan islatuta. Eta ezin zuen mukiz betetako aurpegi hura arratoi zikin baten pareko sentitu gabe ikusi. Baina Maiteren begi urdin burges gaizto haiek leialtasunaren ideia oro suntsitzen zuten. Neskarekin Pattinen izena aipatu orduko, gainera, barre egiten zuen neskak, bere maiteari «gizagaixo» deituz.

- Eskutik helduta hizketan pasatu nahi ditu arratsak. Erotuta dago -kexatzen zen-. Ez da nahikoa gizon.

Nolako harrotasuna sentitzen zuen Xabik hura entzutean!

Eta laguna kontsolatzen zuen Xabik:

- Halakoak dituk neskak. Batzuetan alboan izaten ditiagu eta besteetan urrundu egiten dituk ustekabean. Haiekin ez zagok jakiterik. Baina seguru nagok maite hauela.

Neskarekin zeukan hartu-eman sasiko hura utziko zukeen, baina Maitek, eskolako mahai gainean jarrita, gerria hankekin inguratzen zion musu ematean, eskua bularretan ipintzen uzten zion, eta gauzak esaten zizkion belarrira, 13 urteko ezpain liraiekin.

Re-animator-eko buru moztu berpiztuaren irudia akorduan, Maiteri berdin egiteko baimena eskatu zion. Algara bat egin zuen Maitek, eta bi bular txiki hazi berriak agerian utziz elastikoa altxatu zuen. Hil egingo zela uste zuen Xabik. Baina ez zen hil. Horren ordezkariak eskaintzen zion aukera hori baliatuko zuen, azkena balitz bezala.

- Uste diat beste norbaitekin dabilela -esan zion Pattinek gero, logelan, deskubrimendua egin duenaren doinuaz.

- Bai zera! -saiatu zen Xabi lagunaren burutik ma muak uxatzen-. Hirekin badago, hirekin bakarrik egon nahi duelako duk.

- Hik uste?

- Seguru.

- Hi haiz laguna, Ugarte!

Bizitzatik espero zezakeen guztia Maiteren titi haiek zirela sinetsita zegoen Xabi. Baina igande arratsalde batez, ideia hori betiko burutik kenduko zion gauza bat gertatu zitzaion. Arantzaren etxetik irten zen, palaz aritzeko asmoz. Pilotalekura iritsi orduko euria hasi zuen. Ez zegoen aterperik, baina euria zeharka erortzen zenez, hormaren kontra paratu eta zain geratu zen. Gero eta indar handiagoarekin ari zuen, ordea, eta Arantzarenera itzultzea erabaki zuen.

Txirrina sakatu du eta Arantzak larrugorritan ireki dio atea. Klik.

Musika jarrita dauka, Xabik ezagutzen ez duen zerbait, lasaia. Emakumea larruzko sofara joan eta ahuspez etzan da.

Xabik koadernoak atera ditu kirol poltsatik. Zeregin franko dauzka eta lanak egitera sartu da sukaldetan. Liburuen aurrean eseri da, baina badaki alferrik izango dela. Atea ireki eta sofan etzateko emakumearen irudiak dantzan dauzka buruan. Arantzaren gerri fina, ipurmasail zuri biribilak, ibilera tentea. Aitzakia-
ren batekin sukaldetik irteteko irrikatan dago. Atera, begiratu azkar bat bota. Horixe nahi du: instant batez

begiratu. Akaso lehen ikuskizunaren larridura desageraraziko zaiolakoan. Eta ausartu da.

Eta hantxe ikusi du emakumea, sofan luze etzanik. Zarata aditzeaz batera zabaldu ditu begiak, gris sarkor horiek, eta lotsarik gabe so egin dio mutilari. Be-soak aurpegiaren erdialdea estaltzen dio. Sudur zati bat eta begi bakarra ikusten dio. Eta bizkar luze hori, amaieran uzkurtu eta berriz zabalitzen dena ipurdia osatzeko.

Xabi komunean sartu da presaka. Konketan eseri da. Eta bere buruari esan dio, sofan dagoena ez dela haragia, ez daukala haragiarekin zerikusirik. Haragiz-kotasunaren muga guztiak larriki gainditzen ditu. Eta asaldatuta itzuli da sukaldera.

Baina egongelatik pasatzean Arantza ez dago han. Gero azaldu da, jantzita. Eta afaria egingo duela iragarri du, ahotsean inolako kezkarik erakutsi gabe.

Egun hartan patata purea eta saltxitxak afaldu zituzten. Arantzak beti bezala afaldu zuen, murtxikatu gabe, begiak platerean ainguratuta.

Ohean ezin zituen begiak bildu. Bat-batean atea ireki eta Arantza berarekin oheratuko zela imajinatzen zuen Xabik. Edo egongelara joango zela, emakumea han egongo zela bere gizentasuna frogatzeko zain,

hurbiltzen ikustean irri egingo ziola, zangoak zabalduko zituela haragiaren enkontrua errazteko. Ipurmasailen azal hotza senti zezakeen bere aldaketan, mugimendu ikasiak, iaioak. Arantzarenean igaro beharreko gauak zenbatu zituen: 25. Ez ziren horrenbeste.

Anaiari eskatutako txiskeroaren argiarekin aurkitzen zuen sukaldeko bidea. Barnetegiko korridorea zeharkatu eta irakasleen gelatik igaro behar zuen, eta ikastolaren hall-a atzean utzi eta ikasgeletara ematen zuten eskailerak jaitsi. Sukaldean argia piztu zezakeen, lurpean zegoen; baina badaezpada ere ez zuen pizten. Hozkailuaren atea zabaltzen zuen, hark argitzen zuen sukalde osoa. Aldamenean jartzen zen, lurrean, eta han txokolatea jaten gelditzen zen. Heriotzak harrapatu behar bazuen, harrapa zezala txokolatea jaten.

Baten batek txokolatea legez kanpo jaten zuela zabalduko zen, ordea, denak zaunka hasiko ziren horrekin, baina ordu txikietan ez zen inor zaintza egiten geratuko. Bazekien. Eta nahi adina jango zuen aurretzean. Txokolate merkea zen. Bilduki moreko Milkarekin zerikusi gutxi. Baina ez dago txokolate txarrik. Sukaldeak bobeda forma zeukan, luzea zen, mahai handi bat zegoen erdian. Hormak eta sabaia kolore berarekin margotuta zeuden, halako horixka triste

bat. Han hondoan leiho handi bat, burdinazko barro-
teak kanpoan, galeratan bezalakoak.

Xabik ez zeukan beldurrik, baina ezin esan lasai zegoenik. Eta terrorezko gauean ikusitako bururik gabeko gizona agertuko balitz? Ez ziokeen ezer egingo. Burua eskuetan bazeraman, nola egingo zion ezer? Baina ikusteak larritzen zuen, pantailan ikusitako hura benetako izan zitekeelako izuak. Begiak ixten bazituen lasaiago sentitzen zen, txokolate eskas haren zapore gozogia dasta zezakeen, eta munstroak ahaztu.

Gelarako bueltan Maiterekin topo egingo zuela imajinatzen zuen. Elkarren aldamenean eseriko zirela eskaileretan, kontuak esango zizkiotela elkarri.

Esango zion:

- Garatek (soinketako irakasleak) esan dit asmatikoa ez banintz oso ona nintzatekeela lasterka. Asma izan arren, gelako hirugarren denbora ukan dut bi kilometrokoan.

Edo bestela:

- Nahi al duzu Pailazo Hiltzaileetako izan? Armak gordetzen ditugu basoan.

Edo akaso musuka hasiko ziren ikastolako eskailetan, eta goizaldean ikaskideek bertan topatuko zituzten, lurrean etzanda, larrugorritan.

Beste batzuetan imajinatzen zuen atea zabalduta, hartxintzarrezko bidea zeharkatu, erreperidera irten eta oinez hasten zela Oreretaraino. Han amarekin eta aitarekin ohean sartuko zen, haien ohe gogor erraldoi zerrauts usaineko hartan. Han ez zuen asmarik izango, hori bazekien. Eta etortzen bazen amarekin eseriko zen terrazan, izarrei begira, ezer esateko premiarik gabe, epaitua izateko kezkarik gabe.

Horrenbeste denbora ematen zuen imajinatzen, harritu egiten baitzen hozkailuaren aldamenean lurrean eserita zegoela ohartzean, eta sikiera une batez duda egiten zuen, zinez hura edo hau ote zen imajinatzen ari zena, zeren izan zitekeen Oreretan egotea eta hozkailu aldameneko txoko hura akordu txar bat besterik ez izatea, amesgaizto bat.

Arratsalde batean arreba aurkitu du Orioko pilota-
lekuan, harmailetan eserita, galtza motzez jantzita.
Badaki, esan egin diolako, ez dagoela pozik egokitu
zaion etxean. Baina Xabik ez dio Nagoreri ulertzen;
haren etxean behintzat hiru haur daude, eta igande
gauetan Realaren golak ikusten uzten diote, eta ez du
astirik bakarrik sentitzeko. Arrebarekin topo egiteak
gogaitu egiten du, beti ari zaiolako esaten ez duela
han segitu nahi. Ezin ditu haren kexuak eraman.

- Zer iruditzen zaizu -proposatu dio Nagorek-
gaua geure etxean igarotzea?

- Nola sartuko gara?

- Baditut giltzak.

- Bai zera.

Nagorek giltzak atera ditu patrikatik, hatz erakus-
lean zintzilik utzi ditu.

- Nondik atera dituzu?

- Amatearen mesanotxetik.

- Eta zer afalduko dugu?

- Izango da zerbait. Benga, goazen.

Arrebaren premiak gogaitzen du, baina ez du ezetz esateko adorerik aurkitzen.

Etxeko atea zabaldutakoan usaina sentitu du Xabik lehenik, bere etxekoa delako, baina jada hartaz ahazten hasia. Zakurra bere oinetara noiz etorriko zain dago, baina badaki ezin duela etorri, hura ere Oreretan baitago, agian gurasoen ohe erraldoi zerrauts usainekoan. Nagore korrika joan da egongelara eta telebista piztu du. Badabil. Korridoreko afixari so egin dio Xabik, Che Guevararen irudia, Jokinek behinola ipinia, txintxeta herdoilduetatik zintzilik. Haren azpian «Hasta la victoria, siempre», eskuz bezala idatzia. Sabela atera zaio afixari, erortzen hasia da, Cheren irudia bihurrituta ageri da horman, duintasunik gabe.

Nagorek eta Xabik tratua egin dute, egokitu zaizkien etxeetara deituko dute, bat bestearen etxean geratuko direla esateko. Xabik badaki inor ez dela larrituko, inork ez duela galderarik egingo. Baina Arantzaren jarrerak harritu egin du, pena hartu izan balu bezala.

- Baina nolatan geratuko zara han, gehiegi dira!

Dardara dauka Xabik eztarrian, aitzakiarik prestatu gabe zegoen. Telefono aurrean ikus dezake Aran-

tza, ezkerreko eskua eskuineko besoaren ukondoari eutsiz, matrailezurak estututa, berea duen seriotasun horrekin.

- Beraiek eskaini didate gelditzea. Ezin izan dut ezetz esan.

- Ongi da. Datorren asteazkenera arte.

Biltegian begiratu dute, hutsik dago; baina antxoaz betetako oliben poto bat aurkitu dute ireki gabea. Hozkailuan, berriz, Nutella poto bat, barrukoa aspaldi gogortuta duena. Antxoak jatea erabaki dute, Nutella-rekin arriskurik ez hartzea.

Hamabi botoi ditu telebistak, bi ilaratan banatuak. Kate bat sakatutakoan, zenbakiari argi gorri txiki bat pizten zaio goian. Katez kate hasi da Xabi eta, halako batean, Louis de Funesen aurpegia agertu denean, oihuka hasi zaio Nagore, uzteko eta uzteko. Martetarez jantzita dago Louis de Funes, eta beti bezala beste bati purrustak botatzen ari zaio, begiak asko zabalduz, gorputza inarrosiz, hitz egiterakoan ezpainak kanporatuz. Berehala hasi dira barrez anai-arrebak. Xabi seguru dago aita hemen balego hura ere barrez egongo zatekeela, negar malkotan, algaraz eztulka amaitu arte. Kasu egiten bazenion eskua altxatuko zuen, zaude!, eta hantxe geratuko zen eskua altxatu-

ta, telebistatik begiak ezinkendu. Eta halako batean Louis de Funes txiklez betetako ontzi batera erori da, eta Nagorek sukaldetik jan behar ez zuten baina azkenean jango duten Nutella potea ekarri du, eta poteko izkinak arakatzeko labana.

Zein handia dagoen arreba, ia emakumea da. Hain ikusi du Xabik emakumetuta, konturatu baita bere arreba ez duela zinez inoiz *ikus*i. Zergatik ikusten ditugu pertsona batzuk eta besteak ez? Xabik badakiz zer den ez ikusia izatea, eta intsektu baten pare sentitu da arrebari *hori* egin diolako. Urteetan. Barkame-na eskatu beharko lioke?

Duela lau urte topoz Hendaiara eskutik emanda etorri geroztik, arrebaz ahaztu da Xabi, ez daki ezer hari buruz. Esan egin behar lioke:

- Miserable bat izan naiz, bakarrik utzi zaitut.

Baina esan dio:

- Zein ongi gure etxera etorri garela.

Arrebak berezkoa duen keinu xalo horrekin so egin dio, aho ertzak Nutellaz beterik. Eta irribarre egin dio.

Esan nahiko lioke:

- Zeinen pozik nagoen zurekin. Benetan zoriontsu sentitzen naiz aspaldi ez bezala.

Baina esan dio:

- Emadazu Nutella pixka bat.

Eta Nutella ahora eraman du, nahiz eta azken hila beteetan bere dieta kasik bakar bilakatu den txokolateaz nazkatuta dagoen. Gogorra dago, pixka bat mi-kaztuta, baina irentsi egin du hala ere.

Louis de Funes txiklez betetako ontzitik atera da, burdinazko eskaierak jaitsi ditu eta laprast eginez hasi da oinez. Biak barrez ari dira. Gaizkile batzuen-gandik ihesean dabil, txikle fabrikari galduta. Pausoak ematean oinetatik txikle burbuilak ateratzen zaizkio.

- Lastima mendazko txiklearen den -esan du Nago-rek.

Eta Xabik esan dio:

- Elkarrekin lo egingo dugu?

Arrebak baietz egin du buruarekin. Eta gero esan du:

- Seguru ez dela txiklearen, espinaka purea dela.

Komunera joateko zutitu da Xabi, korridorea ikusi du ilunpetan. Manu hara eta hona zebilen garaiak oroitu ditu. Badirudi mila urte igaro direla. Orain Carabanchel izeneko kartzela batean omen dago, beste euskaldun batzuekin. Etxean zegoenean argaldu egin behar zuela sartu zitzaion derrepente kaskezurrean,

eta korridorean hara eta hona ibiltzen hasi zen. Orduak ematen zituen horrela. Gero harrotuta esango zuen:

- 10 kilometro egin ditiat, 1.000 itzuli.

Gelara sartzean lanpara falta dela ohartu da Xabi, ezin du argia piztu. Maindire gabe dago bere ohea. Eta Manuren ohe tolesgarria, noski, ez dago, barnetegian berak erabiltzen duena baita. Lurrean zerbaitek dir-dir egiten duela ikusi du. Ahaztuta zeukan Audi Quattro txikia da. Esku ahurrean ibilarazi du, atea zabaldu dio gero. Aurpegi aurrean jarri du, eta alde batera eta bestera biratu du, autoa bere osotasunean ikusteko.

- Xabi! -egongelatik deika ari zaio arreba.

Telebistan Louis de Funes ikusi du berriz. Ez dauka txikle arrastorik, koadrozko traje batez jantzita dago. Telebistan segundo batetik bestera garbitzen dira, denetik daukate janzteko, arropa zaharrak eta berriak.

Kantuan xelebren egiten zuen txori batek esnatzen zuen Xabi goizero. Ez txio eta ez pio: *essskule-tooo* gisako zerbait ateratzen zitzaion ezta-ritik. Usoen ezta-rriko soinu bustia zen, baina kasik hitz egiten zuen, kexaka bezala. Goiz hartan entzun zuenean, ohartu zen han, bere etxean bakarrik entzuten zuela hegazti hura.

Leihora hurbildu zenean, Manuk erradiadorean lotutako soka deskubritu zuen. Ez zekien han zegoenik, burdinazko zeraren atzean ezkutaturik baitzegoen. Soka berde pitzatua zen, hondartzan sarri ikusten diren horietakoa. Muturra bilatu eta handik atera zuen, zirrara batean. Une bat izan balu, minutu bat, ihes egingo zukeen. Baina oharkabean iritsi ziren poliziak, nola irtengo zen horren azkar? Gogoan zuen, gainera, polizietako bat leihora hurbildu zela, eta erreze-la baztertuta keinuka hasi zela, hatz lodia ateraz, han kanpoan zeudenei dena ongi zihoala adierazteko. Manu galtzontzillotan horman behera agertu izan babiliz, tiroz josiko zuketena agian. Auskalo.

Goseak amorratuta zegoen Xabi. Arreba esnatu zuen. Sukaldean zoko-miran aritu ziren ondoren, zer gosaldia bilatzearren, baina arropak garbitzeko xaboia besterik ez zuten aurkitu. Arantzaren etxeko zerealak oroitzean, are eta handiagoa sentitu zuen sa-beleko zuloa.

Oriotik geltokira ordu erdia izango zuten oinez. Udaberriko airea zegoen, eta etxe pareko aparkaleku erdi hutsa zeharkatuz abiatu ziren. Goiz hartan Oreretaraino joateko moduko sasoiari sentitzen zen. Zer zen ordu erdi ziztrin bat?

Salatariren batek Pailazo Hiltzaileen zuloa deskubritu zuen. Bazekiten salatariren bat izan zela, irakasleak ez baitziren baso hartara arrimatzen. Ikasleak hall-ean bildu zituzten, Manexek mahai batean erakusgai jarri zituen txardangoak, tirapottokak, boligrafoen hodiak, harriak, egunkarietako errekorreak eta bestelakoak. Ez harro, ez izu, hura guztia beste norbaitena balitz bezala sentitu zen Xabi.

Manexek armategia hitza erabili zuenean, barrez lehertu zen hall osoa. Denak salbu eta irakasleak, zeinak grabetasunaren komedia antzezten ziharduten.

Maite ere barrez ari zen, baina bere modura, beste barrearen uberan, gogorik gabe, dirudunen gisara. Inoiz neska harekin endredatu izana damutu zitzaion Xabiri. Sasi irri horrek bere onetik ateratzen zuen. Zergatik egin barre, barrerako gogorik gabe?

Ezpainak dardara egiten zion Manex irakasleari, inork zinez inor hil izan balu bezala. Sumina zen oro haren keinuetan.

- Armategi honen... -esan zuen berriz Manexek, eta berriz barreka hasi ziren ikasle guztiak.

- Ixo!

Baina ez zekien esaldia nola amaitu. Ez zuen bere erdeinua azaltzeko hitzik aurkitzen. Zein handia erdeinua, eta zein txikia haurren aurrean erabiltzen zen hizkuntza.

«Armategi honen jabeak akabatu egingo nituzke», esan nahiko zukeen, baina armategia hitzarekin trabatuta geratzen zen, totelak bezala.

Bere Joma oinetakoen etiketan, *Made in Spain* irakurri zuen Xabik, eta bere buruari galdetu zion zergatik ote zeukaten *Made in Korea* idatzita zeukatenek ospe hobea. Zer egiten zieten oinetakoei hobea izan zitezten Korean? Non zegoen sekretua?

- Pailazo Hiltzaileak -esan zuen Manexek-: biolentzia ez da pailazokeria, zuetako askok ongi dakizuenez.

Le coq sportif batzuk zeramatzan Anttonek, bandera frantziarraren kolorekoak. Urdina oinetakoaren oihala, gorria eta zuria zola. Etiketari so egin zion: *Made in France* irakurri zuen. Michel Platini oroitu zuen, Munduko Kopan huts egindako penalti hura, zeinak balio izan zion Xabiri ohartzeko futbolarik zenbat sentimendu pizten zituen jendearengan. Telebistako esatariaren nahigabea, aitaren eta Brasilgo jarraitzaile

leen poza. Platini sinpatikoa egiten zitzaion, hala ere, jator itxura zeukalako, langile tankerako ile kizkur horiekin.

- Lehenago edo geroago -esan zuen Manexek- armategiaren jabeak nor diren jakingo dugu.

Baina ordurako barreak etenda zeuden. Denak hizketan ari ziren, arretarik jarri gabe. Beti gertatzen zen berdin: jakin-minak gutxi irauten zuen ikasleen artean. Lehen bost minutuetan bale, baina hortik aurrera ahaztu. Eta gogaitzearekin batera iristen zen zaratia, eta irakasleen oihu gero eta amorratuagoak:

- Aski!, aski!. Bon, aski!

Alferrik.

Batzarra amaitutzat eman zutenean, Manexek poltsa batean bildu zituen armak, eta Xabiri otu zitzaion agian bere seme-alabei emango zizkiela, beren etxean txori-ehizan ibil zitezten.

Orduan Manuk kontatutako agurearen eta itsasoaren istorioaz oroitu zen. Arrantzale zaharrak ezpata-rraina harrapatzeko libratutako dema, piztiak amuari hozka egin ondoren zaharrak egunetan ontzira ekartzeko egindako ahalegin desesperatuak, eta nola, hura bentzututa, arraina handiegia izaki, atoian eraman behar izan zuen kostaraino, eta zaharraren uste-

kabekoa bidean marrazoek arraina osorik jan zutela ikusita, salbu eta burua, han geratu zena, iseka eginez bezala.

«Arrantzale txikiak harrapakin txikiak behar ditik eraman», esan zion Manuk.

Anttonek sorbaldatik heldu zion:

- Armak kenduko zizkigutek, baina ez ideiak.

Zein serio hartzen zuen mutilak iraultza!

Xabik bazekien ez zutela ezer egingo, ikasturtea amaitzear zela eta dena amaitu zela ordurako. Ez arma eta ez kristo, etxera itzultzea zen buruan zerabilen gauza bakarra.

Maiatzeko lehen igandean ikastolaren festa izango zen, Herri Urrats. Irratietan transmititzeko iragarkia grabatzeko eskaria egin zieten Xabiri eta Nagoreri, ez hitz egiteko gaitasun berezia zeukatelako, baizik eta «hiru hizkuntzetan» jardun zezaketelako: frantsesez, euskaraz eta gaztelaniaz. Etxebizitza zahar bat zen Gure Irratia deitzen, Baionako parte zaharrean. Ilea alde batera orrazten zuen gizon bat zen hango arduraduna, barnealdeko doinua zeukana. Kafea eskaini zien.

- Coca-Cola edango nuke -esan zion Xabik.
- Hemen ez dugu edari inperialistik.

Paper batzuetan idatzita zeukaten gidoia: «Hi, ba al dakik aurki Herri Urrats izango dela?». «Herri Urrats? Zer duk ba Herri Urrats?». «Ez al haiz enteratu? Iparraldeko ikastolen aldeko festa duk». Eta abar.

Xabi ohartuta zegoen ikastola ez zela eskola huts bat. Ez zela ikasteko toki bat bakarrik. Ikastola utzita-koan ere, ikastola beren bizitzan presente egongo zen kontua zen. Eta ez etxeko-lanengatik bakarrik. Baizik

eta kalean ere ikastolaren aldeko hatsa nabarmena zelako. Eta ikastolaren kontrakoa ere bai.

Baina Xabi sinetsita zegoen mundua ikastolaren alde zegoela, mundu guztiak parte hartzen zuela kantaldietan, edo bono (edo egutegi edo pegatina) salmentan, eta mundu guztia ikurrinez betetako festa haietan biltzen zela. Mundua giro hura zela alegia. Nahiz eta konturatzen hasia zen inguruko jende asko, bereziki Orioko auzokideak, ez zirela ezertaz konturatzen. Baina zaila zen benetan proportzioez jabetzea. Non zegoen bere eta besteen munduen arteko muga? Zenbat lagun bizi zen mundu bakoitzaren barruan?

Baionara prefetaren egoitzaren aurrean protesta egitera joan ziren egunean jabetu zen bi munduen arteko oreka ez zela, agian, berak uste zuena. Ikastolaren aldeko pankartan bi dozena ikasle eta lauzpabost irakasle baizik ez zeudelako, eta Baionako hiritar guztiak igarotzen zirelako beren sonbreiru dotoreekin pankartari so ere egin gabe.

Ikasleek eskuetan eusten zuten pankarta bera baino handiagoa zen prefetaren balkoian masta bate-tik zintzilik zegoen bandera frantziarra. Xabi zegoen tokitik hiru koloreen arteko juntak josita zeudela ikus zezakeen, hain zen handia oihal hura. Eta Xabik bere

txikitasuna sentitu zuen, ez berea, baizik eta bere komunitatearena, bizitzan lehen aldiz.

Bere mundu txiki hark, ordea, bazuen sendotasun bat, edo formaltasun bat, lehenik eta behin bere inguruko pertsona heldu guztiek sostengatzen zutelako. Baina sendotasun hura ez zen harrizkoa. Biguna zen eta mugitu egiten zen Xabiren bizipenen aurrean.

Baionako prefetaren egoitzaren aurreko manifestazioaren egunean sentimendu hori areagotu zitzaion, inondik ere, poliziak manifestari txikien aurrean paratu eta ezkutuekin bultza eginez haurrak plazatik bortxaz aldentzen hasi zirenean.

Harrigarria izan zen irakasleak poliziekin hitz egiteko ahaleginetan ikustea, eta poliziak bere kaskoen azpian gotorturik irakasleei aurpegira so ere egiten ez zietela egiaztatzea, eta hori ikusita haurrak han gertzeko imintzioa egin zutenean, Poliziari ez obeditzea, eta Polizia nola oldartu zen gas madarikatu harekin, eta nola erretzen zitzaizkion Xabiri begiak, eta nola egiten zuten denek lasterka errepidearen beste aldeko arkupeetara, denak negarrez

Aita kateaz lotuta ikustea baino ia harrigarriagoa izan zen Xabirentzat, Polizia irakasleen aurka ekiten

ikustea. Ukiezina zen giza taldea baitzen irakasleena Xabiren ezagutza mugatuan.

Horregatik, irratirako iragarkia grabatzeko eskatu ziotenean, Xabik baietz esan zuen, jakin-mina zeukalako irrati bat barrenetik ikusteko, eta gainera hori egin nahi zuelako, ez bakarrik bere alde, baizik eta bere komunitatearen alde. Sentimendu berria eta ederra zen beretzat. Eta bere galtzerdien, jertsearen, zapaten eta galtzen betiko kezkatik aldentzen zuena tupustean.

Arreba alboan zekusan:

- Es una fiesta en favor de las ikastolas de Iparralde.

Eta bere arrapostua:

- Pero... ¿habrá marcha?

- Por supuesto que habrá marcha. La solidaridad no está reñida con la fiesta.

Isabelleren autoan amaren eta anai-arreben alboan zihoala, irratian iragarkia eman zezatela erregutzen zuen. Zein gauza ederra izango zen bat-batean bere ahotsa aditzea. Baina bidaia osoan ez zen bere ahotsa entzun. Eta, nahi gabe, absentzia hura irratiaren txirotasunarekin lotu zuen Xabik.

Lehendik ere egona zen Senpereko lakuan. Urte hartakoa hirugarren edizioa zen. Baina urte hartan inoizko jendetza handiena topatu zuten. Jendea hara eta hona, ikurrinaren kolorez apaindutako Herri Urrats zioen txanoaz apainduta, zahatoa besapean zintzilik, haurrak eskuetatik helduta, elkarri diosal egiten.

Gogaikarria eta, aldi berean, etxekoa zen giro hura Xabirentzat.

Txistularien eta txarangen hotsa, jendearen dantza inprobisatuak, pitxiak saltzeko postuak... dena zen prekariora eta naturala.

Orduan ikusi zuen Xabik parrilla. Parrilla bat, kedarrak belztua, orain kea gorantz isurtzen ari dena. Baina Xabik badaki Txominek egindakoa dela, eta ez edozein parrilla. Badaki burdinazko oin astun horiek dituelako, torloju handiekin egoki lotuak, eta oinen garaiera aldatzeko halako tximeletak dauzkalako alboetan, Txominek bereziki pentsatutakoak, «eremu mal-kartsua denean parrilla ez dadin maldan behera edo herren geratu».

Alkandoraren botoiak lehertzeaz dauzka parrillan txorizoak erretzen diharduen gizon bibotedunak, eta zapi bat lepoan lotua. Beste gizon bat etorri zaio albo-ra, eta zerbait esan dio belarrira. Biak hasi dira barrez.

Gero pauso batzuk aldendu da, eta berriz itzuli da sargardo botila bat eskuetan hartuta. Basoa ia belaunetan jarriz isuri du likidoa, ozta urrezko hari bat basoa-
ren ipurdiaren kontra txinpartaka, eta barrura sartzea kostatu zaion arren, bete du basoa erdiraino, eta txorizoa erretzen diharduen lagunari eman dio.

Nor da, ordea, Txomin izan zitekeen baina Txominen kopia kaskar bat dirudien gizona? Txomin izan zitekeen, Txomini zegokion lekuan dagoelako. Baina tripa zahar horrekin ezingo luke inoiz Txomin izan. Kaxa hutsik ikusten duen oparia zabaldutako haurra bezala sentitu da Xabi. Traizionaturik, engainaturik.

Senpereko lakuaren bazterrean dago, pago baten gerizpean, iruzurgileari so. Errukia eta amorrua, biak nahasi zaizkio. Nahi luke besarkatu. Nahi luke akabatu.

Zein zoriontsu dagoen gizona, bere tripa gizen eta guzti hurrupa batez basoa hustu eta gero. Hain dago zoriontsu ezen Xabiri berari kutsatu baitzaio zoriona.

Oihanarekin topo egitea besterik ez zaio falta, eguna perfektua izan dadin.

Oihana ez zuen egun hartan ikusi, egun batzuk ge-roago baizik, jakin gabe hura izango zela azken aldia, eta «azken aldia» kontzeptu abstraktuegiaren esanahiaz jabetzeke zegoela artean. Orio auzora sartzeko telefono kabinaren aldamenean eman zuen arratsalde osoa zain. Han parean bazen villa bat arrosa kolorekoa, gizon bat karraskilak mozten guraize handi batzuekin, galtza motzetan. Tarteka Xabiren aldamenean jartzen zen, zuzen ari ote zen egiaztatzearren, eta ondoren berriz ekiten zion adorez.

Tarteka kabinan sartu eta Xabik etxera hots egiten zion Oihanari, baina haren amak hartzen zion eta eskegi egiten zuen, izututa edo lotsatuta, edo biak.

Segituan bereizi zuen Oihanaren Peugeot motorraren soinua. Tente jarri eta eskuaz keinu egin zion. Sudurra gorrituta zekarren neskak, beste mundu batetik ailegatzen denaren keinu sofistikatua kaskoa erantzeko orduan.

Listua irentsi zuen, hura azken eguna zela oroitarazteko hitzak ahoskatu aurretik. Ez zuen solemne

agertu nahi, baina axolagabe agertzea akabera izango zen. Agur betiko.

- Zer ari zara hemen?
- Deitzen.
- Nori?
- Amari.
- A.

Bizikletaren parrillan eraman zuen pilotalekura. Han, beti bezala, ezer berezirik egin gabe eman zuten denbora. Pailazo Hiltzaileen armategiaren amaieraz hitz egin zion Xabik, baina gogorik gabe, neskaren izterrak bere izterren kontra disimuluz elkartzeko ahalaginean baitzebilen. Erre egiten zuten hankek elkar ukitzen zutenean.

- Azken eguna dut gaur Arantzaren etxean. Ostira-lean kurtsoa amaituko dugu.

Ezin izan zuen Oihanaren keinua ikusi; hura lurre-ra begira zegoen, ileak aurpegia estaltzen, baina zin egingo luke galera jasangarria egingo zitzaiola azaldu zuela.

- Pozik al zaude Hegoaldera itzuliko zaretelako?
- Ez asko.
- Zergatik?
- Ez dakit.

Azal eder hura ikusteak, zeina debekuaren poderioz makurra eta lakarra bilakatzen baitzen, irrikaz eta etsipenez bete zuen. Hari musu emateko manera desberdinak irudikatu zituen. Eskutik heldu, erakarri, musu txiki bat eman masailean. Musu zuzena, neurtua. Edo Berurier Noir-en kontzertuan neska punkiak eman zizkion gisakoak, hezeak eta listu zaporekoak.

Hondamendia zen ez bata ez bestea ezin ematea. Ezin laztan txiki batekin agurtu. Baina gehiegi maite zuen, maitasuna adierazi ahal izateko.

- Zer moduz aita? -galdetu zion Oihanak, soa lurretik jasoz.

Begi arruntak ziren, baina neskaren betazalen azpian lo egiteko zortea zeukaten, neskaren bizitzaren igarotzea ikusteko pribilegioa, neskaren apetei segitzeko lan errutinazkoa eta, aldi berean, misterioitsua. Edertasunaren eta ertainkeriaren logikaz aparte zeuden, gaztaina koloreko begi helezin haiek, orain Xabiri so egiten ziotenak, aitaren berri jakiteko irrika ez handiegiz.

- Eta zeurea?

- Ongi.

Maite nauzu? Horixe zen jakin nahi zuen gauza bakarra. Ahoa ireki eta bitan pentsatu gabe bota zeza-

keen galdera. Marrazoan ur sakonetan sartu eta haiekin igeri egiten saiatzea bezalakoak izan zitekeen, marrazoan haginei so egin gabe, haien inguruan eraikitako istorio basa eta pasadizo gaizto guztiak ahaztuta. Keinu batek dena betiko akaba dezakeela jakin arren. Jakiteko irrika hutsagatik.

Bat-batean argia joan zen pilotalekuan. Ia osoa zen ilunpea, ozta nabari zen argi beilegi bat han, zeru ertzean. Xabik Oihanaren gorputza sentitu zuen berearen kontra, babes eske. Eta orduantxe ohartu zen ez ziola ezertxo ere esango. Kontua ez zela hitzak topatzea, gorputzak zirela hitz egiten ari zirenak, eta biek gauza ezberdinak esaten zituztela. Bere irrikak ez zuela islarik aurkitzen neskatilaren gorputz urrunekotan. Eta ez zuela aurkituko. Eskerrak ilun zegoen, begiak malkoz bete zitzaizkiola ohartuko zen bestela Oihana.

Tren geltokirako bidean, ez zekien zergatik pasatu zen Txominen etxe aurretik, baina Senpereko gizon bizardunaren ikuskizunak piztutako sua zen seguru, bere begi propioekin amatatu behar zuena, iruzurgilea eta oroitzapeneko Txomin, biak ezberdintzeko.

Iratzeak baztertuz etxeari buelta eman zion, auto zahar baten zati herdoilduen artean, eta atzeko atakatik sartu zen. Gotzonen eta Mainerren maitasunerako aterpe izandako biltegi aurretik igaroz, leihotik so egiteko keinua egin zuen, poliki, deskubritua izateko bel-durrez.

Hortxe dago Ainara, Cola-cao basokada betea, galletak parean, dorre perfektua osatzen edalontziaren aldamenean, eta marrazki bizidunak telebistan. Garçon erara moztutako neskaren burua dakusa atzetik, goiko aldean puntan hazten zaizkion ileak, alkan-dora marraduna, eta orain bururantz hurreratzen den eskua, atzamarrez hazka egiten diona belarriari, berriz mahai gainean pausatzeko. Burua ezkerrera biratu du, sukaldeko atetik sartzen ari den amari begiratzeko, eta amaren ezpainak zerbait esanez, «amaitu

ezazu lehenbailehen», nahiz eta, den orduagatik, seguruen ez duten inora joan behar izango.

Amak kartazal bat darama eskuan, sukaldeko ar-mairuan zutik jarri duena metalezko poto baten kontra, eta, eskua han daukala baliatuz, lore zimel bat daukan kristalezko ontzia hartu du. Hatz mamiekin ukitu du lorea, eta beste aldera abiatu da, zakarrontzia ireki eta lore idorra hara botatzeko.

Ez daki zergatik, gizon bizardunaren zain dago Xabi. Eta oin puntetan egoteagatik hankak nekatzen ari zaizkion arren, eternitatea iraungo luke han zain, Ainararekin batera marrazki bizidunei begira, tarteka galleta bat Cola-caó esnetan busti eta ahora eramaten.

Topoan sartu zenean familia baten ondoan eseri zen. Frantsesak ziren, erraz antzematen zitzairen. Amak ezpainak pintatuta zeramatzan; aitak ilea alde batera orraztuta, galtzerdiak zango-sagarrak estaltzeraino igota; eta bi umeak, otzan eta isil eserita, arre-tatsu. Poltsa zango artean utzi zuen Xabik, eta bere Porschea atera zuen handik. Leihoak amaiera aldera zeukan kurba baliatu zuen arranpa bezala. Goialdetik askatzean leihoaren markoan irristatzen zen.

Trena martxan jarri etagutxira, aldamenean zihotan aitak txalo egin zuen:

- Voilà, nous sommes arrivées à l'Espagne!

Denak leihoetatik begira hasi ziren, Frantziaren aldean Espainia zinez ezberdina ote zen egiaztatzearen. Xabik zeharka so egin zion gizonari (berna biluztu horixkak, belaunetaraino igotako galtzerdiez estaliak), eta Euskal Herrian zeudela oihu egiteko gogoaitrentsi zuen.

Kirol poltsa zabaldu zuen Nazioarteko Zubian, alkandoraren botoiak eta galtzetako brageta lerrokatu gabe zeuzkan polizia batek araka zezan. Bietatik zein ote zen oker zegoena? Alkandora, seguruen. Presaka jantzi izanagatik, beharbada. Baina akats hark uniformerik gabeko bere gizatasunera itzultzen zuen, eta harekiko beldurra eramangarri bilakatzen zuen.

- ¿A dónde vas?

- A casa.

- ¿De dónde vienes?

- De la escuela.

- ¿Y tus padres?

- En casa.

- ¿Y tú vas solo en el topo?

- Sí.

- Pues no deberías. Se lo dices a tus padres de mi parte.

Poliziak poltsa arakatzen jarraitu zuen, harik eta Enekok oparitutako burdinazko auto zatiarekin topo egin zuen arte.

- ¿Y esto? -galdetu zion.

Enekoren etxe aldameneko surf dendako neska irribarretsuaren akordua etorri zitzaion Xabiri, kristalez estalitako haren irribarrea. Eta Beltzaren argazki zuri-beltzekoa, ohol bustien eta sasiaren artean ibaian behera zetorrena. Eta Txominen soslai klarionaz margotua, salto batean etxeratzeko ahaleginean, azken hatsean izu.

Poliziaren soari erreparatu zion. Gai izango al zen burdina zati hura berak eta bere lagunek ezandarazitako autoaren zati kiskalia zela ohartzeko? Ez zeukan azti itxura gizonak, baina Xabik ezin zuen segur egon, eta ez zuen gezurretan harrapatzerik nahi. Hantxe geratuko zen soari so eginez, noizbait gizona nekatuko zen esperantzaz, ezin hitzik ahoskatu. Harrituta zegoen, zein itxura ezdeusa zeukan burdina zati txikiak, eta, aldi berean, zein itxura beldurgarria zuen biloz betetako esku gizen hartan.

- Ten cuidado -atera zuen poliziak bere gogoeta-tik-: te puedes hacer daño.

Trenera itzultakoan, poliziaren esaldia buruan bueltaka darama oraindik Xabik. Orduan ikusi du bera baino pittin bat aurrerago eserita doan bikote gaztea, elkar besarkaturik. Publikoki maitatzen dute elkar, baina ez maitasuna erakusteko xedez. Ezaxola doaz, amodioaren maskorrean ezkutatuta. Aldameneko eserlekuan doan gizonak tarteka begiz jotzen ditu, agian Xabik berak sentitzen duen inbidiarekin. Nahikoa pinpirinak dira bi gazteak eta euskaraz ari dira, neskak inoiz geltoki batean ahaztuta utzitako motxila bati buruz. Eskua ahoan jarrita ematen dizkio azalpenak mutilari, irriz: orduko tragedia txikia, gaurko txan-txa bilakatua, elkar apur bat maitekeroago besarkatze-ko aitzakia.

Trenaren ibili lotia sentitu nahi luke Xabik, etxera-ko bidea lozorroan ematearren, ahalik eta azkarren ailegatzeko. Ailegatzeko, azkenean.